

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



PELOPONESOKO  
GERRAREN HISTORIA I



TUZIDIDES

# Peloponesoko Gerraren Historia I



Jatorrizko izenburua:



Euskaratzailea: *Jesus Naberan*

Berrikuslea: *Lorea Arrieta Zubillaga*

Hitzaurregilea: *Juan J. Moralejo*

Lehen argitalpena: 2005eko martxoan

© Itzulpenarena: *Jesus Naberan*

© Klasikoak, 2000

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo

Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2004-V-12

ISBN: 84-96455-03-3 Obra osoarena

ISBN: 84-96455-04-1 Lehen liburuarena

Lege gordailua: BI.-921-05

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.

Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.

Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.

Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

# HITZAURREA

Mizenasko Zibilizazio garaiko Heladeak (XVII-XI mendeak)<sup>1</sup> eta Aro Iluna nahiz Arkaikoa deritzon garaikoak (XI-VI mendeak) ez dauka, ekialde hurbil nahiz ertaineko kulturak (egiptoar, hetitar, asiriar, iraniar, etab.) edota gune mediterraniarreko beste kultura batzuek bezala, beraien historia jasotzen duten artxibo diplomatiko, errege kronika, epigrafia monumental eta horrelakorik, ondorengoek, garai hura iragan bihurtzean, gogoratu (eta ospatu) ahal zezaten. Baina grekoz hitz egiten zuen kulturagune horrek bai dauka mitoen ahozko tradizio luze bezain ederra, literaturarekin edo gabe, mito horietariko asko, bere osotasunean edo zatiz, eta historikoak dira, hots, iragana ezagutu eta hortik orainaldirako nahi diren inferentzia guztiak egin ahal izateko dokumentu gisara sortu eta ulertutakoak.

Ezin bereizi mugarik mito historikoak deritzegunen –giza gertaeraren egiazko nahiz fikziozko egitateen– eta teogonia edota kosmogoniako mitoen artean; azken hauek jainkozkoen, gizakien eta naturaren sorrera, izate, nolakotasun, zio eta egintzak azaltzen dituzte, baina, jainkozkoek naturarekin eta beronen indarrekin duten lotura nabariatz gain, are nabariagoa da jainko munduaren eta giza munduaren bereizgaiztasuna, dela jainkozkoek giza jardueran duten esku hartze etengabeagatik, fisikoki edo pertsonalki ere parte hartuz, dela gizakien gene-

---

1 Data guztiak dira Kristo aurrekoak, Lincoln eta Sezesio Gerrarenak izan ezik, jakina.

alogia mitikoen zerrenda luzeek jatorri jainkotiarretan burutzen dituztelako giza leinuak.

Historiaren heldutasuna fruitu nahiko berantiarra dugu, ia Helade Klasikoa, grekoen esperientzia intelektualaren beste emaitza goiztiarra goen aldean. Horrela, Helade Arkaikoak Epika eta Lirikaren urrezko aroa eman zuen, eta, beraz, Mitoarena, zeren haiek baitira (eta geroago Drama) Mitoa azaltzen eta bultzatzen duten literatura generoak. Eta Mitoaren funtsa nahiz kondaira mitikoak sakonki kritikatu eta araztu gabe ezin da erne Helade klasikoko esperientzia intelektual osatzen duten *historíai* edo «*ikerketen*» artean gaur egun Historia zentzu propioan deitzen zaiona.

Greziako poema epikoak, indoeuoparren «hastapenekoa» izan daitekeen ahozko tradizioetik eratorriak, *aoidós* baten, «*aedo*» edo kantore baten (eta geroago *rhapsodós* baten, hots, «rapsodo» edo bertsolari baten kantuak dira, zeina ezin baita izan berak berenez ez dakien edo ezagutzen ez duenaren autore, Musa(k) direlako, eta bera eleduna besterik ez, Akilesen haserreaz (Iliada) eta Ulisesen ibilaldi eta amarruez (Odisea) dakitenak, eta Musak, halaber, Hesiodori bere kantua irakasten diotenak *Teogonian*, eta, garrantzitsuena, gezurra nahiz egia aukerari esaten jakiteaz harro agertzen direnak. Poeta, beraz, bereziki gezurtia denez, ez dagokio jendearen interesari Historia poetikoa.

Epika, batik bat homerikoa, jakintza entziklopedia izan zen Helade Arkaikoan, eta gainera historia jitedun jakintzaren protagonismoarekin, zeren kantu epikoaren helburu garrantzitsuenetako bat «gizonezkoen egintza ospetsuei», *kléa andrôn*, «ospe ahaztezina», *kléos áphthiton*, ematea baita. Testu epikoaren eta baita kondaira mitikoaren histori ikuspegi honek, literaturaz hornitua edo hornitu gabea, edozein mota-tako aldagaietara irekita uzten ditu datuak, une jakin bateko interes politiko edo materialen kariatzko manipulazioa barne; beraz, halako Historiaren partzialtasuna *pre*-historia da oraindik, eta hortxe adibideak: Homeroren testuari gerora erantsitako interpolazioak, eskualde, hiri, leinu eta bestek prestigioa har zezaten edota euren eskubideak nahiz errebindikazioak hartan oinarritu. Horrela, poeta lirikoak, Pindarok buru dela, mitoak manipulatzeko baimena du, haren bezeroari ospea eman diezaion edota jainkoa, heroia, hiria edo dena delakoarentzat desagokia edo desitxurosoa dena isil dezan; hortaz, merkatu sozial nahiz politikoaren interes eta abagune ezberdinen araberrako bertsio



panhelenikoak dira. Epika eta Mito grekoen berrikusketan ageri zaigu (eta horri orakuluen mundua gehitu beharko litzaioke) gure inguruko kultura tradizioaren hastapeneko «informazio bataila».

Homerok Atenas ia aipatu ere egin ez arren, Pisistrato tirano atenastarraren lan historiko-kulturala (VI. m.) ez zen mugatu bere obra eta hiriaren historia arrandiaz jasotzera, baizik eta, ekialdekoen erara (edota erromatarren erara ere: gogoratu Turkiaren gibelean, Ankaran, aurkitzen den *Monumentum Ancyrae*ko *Res gestae divi Augusti*), baizik Helade osora zabaldu zuen, testu homerikoen errezitaldi publikoak antolatuz eta, diotenez, testuon finkapena edo «edizioa» sustatuz, benetako Historia Artxibo panhelenikoa, berau.

Gaizki deitutako Arkaikoari Aro Klasikoak darraio, non heldutasun intelektual egiatan aipagarria finkatzen den, baina ez, arren, «mirari grekoaz» ezer; bai jite arrazionalista, kritiko eta enpirikoaren heldutasuna, jarrera ilustratua, antropozentrismora emana, etab. Faktore anitzek ahalbidetu zuen heldutasun hori. Hasteko, kolonizazioak eta merkataritzak, zeinek tokiko esparruak puskatu eta kanpoko harremanak eta eraginak ekarri zituzten, batik bat Egiptokoak eta Ekialdekoak; izan ere, hauen kulturguneak giza historia erregistratua ziren ordurako, heleniarren ikusirako denborak oraindik mitikoak ziren garaian. Gainera, erritmo eta emaitza oso desberdinekin hirien arabera eta Jonia betiere buru zela, berrikuntza sakonak gertatzen dira politika eta gizarte arloan. Berrikuntzok, *tiraniek* ekarri zuten aurreramenduaren bidez, demokrazia ahalbidetzeaz gain, ausardia eta baikortasun intelektual nahiz etikoa plazaratuko dute, indarrean zegoen guztia ezbaian jarritz; adibidez, Mitoaren eta Epikaren egiazkotasuna eta prestigioa –inoiz ez ziren liburu sakratu edota fedezko edo errebelaziozko gaiak izatera iritsi!–, giza, jainko eta izadi mailako errealitatearen dokumentu edo lehen azalpen gisara. Ahots kontserbadoreenetan ere kritika sakona ageri da teologia eta erlijioaren zenbait forma tradizionalak, batez ere dagoeneko primitibo eta desitxurosoegiak ageri diren mitoen bidez errealitatea azaltzeko formak, eta batez ere, gure gaiari dagokionean, mito «historikoak» negatiboki kritikatu edo besterik gabe baztertu egingo dira aurretantzean, haien fantasia gizakiaz gaindikoa edo barregarria, aberrazio etikoa, fikzio poetiko atsegin hutsa eta abar direla argudiatuz.

Pisistratok testu homerikoak hartu zuen ardura eskergarriaren parean, beste jarrera batzuk ere izan ziren, Platoni esleituriko idazki

batetik jasotako sententzia honek laburbil ditzakeenak: «aedoek gezurra barra-barra». Jarrera horien adibide gisara, Xenofanes Kolofonekoak *plásmata tôn protéron*, «iraganeko fikzioztat» dauzka Titanei, Diganteei, Zentauroei eta halakoei buruzko kontuak, eta Hekateo Miletokoa dugu bere iritzia edo esperientzia betiko mitoaren aurretik ez eze orde ez jartzen duen lehen prosalaria edo *logógráphoi*: «Gauzok neuri egiazko deritzedan moduan idazten ditut, zeren, nire aburuz, heleniarren kondairak anitzak bezain barregarriak –*geloîoi*– dira».

Eta honezkero, hortxe dugu heleniarren *synkrisis* edo «konparazio» jarduerarako zaletasunaz gozatzeko parada, baita konturatzeko Tuzidides zertan izan zen aurrelaria edo heldua garaikide zuen Herodoto Alikarnasokoaren aldean, zeini Zizeronek justizia osoz «Historiaren aita» deitu zion. Hortaz, halaxe ekingo diogu Tuzididesen obraren azterketari, beronen aurrerapausuak zertan dautzan nabarmenduz, Herodotorengan hauteman daitezkeen mito eta epikaren zenbait aztarnarekin alderatuz.

Azken honen obra bete-betean epikoa den aldarrikapen batekin hasten da, hots, heleniarren nahiz barbaroen «egintza handiak eta miresgarriak osperik gabe –*akleâ*– gera ez daitezzen», Akiles, Ulises eta Hektorrenak ere osperik gabe geratu ez ziren moduan..., eta haren bederatzi liburuen funtsezko edukia arazo gehigarri gisara aurkezten zaigu: heleniarrek eta barbaroek zer dela eta egin zituzten Gerra Mediarretan burutu ziren gerra haiek.

Tuzididesen ez dago, ordea, jarrera edo ukitu epikorik, ez dago jokoan ez asmoan ospe eta loriarik, baizik eta (I,1) Heladeko bi hiri antitetiko eta boteretsuenen arteko gerra bat, bakoitza bere aliatuekin; lehen unetik bertatik nabari da garrantzi handiko gerra dela, hondamendi eta kalamitateen garai batean gertatzen dena, ezohiko eta betiere negatibotzat (I, 23) jotzen diren natura nahiz giza mailako gertaerekin batera.

Herodotok tradizio jakin baten barruan idazten du: bere *lógoi* edo «kontakizunak» jendaurrean irakurtzekoak dira, lehiaketa eta jaialdietan, Olinpian bertan adibidez. Egiazko edukia izan dezaten nahi da, edo behintzat badakigu gutxieneko zehaztasun batez ikertu eta kritikatu direla, jada ezagutza mailakotzat har ditzagun; baina badakigu, baita, histori edukiok entzule jakin batzuen atsegina ere bilatzen dutela, fantastikoa, ezohikoa, heroikoa... maite duen entzulearen atsegina zaintzen

dutela; horrela, fantastikoa eta ezohikoa ugari baino ugariagoak dira, urruneko kontuak, orduko ikuspegian gai unibertsalen neurria ematen duen denbora-espazioan, onartzeko alde zuretik jarrera zabalegia denean, eta datuen nahiz informazio iturrien onarpen kritikoa halaberrez mugatua. Aipatzekoa da, dena den, Herodoto irakurtzea atsegin handia dela etnografia, antropologia eta folklore aldetik, besteak beste, eta irakurleak gustora barkatuko diola eszitez, hiporboreoez, esziapodoez eta abarrez garai hartan ezagutzen zena iragazterakoan laxo samarra izatea. Barkaezina zatekeen Herodoto arrazionalista hiperkritikoa.

Tuzidides, berriz, *mythôdes* gehiegi antzermaten dien halako *historîe* aurrean –eta dagoeneko *mythôdes* horrek ez du esan nahi «mitikoa» soilik, baizik eta «fantastikoa», edozein maila edo neurritan, eta entzule jendeari atsegina ematea–, beraren obra hain atsegina ez izateaz konformatzen da (I, 22), baina bai nahi duela berak idatzitako horri «baliagarri», *ophélîma*, iritzi diezaiogun, gertatutakoaren kontra «argia», *saphês*, den neurrian, hala nola etorkizunean gerta daitekeenaren abisua, giza natura ezagututa gauza berdintsuak gerta daitezkeelakoan; halere, gure historialariak ez dauka, arrastorik ere, historia ziklikoaren, kausa-efektuen errepikatze mekanikoa eta ondorioz iragana etorkizunaren iragarle bihurtzea izan daitekeenaren ikuspegia, baizik honako konbentzimendu edo eskarmentu hau: giza natura berak denboran eta espazioan irauteak antzeko egoerak ekarriko dituelako, eta iragan egoeretan badela elementurik gerokoak aztertu ahal izateko. Honekin guztiarekin, Historia baliagarriaren, Zizeronek *magistra vitae* deitzen zion Historiaren hasikina daukagu. Geroxeago itzuliko gara gai honetara, giza ekintzaren *eikós* edo «gertagarritasunaz» (eiki tasunaz) hitz egitean.

Era horretara asmatu zuen Tuzididesek bere obra *ktêma es aiei*, «betiko lorpena» izango zelakoan, eta bere asmatze horrek topiko eza-gun bat berriskustera garamatza, hots, historia, betiere, garaileak idazten duelako; izan ere, idazki grekoetan Tuzidides (Atenas, V. mendea) eta Polibio Megapoliskoa (II. m) garaile barik garaituak izan ziren, baina haiek bizi izan zituzten egitateen kronikan eta azterketan erabateko protagonismoa eduki zuten dokumentuen egile gisara, guk geuk egitate haietaz izan dezakegun ikuspegia erabat determinatu duten dokumentu bihurtzeraino. Polibio erbestera egotzia edo Erroman bahi hartua izan zen, erromatarrek Pidnan garaile irten ondoren (146. urtea,

Mazedoniako Hirugarren Gerraren amaiera); eta Tuzidides, gainera, bi zentzutan garaitua dugu: argiro demokrazia zale atenastarra zen eta, beraz, 404ko gerraren galtzaile, eta gerra hura Atenas eta Espartaren artekoa izateaz gain, Atenasen eta beste hiri batzuen arteko gerra zibila ere izan zen, demokraziaren aurrez joera oligarkikoa zuten hiriak gailendu zirelarik; baina Tuzidides askoz lehenago izan zen galtzaile, estratego edo jeneral kargua zuela, Brasidas espartarrak (cf. IV, 104 eta hh., V, 26) setiatuta zeukan Anfipolis hiriri sorostera 424ko negu hartan berandu heltzearen erbestera zutenean, eta orduan, berak dioskun bezala, bi borroka bandoez gehiago eta hobeto ezagutzeko parada eta lasaitasuna izan zuen.

Tuzididesek eta Polibiok ez zuten idatzi iragandako historia, baizik presentearen kronista izan ziren, gure gaur egungo ibilbidean inpaktu handiena izan duten Kultura Klasikoko bi esperientzia politiko-sozialen analista sakonak, hots, Atenas hoberenaren demokrazia eta Erroma errepublikanoaren konstituzioa, mende bat geroago Augustoren obran burutuko dena.

Tuzidides eta bere obra «betiko lorpena» direla adierazteko aski litzateke atenastar demokraziaren izateari eta jarduerari buruzko testuen aurkia eta alderantzia hautematea, hots, hiritarra eta haren eskubide-askatasunak errespetatu, baina aliatu eta menperatuekin inperialista eta erasokorra den demokrazia hari buruzko testuoi erreparatzea. Ifrentzua, lehenik, Tuzididesen V, 84-116 paragrafoetan aurkitzen dugu, 416ko udan Melos (gaurko Milo) uhartea okupatu duen armada atenastarraren eledunak eta neutralak izatea besterik eskatzen ez duten melostarren enbaxadoreek duten elkarriketan. Azkenean melostarrak masakratu egiten dituzte, eta hor bukatzen da indartsuaren elkarriketa guztia, aurrean arrazoiz beteta, baina ez ihesbide ez erreakzio ahalmenik gabe dagoen ahularekiko harro, eta zenbat eta gorrotatuago hainbat ahaltsuago sentitzen den indartsuaren elkarriketa.

Aurkia, berriz, Atenas hoberenaren politeía edo «konstituzioaren» azalpena da; Perikles eta beronen *epitáphios lógos* (II, 35-46), gerraren lehen urtean eroritakoen omenez egindako diskurtsoa, non, betiere Esparta dagoelarik atzean, aurkaritzaren alde negatibo gisara, Periklesek teoriaren eta praktikaren ildoak marratzen dituen, biak heretsiki lotuak Atenasko demokrazian, zeina Tuzididesek, tragedi poeta Euripidesen omenezko epitafioan, *Heladearen Helade* definitu zuen,

hots, balio etiko eta intelektualen esperientzia multzo txit nabarmenaren eredu, nahiz eta oraindik esklabismoa, emakumearen egoera kaskarra eta halako akats larriekin.

*Epitáphios lógos* honetatik denbora gutxira, Atenasen izurritea gertatu zen (II, 47-54), Perikles bera izan zen lehen biktimetariko bat eta Atenas orduantxe hasi zen gerra galtzen, zuzendaritza politiko eta militarrek Periklesek ekidin nahi izan zuen ildotik gero eta errakuntza eta zentzugabekeria gehiago egitean. Eroritakoen aldeko Periklesen diskurtsoa, izan ere, benetako maisu-lana da formak edukia goraltzeari dagokionean, eta horregatik hainbat bider eta unetan imitatu eta glosatua izana, kasu gogoengarrietariko bat Abraham Lincolnen diskurtsoa delarik (1863.XI.19), Ipar Amerikako Sezesio Gerrako Gettysburg-eko batailan (1863.VII.1-3) eroritakoen omenez.

Zinez gogoangarria da Tuzididesen laudoriozko analisisa Perikles eta beronen gaitasunez demokrazia ireki bat bultzatzeko (II, 65) eta *demagogs* nahiz *demagogía* kontzeptuak esperientzia negatibo bihurtu zituztenen errakuntza eta miseriez, are gehiago gogoan hartu ezkerogure autorearen gizarte eta famili inguruneari –Fileotarren leinukoa eta, antza denez, Maratoneko garailea dugun Miltiades beraren biloba– bes-telako jarrera aristokrazia zaleago bat zegokiokela, behintzat erreparohandiagokoa Periklesen eta honen politika demokratikoaren aurrean. Eta ez da gutxiago gogoangarri zelako sarkasmoa darabilen, xehetasun guztiekin, gomuta txarrena utzi digun demagogo horietariko bati buruz, Kleon, zeinek uste gabeko eta inpaktu handiko «arrakasta baten ondorioz bere burua azkartzat jo zuen» (V, 7) eta harropuzkeria hori berehala ordaindu bizitzarekin eta bere hiriarentzako derrota larri batekin.

Azken batean, Tuzidides birritan garaituak Atenas garaitua bihurtzen du garaile –Atenas, gaur egun onargarri den heleniar ondare *politiko* bakarraren protagonista–, Esparta garailearen aurrean, azken honen baloreen eredu oligarkikoa, militarista eta abar, aldioro eta uneoro azalduko den arren dorpe eta ekidinezin, ez baita inoiz agurtuko greziar humanismoaren ondare ontzat.

Hona hemen Tuzididesek historialari garaikide eta aurretikoez –eta berriro ere Herodoto dugu nahitaezko erreferentzia– izan zuen aurrerakuntzaren funtsezko puntua: giza jarduera bere kausa eta zioetan behatzen duela. Herodotok oraindik, Epikarekin eta Lirika nahiz Dramaren zati handi batekin batera, giza jarreraren eta horren ondorio-

en ikuspegi aurrearrazionala, erlijiosoa eta morakeriaz betea azaltzen du, batez ere goi mailako banakoen ekintza arloan. Jite argiro epiko honi nota tragikoa eransten zaio: dela greziarren nahiz barbaroen ekintza aske eta borondatezkoak handinahia edo neurrigabekeriaren arriskua darama itsatsita, jainkozkoek nahi duten ordena hautsiko duen asmo gehiegizkoa, horrek, arau-hauslearen zigorra eta hondamendiarekin batera, jarduera askearen porrota dakarrelarik; dibinitatea, gainera, gizakien zoriona eta arrakastarekiko *jeloskor* edo *bekaihti* da, zorte hura inoiz ezin delarik egonkor edo iraunkor izan. Hauxe da historia jardunaren aukeren arrazoi funtseko edo orokorra, esandakoak ez duelarik kentzen, jakina, egoera bakoitzean hautematen diren beste kausa eta zirkunstantzia askoren ikuspegi arrazionala, dagoeneko.

Graziako Ilustrazioa deritzogunak aurreko pentsaera erlijioso eta moralen berrikuspen kritiko eta arrazionalista burutu zuen V. mendean, eta hor eginkizun garrantzitsua bete zuen Tuzididesek. Ezaguna denez, egoera berri hau argien islatzen duen esaera Platonen *Teeteto* 152a eta *Krátilo* 385e testuetan eta Sexto Empirico-ren *Matematikarien kontra* VII, 60 pasartean Protagoras Abderakoari esleitzen zaion hauxe da: «gizakia da gauza guztien neurria»; eta halaxe da Tuzididesen *Historian* ere, gizakia da, banakoa nahiz gizataldea, gertaeren egile bakarra, erantzule bakarra, onerako eta txarrerako. Tuzididesentzat, gorago aipatu bezala, etorkizunerako irakurketa baliagarria izan daiteke oraina (I, 22), giza izaera eta portaeraren halako iraunkortasun edo konstante bat ematen delako, halako moldez, non konstante horren behaketatik jarduera ildo «eikigarriak» atera ditzakegun –*to eikós* eta honen plurala *tà eikóta* (daitekeena, eikikoa), hala nola *eikázein* aditza (aierua izan), eta beste zenbait hitz, berba-gakoak dira Tuzididesen obran, «mots-clé»-. Hartara, «eikiaren» ildoetan, baikortasuna baino errealismoa da nagusi giza naturari eta beronen gaitasun eta zioei dagokienez (cf. III, 82-84, geroxeago aipatuko duguna). Horixe da, zalantzarik gabe, gure autoreak Sofistikari zor dion ekarpen argienetako bat, Sofistikak, bere aldetik, Erretorikarekin zerikusia duelarik: hots, lehenengoak giza egintzaz eta eragingarriez egiten duen azterketak bigarrenaren xedearekin –epaitegietan auzia jarri edo auzitara eramán dezaketén hiritarrari argudioak eta arrazoibideak emate– zerikusi handia du, itxura guztien arabera.

Gizakiaren portaera horretan, haren eragingarri eta zioetan, eta gertatzen zaizkion gauza guztietan, Tuzididesentzat soberan daude, eta

kontraesana eta nahastea besterik ez dute eragiten, jainkoak, orakuluak, ezohiko fenomeno naturalak, etab. Atenas suntsitu zuen izurritearen aurrean (II, 47) ez zuten balio izan –dio berak– ez erreguteek ez igarlek; orakuluei dagokienez, aipagarria da zelako aihergaz, dudarik gabe ironikoz, informatzen digun (I, 118) espartarrak, gerran sartzeko erabakia hartuta jadanik, Delfosko aholkua eskatzera joan zirela eta honek igartze ziurreko erantzuna eman zietela –*euren indar guztiekin borrokatzen zutenek lortuko zutela garaipena*–, oso erantzun zuhurra, Delfoskoak orduan espartarren alde –ezen ez atenastarren alde– zeukan zaletasuna zintzilik uzten duena, badaezpadan ere, aspaldiko egia hura botatuz; baina V, 26 pasartean pixka bat harrituta uzten gaitu, gerra «*hiru bider bederatzi urte*» iraungo zuela zioten orakuluak «*etorri zirela bat*» errealtatearekin (*grosso modo*, Arkidamoren Gerra, 431-421 / Niziasen Bakea eta Siziliara espedizioa, 421-413 / eta Dezelia eta Joniako Gerra, 414-404); bestela, ikus II, 54 pasartean orakulu atenastar nahiz espartarrei egiten dien kritika, orakuluon testua eta egitasuna gertatutakoari doitzea besterik ez dela eta, *prophetiae ex eventu* deritzana; eta, batez ere, ikus VIII, 1ean zein hostasunez edo aihergaz informatzen digun Sizilian izandako hondamendi oso larriak atenastarrak sumindu egin zituela kanpaina hura aholkatu zuten politikoen kontra, baita *Sizilia konkistatzeko esperantzak eman zizkien orakulu, iraigarle eta bidente guztien kontra ere*.

Gorago aipaturiko meliarren eta atenastarren eztabaida (X, 84-116) gogoratu nahi dut orain, hortxe aipatzen baita, Peloponesoko Gerraren istilu larrien artean, borrokan diren bando bataren edo bestearen alde edo kontra jainkozkoek parte hartu ahal izanaren posibilitatea. Atenastarrek azaltzen dutenez, itxaropen ziurren porrotak gauza ziurgabeetara jotzea dakar, *adibinazioa, orakuluak...*, eta meliarrek erantzuten diete beraiek ez dutela uste jainkozkoek *zori* okerragoan utziko dituztenik, jende injustuari aurre egiten dion jende ona direlako, etab. Atenastarren erantzuna ezin gordinagoa da: ez dira jainkozkoek leku txarragoan utziko dituzten beldur, jainkozkoen euren artean ere gizakien arteko «halabehar natural» berak agintzen duelakoan baitaude, hots, mendean dagoenaren gain agintzea. Eta hemen ohartu beharra dago Tuzidides ez datorrela bat inondik ere banako nahiz kolektiboaren giza harremanetan naturaltzat indartsuagoren legea hartzen duten sofis- tekin, baizik eta gure gizona, puntu horretan eta politikako nahiz gerra-

ko gertaeren beste puntu problematiko batzuetan, gertatzen denaren akta jasotzera mugatzen da; geroxeago aipatuko dugu zelako disgustua eragiten dion anabasa moralak, eta argi uzten du, gainera, etikoki neurriz kanpoko ekintza zale diren politikoei dien antipatia.

Tuzididesen diskurtsoak eta eztabaidak haren obran duten xedea –gertaeren zioak aurkeztea– gogoan izanik, ez dugu zalantzan jartzen haren egitasuna meliarren eta atenastarren benetako eztabaidaren ildo nagusiei dagokienean, eta uste dut, gainera, pasarte hau eredugarria dela gure gizonak, Sofistikaren zenbait korronterekin lerrokatuta, ekintza politikoa eta beronen jarraipena (gerra) nola ulertzen duen eza-gutzeko: bertuteen eta jarrera bertutetsuen katalogo tradizionala ez da eraginkorra, haren ustez, bizi iraupena, segurtasuna, komenientzia, boterea, aberastasuna eta abar xedetzat hartuz gero, giza natura edo *ph\_sis* delakoaren arabera, entelegua, kalkulua, moderazioa, aurreikuspena eta halako gaitasun arrazionalen jarduerarekin, ezta ere, jakina, indarraren erabilpenarekin; baina batzuetan indar irrazionalen (eta beraz, arriskutsuen) bulkadaz ere bilatu ohi dira xedeok, adibidez, buru arinkeria, harropuzkeria, irritsa, ausarkeria edo askogura tarteko direla eta, gainera, betiere auresaterik edo kontrolatzerik ez dagoen fortuna edo zoria tartekatzen delarik. Ekintzaren lehen planoan, azken batean premia edo interes ekonomikoak dituzten kolektiboak ditugu, baina erabakigarria izan ohi da, kolektibo horien barnean, banako buruzagien ekintza politikoa, goian aipatutako gaitasunekin eta bulkadekin. Tuzididesek zuzenean bizi izan zuen Atenasen azken derrota, eta hark sentitu zuenaren oihartzuna, berriz, Periklesen azken diskurtsoan (II, 60-65) ageri dela dirudi, baita hartaz egiten duen laudorioan, bere hiriaren porrota ezinezko egingo zuen gizona –dio–, izurriteak eraman ez balu, zeren Espartak ez baitzeukakeen zereginik halako buruzagiaren politikarekin, segurtasuna eta moderazioa aurretik jartzen zuenaren politikarekin.

Dena dela, berriro diot lehengoa: irizpide moral edo erlijioso tradizionalik gabeko Historia politiko eta beliko horrek ez duela esan nahi, inondik ere, Tuzidides moralgabetasunaren aldekoa zela. Haren biografoak, Martzelinok, jasotzen duenez, gure historialaria Anaxagoras Klazomenasko filosofoaren entzule izan zen eta hortik *eréma áthe-os*, «sinesgabe moderatua» zelakoaren fama. Sinesgabetasun hori ez da, inolaz ere, indiferentismo moralak, argi ageri denez Atenasko izurriaren



ondoriozko «edozer da zilegi» hark eragin zion disgustuan eta geitzes-penean, «ez jainkoen beldurra ez gizonen legeak» galga ez zirela (II, 52-53)

Hunkigarria da haren kontaera eta gogoeta (III, 82-84), non Esparta oligarkikoaren eta Atenas demokratikoaren arteko gerra hura, beste hiri askotan ere, oligarken eta demokraten arteko gerra zibil ere bilakatu zela kontatzen digun, eta gerra zibil hura are txarragoa izan zela izugarrikeria eta krudeltasunean, guda nagusia *bíaios didáskalos*, irakasle bortitz zuelarik; eta horrela, berez giza naturan egon arren, bake eta ongizate egoeran apalduta edo lo aurkitzen diren izugarrikeria eta krudeltasuna nagusitu zela. Eta orain ez dut apurtu nahi Tuzididesen testu antologikoa, zeinetan hitzen euren alderantzketara edo perbertsioa azaltzen digun, «*bururik gabeko ausarkeria*», esaterako, «*alder-diari atxikitzearen balentria*» izatera pasatuz, eta iraina ez jasatea baino mendeku hartzea nahiago izatearen izugarrikeria gertatuz.

Sineste tradizionalaren kritika egitean Tuzididesen hartzen duen distantzia edo objetibotasunaz, VII, 50 pasartean irakurgai dugun gertaera erabakigarri batek adierazten digu, atenastarrek Sizilian izan zuten porrot hartan: soldadu gehienek eta Nizias jeneralak ilargi eklipse bat seinale txartzat hartzearen, premia-premiazko zen erretreta atzeratu egin zuten. Urteak ziren Arkiloko poeta joniarrak esan zuela, Zeus-ek eguzkia itzali eta eguna gau bihurtu izanagatik, edozer gauza espero zitekeela; baina joniarrak ziren, baita ere, Tales eta beste batzuk, eklipseak fenomeno natural gisara ulertu eta aurreikusten jakin zutenak, eta horien ikerketak eragina izan zuen jende batzuengan, zeinen artean Niziasek egon beharko zukeen; halere, Tuzididesek aurpegiratzten dio «*larregi*» emana izatea igarpenetara eta halakoetara, baina aurrerago (VII, 86) zera dio Nizias buruz, garai hartako greziarren artean zorigaitz hura gutxien merezi zuen gizona zela, *areté* edo «bertute» tradizionalaren arabera portaera izan zuelako beti.

Tuzididesek Historiografia grekoaren garapenari ekarri ziona ulertzeko beste puntu funtsezko bat zera da: bere hiriaren presentea jasotzen eta ulertzen saiatu zela, berak ere protagonismo garrantzitsua izan zuen gertaerak historiatzen dituela; ostera, hala haren aurrekoek nola garaikideek –Epikaren ildoak, Hekateoren *Genealogiak* edo *Historia*, Herodotoren *Historia*, etab.– iragana iragan bezala jaso zuten, nahiz eta horrek presentean izango zuen proiektzioa albo batera utzi

gabe –autoreak, entzulegoa edo gauza biak batera–, eta Herodotoren kasuan, gainera, heleniarren eremura mugatu beharrean, xede «unibertsaleko» historia planteatu zen, heleniarrekin borroketan sartu ziren herri barbaroen kopuru haziagatik.

Herodotok, egia bilatzen duen gizonak, digresio luze, oso atsegin eta txit baliotsuak egiten ditu bere kontakizunean sartzen diren herri heleniar nahiz barbaroei buruz informatuz –nortzuk diren, non eta nola bizi diren, etab.–, hau da, gaur egun oraindik *Geografia eta Historia* irakasgai akademikoa osatzen duenaren oinarriak jarri zituen. Haren informazioa zinez ederra eta interesgarria da arlo askotan, ematen duen berri asko egiazkoak dira, baina ugaria da, halaber, alde fantastikoa, kritika gutxiarekin edo batere gabe jasoa; eta ez diogu aurpegiratzen Herodotori hori egin izatea, antropologo, etnologo, mitografo eta abarren zinezko paradisia delako.

Herodotok barne hartu behar duen barreiaketa «unibertsal» honen aldean, leku jakin bateko presentean kokatzeak errezasun eta hobekuntza oso nabariak ahalbidetu zizkion Tuzididesen jite arrazionalista eta kritikoa egiazko datuak hautatzean zehatz-mehatzasunaren ildoan: I, 20-22 paragrafoek aski argi nabarmentzen dute iraganeko gertaerak onartzerakoan izan ohi den utzikeria edo erosotasuna, baita, gorago aipatu bezala, poetek eta *logografoek* erabiltzen dituzten fantasia eta fikzio osagaiak euren kontakizunak apaintzeko eta entzulegoa kontentatzeko; gure historialariak horretatik guztitik aske dagoela diosku berak jaso ahal izan dituen *teknéria* edo «zantzuen» bildumari dagokionez, ez delako mugatu eskueran izan duen lehen informatzailearena jasotzera, baizik eta informazio iturrietakoa nahiz informatzaileen sinpatia-antipatia iragazi duela eta, noski, bere esperientzia pertsonalari lehentasuna eman.

Tuzididesek kontatzen digunak duen zehatzasunaren eta egiatasunaren puntu garrantzitsu bat obra osoan zehar, V eta VIII. liburuetan izan ezik, ugari aurkitzen diren diskurtsoetan dago, eztabaidan ari diren politikoen diskurtsoetan eta estrategoen harengetan. Horien artean ospetsuak dira, merezimendu osoz, Arkidamo errege lazedemondararren diskurtsoa, *gizon azkarra eta zentzudunaren ospea zeukana*, Atenas boteretsuaren aurrean zuhurtasuna eskatuz, baina arrakastarik gabe (I, 80); eta Periklesena, *berban nahiz ekintzan trebeena*, behin eta berriro esanez itsasoan eta hirian zetzala, eta ez lehorreko guduan, Atenasen

boterea, eta, erabat profetikoki, *etsaien planei baino norbere errakun - tzei beldur handiagoa* dielarik; berriro ere, II, 60-64 pasartean, bere politika azaltzen ageri zaigu, jadanik II, 35-46 pasarteko diskurtsoan definitu zuen demokrazia atenastarraren toeria eta praktika. Beste diskurtso aipagarri asko dira, baina Mitilene eta bertako jendeari buruzko debatea agertzen denera mugatuko naiz. Jende horiek, Atenasi bizkar ematearren, menpean hartu eta heriotzera kondenatuak izan ziren; III, 37 eta hurrengoetan, Kleonek, *herritarren artean bortitzena eta limur - tzeiko gaitasun handiena* zuenak, mitilinetarrak hiltzea proposatzen du behin eta berriz, zeren, beste argudio gordin batzuen artean, *hiru gauza baitira inperioari gutxien komeni zaizkionak: errukia, diskurtsoetan atsegin hartzea eta moderazioa...* Diodotoren erantzunean (III, 42 eta hh.), *diskurtsoetan atsegin hartzea* eta debatea berrirekitzearen kontra Kleonek egiten dituen beste eraso batzuei zera ihardesten zaie: *hitzak ekintzaren irakasle izatearen aurka dagoena, edo ergela dela edo inte - res pertsonalen bat duela...*

Hona hemen, oso esplizituki, Sofistikak zer ekarpen egiten duen, funtsean, Greziako Ilustrazioan: aedoak, orakuluak edota aristokrazia eta oligarkietan errege epaileak eta halakoek zeukaten hitz autorizatu edo eztaba daezinezko monopolioaren aurrean, *rhétoriké tékhne* bat sortu du, hitz konbentzigarria irakasten duen Erretorika bat, hitzaren bidez konbentzitzea, eta bitarteko hori edozeinen eskueran jartzen du eztabaida politikoa nahiz intelektualean edozein proposamenaren alde edo kontra egiteko, dela Atenasen edo beste edozein eremu demokratikotan.

Hitza eta honen ahalmena, eztabaida eta konbentzitze saioa, diskurtsoak, Tuzididesengan, gertaeren jarraiera eta logika azaltzeko eta aztertzeko arma sofistikatua ditugu; Tragedian, zilegi bekit baiespen honen ausardia, ekintza *ekitaldien* aurrez aurre gogoeta *koroak* ziren antzekoak. Diskurtso horiek esan egin ziren nonbait, ez dago arrazoirik Tuzididesek asmatuak direla esateko, eta, beraz, haren osterantzeko informazioak duen zehaztasun, egitasun eta sakontasunaren inbentarioa ditugu, badakigun arren, baita, Tuzididesen eskua erabakigarria izan dela diskurtsoen estiloan, euron egokiera formal guztiz landuan eta baita hedaduran ere: I, 22an diosku ezinezkoa zela haien hitzez hitzeko transkripzioa egitea, ez berak zuzenki entzundakoena, ez beste batzuegandik jasotakoena, baina ahalegin guztia egin duela une bako-

tzean esan behar izan zenari doitzeko, eta esan zenaren zentzu orokorretik ahalik hurbilen mantentzen saiatu dela.

Bere aurrekoek nahiz garaikideek kronologiari buruz izan zituzten akatsak ere kritikatzten ditu (ikus I, 97.2), berak arlo horretan oso zehatza izan nahi duelarik beti, hala da ezen, hobekuntza hauengatik eta beste batzuegatik, Tuzididesek ez zuen gehiegikeriarik esan bere obra «*betiko lorpen*» gisara kalifikatzean.

Jakina, historialariak ezin ditu ekidin errakuntzak edo akatsak xehetasun txikietan, eta haren objektibotasuna ez da mekanikoa, giza-kiaz gaindikoa; ez da, bestalde, bere iritzia argi eta garbi –eta maiz– adieraztea galarazten dion inpartzialtasun horietarikoa, batez ere giza-banakoei buruz duen iritzia (Perikles, Kleon, Nizias, Brasidas, Alzibidas...), baina aburu horietan ez da partziala, baizik arrazoi dauka, berterik gabe. Inork ez dio eztabaidatuko bere erkideek zigortzat ezarri zioten erbestealdiak, partzialtasunean erortzea eragin baino, bi bandoe-tan gertatzen zena *lasaitasunarekin hobeto hautematea* ahalbidetu ziola benetan (V, 26).

Tuzididesek digresio gutxi eta eurak laburrak egiten ditu, horrek arazoetatik eta kritika arriskuetatik aldentzen duelarik, eta haren obran *mythodes* edota osagai «*fantastikoa*» hutsaren parekoa izan dadin laguntzen. Irakurtzea besterik ez dago, VI. Liburuaren hasieran, Siziliaren aurkezpena: uharte horren historia jada helenikoa birpasatzen du, gehiago edo gutxiago ziurra haren erregistroan, eta aurreko historiara-ko, barbaroen aldirako, «*poeten esku eta bakoitzaren gustoaren arabera*» uzten du, hasteko, ziklopeei eta lestrigoiei dagokiena, eta ondoren testu labur bat eransten du sikano, sikulo eta abarrei buruz, garai hartan errore komun zirenetatik libre ezin egon arren, nobedosoia dena, behintzat, tradizioak transmitituriko «*omen*» edo *légetai* batzuk onartzean, kondairon testuingurua kontuan hartuz *eikós* edo «*gertagarriak*» izate-agatik.

Digresioen alorrean, bi oso garrantzitsu daude, Tuzididesi bere gaian sakondu eta aurrekari historikoak emateko, eta guri haren diskurtso historikoa hobeto ezagutzeko balio digutenak. Honako hauek dira: *Archaeologia* deitutakoa, Arkeologia (I, 2-18), eta *Pentekontaetia* delakoa, Pentekontezia edo Berrogeita hamar urteko aldia (I, 89-118).

Tuzididesek gerra hasi bezain laster ekiten dio idazteari, oraingoa aurreko gerrak baino askoz aipagarriagoa izango dela uste duelako

(I, 1), Troiakoa eta Mediako Gerrak erreferentzia nagusi dituela. Orduan bere *Archaelogia* irekitzen du, Heladeren antzinako denboren errepasoa, halako ariketa abil bat eginez, non tradizio epikoa eta mitikoa ia eragozpenik gabe onartzea eta orduko Heladeren bazter eremuetan nahiz aldameneko barbaroenetan hautematen denarekin konbinatzea komeni zaion, zera inferitzeko: haien bizimolde ekonomikoki txi-roak eta gutxi garatuak sasoi bateko heleniar ororenak izan zirela, euren populazio murrizak, txirotasunak, ezegonkortasunak, batasun ezak, etab., eragotzi zielarik ekimen komun eta garrantzitsuak burutu ahal izatea. Aipatu *eikós* edo «gertagarria» espresuki edo inplizituki dago Tuzididesek bere ustez dakien horretan, baina gure gizonak, halere, historia homerikoen fikzioaz eta gehiegikeriaz behin baino gehiagotan ohartarazi arren, ez dauka eragozpenik *Untzien Katalogoa* (Iliada II) onartzeko, eta, Troiako Gerra garrantzitsu samartzat jo ondoren, oraingoa baino garrantzi txikiagokoa izan zela, zeren bere ustez Troiara joan ziren gudariak gutxi baitziren heleniarren enpresa komun bat izateko: esan dezagun, Horazioren errana moldatuz, «*quandoque bonus dormitat Tuzidides*» ere, zeren bere kalkuluen arabera Troiara joandakoen kopurua 140.000 baitzen, kanpamentu eta hornikuntzarako egiazko arazo handia, nonbait, hamar urte iraun zuen gerra hartan. Tuzididesek eragozpenok jasotzen dituen moduak ez du aske uzten berak kritikatzeko dituen, baina bere gaiari garrantzia emateko balio izan dioten, fikzio poetikoetan erortzetik.

Beste kontu bat da, ostera, *Pentekontezia*, persiarren behin betiko porrotetik abiatu (Mikala, 479) eta Peloponesoko Gerraren hasierara arte (431) iragandako (ia) berrogeita hamar urteen errepaso bikaina: Esparta bere baitan zelan zarratzen den, edozein aitzindaritzza albo batera uztera behartzen duten berne arazoekin, edozein presentzia aktibori uko egitera heltzeraino, *pólis* edo *estatu-hiri* independentearen eredia gaingiditzen zuten liga eta aliantzen estrategia berriaren aurrean, horien artean laster nabarmendu eta hazi zelarik, mehatxugarri, Atenas eta honen politika talasokratiko inperialista buru zuena. Horrela, I, 88 eta I, 118 pasarteetan ikus dezakegu lazedemondarrak prest daudela, bozketak eta guzti, gerran sartzeko, botere atenastarra gero eta handiagoa izango den mehatxua jada jasangaitza delako, eta Tuzididesek I, 23an argi utzi du mehatxu horixe zela *próphasis* edo «arrazoi», «aitzakia» egiazkoena, hitzez gutxien adierazia izan arren, nahiz eta unean uneko

beste *aitíai* edo «kausa» batzuk aipatzen ziren –konkretuki Epidamno eta Korziraren arteko istiluak zeritzenak– tregoak apurtuta mantentze-ko Kaliasko Bakeaz geroztik (446).

Tuzididesek Jonia eta Atenasko giro intelektual eta zientifikoa-ri zor dion doitasun eta zehaztasun horren barruan, haren lexikoaren aberastasuna ere ageri da hizkera arruntaz bestelako terminologia behar denean; ugariak dira Tuzididesen *hápax legómena* deituak, hots, behin bakarrik erabilitako berbak, erabilpen eremu oso mugatua dute-lako. Lexiko zehaztasun horren adibide aipagarrienak gure gizonak bizi zuen giro intelektuala gogorarazten digu, Hipokrates, medizina zientifikoa aitak bizi zuen bera; II, 47-54 pasarteaz ari naiz, Atenas hondatu zuen izurriaren deskribapen zehatz-mehatza, deskribapen xehea bezain sakona, gaixotasunaren sintomei eta prozesuari buruzko benetako historia klinikoa, hala nola haren kutsagarritasuna eta ondo-ritzko suntsipen moralarena. Kasu honetan ere, Tuzididesek, izurritik bizirik atera zenak, gerora egoera berean aurki daitezkeenentzat balia-garri izan nahi du.

Bere lexikoaren eta gramatikaren beste puntu batzuetan, Sofis-tikaren eragin handia nabari da, halako neurriz non, sofisten obra ia guztiz galduta, bera dela esan baitaiteke mugimendu intelektual hartatik kontserbatu den parterik handien eta hoberena. Utz dezagun aparte fonetika, gramatika eta lexikoari buruzkoa, hori aztertzeak testu orijinala aurrean izatea eta ulertzea eskatzen baitigu, eta pasa gaitezen hiz-kerari buruzko ohar pare bat egitera; hizkerak, izan ere, diskurtso inte-lektualaren aurretiko eragina esan nahi du, eta hizkuntza ñabardura horietan Tuzidides autore zaila dugu, prosa konplexua duena, ez soilik orijinalean irakurtzeko, baizik baita beste hizkuntza batzuetara zehazki eta errazki itzultzen saiatzeko.

Tuzididesek, horregatik, zaila eta ilunaren ospea du haren antzi-nako biografo eta ikertzaileen artean, iluntasunaren paradigma den Heraklito bera baino gehiago arean. Eskoletako praktikak apalagotzat dauka zailtasun hori eta irisgarritzat jotzen du «Tuzidides narratzailea», baina «Diskurtsoen Tuzidides», ordea, ikasleek (eta irakasleek) jasan behar duten terroreetariko bat izan da betidanik. Nire ikasleei ez die kontsolamendu handirik eman azalpen honek, hots, Tuzidides itzultze-ko zailtasunak Tuzididesek berak bere prosa sortzeko (eta behartzeko) izan zituen zailtasunak direla neurri handi batean. Tuzididesek konta-

tzen digunak batere interesik ez balu ere, beti egongo litzateke Literatura Grekoaren lehen lerroan, hark jarri zuen ahaleginagatik eta lorpenagatik gauzak kontatzeko moduan, prosa konplexu bat sortzeagatik pentsamendu konplexu baten zerbitzutan.

Horretarako aukera gehiago du, ekintzen azalpen hutsean baino, politiko, estratego eta halakoen diskurtsoetan, eta beste zenbait pasarte argumentuzko edo gogoetazkotan; hauetan bai agertzen dela Tuzididesen estiloaren ezaugarri nagusia, hots, eraiketa antitetikoz azaltzen den pentsamendua eta horretarako behar den hedadura luzeko sintaxia, zeinek *hipotaxis* edo mendeko esaldiak eskatzen dituen etengabe, zenbaitetan esaten ari zaigunaren hari logikoa edo printzipala ilun geratu edota anakolutoan gal daitekeelarik.

Hedadura luzeko eta konplexutasunezko esaldiei, gainera, Tuzididesek irakurlearen arreta mantentzeko hain gustuko duen *metabolé* edo «aldaeraren» estiloa eranstean bazaio, eta zenbaitetan *exallagé* edo hizkera arruntetik «aldentzea», eta horri guztiari haren lexiko espezializatu edo abstraktuaren eragozpenak eta abar gehitzen bazaizkio, prosa zaila izango dugu; zailtasun horren zati bat Tuzidides halako estiloaren hastapeneko saioretan, eta ez horren esperientzia finkatuan, ari izatetik dator; bereziki, haren zehaztasun lehiak parentesi gehiegi erabiltzera eramaten du beharrezko xehetasun guztiak azaltzeko, baina sintaxiaren eta diskurtsoaren hari nagusia etetearekin ordainduz.

Amaitzeko, *arazo tuzididearra* deritzonaren aipamen labur bat, hau da, *arazo homerikoarekin* alderatuz, Tuzidides obra osoaren egilea ote den ala geroko editoreen zuzenketak eta eranskinak jasan ote dituen, baita zergatik ote den bukatu gabeko obra, eta beronen ataletan desberdintasun nabariak dituen. Izatez, *arazo* hori antzinakoa da, eta batik bat planteatu zen VIII. Liburua Tuzididesena ezin zela izan ebaztean; anekdota gisara duen balioagatik, gure autorearen biografoa izandako Martzelinoren ihardespena dakart hona, VIII. Liburu hori Tuzididesen alabarena zela ziotenen kontra: *ez da izaera femeninoaren berez -koa halako bikaintasuna eta artea imitatzea; gainera, hark halako gaitasuna eduki balu ere, ez zen ahaleginduko inor ohartu gabe pasatzen, ezta soilik VIII. Liburua idatzi, baizik eta beste gauza asko egin zeza -keen bere izaera ezagutzera emateko.*

Tuzidides, Olororen semea, Halimunte demokoa, estrategoa izan zen 424ko urtean; kargu horretarako eskatzen zen gutxieneko

adina 30 urte zelarik, 454a baino lehenago jaio behar izan zuen. Esan bezala, erbusteratu egin zuten 424an eta horrela bi bandoak hobeto ezagutu ahal izan zituela diosku, baina ez diosku bere erbesteko hogeit hamar urtetan bere obra (edo horren zati bat) idaztera dedikatu zenik. Badirudi Atenas dagoeneko garaitura itzuli ahal izan zela eta IV. mendearen hasieran hil zela, beharbada naufragio batean. Berak dioenez, gerra hasi eta batera hasi zen idazten, eta ziur ezagutu zuela haren amaira, baina bere obra bat-batean etenda geratu zen 411ko udaldiko gertaeretan.

Gaur egun baztertu egiten da Tuzididesen obran beste esku batzuk sartu zirela hura zuzendu edo gehitzeko, nahiz eta hobetu ez; ezbaian dagoena idazketa datak dira. Berak dioskuna, obra 431n hasi zuela, gertaeren arabera idatzitako kapituluak eta liburuen idazketa barik, gertatzen ari zenari buruzko dokumentazioaren metaketa eta behin-behineko erregistroa jasotzea zela ulertu beharko da. Ez dago zeharo baztertuta hasiera bateko proposamena, hots, gure Tuzididesek 421ean, Niziasen Bakearen ostean, ekin ziola Arkidamoren Gerra (431-421) deritzanaren idazketari, I-V, 25 Liburuen tarteko obra, eta lehen idazketa hartara itzuli ahal izan zela, gertaeren ondorengo jarraiera eta azkenengo bukaeraren arabera, hura aldatzeko edo orrazteko. Esaterako, Periklesen azken diskurtsoaren ondoren (II, 60-64, 428ko urtea), haren izakerari eta politikari buruzko gogoeta bat barne sartzen da, eta gogoeta horrek 404ko azken derrota, Tuzididesek barne liskarrei egozten diena, ezagutzea suposatzen du. Ikuspegi horrekin jarrai zezakeen idazten V, 26 Liburuan zehar, goian aipaturiko bakea alferrikakoa zela eta guda istiluak berriro pizten zirela ikustean.

Halere, gaur egun hobeto ulertzen dela dirudi obra osoa edo gehien-gehiena 404 ondokoa dela emanda, Egospotamosko azken derrotaren ostekoa, alegia. Ikuspuntu honek Tuzidides lantsu baten aurrean jartzen gaitu, baina bere kontakizuna osatzeko ia denbora faltaz dabilena, eta hortik agian testuan nabaritzen ditugun desberdintasunak edo hutsuneak, autoreak, behin betiko idazketa batean konpondu behar zituzkeenak: adibidez, V eta VIII. Liburuetan ez dago diskurtsorik. Azkenez, 404 osteko idazketaren aukerak argumentu xehe asko ditu alde, baina baita zenbait argumentu garrantzitsu ere: adibidez, Pentekontezia ospetsua (I, 89-118) Helanikoren *Atthís* obraren ostekoa dela, azken hau 406 ostean argitaratua delarik.



Tuzididesen obrak jarraitzaileak izan zituen, eta horietarik garrantzitsua Xenofonte, berau ere atenastarra, zeinek Tuzididesek bere kontakizuna eteten duen puntuan irekitzen baititu bere *Helenikak*, txit adierazgarria den *metà taûta* —«horien jarraian»— esaerarekin; baina, historiok barne hartzen duten aldia interesgarria izan arren eta historia-lariaren azertu partzialak aipagarriak, nabaria izango da tonu galera. Izan ere, Tuzididesek jarritako maila ez zen batere erraza.

Juan J. MORALEJO  
Santiago Compostelako Unibertsitatea



# Bibliografia

OHARRA.– Bildumaren xedea kon-tuan izanda aurkez daitekeen izenbu-ru kopurua mugatua delarik, era murriztean eta subjektibotasun han-diz hautatzera behartzen nau Tuzidi-desen obraren edizio, iruzkin eta itzulpen pare bat, Historia eta Litera-turari buruzko eskuliburu pare bat, gure gizonaren eta beronek kontatzen dituen datuen testuingurua emateko, gehi ikuspuntu orokorreko zenbait obra, albo batera utziz espezializazio xede oro. Nik hautaturiko honetan agertzen den orientabide bibliografi-koaz gain, V. Ramon Palerm gomen-datzen dut, *Estudios sobre Tucídides: ensayo de un repertorio bibliográfico* (1973-1995), Antzinaroko Zientzia Departamendua, Zaragozako Uniber-tsitatea, 1996.

## 1.– EDIZIOAK

*Thucydidis Historiae*, 2 liburuki, C. Hude ed., Bibliotheca Teubneriana, Leipzig 1913 eta 1925; I eta II. Libu-ruek O. Luschnat-ek 1960an Bibliot-heca berean egindako edizioa dute. *Thucydidis Historiae*, 2 liburuki, ed. H. S. Jones eta J. E. Powell. Oxford Classical Texts, Oxford 1942, 2. ed.

*La Guerre du Péloponnèse. Thucydi - de*, 5 liburuki, J. de Romilly-ren edi-

zio, itzulpen eta oharrekin; III eta VIII. Liburuak R. Weil-en ardurape-an editatuak eta VI eta VII. Liburue-tan L. Bodin delarik J. de Romilly-rekin editore kide. Les Belles Let-tres, Paris 1958-1991.

*La guerra del Peloponneso. Tucídide*, L. Canfora eta laguntzaileen edizio, itzulpen eta oharrekin. Einaudi – Gallimard, Torino 1996.

## 2.– IRUZKINAK

CLASSEN, J. ETA STEUP, J., *Thukydi - des*, 8 liburuki, Berlin 1900-1922; 3. – 5. ed. R. Stark-en eranskin eta bibliografiarekin berrinprima-tua. Weidmann, Dublin 1966 eta 1967.

GOMME, A. W., *A Historical Com - mentary on Thucydides*, 5 liburuki. Clarendon Press, Oxford.– 1-3 libu-rukiak, 1956an; 4 eta 5 lb., A. Andre-wes eta K. J. Doveren lankidetzare-kin, 1970 eta 1981n.

HORNBLOWER, S., *A Commentary on Thucydides*, 2 liburuki. Clarendon Press, Oxford 1991 eta 1997.

## 3.– ITZULPENAK

*Tucídides. Historia de la Guerra del Peloponeso*. F. Romero Cruz-en

sarrera, itzulpena eta oharrekin. Cátedra, Madril 1988.

*Historia de la Guerra del Pelopone - so. Tucídides*, 4 liburuki J. J. Torres-en itzulpena eta oharrekin; J. Calongere-ren sarrerarekin. Gredos, Madril 1990-1992.

*Historia de la Guerra del Pelopone - so. Tucídides*. F. R. Adrados-en sarrera, itzulpena eta oharrekin. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril 2003.

#### 4.- LITERATURA ESKULIBURUA

ADRADOS, F. F., *Ilustración y Política en la Grecia Clásica*. Revista De Occidente, Madril 1966.

IMMERWAHR, H. R., «Tucídides», *Historia de la Literatura Clásica (Cambridge University)*, 481-497 orr.; *H. Literatura Griega*, P. E. Easterling eta B. M. W. Knox edd. Gaztelaniazko itzulpena: F. Zaragoza, Gredos, Madril 1990.

LÓPEZ FÉREZ, J. A., «Tucídides», J. A. López Férez edd., *Historia de la Literatura Griega*, 537-567 orr. Cátedra, Madril 1988, 2. ed.

LUCE, T. J., *The Greek Historians*. Routledge, London 1997.

MAZZARINO, S., *Il Pensiero storico classico*, 2 liburuki. Laterza, Erroma 1983.

MUSTI, D., *La Storiografia Greca: guida storica e critica*. Laterza, Erroma 1979.

SCHMID, W. eta STÄHLIN, O.: *Geschichte der griechischen Literatur* I, 5; 3-223 orr.; C.H. Beck, München 1948 (1964an berrinpr.).

#### 5.- HISTORIA ESKULIBURUA

BENGTSON, H., *Historia Universal Siglo XXI-ko 5. liburukiko El Mundo Mediterráneo en la Edad Antigua-ko I. Zatia: Griegos y Persas*.- Siglo XXI de España Editores, Madril 1972.

BENGTSON, H., *Historia de Grecia*, J. Calonge-k egindako 5. edizio alemanaren itzulpena. Gredos, Madril 1986.

BURY, J. B., COOK, S. A. eta ADCOCK, F. E., edd., *The Cambridge Ancient History. V, Athens, 478-401 B.C.* University Press, Cambridge 1986 (1927an berrinpr. edizioa).

MUSTI, D. *Storia Greca*. Laterza, Erroma - Bari, 1990, 2. ed.

POWELL, A., *Athens and Sparta. Constructing Greek Political and Social History from 478 B.C.* Routledge, London 1988.

#### 6.- THUZYDIDESI BURUZKO MONOGRAFIAK

ALSINA CLOTA, J., *Tucídides: historia, ética y política*. Rialp, Madril 1981.

CANFORA, L., *Tucidide: l'oligarca imperfetto*. Editori Riuniti, Erroma 1988.

CAWKWELL, G., *Thucydides and the Peloponnesian War*. Routledge, London 1997.

CONNOR, W. R., *Thucydides*. University Press, Princeton 1984.

CORNFORD, F. M., *Thucydides Myt - historicus*. Routledge & Kegan Paul, London 1965 (1907an berrinpr.).

GRUNDY, G. B., *Thucydides and the history of his age*, 2 liburuki. Basil Blackwell, Oxford 1948, 2. ed.

HORNBLOWER, S., *Thucydides*. Duckworth, London 1987.

LUSCHNAT, O., «Thukydides der Historiker», 1085-1354 zut., Supplement XII, 1970, eta 760-786 zut., Supplement XIV, 1974, *Paulys Realencyclopädie der classischen Altertumswissenschaft* (= *Pauly – Wissowa*). Alfred Drückermüller Verlag, Stuttgart.

PRITCHETT, W. K., *Thucydides' Pen - tekontaetia and other Essays*. J. C. Giebe, Amsterdam 1995.

PROCTOR, D., *The Experience of Thucydides*. Aris & Phillips Ltd, Warminster 1980.

ROMILLY, J. de, *Thucydide et l'imperialisme athénien. La pensée de l'historien et la genèse de l'oeuvre*. Les Belles Lettres, Paris 1947.

ROMILLY, J. de, *Histoire et raison chez Thucydide*. Les Belles Lettres, Paris 1967.

ROMILLY, J. de, *La construction de la vérité chez Thucydide*. Julliard, Paris 1990.

WESTLAKE, H. D., *Individuals in Thucydides*. Cambridge, Cambridge University Press, 1968.

WESTLAKE, H. D., *Studies in Thucydides and Greek History*. Classical Press, Bristol 1989

WOODHEAD, A. G., *Thucydides on the nature of power*. Cambridge (Ma.), Harvard University Press 1970.

## **7.- THUZYDIDESI BURUZKO IKERKETA BILDUMAK**

*Erodoto, Tucidade, Senofonte: lettura critiche*, L. Canfora ed. Mursia, Milano 1975.

*The Speeches in Thucydides: a collection of original studies with a bibliography*, Philip A. Stadter ed.. Chapel Hill, The University of North Carolina Press 1973.

*Thukydides*, H. Herter ed. *Wege der Forschung XCVIII*, Wissenschaftliche Buchgesellschaft, Darmstadt 1968.

*Thucydides' Theory of International Relations: a Lasting Possession*, L. S. Gustafson ed. Baton Rouge, Louisiana State University Press 2000.



# PELOPONESOKO GERRAREN HISTORIA I. LIBURUA

1.— Tuzidides Atenaskoak Peloponeso eta atenastarren arteko gerraren historia idatzi du; eta hasieratik bertatik ekin nion idazteari, gerra hura handia izango zelakoan eta aurreko guztiak baino garrantzitsuagoa, zeren alde biak zein baino zein indartsuago eta edozertarako prestatuago ikusten baintuen, baita gainerako heleniar herriak ere batarekin edo bestearekin lerrokatze jardueran, batzuk berehalaxe eta beste batzuk horretarako asmotan. Hura, izan ere, heleniarren artean inoiz gertaturiko mugida handiena izan zen, herri barbaroen zati bati eta, zelanbait esateko, munduko jende gehienari ukitu ziona. Ezinezkoa zen, egiatan, hurrenez hurreneko gauza garbirik jakitea garai horren lehentxeagoko gertaerez edota antzinagokoez, baina aztertzeraz iritsi naizen garai zaharrenetako datuetan antzeman dudanez, uste dut ez bata ez bestea ez zirela heldu euren loraldira gerrei eta halakoei esker. Horixe uste dut nik behintzat.

2.— Izan ere, argi ageri da orain Helade deritzanak ez zeukala antzina-ko populazio finkorik, baizik arestian sarri gertatzen zirela migrazioak eta herri bakoitzak aise uzten zuela bere lurraldea beste herri jendetsuago batek hartara behartzen zuenean. Zeren orduan merkataritzarik ez zegoenez eta jendeak ez zeukanez elkarrekin beldurrik gabe harremanetan jartzetik, ez lehorrez ez itsasoz, bakoitzak bere lurretan bizi-rauteko behar zuena besterik ez zuen ereiten eta ez zegoen ondasun





soberakinik, lursail handirik ere ez baitzuten lantzen, lehenago edo geroago inbaditzailereren batek eraso egin eta ondasunak lapurtuko zizkien beldurrez, batez ere oraindik harresirik gabeko lekuetan bizi zirelako. Hortaz, euren eguneroko premiak asetzeko adina beste edozein lekutan aurki zezaketela pentsatuz, maiz aldatzen zuten bizilekuz eta ez ziren iristen boteretsu izatera, ez euren hirien tamainari ez gainerako baliabideei zegokienez. Eta beti izaten ziren halako populazio aldaketak izan ohi zituzten lur emankorrenak, gaur egun Tesalia eta Beozia deitutakoak, Peloponesoren zati handiena –Arkadia izan ezik– eta gainerako Heladen lurralde emankorrenak direnez. Orduan, lurren eman-kortasun horren kariaz boteretsuago bilakatzen zirenak barne-istiluen-gatik hondatzen ziren eta, aldi berean, beste enda batzuen eraso izateko arrisku handiagoa pairatzen zuten. Atikak, oster, lur pobrea izatean, ez zuen barne-istilurik jasan antzina-antzinatik eta, horregatik, lurralde hori jende berak populatu zuen beti. Eta azaldu dudan hori egiaztatzeko ez da froga txikiena Heladeko beste lurraldeak, aipatu migrazioen kariaz, ez zirela Atika bezainbeste hazi; izan ere, Heladeko beste leku batzuetatik gerra edo erreboltak egotzitako jende ospetsu anitzek Atenasera jo zuen, bertan jendarte sustraitua aurkitu eta hiritar bihurtu zirelarik; hortik dator hiri hura gero eta populatuago bilakatzea antzinako denboretatik, eta Atika haiek denak hartzeko txikiegi bihurtzean, atenastarrek koloniak ere bidaltzea gero, Joniara.

**3.**– Antzinakoen ahultasuna honako honetan antzematen dut nik batez ere: Troiakoaren aurretik Heladek ez zuela antolatu elkarrekin inolako kanpainarik, dirudienez; are gehiago, uste dut izen hori bera ere ez zeukala oraindik lurralde osoa izendatzeko, aitzitik, Heleno, Deukalionen semearen garai aurretik izen hori ez zela existitu ere egiten, eta herri bakoitzak, denetatik garrantzitsuena zen Pelasgia herriak barne, lurraldeei beren izenak jartzen zizkietela; baina Heleno eta bere semea Ptiotiden indartsu bihurtu eta beste hiri batzuetatik laguntza deia egin zientean, gero eta herri gehiago hasi ziren Heleniar deitzen harreman horien kariaz, nahiz eta izen hori haien guztien artean nagusitzeko denbora asko beharko zen. Horren froga garbiena Homerok berak damai-gu; izan ere, hura Troiako gertaerak eurak baino askoz geroago bizi izan arren, inon ere ez die deitzen denei izen horrekin, ezta beste inori ere Ptiotideko Akilesen jarraitzaileei izan ezik –azken honexek baitziren, izatez, lehen Heleniarrak–, baizik eta danaoan, argostar eta akea-



rrak deitzen die bere poemetan. Eta *barbaroak* izena ere ez zuen erabili, Heleniarrak eurak ez zeudelako oraindik beste batzuei barbaroak deituz alderatzeko bezainbeste berezituak, horrexegatik dela uste dut nik behintzat. Dena dela, ez garai hartan Heleniar izena zutenak, ez gerorantz hizkuntzaz elkar ulertu ahala izen hori hurrenez hurren hartu zuten hiriak, ezta geroagoko ezein talde ez zen bildu elkarrekin kanpainaren bat egiteko Troiakoaren aurretik, ahulak zirelako eta elkarrekin harremanik ez zutelako; eta kanpaina horretarako bildu, itsaso zabalean nabigatzen ohitu zirenean soilik bildu ziren.

4.– Tradizioak ezagutzera eman digunetik, Minos izan zen lehenbizi flota bat eratu zuena. Orain Heleniar Itsasoa deritzan zati gehienaren jabe egin zen, Zikladeak ere mendeen hartu eta haietariko gehienak kolonizatu zituen, kariarrak handik egotzi eta bere seme-alabak haietan gobernari jarritz. Pirateria ere jazarri eta egotzi zuen itsasotik, noski, ahal zuen heinean, zergak aise eta azkarrago har zitzan.

5.– Itsas lapurretari dagokionez, garai haietan bai Heleniarrak baita itsas bazterra duten lurraldeetan bizi ziren barbaroek, hala nola uharteretan bizi zirenek, euren ontzietan batetik bestera sarriago nabigatzen ikasi zutenean, itsas lapurretari ekin zioten gizon bulartsuen gidaritzapean, dela bakoitzak bere irabazirako, dela gose zirenak elikatzeko; eta hiri harresitu gabeko auzuneetan sakabanatuta bizi zen jendeari oldarrean eraso eta arpilatze horretatik ateratzen zuten gehienbat bizimodua. Izan ere, jokabide hori ez zen orduan lotsagarritzat hartzen, aitzitik, halako ohore bat ere ematen zuen. Hain zuzen horixe bera ageri da gaur egun ere kontinenteko herri batzuen jardueran, negozio mota horretan arrakastatsu izatea ohoretzat baitute, eta antzinako poeten esanetan, halako abordatze ekintzak burutzen dituztenei ea piratak ote diren galdetzen zaien bakoitzean, zera ondorioztatzen da: ez haiek beren jarduera horretaz lotsatzen direla, ez horren berri dakitenek ere gaitzesten dutela. Kontinentean, esan bezala, herriek elkarri oldar egi-ten diote eta gaur egun oraindik Heladeko lurralde askotan lege zaharreko bizimodu horrek dirau, Ozoliako lokroen eta Etoliako nahiz Akarnaniako jendeen artean eta kontinentean oro har. Eta goi herritarrok armak aldean eramateko ohitura dute, garai bateko beren lapur bizitzaren oroitza dena.

6.– Horrela, euren bizitokiak babesik gabe zeudenez eta elkarren arteko komunikazioak seguruak ez zirenez, Heleniar guztiek erabiltzen



zituzten armak euren eguneroko bizitzan, barbaroak bezala. Heladeko zenbait lurraldetan oraindik ohitura hori izateak, beraz, garai batean horren antzeko bizimodua leku guztietan zela nagusi adierazten du.

Atenastarrak izan ziren hain zuzen armak aldean eramateko ohitura baztertu zuten lehenengoak eta, bizimodu lasaia goa lortzean, ohitura finagoetara jo zutenak. Ez da oraindik denbora askorik etxe oneko zaharrek beren lihozko tunikak erabiltzeari eta buruko ilea txirrita antzeko urrezko orratzaz mototsean bilduta eramateari utzi ziotela; eta, atenastarrekin senide loturengatik hedatuta, Joniako zaharren artean ere ohitura bera egon zen modan denbora luzez.

Ostera, espartarrak (lazedemondarrak) izan ziren egungo moda xumea goaren ohitura hartu zutenak, eta, gainerakoan ere, haien artean aberatsago zirenek jende gehienaren antzeko bizimodua egiten zuten. Haiek izan ziren, halaber, soinekoak kendu, jendaurrean biluzik jarri eta ariketa atletikoak egiteko gorputza olio z igurtzen hasi ziren lehenak; zeren lehenago, Joko Olinpikoetan eurretan ere, atletek gerripekoa jartzen baitzuten parteetan eta oraindik ez da denbora asko ohitura hori galdu zela. Horrela, gaur egun oraindik zenbait barbaroren artean, batez ere Asian, boxeo eta borroka jokoak egitean gerripekoa jantzita eramaten dute lehiakideek. Eta gauza askotan eman daiteke erakustera antzinako Heleniarrek gaur egungo barbaroenak bezalako ohitura anitz zeukatela.

7.— Hiriei dagokienez, oraintsuago sortu eta, nabigazioaren garapenari esker, aberastasun soberakinak zituzten hiriak itsasertzean bertan erai-ki ziren harresiz inguratuta; gainera, herri bakoitza istmo ezberdinak okupatuz joan zen merkataritzari begira eta auzokoen aurrean indartsu izatearen xedearekin. Lehenagoko herriak, ordea, hain hedatua zegoen itsas lapurretari ihesi, itsasotik urrutiago eraikiak zeuden —izan ere, elkarri lapurtzeaz gain, kostan bizi arren itsastar ez zen jendeari ere oldartzen zitzaion pirateria— eta oraindik ere hantxe dira, barru aldean eraikita, hala uharteetan nola kontinentean.

8.— Eta uharteetakoak, hots, karioak eta feniziarrak ez ziren gutxiago lapur; izan ere, horietan ziren uharte gehienak hartuta zeuzkatenak. Adibide bat: gerrate honetan atenastarrak Delos araztu zutenean eta uharteko hilobi guztietatik gorpuak atera zituztenean, erdiak baino gehiago karioak zirela agertu zen, gorpuokin batera lurperatutako arma motagatik eta oraindik gorpuak hilobiratzeko duten moduagatik jakin ahal denez.



Minosen ontzidia nagusitu zenean, uharteen arteko nabigazioa asko gehitu zen, zeren hari esker egotzi zuten gaizkile jendea uharteetatik, irlarik gehienak kolonizatu zituenean; kostaldeko jendea ere, diru meta-keta handiagoaren bidez aberastuta, seguruago bizitzen hasi zen, eta batzuk, gainera, harresiz inguratzen hasi ziren oraindik ere aberatsago izan guran; izan ere, diru goseak eraginda, ahulagoek boteretsuagoen mende jartzea jasaten zuten, bitartean boteretsuenek, beren aberastasun soberakinei esker, hiri ahulagoak euren menpeko egiten zituztela. Horrela, egoera hori finkatzea lortu zutenean denborarekin, Troiaren kontrako espedizioa egin zuten.

9.—Bestalde, Agamenonek bere flota biltzea lortu bazuen, ez zen izan hainbeste, nik uste, Tindareori zin egitearren Helenaren senargaien babesle izateagatik, baizik bere garaikoen artean boteretsuena zelako. Hortaz, peloponesoarren arabera, Pelope izan omen zen, etorkina izan arren, herriari izena ematea lortu zuena hasiera batean, Asiatik lurralde txiro batera ekarri zuen aberastasunari esker boteretsu bihurtzean; eta geroago oraindik botere gehiago metatu zen haren ondorengoengan Euristeok heriotza aurkitu zuenean Atikan, Herakliden eskutik, zeren hark, kanpainara irten zenean, Atreoren eskuetan utzi baitzuen Mizenas eta erreinua, Atreo hura senide zuelako —bere amaren neba—, nahiz eta Atreo bere aitak deserriratuta egon Krisiporen heriotzaren kariaz; Euristeo ez zenez itzuli kanpainatik, Mizenastarrek eta Euristeoren gobernupeko guztiek gurago izan zuten erreinua Atreoren eskutara pasatzea, batetik Herakliden beldur zirelako eta bestetik gizon hark gobernatzeko gai ematen zuelako eta herriaren alde ere agertu zelako, eta horrela pelopetarren dinastiari hasiera ematea per-tseotarren ordez.

Horrela, bada, Agamenonek espedizio hura egiteko jendea bildu ahal izatea, mesede egiteagatik baino beldurragatik gehiago, berak jaso zuen herentziari esker izan zela uste dut, eta itsas armadari dagokionez besteak baino indartsuago bihurtu zelako. Argi dago bera izan zela ontzi gehien eraman zuena eta arkadiarrei ere ontziak eman zizkiena, Homerok azaldu duenez, eta hau nahikoa frogatzat hartuz gero. Gainera, aginte-makila ematen dioten pasartean, zera dio Homerok: «Goberna ezazu anitz uhartetan eta Argos osoan». Hark, kontinentekoa izanik, ezingo zuen halako boteretik egikaritu uharteetan, aldamenekoetan





izan ezik –eta horiek ez ziren izango *anitz*–, ontzidia nahiko hazia eduki gabe. Espedizio horretatik atera dezakegu, aieru bidez, zelakoa zatekeen aurreko egoera.

**10.** Honela, Mizenas hirigune txiki bat besterik ez zelako, edota garai hartako herri jakin bat hutsaren hurrengoa zela iruditzen bazaigu ere gaur egun –zantzu okerrak erabiltzearen ondorioz nonbait–, ez litzateke egokia nire ustez hori ebidentzi froga behin betikotzat erabiltzea eta espedizio hari poetek ezagutu dioten eta oraindik bizirik dirauen tradizioak eman dion garrantzia kentzea. Zeren, lazedemonдарrek beren hiria utziko balute eta santutegiak eta eraikinen zimenduak besterik ez balira geratuko, uste dut jende gutxik sinestuko lukeela gerora, denbora askoren buruan, eman dioten ospea bezainbesteko indarra zukeenik. Halere, Peloponesoren bostetik bi okupatzen dute eta lurralde horretan eta kanpoko zenbait aliaturen gainean agintzen dute. Hala eta guztiz, komunitate trinko bat osatzen ez dutenez, eta ez santutegi ez eraikin handiosorik ez dutenez, baizik auzunetan barreiatuta bizi Heleniarren antzinako erara, den baino gutxiagotzat joko lukete. Ostera, Atenasi buruz gauza bera emanez gero, benetan duten boterearen halako bi kalkulatu litzaioke hiriaren itxura irizpidetzat hartuta.

Horregatik, ez deritzot egoki transmititu zaigunaz mesfidatzeari, ezta hirien itxurari euren botereari baino arreta handiagoa jartzeari ere, baizik eta espedizio hura, oraingoan aldean txikia izan arren, aurrekoak baino askoz garrantzitsuagoa izan zela sinestea jotzen du egokitzeat, Homeroren poesiari fede eman ahal bazaio horretarako, zeren hark, edozein poetarengandik espero den bezala, gertaera hari oihartzun eta handitasun berezia eman baitzion, eta azalpenok adierazten dutena baino apalagoa izango zen, noski.

Horrela, mila eta berrehun ontzietatik, beoziarrek ehun eta hogeigizon zeuzkatela dio, eta Filoktetesenak berrogeita hamar, kopuru handiena eta txikiena adierazi nahian, nik uste; dena den, ez du aipatzen gainerako ontzien tamaina *Ontzien Zerrendan*. Gizon guztiak aldi beran arraunlari eta gudari zirela bai esaten duela Filoktetesen ontzien kasuan, arraunlari guztiak arkulari zirela idatzi baitu; eta ezin da pentsatu karelean bestelako lagun asko joango zenik, errege eta goi mailako ofizialez gain, gerrako tresnez beterik itsasoa zeharkatu behar zuten kuberta gabeko ontzi haietan, antzinako ohituren arabera piraterian jarduteko eginak. Azken batez, itsasontzi handien eta txikien batez



bestekoari erreparatzen bazaio, ez dirudi jende askotzarik joango zenik, Helade osoko guztien artean bidali zituztela gogoan hartuz.

**11.**— Arazoa ez zetzan, horrenbeste, gizon faltan, baizik diru eskasian. Izan ere, hornikuntza eragozpenek eragin zuten tropa gutxiago bidaltzea; horrela, bertan gerran jarduten zuten bitartean horni zitezkeenak soilik bidali zituzten. Hara iristerakoan bataila bat irabazi ondoren, eta bistakoa da horrela izan zela, zeren bestela ezingo zuten kanpamendurako oholesia eraiki, dirudienez ez zuten erabili euren potentzial guztia, baizik eta Kersonesoren laborantzari eta inguruak arpilatzeari ekin zioten, hornikuntza arazoengatik. Horrexegatik egin ahal izan zieten aurre troiarrek hamar urtetan zehar Heleniar barreiatuei, une bakoitzean kanpamenduan geratzen ziren etsaiak beste zirelako, kopuruz, troiarrak. Aski hornikuntzarekin eta denak batera joan balira, arpilatze eta laborantzara dedikatu barik, eta gerra jarraikia planteatu izan balute, haiek, inoiz ez zietenak troiarrei denak batera aurre egiten —baizik eta une bakoitzean han zeudenak—, erraz aski eta neke gutxiagorekin hartu zuketena Troia, hiria setiatuz.

Halere, baliabide eskasia horregatik, kanpaina haren aurrekoak ez ezik, gure antzinakoen egitaundi entzutetsuok ere apalak izan ziren, poetei esker hartu duten ospearekin eta gaur egun haietaz mantentzen den kondairarekin alderatuz.

**12.**— Gero, Troiakoaren ondoren ere, Heladek oraindik populazio aldatetarik eta hiri fundazioak jasan zituen eta, ondorioz, ez zuen izan era baketsuan hazterik. Heleniarrak denboragarrenean Ilionetik itzultzeak ere asaldura ugari sortu zuen, eta hirietan haserreak piztu ziren denbora luzez, eta hortik jendea hiritik egozte eta egotzitakook kolonia berriak sortzea.

Egungo beoziarrek, Ilion hartu eta hirurogei urtera tesaliarrek Arna hiritik egotzita, gaur egon Beozia deritzan lurraldea okupatu zuten, lehenago Kadmoren lurraldea deitua, zeren hauetariko batzuk hantxe bizi baitziren lehenagotik, baita Ilionen kontrako espedizioan parte hartu ere; bestalde doriarrak Ilioneko gertaeretatik lau rogei urtera okupatu zuten Peloponeso, heraklestarren laguntzarekin.

Urte askoren buruan, eragozpen franko gairitu ondoren, Heladek bake iraunkorra lortu eta gero, eta bertako jendea erbestera egotzeari bukaera eman zitzaionean, koloniak bidali zituen atzerrira. Atenastarrek Jonia



eta uharte gehienak kolonizatu zituzten, peloponesoarren eta Heladeko beste zenbaitek Italia eta Sizilia gehienaz gauza bera egiten zuten bitartean. Kolonia hauek guztiak Troiakoaren ondoren eraiki ziren.

**13.**— Helade gero eta boteretsuago bihurtu ahala, lehen baino aberastasun handiagoa metatuz, maiz, baliabideak gehitzean, tiraniak ezarri ziren hirietan —lehenago eskumen finkoetan oinarrituriko monarkiak baitziren—, eta Heladek ontziak ekipatzeri ekin zion, itsasoari arreta handiagoa emanez.

Diotenez, korintoarrak izan ziren ontziei eta nabigazioari buruz egungoaren antzeko planak egiteari ekin zioten lehenak, eta Korinton egin zituzten, Heladeko beste inon baino lehen, hiru arraun-ilarako *trirreme* gerraontziak. Oraindik gehiago, Aminokles ontzigile korintoarrak lau gerraontzi egin zituen, antza denez, samoarrentzat; eta Peloponesoko gerra amaitu baino hirurehun inguru urte da Aminokles samoarregana joan zela. Ezagutzen dugun itsas gerrarik zaharrena korintoarrek Korzirarren kontra egindakoa izango da, gorago aipatutako datatik berrehun eta hirurogei urte inguru, alegia. Istmoan dagoen hiriaz jabetzearen ondorioz, korintoarrek betidanik izan zuten komertzio gune bat. Heleniarren elkarrekiko harremanak itsasoz baino gehiago lehorrez zirenez iraganean eta bai Peloponesoko nahiz hortik kanpoko jendeak korintoarren lurraldea zeharkatu behar zuenez elkarrekin komunikatzeko, korintoarrak aberats eta boteretsu bihurtu ziren, antzinako poetek «Korinto aberatsa» deitzeraino.

Heleniarren artean nabigazioa ugaritu zenean, jakina, korintoarrek itsasontziak erosi eta itsas pirateria garbitu zuten; horrela, euren merkatua lehorrez nahiz itsasoz eskaintzean, hiriak botere handia bereganatu zuen, sartzen zen diruari esker. Joniarrei dagokienez, askoz geroago lortu zuten flota eratzea, pertsiarren lehen errege Zioren eta beronen seme Kanbisesen garaian; Zioren aurkako borrokan, euren inguruko itsasoan nagusitu ziren aldi batez. Horrela, Kanbisesen garaian Samosko tirania egikaritu zuen Polikratesek, bere ontzidiaren botere hari esker, gainerako uharteak ere menperatu zituen eta, Renea uharteaz jabetu ondoren, Apolo Deliori sagaratu zion hura. Azkenez, fozearrek ere, Marseilla fundatu zutenek, itsas bataila baten bidez gainditu zituzten kartagotarrak.

**14.**— Horiexek ziren, bada, itsas potentzia indartsuenak; eta badirudi ezen, Troiako gerrakoa baino belaunaldi askoren ondoren sortu arren,



trirreme gutxi batzuk bakarrik zituztela eta berrogeita hamar arrauneko *pentekonteroz* eta kargako ontzi luzeez baliatzen zirela. Mediarren Gerra aurretxoan izan zen, eta Kanbisesen ostean pertsiarrek gobernatu zituen Darioren heriotzaren ondoren, Siziliako tiranoek eta korzira-rrek trirreme ugariz hornitu zirena; horiexek izan ziren Heladen azken armada taiuzkoak Xerxesen espedizioa gertatu arte, zeren hala eginarrrek nola atenastarrek –eta besteren batzuek– flota murriz bat besterik ez baitzuten, batik bat *pentekonteroz* osatua. Handik gerora izan zen Temistoklesekin atenastarrak konbentzitzea euren gerraontziak egiteko, eginarrekin gerran baitzeuden barbaroen inbasioa gertatzear zegoenean; eta gerraontzi horiexekin parte hartu zuten azken gerra horretan. Halere, gerraontzi horiek ez zeukaten oraindik bizkar osoa.

**15.**– Horiexek ziren, bada, Heleniarren gerraontziak, antzinakoak eta geroago egindakoak, eta hala ere botere ez txikia lortu zuten ontzigin-tzari arreta jarri ziotenek, dela dirua metatuz, dela beste batzuk menperatuz, zeren, batik bat lurralde nahikoa ez zutenek, uharteez jabetzeari ekin zioten itsas espedizioen bidez.

Lehorrez ez zen gertatu, ostera, inori botere handirik ekarri zion gerrarik; egin ziren gerra guztiak auzoen artekoak izan ziren, izan ere Heleniarrak ez ziren aberriaz oso urrutiko espedizioetara abiatu beste batzuk menpean hartzera, zeren haiek ez baitzitzairen biltzen hiri handiagoei, eta hiriok ere ez zuten egiten espediziorik elkarrekin, baizik eta auzoen arteko gerretara mugatzen. Antzinateko gerra garrantzitsuena, gainerako Heleniarrak batzuen ala besten aldera lerrokatu zirena, Kaltzidiakoen eta Eritreakoen arteko gerra izan zen.

**16.**– Heleniar batzuek zein besteek eragozpenak izan zituzten hazkundera jarraikirako: adibidez, joniarrak garapen garrantzitsuan abiatuta zeudela, Zioren erresuma pertsiarrek, Kreso menperatu eta Halis ibaiaren eta itsasoaren artean zegoen lurralde guztiaz jabetu ondoren, kontinenteko hiriei eraso egin zien; eta ondoren Dariok, feniziarren flota esku-ratuz, uharteak ere menperatu zituen.

**17.**– Heladeko hirietan gobernatzen zuten tiranoek dagokienez, ahalik eta era seguruenean gobernatu zuten guztiek, beraien interesek arreta jarrita, bakoitza bere buruaz eta bere etxekoak handi egiteaz arduratuta alegia, eta, horregatik, ez zuten egin kanpaina aipagarriarik, auzokoen kontrakoak salbu. Horrela, bada, arrazoi batzuen edo besteengatik, traba anitz izan zen Heleniarrak ezer garrantzitsurik egin zezaten elka-





rrekin denbora luzean zehar, eta hortik hiriak, bakoitza bere aldetik, hain saiatuak ez izatea.

**18.**– Azkenez, Atenasko tiranoak ez ezik gainerako Helade osokoak ere, zeren hor Atenasen baino askoz lehenagotik gobernatzen zuten tiranoek, lazedemonдарrek hartu zituzten behin betikoz menpean ia guztiak, Siziliakoak izan ezik; izan ere Lazedemon, orain bertakotu diren doriarrak okupatu ondoren, nahiz eta istilu eta asaldura ugari gertatu guk eza gutzen ditugun garaietatik garai luzeenean zehar, hala ere ordenan eta tirania sistematik gabe mantendu zen, zeren gerra honen azkenerantz laurehun urte eta piku beteko baitira sistema politiko berberaz baliatu direla, eta horri esker lortutako boterearen bitartez ezarri zizkien beren arauak gainerako hiriei. Heladeko tiranoak beren tronoetatik eraitsi eta ez urte askotara, Maratoneko bataila gertatu zen mediarren eta atenastarren artean; eta handik hamar urtera itzuli zen berririo barbaroa gudaroste handi batekin Heladen kontra, berau menderatzeko asmoz.

Arrisku handi haren mehatxupean, lazedemonдарrek Heleniar aliatu guztien aitzindaritza hartu zuten, beraiek baitzeukaten indar handiena, eta mediarren inbasio horretan izan zen atenastarrek beren hiria abandonatzea eta zeukaten guztiarekin itsasontzietan babestea erabaki zutena, eta orduan bihurtu ziren itsastar. Denek batera barbaroari aurre egin eta lasterrera, bai errege pertsiarrari bizkar eman ziotenak, bai haren kontra gerran jardundakoak, edo atenastarrekin edo lazedemonдарrekin lerrokatu ziren, bi horietatik gailentzen baitziren beste guztien artean, bata bere gudarosteetatik eta besteak itsas armadetatik. Bi horien arteko defentsa aliantzak ez zuen iraun luzaro; bakoitza bere lurraldera itzuli eta gero, lazedemonдарrak eta atenastarrak istiluan sartu ziren eta, bakoitzak bere aliatuekin, bata besteari gerra deklaratu zioten; gainerako Heleniarrei dagokienez, elkarren arteko istiluren bat gertatzen zenean, bata Ateenarekin eta bestea Lazedemonдарrekin lerrokatzen ziren aurrerantzean. Horrela, pertsiarren inbasiotik gerra honetaraino guda etengabea egon direnez –aldiz tregoa, aldiz gerra– bata bestearekin eta beraingandik aldentzea nahi zuten aliatuekin, prestakuntza militar bikaina zeukaten eta esperientzia handia halako kanpaina arriskutsuetan jarduteaz.

**19.**– Lazedemonдарrek beren aliatuei zergarik kobratu gabe mantentzen zuten hegemonia, nahiz eta aliatuok oligarkia sistemarekin gobernatzen zirezen arduratzen zen, bere komenientziaren arabera. Atenastarrek, ordea, azkenean euren hiri aliatuen itsasontziez jabetu ziren goiz edo



berandu, Kio eta Lesbokoez izan ezik, eta guztiei ezarri zien zerga; horrela, gerra honetarako beste edozein garaitan baino ekipamendu hobea zeukaten, aliantza tinkoaren sasoian eurek eta aliatuek batera zeukatena baino hobea.

**20.**— Bada, honela ikusi nuen nik arestiko garaia, nahiz eta ez den bate-re erraza halako gaietan ezein testimoniori fede ematea ñabardura guztietan, zeren gizakiek ezer bereizi ez frogatu gabe jaso ohi dituzte batzuek bestearengandik iragan gertaeren notiziak, nahiz eta gertaerak beraien herriko historiari buruzkoak izan.

Adibidez, atenastar gehienek uste dute Hiparko tirano zela hil zutela Harmodiok eta Aristogitonek, eta ez dakite Hippias zela orduan boterea egikaritzen zuena, Pisistratoren seme nagusia zelako, Hiparko eta Tesalo haren anaiak besterik ez zirelarik; abagune hartan konjurtzaile kide-etariko batek Hippiasen aurrean salatu zituela susmatzean, Hippias bera saihestu egin zuten, jakinaren gainean egongo zelakoan, baina, atxilo hartuak izan baino lehen zerbait eginez arriskuari aurpegi ematearren, Hiparkori eraso, Laokorio deitutako santutegiaren ondoan Panateneen prozesioa prestatzen ari zela, eta hil egin zuten. Izan ere, Heladeko jendeak funts gabeko gauza asko sinesten du orain bertan gertatzen edota oroimenean bizirik geratzen zaizkigun gauza askori buruz ere; esaterako, errege lazedemonдарrek boto bat barik bi ematen dutela, edota Pitaina konpainia dutela gudarostean, halakorik inoiz ez bada izan ere. Halaxe egiten dio itzuri jende askok egia ikertzeko ahaleginari, eta era horretara izan ohi du nahiago eskura duenera makurtzea.

**21.**— Hala ere, eman ditudan frogak gogoan hartuta, uste dut ez dela erratuko antzinateko arazoei buruzko egoeraz hemen azaldu dudanak, ñabardurak ñabardura, errealtateari erantzuten diola onartzen duena, fede handirik eman gabe, batetik, poetek euren kantuetan jarri dutenari gai jakin bati apaindura edo oihartzuna emateko, ezta logografoek idatzi dutenari ere, bestetik, egia kontatzea baino entzuleak liluratzea xede izanik, zeren ezinezkoa baita haien istorioak egiaztatzea, eta kontu gehienei, gainera, hainbat denbora igaro ondoren, sinesgarriaren eremua baino fabularena dagokie; eta zera aurkituko du: hemen esandakoa zantzu nabarienetatik abiatuta atera dela, nahikoa ikerketaren ondoren —aspaldiko denborei buruzko gauzak direla gogoan izanda—.

Eta horrela, gerra honi dagokionez, nahiz eta gudan diharduten gizakiek huraxe dela inoizko garrantzitsuena pentsatu ohi duten eta, hura



bukatu ondoren, antzinako gertaerak mirestera igaro ohi diren, gerra hau, diot, gertaeretan eurretan oinarrituta aztertzen duenak, lehengo beste edozein baino garrantzitsuagoa izan dela ikusiko du.

**22.**– Gerran sartzeaz edo jadanik sartuta bakoitzak esan zituen gauzei buruz, zaila izan da benetan esandakoak hitzez hitz gogoratzea, bai niretzat nik neuk entzundakoez, bai iturri batetik edo bestetik niri transmititu dizkidatenentzat. Dena den, nire ustez bakoitzak une jakin hartako egoeraren arabera erabiliko zuen hizkera mota erabiliz eman ditut diskurtsoak, betiere egiazki esan zenaren zentzu orokorrera hurbilduz ahalik gehien.

Gerran gertaturiko ekintzei buruz, ez nion egoki iritzi topo egin nuen lehenengoak esan zidana edota neuk gertagarritzat jotzen nuena idaztea, baizik ni neuk ikusi nituenak edo beste batzuegana informazio eske joan eta haiengandik jaso nuena ahalik eta doitasun handienez ematea kasu bakoitzean. Eta ez da batere lan samurra izan. Izan ere, gertaera bakoitzaren lekukoek ez zuten gauza bera esaten gai berari buruz, baizik parte bakoitzari zioten atxikimenduaren edota euren oroitzapenen arabera.

Narrazio honetan alegiazko konturik azaltzen ez denez, baliteke jendaurrean irakurtzeko hain gozoa ez izatea, baina aski izanen da gertatutakoa argitzea edota, gizakiak ezagututa, gerora ere modu bertsuan gerta daitekeena aurreikustea nahi dutenentzat lagungarri bada. Hau ez baita idatzi une batez belarriak gozatzeko lehiaketa baterako, baizik eta beti gogoan izateko.

**23.**– Arestiko egitandietarik garrantzitsuenak Mediarren Gerrak izan ziren eta, halaz ere, gerrok bukaera lasterra izan zuten bi itsas batailaz eta beste horrenbeste lehorreko. Aldiz, gure gerra honek luze iraun zuen, eta sekula lehenago halako epe labur batean jazo ez ziren ezbeharrak gertatu ziren Heladen gerra horretan zehar.

Inoiz ez zen gelditu hainbeste hiri despulatuta, batzuk barbaroen eskutik eta beste batzuk gudaroste kontrarioen borrokan zebiltzan Heleniarren euren eskutik –hiri batzuetan, gainera, okupazioarekin batera populazio aldaketa gertatu zen–, eta sekula ez zen gertatu hainbeste erbesteratze eta odol isurketa, dela gerraren beraren, dela herritarren arteko istiluen ondorioz.

Ahoz transmititu diren arestiko zenbait berri, inoiz gutxitan egiaztatutak izan arren, sinesgarriak suertatu dira: lurreko eremu zabalak suntsitu



zituzten lurrikara bortitzak; iraganaldian gogoratzen ziren baino maizago gertaturiko eguzki eklipseak; lurralde batzuetan lehortu luzeak eta horien ondoriozko goseteak; eta hondamendi ez gutxiago eragin eta gizateriaren zati handi bat akabatu zuena, izurria. Bada, hori guztia gertatu zenaldi berean gerra honetan zehar.

Atenastarrak eta peloponesoarrak izan ziren gerrari hasiera eman ziotenak, Eubea hartu ondoren sinaturiko hogeita hamar urterako itunak haustean. Eta hauste horren arrazoiei buruz hasieratik bertatik idatzi ditut zioak eta eztabaidak, inork ez dezan aurrerantzean Heleniarren arteko halako gerra izugarriaren jatorriaz ikerketa egin beharrik.

Arrazoi egiazkoena, nahiz eta gutxien aipatua, honako hau dela uste dut: atenastarrak indartsu bihurtzeak beldurra eman ziela lazedemon-darrei eta gerrara bultzatu zituela; halere, alde bakoitzak azalduta zein arrazoiaren izenean hasi ziren gerran, itunak hautsi eta gero, honako hauek dituzue:

**24.**— Epidamno hiria joniarrak sartzen direnen eskuinertara dago; taulantarrak, iliriarrak etniako barbaroak dituzte auzoko. Hiri hura korzizarrek kolonizatu zuten eta fundatzailea Falio Eratoklidesena izan zen, Heraklesen ondorengoa eta jaiotzez korintoarra, metropolitik antzinako usuen arabera deituta, beste korintoar batzuek eta gainerako doriarrak jatorrikoek ere kolonizazioan esku hartu zutelarik. Handik denboragarenera, Epidamnos hiri handi eta biztanle ugari bihurtu zen, nahiz eta barne istiluetan urte askotan jardun omen zuten eta, hartaz, euren auzoko barbaroekin gerra galdu ondoren, nabariki apaldu zen haien boterea.

Gerra horren aurretik, azkenean herriak bere nobleak egotzi egin zituen, eta nobleok, barbaroen laguntzarekin, lehorrez nahiz itsasoz arpilatzen zituzten hirikoak. Epidamnoarrek, aldiz, gero eta estuago sentitzean, Korzizarra mandatariak igorri zituzten, huraxe zelako euren metropolia, beren metropolia suntsitzen ez uzteko, baizik erbesteratuekin bakeak egin eta barbaroekiko gerrari amaiera ematen laguntzeko eskariarekin. Eskari hori Heraren santutegian erregutzaila gisara egin zuten, baina korzizarrek ez zuten onartu erregua eta ezer lortu gabe bidali zituzten handik.

**25.**— Korziratik ezelako laguntzarik ez zutela izango jakin zutenean epidamnoarrek, ez zuten asmatzen zer egin euren egoerari irtenbidea aurkitzeko; orduan, Delfosera bidalitako mezularien bidez aholku eskatu zioten jainkoari, ea beren hiria korintoarren esku utzi behar zuten, haiek





ere fundatzaile izan baitziren, eta laguntzaren bat lortu horrela. Jainkoak baietz esan zien, hiria korintoarren esku uzteko eta haiek babesle izendatzeko. Epidamnokoak Korintora joan ziren, bada, eta Korintoren esku utzi zuten beren hiria, orakuluaren arabera, hiriaren fundatzailea korintoarra izan zela gogora ekarri eta orakuluaren erantzuna ezagutzera eman ondoren, eta hura suntsitzea ez zezatela onar, baizik laguntza luza ziezailela erregutuz.

Korintoarrek zuzenbidearen araberakoa iritzi zioten laguntza emateari, uste izanik kolonia hura ez zela gutxiago beraiena korzirarena baino; eta tartean, gainera, korzizarrenganako gorrotoa zegoen, zeren, beraien kolonoak izan arren, ez zioten errespeturik, eta elkarrekin ospatzen zituzten jaietan legezko ohoreak eta sakrifizioen hasikinak korintoar bati ez eskaintzeaz gain –gainerako koloniek egiten zuten bezala–, gutxietsi egiten omen zituzten, garai hartan korzizarrak Heladeko aberatsenen mailara iristen baitziren baliabideetan, korintoarrak baino indartsuagoak izanik maila militarrean; eta flotari dagokionez ere, sasoi batean besteak baino gehiagotzat zeukaten beren burua, itsas indarrean hain ospe handia zuten feaziarren menpean lehenago egotetik aske irten ondoren; horrexegatik ematen zioten arreta berezia itsas armadari, eta bazuten boterea, bai, ehun eta hogeitirremez hornituta zeuden-eta gerra hasieran.

**26.**– Korintoarrek, beraz, kexu horien guztien kariaz, atsegin eta gogoz luzatu zieten laguntza, kolono joan gura zuena joatera bultzatuz eta, eurenaz gain, anpraziotar eta leukadetar goarnizio batzuk ere igorritz. Korzizarrek itsasoz joatea eragotziko zieten beldurrez, lehorrez iritsi ziren korintoarren koloniara, Apoloniara.

Korzizarrek, hartan, Epidamnora kolonoak eta tropak zihoazela eta hiria korintoarren esku laga zutela jakitean, biziki haserretu ziren; hogeita bost ontzirekin egin ziren itsasora, geroago beste flota bat bildu zitzaielarik, eta Epidamnokoei ozarki exijitu zieten bertako erbesteratuak har zitzatela –izan ere hauek, beren arbasoen hilobiak atontzeko eta senidetahun lokarriak aitortzeko aitzakiarekin Korzizarra joan eta beraien hirira itzultzea eskatzen zuten–, eta korintoarrek igorritako goarnizioak eta kolonoak kanpora zitzala.

Epidamnoarrek ez zuten onartu exijentzia bata ez bestea. Orduan korzizarrek erasora jo zuten beren berrogei ontzirekin eta euren babespean aberrira itzuli nahi zuten erbesteratuekin, hala nola gudaroste iliriarren



laguntzarekin. Hiriaren inguruan kanpamendua jarri eta agiri bat zabaldu zuten, zeinen arabera hiritik irten nahi zuen nornahi irten zitekeen bakez eta kalterik jaso gabe, epidamnoar nahiz atzerritar izan; eta bes-tela atzerritar gisara tratatuko zituztela denak. Kasurik egin ez zieten, korzirarrek hiriari setioa ezarri zioten, egon ere istmo batean kokatuta baitago.

**27.**— Korintoarrek, euren aldetik, hiria setiatuta zegoela jakin zutenean Epidamnoko mezularien ahotik, eraso militarra prestatzeari lotu zitzaizkion bitartean, zera iragarri zuten: hiri hartara kolonia bat bidaliko zutela eta talde horretara edonor bil zitekeela, berdintasun mailan; norbaitek berehalaxe ontziratuta gura ez, baina koloniaren partaide nahi izanez gero, etxean gera zitekeen berrogeita hamar drakma korintoar gordailuan uztearen truke. Asko izan ziren ontziratuta zirenak, eta asko, halaber; dirua gordailutan utzi zutenak.

Aurretiaz megararrei laguntza eskatu zien, korzirarrek bidea ixtearen kasuan babesa emateko; haiek prestu erantzun zieten zortzi ontzirekin laguntza emateko, baita Kefaloniako palearrak ere lau ontzirekin; Epidaurokoei eskari bera egin eta bost ontzi laga zizkien, hala nola Hermionakoei bat, Trezeniakoei bi, Leukadekoei hamar eta Anpraziokoei zortzi. Halaber, Tebaskoei nahiz Fliuntekoei dirua eskatu zieten, eta Eleakoei, diruaz gain, ontzi soilak soldadurik gabe. Korintoarrek eurek hogeita hamar ontzi eta hiru mila hoplita paratu zituzten.

**28.**— Korzirarrek prestaketa horien guztien berri jakin zutenean, Korintora zuzendu ziren, hartarako bildu zitzaizkien Lazedemongo eta Sizioniako enbaxadoreekin batera, eta korintoarrei euren tropak eta kolonoak handik ateratzeko exijitu zieten, Epidamnon ez zutelako ezer galduta, euren iritziz; erreklamazioren bat egin nahi bazuten, eurek prest zeudekeela tartekaritzaren esanera jartzeko Peloponeson, hartaratzen ziren hirien aurrean, eta kolonia hura zeini zegokion ebazpenak emango zuela garailea; are gehiago, Delfosko orakulura jo nahi zutela, baina ez zutela jasango inolaz beraien kontra gerra altxatzerik. Hau ere erantsi zuten: horrela jokatu ezean, behartuta aurkituko zirela, euren interesen zioz eta korintoarren biolentziaren erruz, hain lagun ez zituztenen, hots, orain lagunago zuten jendeaz bestelakoen lagun bihurtzera.

Korintoarrek prest zeudela erantzun zieten, baldin korzirarrek Epidamno ingurutik ontzi eta tropa barbaroak ateratzen bazituzten; artean ez zeritzotela egoki batzuk setiatuta jarraitzeari beraiek tartekaritzara



jotzen zuten bitartean. Korzizarrek baietz, erretiratuko zirela erantzun zuten, baina korintoarrak Epidamnotik irteten zirenean, nahiz eta eurak prest zeuden alde bateko eta besteko gudarosteak zeuden lekuan zeudela armistizio bat sinatzeko, tartekaritza eratzen zen bitartean.

**29.**— Korintoarrek, ordea, entzungor egin zioten horietariko edozein proposameni; hortaz, ontzidia hornituta zegoenean eta aliatuak bildu zitzaizkienean, aldez aurretik heraldo bat bidaliz korzizarrei gerra deklaratzera, Epidamnora branka zuzendu zuten hirurogeita hamabost ontzirekin, gehi bi mila hoplita, korzizarrei eraso egitera. Han zihoazen, ontziburu, Aristeo Pelikoren semea, Kalikatres Kaliasena, eta Timanor Timantesena; oinezko gudarosteen buru, berriz, Arketimo Euritimorena eta Isarkidas Isarkorena.

Aktio parean zeudenean, Anaktoriako lurraldean, Apoloren santutegia dagoen golkoaren sarreran, korzizarrek heraldo bat bidali zieten txalupa batean, ez zitezela erasora etor beraien aurka esateko mandatuarekin, bitartean beren ontziak paratzeari ekinez, zaharrei baoak ezarritz gudarientzat eta gainerakoak behar bezala hornituz. Heraldok korintoarren aldetiko inolako bake proposamenik ekarri ez zietenean eta euren ontziak gudariz hornituta zeudelarik –laurogei ziren guztiz, berrogeik Epidamno blokeatzen baitzuen–, itsasora egin eta besteen parean lerrokatu ondoren, borrokan sartu ziren. Korzizarrek irabazi zuten askozaz, eta hamabost gerraontzi korintoar matxuratu zituzten. Egun horretantxe hain zuzen, Epidamnoren setiatzaileek akordio batera heldu ziren setiatuekin, atzeritarrak entregatzea adostuz korintoarrak preso mantentzearen truke, beste gauzaren bat ebatzi arte.

**30.**— Korzizarrek, itsas bataila ostean garaikur bat eraiki ondoren Korzirako Leuzimne lurmuturrean, gainontzeko preso hartutakoak hil zituzten arren, korintoarrak preso mantendu zituzten. Gero, korintoarrak eta aliatuak euron ontziekin bakoitza bere etxera bueltatu zirenean bataila galdu ondoren, korzizarrek, inguru hartako itsasoaren jaun eta jabe eginda, Leukade kolonia korintoarrera lehorreratu eta lurralde hura arpilatu zuten; Zilene, eleatarren itsasportua erre egin zuten korintoarrei ontziak eta dirua emateagatik. Horrela, itsas bataila hartaz geroztik aldi luzez, beraiek kontrolatu zuten itsaso hura; eta, korintoarren aliatuen kontrako erasoan jarraituz, bazterrak suntsitzen jardun zuten, harik eta korintoarrek, uda aurrera zihoala, beren aliatuak estu eta larri ikusita, ontziak eta gudaroste bat bidali zituzten, zeinek Tespo-



tian kanpatu ziren, Kimerio lurmuturraren ondoan, Leukaderi eta gainerako hiri aliatuei babesa emateko.

Orduan korzirarrak haien aurrean kanpatu ziren, Leuzimnan, ontziekin eta lehorreko tropekin, baina ez alde bata ez besteak ez zion elkarri eraso, baizik eta uda hartan aurrez aurre kanpatuta egon ondoren, neguarekin batera bakoitza bere lurraldera itzuli zen.

**31.**– Itsas batailaren ondoko urtean eta hurrengoan, korintoarrak, korzizarren kontrako porrotak suminduta, itsasontzi gehiago egiten eta flota hornitzen ahalegindu ziren biziki, soldatapeko arraunlariak erreklutatuz, hala Peloponeson bertan nola Helade osoan.

Korzirarrak, prestaketa hauen berri izatean, beldurtu egin ziren eta, ez zeukatenez itunik ezein hiri Heleniarrarekin eta atenastarren edo lazedemondarren itunei ere ez zeudenez atxikita, atenastarregana jotzea ebatzi zuten haien aliatu bihurtu eta laguntzaren bat lortzen saiatzeko asmoarekin.

Horren berri izatean, korintoarrek ere beren enbaxada bidali zuten Atenasera, flota atenastarrak korzizarrenarekin bat egin ez zezan eta gerra hari beraiek nahi zuten bezalako amaiera emateko trabarik eduki ez zezaten. Atenasko batzar nagusia bildurik, korintoarrek eta korzizarrek aurkako iritziak azaldu zituzten, eta azken hauek honela mintzatu ziren gutxi gorabehera:

**32.**– «Egoki deritzogu, oi atenastarrok, aurrez itun edo mesede handiren baten hartzeduru izan barik auzora jotzen dutenek laguntza eske, guk orain bezala, gauza interesgarria aurkezteari lehenik eta behin, edo behintzat kalterik ez dakarrena, eta gainera esker onez erantzungo zaio-la jasotakoari; bestela ez daitezela haserretu esku hutsik itzultzen badi-ra beren herrira. Korzizarrek zuengana aliantza bila igorri bagaituzte, azaldutako puntuoi buruzko bermea eman diezazuketen uste osoz bidali gaituzte.

«Zera gertatzen da, ordea: gure orain arteko jokabidea, une honetako eskabidearekin logikoa ez izateaz gain, eta hala irudituko zaizue, geuri ere ez digu ekarri inolako abantailarik egungo egoera honetan; izan ere, orain arte inoren aliatuak ez izatearen aukerari eutsi diogu eta orain aliantza bila gatoz, zeren, gure politika horren erruz, bakarrik aurkitzen baikara korintoarren aurkako gerran. Horrela, arestian itxuraz zentzuzkoa zena –besteren gerretan ez arriskatzea auzokoaren interesak defendatzen–, orain aurreikuspen eza eta arrisku iturri bihurtu zaigu. Egia da





oraintsuko itsas batailan geuk bakarrik egin geniela aurre korintoarrei, baina orain, Peloponesotik eta gainerako Heladetik ateratako armada handiagoeekin erasotzera datozkigunean eta, gainera, arrisku larria izango dugunean haien menpe geratzen bagara, ez dugu geure burua gai ikusten gure indar bakarrekin onik ateratzeko; eta, hala, behar-beharrezkoa dakusagu zuengana eta beste edonorengana laguntza eske mugitzea, eta barkagarri ere iruditzen zaigu orain arte –asmo txarrez ez, baizik aurreikuspen eta zentzu akatsez– inoren gerretan ez engaiaitzeko jokabide hori aldatzera ausartzea.

**33.**– «Gure eskaria onartzen baduzue, zeuen onerako izango da, arrazoi askorengatik: lehenik eta behin, erasoja jasan duen eta beste batzuei kalterik egiten ez dien jendea lagunduko diozuelako; bigarrenik, arrisku handiengana aurkitzen den jendea babestean mesede bat egingo duzuelako, izan daitekeen esker onik betikoena merezi duen erakutsiarekin batera; eta, batez ere, flotarik handiena daukagulako, zeuenaren ondoren.

«Pentsa ezazue zein arrakasta bakana litzatekeen zuontzat, eta zein kaltegarria zuen etsaientzat, aberastasun eta mesede anitz edukitzea baino zuekin biltzea gurago zenuketen potentzia hori bere borondatez eta inolako arrisku ez kosturik gabe eskaintzen zaizuela, besteen aurrean prestigioa, babesten dituzuenen aldetik esker ona eta zeuoi indarra emango dizuena gainera, gauza guztiok batera inoiz gutxitan erdietsi ahal izan dituenak inork, oso gutxitan gertatzen den bezala laguntza eske datorrenak bere buruarentzat espero duena baino segurtasun eta ohore maila handiagoa ematea eskaria egiten dionari.

«Eta gure zerbitzua baliagarri gerta daitekeen gerrari buruz, baten batek uste badu gerra hori ez dela gertatuko, oker dago, ez baita konturatzen lazedemonдарrek gerra nahi dutela, zuen beldur direlako; eta ez da konturatzen haiengan eragina duten korintoarrak zuen etsai direla eta mendea hartu nahi gaituztela, lehenengo gu, baina gero zuei erasotzeko asmoz –bata bestearen etsai garelakoz elkarrekin aurre egin ez diezaiogun–, eta horrela euren bi helburuak betetzea: guri kalteak eragin eta beren indarra gehitu. Gure egitekoa, ordea, haien asmoei aurrea hartzea litzateke, gure aliantza eskaintza eta zuen onarpenera dela medio, eta, haien azpizkoei erantzuten ibili baino, aurretiaz neurriak hartzea.

**34.**– «Haiek esaten badute ez dela zuzenbidezkoa beraien kolonoak zuek hartzea, jakin beharko lukete ezen tratu ona hartzen duen edozein koloniak bere metropolia ohoratzen duela, baina bidegabekeria jaso



duena, aldiz, harekiko erbeste sentitzen dela, zeren kolonoak ez baitira bidaltzen morroiak bailiran, baizik eta metropolian geratzen direnen pareko baldintzetan. Argi dago gu iraindu egin gintuztela, zeren Epidamnori buruz arbitraje batera gonbidatuak izan arren, haiek nahiago izan zuten eztabaida hura gerraren bidez ebaztea, eta ez ekitatearen arabera. Eta gurekin, senide gaituztenokin egiten dutena kontuan hartzea daukazue, haiek lilura ez zaitzaten, eta itzulingururik gabe laguntza bila datozkizuenean, ezetz esan diezaiezuen; zeren etsai ei mesede egiteaz damu izateko aukera gutxien duena izango baita seguruen biziko dena.

**35.**— «Inolaz ere ez duzue apurtuko lazedemondarrekin duzuen ituna, ez bando baten ez besteren aliatu ez garenok onartzen bagaituzue, zeren itun horretan heleniar hiriez xedatzen dena zera da: inorekin aliantzarik ez duena berak gogoko duenarekin joan ahal dela.

«Benetan izugarria litzateke haiek beren ontzietako tripulazioa, euren aliatuez ez ezik, gainerako Heladeko jendearekin hornitu ahal izango balute, eta ez neurri txikian zuen menpekoekin, eta guri betoa jarriko balitzaigu ostera, ez soilik aliantzak ahalbidetzen dituen itunari buruz, baizik baita beste edozein jatorrizko laguntzaz, orain eskatzen dizueguna legez kontrakoa dela konbentzitzen zaituztelako.

«Eta geuk are gehiago bultzatuko zaituztegu errakuntzara, ez badugu lortzen zuek konbentzitzea; orduan, izan ere, arriskuan egon eta arerio ez gaituzuenok arbuiatzen gaituzuen bitartean, etsai eta erasotzaile dituzuen horiei ez eragoztearekin batera zuen inperioaren lepotik euren boterea gehitzea baimenduko diezue; eta hori ez da bidezkoa. Egiaz bidezkoa dena honako hau da: haiei mertzenarioak erreklutatzen ez uztea edota guri laguntza bidaltzea, horretaz konbentzitzea lortzen dugun heinean, baina bidezkoa, batez ere, jarrera zabalez hartu eta sorots gaitzazuen litzateke.

«Hasieran esan bezala, asko dira iradoki ahal dizkizuegun abantailak, eta guztietatik garrantzitsuenak zera: bion etsaiak, gure ikuspegiaren arabera, berberak izatea —elkarrekiko leialtasunaren bermerik onena dena—, eta etsaiok ez dira inolaz ere makalak, baizik eta aurrez aurre aurkitzen dutenari min eragiteko gai direnak. Bestalde, itsas potentzia bat, eta ez lehorrekoa, aliatutzat eskaintzera datorkizuenean, ez da zuentzat gutxi axolazkoa hori zeinekin lerrokatzen den, baizik eta hoberena, ahal baduzue, beste inork ontzirik ez edukitzen uztea litzateke, eta hori ezean, haietarik indartsuena lagun izatea.



**36.**— «Orain esandakoari interesgarria iritzi, bai, baina horri kasu egitearren itunak hautsiko liratekeela uste badu baten batek, pentsa beza bere beldur horrek, atzean indarra baldin badu, are gehiago beldurtuko dituela bere etsaiak; oster, gure aliantzari uko egiteak eman liezaiokeen itunokiko konfiantza, ahuleziazat joko dute eta ez da izango hain eraginkorra, beraz, botere handiko etsaiztat. Gainera, pentsa beza Korzira-ren alde baino Atenasen beraren alde ari dela deliberatzen orain; eta ez dabilela honen aldeko neurri egokienak hartzen, lehertzeaz eta gain-gai-nean daukagun gerra baten aurrean, lagun edo etsai gisa une garrantzitsu-tuetan baizik lerrotatzen ez den herrialde bat erakartzeko duda-mudatan dabilenean, epe laburreko kontsiderazio zuhurren menpe. Izan ere, Korzira posizio onean dago Italiara eta Siziliarako kostako bidean, hala-ko moldez non traba jar diezaiokkeen handiko aldetik Peloponesora dato-rreren flota bati, hala nola eskolta eman hemendik hara doanari; eta beste gauza batzuetarako ere leku abantailatsuenen dago.

«Azkenez, ikuspegi orokorrari nahiz zehatzei dagokien berba baten laburbilduko dut laguntza gabe utz ez gaitzazuen arrazoia: hiru flota heleniar dira aintzat hartzekoak: zuena, gurea eta korintoarra; orain korintoarrak aurea hartu eta gu erasotzera badatoz, eta zuek, horrela, hiru flotetarik bi bateratzen uzten baduzue, flota korzizar eta pelopone-soarren aurka borrokatu beharko duzue; gu onartzen bagaituzue, aldiz, haien kontra egiteko gai izango zarete, zuen ontzei gureak erantsiz.»

Halaxe hitz egin zuten korzizarrek. Eta hauen ondoren korintoarrek, modu honetara:

**37.**— «Korzizar hauek ez direnez mugatu aliantzan har ditzazuen esate-ra, baizik eta gu gaizkileztat jo eta beraien kontra arrazoi gabe gerra egiteaz salatu gaituzten, lehenengo eta behin, beste edozein azalpena-ren aurretik, bi puntuok argitu beharrean aurkitzen gara, hasiera-hasie-ratik hobeto jabe zaitezten zein den gure eskabidea eta arrazoi sendoz uko egin diezaiozuen hauen eskariari.

«Inorekin inoiz aliantzarik ez egitea zuhurtziaz izan zela diote; baina jarrera hori ez zuten onbidez hartu, baizik kalte egiteko, eta euren gaiz-takerien lekuko izango zen aliatu-rik ez zutelako nahi, ezta haien aurre-ra joan eta lotsatu beharrik ere.

«Horiek diote eurek aliantza onartu ez bazuten, hori zuhurtziagatik izan zela; jarrera hori, alabaina, zuzentasunagatik barik kalte egiteko hartu zuten, ez zutelako eduki nahi beren delituen lekuko izango zen aliatu-



rik, ez eta ezein aliaturi deitu izanaz lotsatu ere. Gainera, euren hiria independente egiten duen lekuan kokatuta egoteari esker, itunek uzten dituztenek baino aukera gehiago dituzte epaileak izateko, oso bakanki baino ez baitira besteen portuetara arribatzen, besteak, ostera, maiz aurkitzen direlarik eurenean atrakatzera beharturik. Kasu horretan horiek beren aliantza gabezia maltzurra ez dute jasotzen besteekin batera delitu komun batean partaide ez izateko zutoihal moduan, baizik eurek bakarrik egiteko, ahal duten guztian bortxatzeko, besteak ohartzen ez diren guztian abusatzeko, eta zerbaitez jabetzean lotsarik ez sentitzeko. Eurek dioten moduan gizon prestuak balira, ordea, zenbat eta urrunago egon besteengandik, orduan eta argiago erakutsiko lukete euren ohorea justizi arauak besteei aitortu eta onartzean.

**38.**— «Baina ez besteekin ez gurekin jokatu dute horrela, baizik, gure kolonoak izan arren, aparte ibili dira beti eta orain gerra ere egiten digute, tratu txarrak jasatera bidaliak ez zirela izan estakurutzat jarrita. Geuk ere uste dugu ez genituela kolonia sortzera euren irainak jasotzeko eraman, euren buruzagi izateko eta zor zaigun errespetua jasotzeko baizik; beste koloniak behintzat errespetatu egiten gaituzte eta geure kolonoen estimua irabaziagatik nabarmentzen gara; gehienentzat gogoko bagara, argi dago horiexentzat bakarrik garela, motiborik gabe, eza-tsegin. Eta ez genuen horien kontra ezohiko espediziorik bidali, euren-gandik ezohiko laidoa jaso gabe; gauza ederra litzateke horien aldetik, gu oker egonda ere, gure haserrearen aurrean amore ematea, eta lotsagarria gure aldetik berorien neurritasuna behartzea. Alabaina, euren harrokeriarengatik eta aberatsak izanik ekintzarako dituzten ahalbide-engatik, gauza askotan huts egin digute, baina batez ere Epidamnokotan, izan ere, geurea izanik ere ez zuten euren balitz bezala hartu ezbeharrak jo zuenean, eta sorospena ematera joan gintzaizkionean, ordea, beraz jabetu ziren eta indarrez atxikitzen dute.

**39.**— «Lehenago ere arbitraje baten pean jarri nahi izan zutela ere badiote, baina arbitrajeetan ez dago ondo eskatzen duenak nagusitasun egoera finkatu batetik hitz egitea, auzitan sartu aurretik balantza zeroan ipinita baizik. Baina horiek ez zuten hori egin gotorlekua setiatu aurretik, ez horixe, alderantziz baizik, horrelakorik onartuko ez genuela kalkulatu zutenean eskaini baitzuten arbitrajearen trikimailua.

«Eta hona datoz ez hango delituen hobendun moduan, baizik zuek euren aliatu barik euren gaizkide izan behar duzuela pentsatuta eta





gurekin haserretuta daudenean zuek lagun legez har ditzazuen galdatzen. Seguruago zeudenean hasi behar zuten hurbiltzen eta ez gu iraintzearren arriskuan daudenean, ezta horien orduko boterean partaide izan ez zinenok orain zeuen laguntza eskainiko diezuenean eta, euren delituetan parte hartu barik, guri dagokigunez erru bera jasoko duzue-  
nean ere: behinolako boterea konpartitu behar zuketenean eta emaitzak ere konpartituko zituzketenean.

**40.**– «Labur esanda, argi dago gu erreklamazio egokiekin gatozela eta horiek bortitzak eta diruzaleak direla; azaldu behar dena da zuek horiek onartzea ez dela bidezko.

«Itunean hitzartzen baldin bada izena eman gabeko edozein hiri batzuekin nahiz bestetziekin aliatu ahal dela, akordio hori ez da ari besteei okerrak egiteko aliatzen diren hiriez, baizik besteari bere laguntza kendu barik segurtasuna behar duten hiriez eta onartzen dutenen laguntzarekin, zentzudunak badira, bakea egin beharrean gerra egingo ez duten hiriez, orain horixe gertatuko litzaizukeelarik zuei guri kasurik ez egitera, zeren horien babesle soilik barik gure etsai ere izango baitzinatekete, ituneko subjektuak izan beharrean: eurekin bazoazte, nahitaezkoa da gu defenditzea zuek albo batera utzi gabe.

«Hala eta guztiz ere, benetan bidezkoa zuek alde bietatik at gelditzea da eta, horrela ez izatera, kontrakoa, gure alde jartzea horien aurrez aurre –korintoarrekin itun bat behintzat baduzue, korzizarrekin, orde, armistizioz ere ez duzue sekula izan–, eta biderik ez ematea besteengandik desertatzen dutenak onarpena eman ez dezaten agintzen duen arauari. Guk samoarrek bertan behera utzi zintuztetenean ere ez genuen zuen kontra eman botoa, nahiz eta gainerako peloponesoarren banatuta egon defenditu behar ziren ala ez erabaki orduan, baizik garbi azaldu genuen norberak bere kabuz zigortu behar zituela bere aliatuak. Kalteren bat egiten dutenei aliatutzat hartuta laguntzen baldin badiezue, zuen jendearen artean gehiago izango dira gurekin batuko direnak eta gure kontra baino areago zeuen buruen kontra ezarriko duzue araua.

**41.**– «Horiexek dira, beraz, aurkeztu dizkizuegun erreklamazioak, nahikoak Heleniarren ohituren arabera, eta gainera aholku eta mesede eskaera haxe egiten dizkizuegu, uste dugularik gu, ez elkarri okerrik ez egiterainoko etsaiak, ez harremenez abusatzerainoko adiskideak ez garenenez, orain bizi dugun egoeran itzuli beharko litzaigukeela mesede hori; gerrako barkuz urri ibili zinetenean, Gerra Mediarren aurretik eginarre-



kin izan zenituzten borroketan, hoguei ontzi hartu zenituzten korintoarrek emanda. Mesede horrek eta samoarrenak –guri esker peloponesoarren haiei ez laguntzea– eginarren gaineko garaipena eta samoarren errepre-sioa ekarri zizkizueten, eta hori gizonak beren etsaien kontra joanik garaipena lortzeaz izan ezik beste guztiaz desinteresatzen diren horrela-ko gertaldi batean gertatu zen, izan ere, horrelakoetan, laguntzen diena, etsai ohia izan arren, laguntzat hartzen dute, eta etsaitzat aurka egiten diena, lagun ohia izan arren, zeren euren ondasunak ere lehen baino oke-rrago administratzen baitituzte uneko garaipen egarriak eraginda.

**42.**– «Horretaz hausnarketa egin eta horren berri gazteak zahararen-gandik ezagutu ondoren, erabaki ezazue era berean guri erantzutea, eta ez ezazue pentsa dioguna bidezkoa dela eta gerra sortuz gero, ordea, komenentzia ezberdina izango dela. Komenentzia okerrik gutxien egiten denean lortzen da eta gerra posibilitatea, korzizarrek zuek justiziari huts egiten animatzeko erabiltzen dutena, zalantzarik da oraindik; ez dizue merezi horrek bultzatuta korintoarrekin etsaitasun ziurra, eta ez litekee-na, zeuenganatzea, zuhurrago baita megararren erruz lehendik dauden susmo txarren zati bat ezabatzea, une egokian egindako azken mesede-ak, txikia izan arren, kexa-bide handiagoa ezaba dezakeenez gero.

«Ez zaitzatela beren aldera eraman itsas aliantza handi bat eskaintzen dizuela eta, zeren berdinak ez iraintzeak norbere boterea gehiago segur-tatzen baitu, uneko itxurek bultzatuta norbere edukiak arrisku handiz gehitzen saiatzeak baino.

**43.**– «Guk, Espartan aipatu genituen baldintzen arabera jardun dugu-nok, hau da, nork bere aliatuak zigor zitzala, orain zuengandik gauza bera lortzea eskatzen dugu, hau da, gure erabakitik onura atera zenute-nok ez gaitzazuela zeuenaz kaltetu; emaguzue ordain berdina, badaki-zuelako adiskidea batez ere laguntzen duena eta etsaia aurka egiten duena izaten den unea dela hau.

«Korzirar horiei dagokienez, ez itzazue aliatu egin gure nahiaren kon-tra eta ez itzazue defendi irainka dabiltzanean; horrela jokatzen badu-zue, egin behar duzue egingo duzue eta zeuen alde erabakirik onena hartu izango duzue».

**44.**– Horrelaxe mintzatu ziren korintoarrak. Atenastarrek, aldiz, behin alde biei entzun ondoren, Batzarra bi aldiz bildu zelarik, lehenengo al-dian ez zieten harrera hoberik egin korintoarren arrazoiei, baina biga-rrenean, ideiaz aldatu eta korzizarrekin adiskidetzat eta etsaitzat berbe-



rak edukitzean oinarrituriko aliantzarik ez sinatzea erabaki zuten, zeren korzizarrek Korintoren kontrako erasoaldi batean laguntzeko eskatu izan baliote, hautsi egingo zituzketen peloponesoarrekin eginda zituzten itunak, nahiz eta egin zuten defentsarako itun bat Korzira, Atenas edo berorien aliatuak oldartuak liratekeen kasurako.

Baldintza horietan ere peloponesoarrekin gerra hasiko zela zeritzoten eta ez zuten nahi korintoarrentzat utzi Korzira, hain ontzidi handia zeukana; nahi zutena, ordea, zen haiek ahalik gehien elkar egurtzea, eta, beharrezko izanez gero, berek korintoarrei eta gainerako ontzidi jabeei jada ahulduta zeudenean aurre egin. Horrez gain, uhartea itzel kokatuta zegoela zeritzoten Italia eta Siziliako itsas bidean.

**45.**– Ideia horrekin atenastarrek aliatutzat hartu zituzten Korzizarrak, eta ez asko geroago, korintoarrek alde egin zutenean, hamar sorospen ontzi bidali zizkieten; eurotan buru Zimonen seme Lazedemonio, Estronbikoren seme Diotimo eta Epiklesen seme Proteas zihoazen. Korintoarrekin ez borrokatzeko agindua zieten emana, Korzizarra edo euren lurralderen baterantz joan eta lehorreratzeko asmotan ibili ezean behintzat; kasu horretan galarazi egin behar zieten euren ahalean. Agindu horiek itunak ez urratzeko eman zizkieten. Eta ontziak Korzizarra arribatu ziren.

**46.**– Korintoarrak, berriz, prest egon zirenean, Korzizarantz itsasoratu ziren ehun eta berrogeita hamar ontzirekin; hamar elearrenak ziren, hamabi megararrenak, hamar leukadetarrenak, hogeita zazpi anpraziarrenak eta bat anaktoriarrena, laurogeita hamar, berriz, korintoarrenak. Haien buru hiri bakoitzak izendaturiko komandanteak zihoazen, eta korintoarrenen buru Eutiklesen seme Xenoklides beste lau lagunekin.

Leukade iraganda Korzizarren aurrean dagoen kontinentearen aldera heldu zirenean, Kimerion, Tesprotian, ainguratu zuten (portu bat da eta beraren hiria, Efira, gainaldean dago portua ikusmenean duela, itsasotik urrun, Eleako lurraldean, Tesprotian; hiriaren ondoan Akerusia urmaelak itsasora isurtzen ditu bere urak, bertara datorrelarik, Tesprotia zeharkatu ondoren, Akeronte ibaia, urmaelari izena damaiona; hantxe dago Tiamis ibaia ere Tesprotia eta Zestrina banantzen; bi ibai horien artean jaikitzen da Kimerio tontorra); kontua da korintoarrek kontinentearen alde horrextan ainguratu zutela eta hantxe eraiki zutela kanpamentua.

**47.**– Korzizarrek euren kontra zetozela jakin zutenean, Miziades, Esimides eta Euribato buru zirela hamar ontzi prestatu ondoren, Sibota



esaten zioten uharte batera joan ziren kanpatzera; hamar ontzi atikarrak ere han ziren.

Leuzimna tontorrean zegoen haien infanteria eta Zazinthhoko mila hoplita laguntzera etorriak. Beste aldetik, kontinenteko barbaro asko ziren korintoarrei laguntzera etorriak, alde hartako biztanleak, izan ere, beti izan zituzten aldeko eta.

**48.**– Korintoarrak, prest egon zirenean, Kimeriotik gauez itsasoratu ziren hiru egunerako hazkurriekin borrokan hasteko asmoz eta, nabigazioan aurrera zihoazela, egunsentian korzizarren ontziak ikusi zituzten itsaso zabalean eurenganantz zetoze. Elkar ikusi bezain laster borrokarako formazioan jarri ziren: korzizarren eskuin ertzean ontzi atikarrak zeuden eta gainerako formazio guztia eurek betetzen zuten, ontziak hiru zatitan banatu ondoren, hiru komandateak zati banatan buru zirela.

Horixe zen korzizarren antolamendua. Korintoarrenari dagokionez, haien eskuin ertza ontzi megararrek eta anpraziarrek betetzen zuten, erdia gainerako aliatuek indar moten arabera taldekatuta; ezker ertzean korintoarrak zeuden itsasoan ongien zebiltzan ontziekin, atenastarren eta korzizarren eskuin ertzaren aurrez aurre.

**49.**– Alde biei seinalea eman eta elkarrekin topo egin ondoren, borrokan hasi ziren: alde biek zituzten hoplita asko kuberta gainean, hainbat arkulari eta xabalina-jaurtitzailaz gain, oraindik modu ezjakin samarrean antzinako erara prestatuta. Basatia izan zen bataila, ez hainbeste taktikarengatik, lehorreko borrokarako egokiagoa izan zelako baino. Elkar abordatzen zutenean ez ziren erraz askatzen, ontzi asko eta desordenen zebiltzalako, baita garaipena kuberta gaineke hoplitei esker lortzea espero zutelako ere, irmo borrokatzen ari baitziren ontziek zirkinik egin gabe zirauten artean; ez zegoen maniobrarik, trebetasunez baino bihotzaz eta indarraz borrokatzen baitzen.

Kontua da zalaparta izugarria zegoela alde guztietatik eta nahasia gertatzen ari zela bataila, non bertan zebiltzan ontzi atikarrek, korzizarrei estu zebiltzanean laguntzeko, mehatxuka ekiten zieten beren aurkariei, borrokan sartzen ez baziren ere, haien komandanteek Atenasen aginduak errespetatzen zituztelako.

Korintoarren eskuin ertza zen batez ere larri zebilena: korzizarrek, hogeitazirekin ihes eragin, lehorrerantz sakabanatu zirenean jazarri, haien kanpamentura joan eta lehorreratu ondoren, bertan behera utzita-





ko haien dendei su eman eta ondasun guztiak arpilatu zizkieten. Ertz horretan bederen korintoarrak eta aliatuak galtzen ari ziren eta korzirarrak nagusitzen. Korintoarrak bakarrik zeuden ertzean, ordea, ezker ertzean, handia zen haien abantaila, zeren korzizarrei, jada hasieran besteak baino gutxiago zirelarik, gainera jazartzen joandako hogeitontziak falta zitzaizkien.

Atenastarrak, korzizarren zailtasunak ikusi zituztenean, erabakitsuago laguntzen hasi zitzaizkien, hasieran ontzi korintoarrik aboratzeko ekiditen bazuten ere; alta, korzizarrak nabarmen sakabanatzen hasi zirenean eta korintoarrak gainera etorri zitzaizkienean, orduan denak hasi ziren esku hartzen eta ez zen jada bereizketarik egin eta, besterik ezin eta, atenastarrak eta korintoarrak elkar joka hasi ziren.

**50.**— Ihesa gertatu ondoren, korintoarrak ez ziren arduratu matxuratu zituzten ontzien kroskoak kablez lotu eta atoian eramateaz, baizik ontzi artean igaro eta gizonengan jarri zuten arreta preso hartzeko barik jo eta garbitzeko asmoz eta, euren eskuin ertzean garaituak izan zirela konturatu ez zirenez, euren lagunak hiltzen zituzten ezagutu barik.

Bando bietako ontziek, asko izanik, itsasoaren hedadura handi bat betezen zutenez, borrokan hasi eta gero ez zen erraz bereiztea nor ari zen garaitzen ala garaitua izaten; ontzi kopuruagatik itsas bataila hau handiena izan zen antzinakoetan Heleniarren artean. Korintoarrek, korzizarrak lehorreraino jazarri ondoren, pezioak eta euren hilak jasotzen jardun zuten, eta gehienak aurkitu zituzten Sibotara eramateko, non barbaroen armada baitzegoen eurei laguntza ematera lehorrez etorrira (Sibota Tesprotiako portu huts bat da).

Hori egin eta gero, berriro elkarrengana bildu eta korzizarren kontra abiatu ziren; korzizarrak ere, nabigatzeko gauza ziren ontziekin eta atikarrez gain gelditzen zitzaizkien guztiekin, kontrako norabidean abiatu ziren euren lurraldean lehorreratuko ote ziren beldurrez. Berandu zen jada eta erasoaldiari hasiera emateko peana joa zen, bat-batean korintoarrak biratu gabe atzeraka hasi zirenean atenastarrek sorospen gisa lehengo hamar ontzien ostean bidalitako beste hogeitazetozela ikustean, atenastarrak beldur baitziren Korzizarrak, gertatu ere gertatu zen moduan, garaituak izango ote ziren eta euren hamar ontziak haiek defenditzeko gutxi izango ote ziren.

**51.**— Kontua da ezen korintoarrek, haiek ikustean eta uste izanik ikusten zituztenak baino gehiago zetozela Atenastik, atzera egin zutela. Ez



zeuden korzizarren ikusterrean, ezkutuka samar inguratzen ari baitziren, eta harrituta zeuden korintoarrak biratu gabe atzeraka ikustean, hariak eta ikusi zituzten batzuek ontzi haiek hurbiltzen ari zirela esan zuten arte; orduan eurek ere alde egin zuten, iluntasuna areagotzen ari baitzen, korintoarrak eremua uzten ari zirenean. Horrelaxe banandu ziren elkarrengandik eta itsas bataila ilunabarrean amaitu zen.

Leagroren seme Glaukon eta Leogoraren seme Andozides buru zituztela Atenastik etorritako hogeitaz gutxi gorpu eta pezioen artean nabigatuz korzizarrek Leuzimnan zuten kanpamentura heldu ziren besteek eurak ikusi baino ez asko geroago; korzizarrek, gauez zenez, etsaien ontziak izan zitezkeela pentsatu zuten, baina gero ezagutu zituzten eta aingurak bota zituzten.

**52.**– Biharamunean, hogeita hamar ontzi atikarrak eta nabigatzeko moduan zeuden korzizarrak, aingurak altxatu ondoren, korintoarrak ainguratuta zeuden Sibota porturantz abiatu ziren, borrokan hasteko asmotan zebiltzanentz egiaztatzeko; baina haiek, ontziak lehorretik urrunduta eta itsaso zabalean lerrokatu ondoren, lasai zeuden, ez baitzuten batailan eurenez hasteko asmorik, korzizarrei Atenastik etorritako ontzi ukigabeak batu zitzaizkiela ikusi eta gero, eurek, ordea, zailtasun handiek zituztenean, bai ontzietan zituzten presoak zaindu beharrak eta bai leku huts batean ontziak konpondu ezinak sortarazitakoak.

Ettxera nola eta nondik itzuli zen haien ardura nagusia, beldur baitziren Atenastarrek ituna hautsitzat joko ote zuten, elkarri aurre egitera heldu zirenez gero, eta alde egiten utziko ez ote zieten.

**53.**– Kontua da gizon batzuk txalupa batean enbarkatu eta atenastarrengana heraldo-makilarik gabe bidaltzea erabaki zutela zertan ziren kalkulatzeko. Mandatariek haxe esan zuten:

«Gaizki egiten duzue, atenastarrok, gerra hasi eta itunak urratzean, zeren armak hartzean guk geure etsaiak zigortzea eragozten baituzue. Zuen asmoa guri Korzirara edo gura dugun beste edonora joaten ez uztea eta ituna urratzea bada, har gaitzazue lehenago preso hemen gaudenok eta emaguzue etsaiei ematen zaien tratua».

Horixe baino ez zuten esan. Kanpamentu korzizarreko jende guztia, hori entzun eta batera, oihuka hasi zen guztiak preso hartu eta hiltzeko eskatuz, baina atenastarrek honako hau erantzun zuten:



«Ez gerra hasiko dugu, peloponesoarrok, ez itunak hautsiko, gu aliatu ditugun korzizarrei laguntzera etorri baikara. Beste edonora joan nahi baduzue, guk ez dizuegu galaraziko, baina Korzilara edo bertako lurralderen batera bada, ez dizuegu, geure ahalean, joaten utziko».

**54.**— Atenastarren erantzuna entzunda, korintoarrak beren aberrira joateko prestatu ziren eta trofeoa eraiki zuten kontinenteko Sibotan. Korzizarrek, berriz, mareak eta haizeak, gauean jotzen hasita noranahi sakabanatu ondoren, beren itsasbazterrera ekarritako gorpuak eta pezioak jaso zituzten eta, euren burua garailetzat jota, trofeoa eraiki zuten uharteetako Sibotan; alde batak zein besteak beretzat zuen garai-pena honako irizpide honekin:

Korintoarrek, batailan gautu arte irabazi zutelako eraiki zuten trofeoa, pezio eta gorpurik gehienak eramateraino irabazi ere, mila bat preso hartu eta hirurogeita hamar ontzi etsai inguru hondoratu ondoren.

Korzizarrek, hogeita hamar bat ontzi suntsitu eta, atenastarrak iritsi eta gero, itsasoak eurenaganaino ekarritako pezioak eta gorpuak jaso zituztelako; bezperan korintoarrek, ontzi atikarrak ikustean, atzera egin zutelako eta atenastarrak heldu eta gero ez zirelako Sibotatik euren kontra etorri; horrexegatik eraiki zuten trofeoa. Hartara, batzuek eta bestetziek garailetzat zuten euren burua.

**55.**— Etxera bidean korintoarrek engainuez baliatuta Anaktoria hartu zuten, Anpraziako sarreran dagoen eta euren eta korzizarren jabetza komunekoa zen hiria, eta kolono korintoarrak bertan finkatu ondoren etxera alde egin zuten. Preso korzizarretarik, esklaboak ziren zortziehun saldu egin zituzten, eta berrehun eta berrogeita hamar preso eduki zituzten eta arreta handiz tratatu zituzten, euren aberrira itzultzean Korzira eskura jarri ziezaieten, euretako gehienak, bertan zuten influentziagatik, hiriko lehenengoak baitziren.

Labur esanda, horrelaxe atera zen Korzira korintoarrekin izandako gerratik, eta ontzi atenastarrek alde egin zuten bertatik.

Horixe izan zen korintoarrek atenastarren kontra izan zuten lehenengo gerraren zergatia, hau da, korzizarren bandoan euren kontra borrokatu izana itunak hautsita.

**56.**— Horren ondoren segituan, haserre bide izan ziren ondoko gertakariak, atenastarren eta peloponesoarren artean gerra pizteraino izan ere:



Korintoarrak atenastarrez mendekatzen saiatzen ziren artean, atenastarrek, haien etsaitasuna barruntatuz, potidearrei –Palene istmoko biztanleak eta Korintoko kolonoak, nahiz eta atenastarren zergapeko aliatuak– agindu zieten Paleneraino hedatzen zen harresia eraisteko, bahituak entregatzeko eta korintoarrek urtero bidaltzen zituzten epidemiurgoak egozteko eta aurrerantzean ez onartzeko, matxinatuko ote ziren eta Traziako gainerako aliatuen errebolta bultzatuko ote zuten beldur baitziren atenastarrak.

**57.**– Potidearrekiko neurri horiek Korzirako itsas batailaren ondotik segituan hartu zituzten atenastarrek, zeren korintoarrek garbi agertzen baitzuten beren desadostasuna eta, gainera, mazedoniarren errege Alexandroren seme Perdikas –lehenago aliatu eta adiskide izana bazuten ere– etsaitu egin baitzen; etsaitu egin zen, atenastarrek bere anai Filiporekin eta Derdasekin –bere etsaiak biak– aliantza bat sinatu zutelako, eta, horrek ikaratuta, Lazedemondarekin negoziatu zuen mandatarien bitartez, atenastarren eta peloponesoarren artean gerra has zedin, eta korintoarrak erakartzea lortu zuen Potidearen errebolta begira. Proposamenak egin zizkien Traziako kaltzidiarrei eta botiatarrei ere, errebolta elkar zitezen, uste baitzuen mugakide ziren lurralde horiek guztiak aliatu izanez gero, gerra errazago egin ahal izango zuela euren laguntzaz.

Atenastarrek hori jakitean eta hirien errebolta aurrea hartu nahirik –hain zuzen ere hogeitaz eta mila hoplita bidaliak zituzten haien lurraldera Likomedesen seme Arkestratoren eta beste lau komandantearen aginduetara–, ontzietako komandanteei agindu zieten bahitu potidearrak hartzeko, harresia eraisteko eta inguruko hiriak zaintzeko, matxina ez zitezen.

**58.**– Potideakoei atenastarrek eurekiko neurri berezirik ez hartzeraz limurtzen ahalegintzeko Atenasera enbaxadoreak bidaltzean, eta Lazedemondera ere korintoarrekin joatean laguntza prest eduki zezaten, behar izanez gero ere, atenastarrendik ez baitzuten ezer positiborik erdietsi luzaro negoziatzen ibili arren, Mazedoniaren kontra bidalitako ontziak euren kontra ere bazihoazen eta, agintari lazedemondarrek agindu zieten, atenastarrek Potidearen kontra eraso jotzen bazuten, eurek Atika inbadituko zutela eta orduan, abagune horretan, kaltzidiarrak eta botiatarrak lagun zituztela matxinatu ahal izango zirela.

Perdikasek ere konbentzitu zituen kaltzidiarrak beren itsasondoko hiriak bertan behera utzi eta suntsitu ondoren, lur barruan, Olinton, bizi-





tzen jar zitezen, eta hiri hori beren hiri bakar eta, beraz, gotortu bihur zezaten; beren lurrak bertan behera utzi zituztenei Bolbe lakuaren ondoko Migdonian zituen lurren zati bat eman zien; haiek euren hiriak suntsitu ondoren lur barruan finkatu ziren eta gerrarako prestatu ziren.

**59.**— Bitartean hogeita hamar ontzi atenastarrak Traziara heldu ziren eta Potidea eta gainerako lurraldeak erreboltan aurkitu zituzten. Komandante atenastarrak, uste izanik zeuzkaten indarrekin ezinezkoa zela Perdikasi eta matxinaturiko lurralde guztiei aurre egitea, Mazedoniara abiatu ziren, beraren kontra bidali baitzituzten hasieratik, eta, heldu zirenean, gerra burutzeko prestatu ziren beren tropekin lur barrutik inbaditua zuten Filiporen eta Derdasen anaien laguntzarekin.

**60.**— Potidea matxinaturik eta ontzi atikarrak Mazedonian zeudela, korintoarrek, lurraldearen beldur eta arriskuak beren arriskutzat hartuta, soldatapeko boluntarioak bidali zituzten euren herrialdetik eta Peloponeso guztitik, orotara mila eta seiehun hoplita eta lauhun infante arinki armatuta; Adimantoren seme Aristeo zeramaten buru —Korinto-ko boluntario gehienak gehienbat Aristeorekiko adiskidantzagatik joan ziren—, betitik izan baitzen potidearren lagun. Potidea matxinatu eta berrogei egunera heldu ziren Traziara.

**61.**— Atenastarrei berehala heldu zitzairen atenastarrak matxinatu ziren berria eta, Aristeoren tropak hara arineketan zihoazela jakin bezain laster, euren mila hoplita eta berrogei ontzi bidali zituzten matxinatuen kontra, Kaliadesen seme Kaliasen eta beste lauren aginduetara.

Lehenbizi Mazedoniara helduta, han aurkitzen dute lehenago bidalitako bi mila hoplitek Terma hartu berri dutela eta Pidna setiatu dutela. Eurak ere Pidnaren setiora batu ziren, baina geroago, Perdikasekin beharrezko akordio eta aliantza batera heldu ondoren Potideak eta Aristeon etorrerak premiatzen zituztelako, alde egin zuten Mazedoniatik.

Beroara eta handik Estrepsara heldu eta gero, leku hura hartzen, lortu barik baina, ahalegindu ondoren, oinez segitu zuten Potidearantz beren hiru mila hoplitekin eta, horiez aparte, aliatu askorekin eta Filipo eta Pausaniasekin zihoazen seiehun zaldizkorekin; gainera, hirurogeita hamar ontzi zihoazen itsasbazterrari jarrai. Astiro aurrera eginez, hirugarren egunean Gigonora heldu ziren eta kanpamentua ipini zuten bertan.

**62.**— Aristeorekin zeuden potidearrek eta peloponesoarrek istmoan Olinto aldetik kanpatu zuten atenastarren zain, eta merkatu bat antola-



tu zuten hiriaren kanpoaldean. Aliatuek infanteria guztiaren komandante buru Aristeo aukeratu zuten, zalditeriarena Perdikas, zeren berehala atenastarrei berriro huts eman eta potidearren aldean ari baitzen borrokan bere lekuan Iolao ipinita. Aristeoren irizpidea zen berak bere tropekin istmoan atenastarrak zaintzea erasora bazetozen ere, istmotik kanpoko aliatuak eta Perdikasen berrehun zaldizkoak Olinton zain zeuden bitartean, eta, atenastarrek euren kontra etortzean, Olintokoak atzetik laguntzera etorri eta etsaiak ustekabean bien erdian harrapatzea.

Kalias komandante atenastarrak eta bere burkideek, alabaina, zalditeria mazedoniarra eta euren aliatuetako gutxi batzuk Olinto aldera bidali zituzten hangoak laguntzera joatea eragozteko, eta bitartean eurak kanpamentua altxatu eta Potidearen kontra joan ziren aurrera. Istmora inguratuta, etsaiak borrokara balihoaz bezala prestaturik zeudela ikusi zutenean, eurak ere borrokarako formazioan jarri ziren eta ez askoz geroago borrokan hasi ziren. Aristeoren ertzak eta berarekin zeuden korintoarren eta beste aliatu batzuen eliteko tropek ihes eragin zieten aurrez aurre zituztenei eta urrunera arte joan ziren haien atzetik; hala ere, gainerako indar potidear eta peloponesoarrak garaitu egin zituzten atenastarrek eta harresiaren atzean babestu ziren.

**63.**— Aristeok jazarpenetik itzulita gainerako armada guztia garaituta ikusi zuenean, ez zuen jakin nora joaten arriskatu, Olintora ala Potidea-ra; azkenean Potidearako sarbidea lasterka bortxatzea erabaki zuen, bereak ahalik lekuri txikienean berriz elkartu ondoren; orduan itsasotik, olatu-hormaren ondotik, iragan zen jaurtigaiei helmenean eta nekez baina, soldadu gutxi batzuk galdu zituen arren, gehienak salbatu zituen.

Potidearrentzat Olintotik –hirurogei bat estadiora dago eta urrunera ikusten da– zetozen sorospenek, bataila hasi eta seinaleak jaso zirenean, apur bat aurrera egin zuten laguntzeko asmoz eta bitartean zalditeria mazedoniarra aurrez aurre jarri zitzaienten galarazteko, baina, garaipenak laster batean atenastarren aldera egin zuenean eta seinaleak erriatu zirenean, harresietara egin zuten berriro, mazedoniarrek atenastarren aldera atzera egiten zuten artean: zalditeriak ez zion bando batari ez besteari lagundu.

Bataila ostean, atenastarrek trofeoa eraiki zuten eta su-etena bitarteko Potideakoei euren hilak entregatu zizkieten. Potidearretarik eta euren aliatuetarik hirurehun baino gutxi gutxiago hil ziren; atenastarretarik ehun eta berrogeita hamar eta euren komandantea, Kalias.



**64.**– Atenastarrek, istmoaren aldetik horma bat segituan eraikita, guardiak jarri zituzten; baina Palenerantz ez zegoen hormarik, uste zutelako, istmoan guardiak jarri, Palene zeharkatu eta beste horma bat eraikitzeke kapaz ez zirela, potidearrek eta beren aliatuek bananduta egoitean erasoko zieten beldurraren aurrean.

Hiriko atenastarrek jakin zutenean Palene ez zegoela harresiz blokeatuta, beste espedizio bat bidali zuten euren mila eta seiehun hoplitarekin Asopioaren seme Formion buru zutela. Palenera helduta, Afitistik Potidearen kontra eraman zuen armada, astiro-astiro aurrera egin ahala eskualdea deboilatuz, eta, inor etorri ez zitzaionez batailatzerara, harresi bat eraiki zuen Palene aldetik; hartara, Potidea alde bietatik setio gogor baten pean gelditzen zen, itsaso aldetik han ainguraturiko ontziek setiatuta aurkitzeaz gain.

**65.**– Hiria blokeaturik gelditu zenean salbazio esperantzarik gabe, Peloponesotik etorri ezean edo ustekabeko zerbitu gertatu ezean, Aristek proposatu zuen guztiak, bostehun izan ezik, haizea jotzen hasi arte zain egon zitezela eta itsasoz abiatu zitezela, hazkurriek luzaroago iraun ziezaieten; hark berak, berriz, gelditzen zirenetakoa izan nahi zuen. Bere proposamenari kasurik egin ez ziotenez, aterabide alternatiboak aurkitu eta handik kanpo emaitzarik onenak lortu nahirik, itsasoz ihes egitea lortu zuen zaintzaile atenastarrak ohartu gabe. Kaltzidiarren artean egon zen artean, beste arma-gertakari batzuetan esku hartzez aparte, segada batean sermiliar asko hil zituen euren hiriaren aurrean eta Peloponesorekin elkarriketak izan zituen laguntza lortzeko moduari buruz. Potidea blokeatu ondoren, Formionek bere mila eta seiehun soldaduekin Kalzidika eta Botika suntsitzen jardun zuen, eta hiri batzuk hartu ere egin zituen.

**66.**– Atenastarrek eta peloponesoarren, lehengo arrazoiez gain, kexatzeko motibo hauenek zituzten: korintoarrek atenastarrekiko, Potidea, beren kolonia, korintoarrak eta peloponesoarrak barruan zirela setiatzea; atenastarrek peloponesoarren, euren aliatu eta zergapeko zen hiri bat matxinatzea eta potidearren bandoan euren kontra borrokatzea. Hala ere, gerra-gerra oraindik ez zen piztua, zeren oraindik indarrean baitziraen etsaitasunen etenak, korintoarrek partikular gisa zihardutelarik.

**67.**– Hala ere, Potidearen setioa ikusita ez ziren geldi egon, euren gizonak barruan zeudelako eta gainera lurraldeaz kezkatuta zebiltzalako. Lazedemonen biltzeko deia egin zieten segituan aliatuei eta, bildu zire-



nean, atenastarrek itunak hautsi izanaz eta Peloponeso iraindu izanaz kexatu ziren; eginarrak –ordezkaritza ofizialik barik atenastarren beldurrez–, ezkutuan, ez zituzten gutxiago babesten beren gerrarako aholkue-tan, itunean hitzarturiko moduan independenteak ez zirela argudiatuz.

Lazedemondarrek, atenastarrendandik irainak jaso zituztela baieztatzen zuten aliatuei biltzera deitu eta ohiko batzarra hasi ondoren, hitza eman zuten; hitza hartuta, hainbat erreklamazio aurkeztu zituzten, bereziki megararrek, desakordiorako arrazoi ez gutxi aurkeztu baitzituzten, batez ere inperioko portuak eta Atikako merkatua erabiltzeko betoa jar-tzen zitzaie-la itunetan hitzarturikoaren kontra.

Korintoarrek, aldiz, azkenean hartu zuten hitza, besteek lazedemondar-rak zirika zitza-ten utzi ondoren, eta honako hau gehitu zuten:

**68.**– «Zuen jarduera publiko eta pribatu-etan ematen den konfiantzak besteongan, hitz egiten dugunean, mesfidantza handiegia izatera bul-tzatzen zaituzte; horren eraginez jarrera kontserbadorea hartzen duzuen arren, hala ere gutxiago ezagutzen duzue kanpoko erre-alitatea: nahiz eta guk abisatu genizuen atenastarrek kalteak egingo zizkigutela, kasu bakoitzean ematen genizuen informazioari entzungor egiten zenioten eta gure hitzak ika-mika partikularren ondorio zirela uste zenuten. Horrexegatik ez zenieten bilerarako deirik egin aliatuei kalteak jaso aurretik, jada egitate burutuen aurrean gaudenean baizik, eta aliatu hori-xen aurrean guk hitz egitea interesatzen da ez gutxi, erreklama-ziorik handienak ere geuk, atenastarrek irainduok, zuek abandonatuok, ditugun neurrian.

«Heladeren kontra eraso-a ezkutuki joko balute, hori zuei salatu beharra legoke ez bazenekite bezala; baina, zertarako dira orain hitzak, zapaldu batzuek besteen kontra –eta ez gutxiago gure aliatuen kontra– azpik-e-riak asmatzen eta aspal-dit-ik, gerran sartu beharra balute ere, badaezpa-da neurriak hartzen ikusten dituzuen-ean. Ez lukete, jakina, Korzira gure nahiaren kontra berentzat gordeta edukiko, haren jabe indarrez egin eta gero, ezta Potidea setiatzen jarraituko ere, Trazian operatzeko enklabe-rik egokiena bata, peloponesoarrei ontzi kopururik handiena emango ziokeena bestea.

**69.**– «Horren errudunak zeuek zarete, lehenbizi Gerra Mediarren oste-an euren hiria gotortzen eta gero Horma Luzeak eraikitzen utzi zenie-telako, eta oraintxe arte askatasuna kentzen segitzen duzuelako ez bakarrik haiek esklabo bihurturikoei, baizik orain zuen aliatuak direnei





eurei ere; izan ere, ez da besteak esklabo bihurtzen dituen, horri amaiara eman diezaiokeena eta egiten uzten diena baizik, benetan hori egiten duena, eta areago gainera harrokeriaz beterik Helade askatzeko ohoreaz mintzo bada.

«Egia esanda, nekez biltzen gara orain eta une honetan ere ez helburu argi batekin, ez baikenuke aztertu behar irainduak eta kaltetuak izan garen, baizik nola defendi genezakeen geure burua; haiek, ekintzara jota, euren erabakiak hartuta eta zalantza-balantzan ibili barik di-da abiatzen dira oraindik zalantzati gabiltzanon kontra. Atenastarrek zein metodo darabilten ere badakigu, baita poliki-poliki jokatzten dutela ere.

«Zuen oharkabetasunari esker inor konturatu gabe dihardutela uste dutelako, ausarkeria gutxiago erakusten dute, baina jakin arren amore ematen duzuela konturatzen badira, jo eta su jardungo dute horretan. Lazedemondarrok, zeuen burua zeuen ahalaz defenditu beharrean asmo hutsaz bakeari eusten saiatzen zareten bakarrak zarete, eta etsaien boterea hasieran dagoenean suntsitu beharrean bikoiztu denean suntsitzen duzuen bakarrak.

«Hala ere, esaten zen fidagarriak zinetela zuek, errealitatea gainditzen duen ospea duzuenok, ikusi baikenuen mediarra lurraren mugetatik zuek duintasunez aurre egin aurretik heldu zela Peloponesora, eta orain hura bezala urrun barik hur dituzuen atenastarren ardurarik gabe bizi zarete, eta zeuek haiei eraso beharrean nahiago duzue eurek erasotzean zuek defenditzea eta zeuen burua zoriaren eskuetan jartzea askoz indartsuagoak izango direnen kontrako borrokan, ondo jakinik barbaroak gehienetan bere erruz egin zuela porrot eta gu atenastarren aurrez aurre garaile atera garela haien okerrengatik areago, zuen laguntzagatik baino, zeren zuen esperantzek, kasuren batean, zuetaz fidatzearren prestatu gabe zeudenen hondamendia ekarri baitzuten.

«Zuetariko inork ez dezala pentsa hau etsai gisa esaten zaizuela kexa gisa baino areago, kexa nahasten diren adiskideei baitagokie, akusazioa ordea iraintzen duten etsaiei.

**70.**– «Gainera, uste dugu eskubidea daukagula, besteek eduki dezaketen moduan, geure kritikak besteei azaltzeko eta bereziki interes handieneko gaiak planteatzen direnean, ematen duelarik gaioz, gure ustez bederen, zuek ez zaretela konturatzen eta pentsatu ere ez duzuela egiten nolakoak diren eta zein neurritan diren zuengandik diferenteak –zeharo ez esatearren– aurre egin beharko diezuen atenastarrak.



«Haiek planak egiten eta erabakitzen dutena gauzatzen berritzaileak eta azkarrak dira, zuek, ordea, daukazuena gordetzen, proiektu berririk ez egiten eta behar-beharrezkoari ere kasurik ez egiten zarete trebeak.

«Haiek, aldi berean, ausartak dira euren indarrez haratagoraino, arrisku zaleak arrazoizkoa denaz haraindi eta arriskueta baikorrak; zuena, berriz, zeuen botere eta irizpidearen azpitik jokatzeko da, gauza seguruetan ere konfiantzarik ez jartzea eta arriskutik libre inoiz ere ez zaretela izango uste izatea. Eta egiatan dira erabakitsuak haiek uzkurak zaretenean aldean eta euren herrialdetik irteteko prestak zeuenara temati atxikita zaudetenon aldean, zeren haiek uste baitute irtenda zer edo zer irabaz lezaketela, eta zuek, irtenez gero, eskuan duzuen ere urritu egingo litzaizuekeela. Etsaiak garaituz gero, etekinik handiena ateratzen diote haiek garaipenari; garaituak izatean, ahalik gutxien ematen dute.

«Are, aberriagatik bizia ematen dute altruismorik handienaz, baina haren alde negoziatzeko oso irizpide pertsonalaz baliatzen dira.

«Gura dutena lortzen ez dutenean norberea den zerbait galdu dutela uste dute, baina nahi dutena erdiesten dutenean, erdietsi nahi zutenerako gutxi lortu dutela.

«Baldin, espero izatekoa den moduan zerbait lortzean porrot egiten dutenean, helburuak aldatuz betetzen dute huts hori. Edukitzea eta nahi dutena edukitzea espero izatea gauza berbera dira haientzat, eta horretan bakarrak dira, erabakitzen dutena agudo betetzen dutelako.

«Horregatik guztiagatik jo eta ke aritzen dira ahaleginez eta arriskuz euren bizialdi osoan, eta ondasunez oso gutxi gozatzen dute etengabe eskuratzen jardutearren, euren eginbeharrak betetzea ez den ezer jaitzat ez edukitzearren, eta alferraren lasaitasuna lan neketsua baino ez behar handiagotzat edukitzearren.

«Hartara, norbaitek laburbilduz esango balu haiek lasaitasunik ez edukitzeko eta besteei edukitzen ez uzteko jaio direla, arrazoi luke.

**71.**— «Hala ere, lazedemondarrok, horrelako hiri bat aurrez aurre eduki arren, uzkur agertzen zarete eta ez duzue kontuan lasaitasuna nahikoa dela zer den justua beren boterearen arabera neurtzen eta praktikatzeko duten gizon horientzat, baina argi dagoela irainik jasoz gero amorerik ez emateko duten asmoa; zuek, ordea, justua dena inori kalterik ez egitean eta kalterik ez jasotzeko defentsan aritzean jartzen duzue. Alboan zeuen antzeko hiria edukita ere nekez lortuko zenuketen hori; baina,



arestian azaldu dugun bezala, zuen jarrerak zaharkituak dira haien aurrez aurre. Ofizio bat balitz bezala hartu behar dira menpean aurre-rapenak, eta bakean dagoen hiri batentzat arau aldaezinak onenak badi-ra ere, askotariko helburuei erantzun behar dietenentzat beharrezko da askotariko espezializazioa, eta horrexegatik berriztatu dira atenastarrak zuek baino gauza gehiagotan askotariko esperientziak burutuz.

«Hitz batean, aipa bedi zuen geldotasuna, baina orain artekoa bakarrik; eta orain, lagun iezaiezue potidearrei eta gainerakoei, agindu zenieten bezala, Atika agudo inbadituz, adiskide eta ahaide dituzuenak etsairik handienei entrega ez diezazkiezuen eta besteok ere behartu ez gaitza-zuen, etsita, beste aliantza bat bilatzera.

«Ez genuke inolako bidegabekeriarik egingo ez zinen jainkoen aurrean ez ulertzen duten gizonen aurrean, ez baitituzte itunak hausten lehen-goak utzi eta besteengana pasatzen direnek, baizik eurekin konjuratu zirenei laguntzen ez dietenek.

«Prest egotekotan bazarete, gelditu egingo gara, zeren, aldatuko bagina, ez baikenuke erlijioz jokatu, ezta gure kideagorik aurkituko ere.

«Horretan, bada, ongi deliberatu eta zeuen gurasoek utzi zizutena baino eskasagoa izango ez den Peloponeso bateko buruzagi izaten saiatu.

**72.**– Horrelaxe mintzatu ziren korintoarrak. Aurretik Lazedemonen beste arrazoi batzuegatik hain zuzen ere enbaxada atenastar bat zegoen eta elkarriketen berri izan zutenean lazedemonдарren aurrean hitz egitera joatea erabaki zuten, ez hiriek aurkezten zituzten erreklamazio-etatik defenditzeko, baizik oro har adierazteko azkarregi erabaki barik astiz pentsatu behar zutela. Gainera euren hiriari buruz nolako boterea zuen adierazi nahi zuten eta helduagoei zekitena gogorarazi eta gazteei ez zekitena azaldu, uste izanik euren hitzei esker gerraren alde barik bakearen alde jarriko zirela. Kontua da ezen bertara inguratuta lazedemonдарrei esan zietela berek ere euren batzarrari hitz egin nahi zietela, eragozpenik ez bazuten. Lazedemonдарrek aurrera etorrarazi zituzten, eta handik honako hau esan zuten atenastarrek:

**73.**– «Gure enbaxadak ez zuen eginkizun zuen aliatuei ihardestea, baizik gure hiriak gu hona bidaltzean nahi zuena betetzea. Hala ere, gure kontrako oihua ez zela txikia jakitean, hitz egitera hurbildu gara, ez hirien erreklamazioei ihardesteko –zeren ez gure hitzak ez horienak ez bailirateke zuen aurrean epaile gisa esango–, baizik zuen aliatuek oker



limurtuta ez dezazuen arinki erabaki garrantzi handieneko gauzei buruz, eta aldi berean guri buruz esaten den guztiaren gainean zera esateko gogoak ekarri gaitu hona, alegia, daukaguna ez daukagula arrazoirik gabe eta gure hiriak aintzat hartua izatea merezi duela.

«Oso urrunekoari buruz, zer esan behar da horren lekuko ahozko tradizioak areago direnean, entzungo gaituztenen begiak baino? Gerra Mediarrei eta ezagutzen duzuen guztiari dagokienez, gauza horiek etenik gabe azaltzea neketsu bihurtuko den arren ere, azaldu beharra dago. Izan ere, esku hartu genuenean, arriskuan sartu ginen zuek ere gozatzen ari zareten onura bat eskuratzeko; ez bekigu ken, baliagarri balitz ere, horretaz hitz egiteko aukera oro.

«Esan beharko da, ez hainbeste eskari bat egiteko, baizik lekukotasuna eta argitzapena emateko, zein hiriren kontra izango den zuen borroka, ongi deliberatzen ez baduzue.

«Esan behar dugu Maratonen geu izan ginela barbaroaren aurrez aurre arriskuan sartu ginen bakarrak, eta, bigarren aldiz etorri zenean, lehorrean defenditzeko nahikoa ez ginelarik, populazio guztia ontzietara eramanez ondoren, Salaminan borrokatu genuen, horrexek galarazi ziolarik Peloponeso suntsitzea, hiri guztiei banan-banan itsasoz erasoz, ez baitzineten izan hainbeste ontziren kontra elkarri laguntzeko gai; frogarik handiena hark berak eman zuen: itsasoan garaituta, segituan alde egin zuen armadaren parterik handienarekin, jada lehen bezainbateko botererik ez balu bezala.

**74.**— «Hau horrelaxe gertatu zela berretsita eta Heleniarren gai-arazoak ontzien mende utzita egon zirela argi demostratuta, guk horretarako baliagarrienak diren hiru gauzak ekarri genituen: ontzi kopuru handiena, komandanterik burutsuena eta borrokan soin eta muin aritze ausartena. Laurehun ontzi orotara, Temistokles buru gisa, itsasartean borroka zedin gehien bultzatu zuena bera, horrexek salbatu zuelarik egoera, eta bera izan zelarik bisitatzen zaituzten atzerritarren artean zuengandik ohorerik gehien jaso zuena. Borrokatzeko erari dagokionez, ausartena erakutsi genuen nabarmen, zerenez, lehorrez inor ez zetorkigularik laguntzera eta besteak geugana heldu arte esklabo bihurtuta zeudelarik, ez baikenuen erabaki, hiria abandonatu eta gure ondasunak suntsitu ondoren ere, gainerako aliatuen elkargoa uztea ez handik zehar sakabanatuz haientzako baliagarri izaten ez segitzea, baizik ontziratu eta arriskuan sartzea, lehenago zuek guri laguntzera ez etorri izanagatik hase-





rre jarri gabe. Uste dugu, beraz, ez genizuela eman hartu genuena baino zerbitzu txikiagorik.

«Zuek jendea bizi zen eta hemendik aurrera ere bizitzeko egokiak diren hirietatik etorri zineten, zeuengatiko beldurra, eta ez gugatikoa, sartu zitzaizuenean (izan ere, oraindik salbu ginenean ez zineten azaldu). Guk, ordea, jada existitzen ez zen hiri batetik etorrira eta esperantza maila txiki batean existitzen zen bategatik arriskuan sartuz, zuek alde berderen eta geure burua ere salbatzen lagundu genuen.

«Geure herrialdearen beldurragatik lehenago mendiarrarengana pasa izan bagina, beste batzuek egin zuten bezala, edo gero enbarkatzen ausartu ez bagina geure burua galdutzat jota, hark ez zukeen edukiko ontzi nahikorik ez zenutenon kontra borrokatu beharrik, eta egoerak bare-bare haren aldera egingo zukeen berak nahi zuen moduan.

**75.**– «Ez ote dugu, bada, merezi, lazedemondarrok, Heleniarrek guri inbidia izatea orduan gu soin eta muin ari izanari eta erabaki burutsua hartu izanari esker daukagun inperioagatik. Ez genuen indarkeriaz eskuratu, baizik zuek ez zenutelako nahi izan barbaroaren hondakinen kontra borrokatzen segitu eta aliatuek gugana etorri eta euren buru izateko eskatu zigutelako. Gertakariak horretara eramanda, laster aurkitu ginen inperioa puntu horretaraino garatzera beharturik, batez ere beldurrez, gero ohorez, geroago baliagarritasunez, eta jada ez zitzaigun iruditzen segurua zenik hedeak uztea –matxinatuak zuekin joango ziratekeen– gehien-goarentzat gorrotagarriak ginenean, matxinaturik zebiltzan batzuek jada menperaturik zeudenean eta zuek ez zinetenean, lehen bezala, gure adiskideak, susmoz beterik eta desadostasunean agertzen zineten eta. Inori ezin zaio aurpegiratu ertz-ertzeko arriskueta erabaki egokiak hartzea.

**76.**– «Zuek, lazedemondarrok, egia esatera, Peloponesoko hirien gaineko burutza diharduzue, hiriok zeuen onerako antolatuz. Eta orduan, denbora guztian burutza egotearren, gu bezala gorrotatuak izan bazinete, ondo dakigu ez zinateketela gu baino leunagoak izango aliatuentzat eta gogor agintzera edo arriskuei aurre egitera beharturik aurkituko zinateketela. Horretan, guk ez dugu ezer harrigarririk ez giza portararik kanpikorik, entregatzen zitzaigun inperio bat onartu bagenuen eta hiru zio inportantek, ohoreak, beldurrak eta baliagarritasunak alegia, behartuta jaregin ez bagenion; eta gu inola ere ez gara usadio horren abiarazle izan, gizartean betidanik ezarririk baitago boteretsuenak ahulena menperatzea, guk hori merezi dugula uste izateaz eta zuek



horri ongi irizteaz gain, harik eta zeuen interesei begira justiziaren argudioa erabiltzen jarri zareten arte, horrekiko errespetuz inork, zerbait indarrez bereganatzeko aukerarik izanez gero, gehiago edukitzeari inoiz ukorik egin ez bazion ere.

«Goraipagarriak dira giza izaeraren arabera jokatzten dutenak, halatan, non besteei duten botereak uzten dien baino justizia handiagoz agintzen dieten. Zehazki, uste dugu ezen, beste batzuek gure inperioa hartuko balute, benetan demostratuko luketela neurritsuak garenentz, baina gu, geure etorkortasunagatik, ospe beltzez janzten gaituzte, goraipamenez baino areago.

77.– «Kereilariak garela ematen dugu, nahiz eta desabantailan egon geure aliatuen aurrez aurre auzi komertzialetan eta gure auzitegietan haiek geureen antzeko legeekin epaitu. Inork ere ez du aztertzen zergatik ez zaien hori kritikatzten beste nonahi inperioa eduki eta menekoen-tzat gu baino gogorragoak direnei; indarra erabili ahal dutenek ez dute epaiketarik behar. Hala ere, haiek, gurekin berdintasun baldintzetan tratatzen ohituta, zor zaiela uste dutenean galerarik txikiena jasanaz gero –dela gure irizpidea eurenarekin bat ez datorrelako, dela inperioak damaigun botereagatik–, ez digute eskertzen guk gehiena ez kentzea, baizik falta zaiena gaizkiago jasaten dute hasieratik legea albo batera utzita abusatuko bagenu baino, zeren, horretara, eurak ere ez baitziren gure kontra aterako, ahulagoak ez duela boteretsuaren mende egon behar ihardetsiz. Dirudienez, gizonak gehiago haserretzen dira injustiziaz tratatuak direnean, indarkeriaz direnean baino, zeren batak baldintza beretan abusatzea dela ematen baitu, besteak, ordea, nagusitasun egoera batetik inposatzea.

«Baina, egia esanda, mediarrengandik horiek baino gauza izugarriago-rik jasan arren, eutsi egin zioten guztiari, eta gure inperioari, ordea, nekagarria deritzote; hala behar du, zeren bizi duten ueña gertatzen baitzaie astun menekoei. Adibidez, gu paretik kendu eta boterea zeuek erabiltzera helduko bazinete, guri diguzuen beldurragatik daukazuen begikotasuna laster batean aldatuko zenukete, baldin oraingo zuen irizpidea behinola, mediararren kontrako gerra denbora laburrez gidatu zenute-nean, agertu zenuten berbera balitz, zeren zuen barne legeak ez baitira besteekin uztargarriak eta, gainera, zuetariko bakoitzarengan, Laze-demonetik at dagoenean, ez dute ez zeuen legeek ez Heladeko gainera-ko herrialdeetan indarrean daudenak agintzen.



**78.**— «Delibera ezazue, bada, lasaitasunez, zeren ez baikara txikikeriez ari, eta ez ezazue har zeuen bizkarrean, inoren erreklamazioek eta irizpideek hartaratuta, zeuena izango duzuen zama.

«Gerran sartu baino lehen azter ezazue aurretik suma ezin daitezkeen elementuen garrantzia, zeren gerrak, luzatzen denean, zoriaren eskue-tan uzten baititu zirkunstantziarik gehienak, zoritik distantzia berera aurkitzen garelarik alde biok, zoria zeinen alde egongo den jakin gabe.

«Gizonak gerran hasten direnean, lehenbizi operazioez arduratzen dira, hori gero egin behar litzatekeen arren, baina kalteak eta okerrak sufri-tzean, orduan kontsulta egitea pentsatzen dute. Guk, horrelako erra-kuntzarik oraindik egin ez dugunok eta zuek ere ez duzuela egin ikus-ten dugunok, diotsuegu ez daitezela, zuek eta guk erabaki egokia hartu ahal dugun artean, su-etenak hauts, ezta zinak urra ere, baizik desados-tasunak arbitraje batean ebatz daitezela. Horrela ez izatera, lekukotzat zinen jainkoak ipinita, gerra hasten duzuenongandik defenditzen saia-tuko gara hartzen dituzuen bideetan».

**79.**— Horrelaxe mintzatu ziren atenastarrak. Lazedemondarrek beren aliatuei atenastarren kontra zituzten erreklamazioak eta atenastarrek esan zutena entzun eta gero, denei agur esan ondoren, eurek bakarrik deliberatu zuten une hartako gaiei buruz. Gehienek iritzi bera adieraz-ten zuten, hau da, atenastarrek justiziari huts egiten ziotela eta segituan hasi beharra zegoela gerran.

Euren errege Arkidamok, zeinek burutsu eta zentzundun ospea zuen, hitza hartuta ondokoa esan zuen:

**80.**— «Badut jada gerra askoren eskarmentua, lazedemondarrok, eta zuen artean neure adineko jendea ikusten dut halatan, non ez duten nahi ekintzan hastea ez eskarmenturik ezagatik —gehienei gertatuko litzaie-keen moduan— ezta gerra gauza on eta segurutzat edukitzearren ere. Zentzunez pentsatuz gero, konturatuko zinatekete aztertzen ari zareten gerra hau ez litzatekeela oso laburra. Peloponesoarren eta inguruko herrien aurrez aurre, gure indarrak antzekoak dira, eta gainera agudo joan daiteke toki guztietara, baina euren lurra urrun duten, itsas espe-rientzia itzela daukaten eta edozere, aberastasun indibidual eta kolek-tiboz, ontziz, zaldiz, armaz sekulako eran hornituta eta Heleniar herrialdeetan bederen ez dagoen moduko populazioa eta, batez ere, zer-gapeko aliatu asko dituzten gizonen kontra, nola sustatu arintasunez horien kontrako gerra bat eta zertan oinarritu geure konfiantza presaka



ibiltzeko, oraindik prestatu barik gaudenean? Ontzietan? Tira, tira, horretan gu haien azpitik gaude!; eta harik eta guk praktikak egin eta haiei aurre egiteko prest egon arte, denbora asko igaroko da. Diruan akaso? Diruz are urriago gabiltza, eta ez altxor publikoan ez fondo pribatuetan daukagu dirurik.

**81.**– «Agian norbait oilartu egingo litzateke guk haien lurraldea arpilatzeko beste arma eta gizon ditugulako; baina haiek beste lurralde batzuk dituzte beren menpean, eta itsasoz ekarriko dute behar dutena. Gu, ordea, haien aliatuak matxinatzen saiatzen bagara, ontziak beharko dira, gehienak uharteetakoak dira eta.

«Hitz batean, zein izango da gure taktika? Ontzitan gainditzten ez badiugu edo ontzidia mantentzeko dituzten baliabideak kentzen ez badizkiegu, geu izango gara kaltetuak gehienetan, eta, kasu horretan, etsaitasunak etetea ere ez da izango ohoragarria, bereziki borroka geuk hasi genuela ematen badu.

«Edonola ere, ez gaitezen gehiegi berotu haien lurraldea deboilatzen badugu gerra laster amaituko den esperantzak eraginda; beldur naiz gerra hori geure seme-alabei ere ondoretzan ez ote diegun utziko. Horretan, espero izatekoa da atenastarrak beren lurrera lotuta ez gelditzea eta gerrak ez ikaritzea esperientziarik gabeko jendea bailiran.

**82.**– «Ez dizuete, jakina, aholkatuko ez ikusi egin eta geure aliatuei kalteak egiten utz diezaiegun eta haien amarruez jabetu barik geldi gaitezten; aitzitik, mandataria bidali behar dizkiegu eta erreklamazioak egin, belizismo larregirik erakutsi gabe, onarpena ere ez baina, eta bitartean geure gertakizunak burutuz joan aliatu Heleniarrak edo barbaroak erreklutatuz, ea areagotu ahal dugun ontzi edo finantza kontuan dugun ahala –ezin da gaitzetsi gu bezala atenastarren azpikerien biktima direnek salbazioa Heleniarrak ez eze barbaroak ere erakarriz bilatzea–, geure baliabide propioak erdiesteaz batera.

«Gure mandatariei kasu egiten badiete, horixe da onena; baina horrela ez bada, bizpahiru urte igarota, hobeto hornituta gaudenean, eraso diezaiegun egoki iritziz gero. Are, gure prestakizunen eta prestakizunok iradokitzen duten berbera aditzera ematen duten hitzen berri dutenean, agian etorkorrangoak izango dira, oraindik suntsitua izan ez den lurralde bat daukatelako, oraindik oso-osorik dituzten euren ondasunei buruzko erabakietan.





«Eduki ezazue haien lurraldea bahi hustzat eta balio txikiagokoa ez den bahitzat, gainera, hobeto ustiatuta baitago; ahalik luzaroen ekidin behar da lur hori suntsitzea, haiek menperaezin bihurtzerainoko etsipenera bultzatu gabe. Baldin, oraindik prestakizunak burutu gabe gaudela, aliatuen erreklamazioak premiatuta, haien lurra suntsitzen badugu, kontuz ibili Peloponesorentzat laidogarriagoa eta konpondu ezinezkoa den zerbait ekar genezake eta. Eman dakieke amaiera hirien eta partikularren erreklamazioei, baina ez da erraz izango irtenbide ohoragarria aurkitzea, baldin sektore baten interesengandik aliatu guztiek nola garatuko den jakiterik ez dagoen gerra bat hasten badute.

**83.**— «Inork ez du koldarkeriatzat hartu behar berehala ez oldartzea, asko izan arren hiri bakar baten kontra. Haiek ere badituzte, eta ez gutxiago, diruz laguntzen dieten aliatuak, eta gerra ez da sostengatzen armekin aurrekontuarekin baino gehiago, eta aurrekontuari esker dira armak baliagarriak, batez ere lehortarrak badira itsastarrei aurre egiten dabiltzanak; geugana dezagun, bada, lehenik aurrekontua, eta aurretik ez gaitezen berotu aliatuen hitzen eraginez; geu gara batera edo bestera gertatuko denaren erantzukizuna gehienbat leporatuko dugunak, eta, horregatik, aldeztu aurretik geuk aztertu behar dugu baretasunez auzia.

**84.**— «Ez zaitezte lotsa nabarmenki aurpegiatzen dizueten horretaz, hau da, zeuen geldotasun eta ebatzirik ezaz, zeren, presaka bazenbiltzate, geroago bukatuko zenukete gerra prestakizunik gabe hasi izanagatik. Gainera, betidanik bizi izan gara hiri aske eta oso loriatsu batean; horrek erabateko moderazioa adierazten du, geu baikara oparotasunean harropuzten ez garen bakarrak eta zorigaitzean ere besteak baino gutxiago amore ematen dugunak; ez gara berotzen laudorioekin geure iritziaren kontra arriskura bultzatzen gaituztenek ematen diguten atseginarene eraginez, eta, gaitzespenekin probokatzen bagaituzte, atsekabeduta ere, ez diegu kasurik egiten.

«Geure neurritasunari esker trebeak gara gerran eta erabakietan asmatzen dutenetarikoak; bata, ohorea moderazioaren oso zati garrantzitsua delako eta ohorea, berriz, kuraiaarena; erabakietan asmatzen dutenetarikoak, heziketa urriegia dugulako legeak mespretxatzeko eta diziplina hertsiegia legee men ez egiteko; gure izaera halakoa da, non etsaiaren prestakizunak ez ditugun termino engainagarriekin kritikatzeko, ezertarako balio ez duten gauzetan adituegiak bagina bezala, gero hitz horien kontra jokatzeko, baizik uste dugun besteen planak gureen antzekoak



direla eta zoriaren zirkunstantziak ez direla hitzekin predeterminatzen. Izan ere, gu etsaiaren kontra zera uste izanik prestatzen gara, alegia, hark bere planak ongi egin dituela eta gure esperantzek hark oker egin dituen ideian barik, guk neurri egokiak hartu dugun segurtasunean oinarrituta egon behar dutela.

**85.**— «Beraz, gure gurasoek oinordetzan utzi zizkiguten eta guk betidanik geure mesedetan darabiltzagun praktika horiek ez ditugu bertan behera utzi behar, eta ez dugu deliberatu behar presaka egunbeteko tarte txikian, astiro eta lasaitasunez baizik, bizitza, diru, hiri eta ohore asko dagoenez gero jokoan. Besteek baino aukera gehiago ditugu, geure indarrari esker.

«Atenastarrei dagokienez, bidal iezaiezue mandatariak Potideari buruz hitz egiteko eta aliatuak irainduta omen dauden arloei buruz negoziatzeko, areago oraindik arbitraje baten mende jartzeko prest daudenean; epaiketa baten mende jartzen denari ezin zaio zilegitasunez aurretik eraso errudun balitz bezala. Aldi berean, joan zuek gerra prestatuz; zuen erabakiak, hartara, seguruagoak izango dira eta beldurgarriak etsaientzat».

Horrelaxe mintzatu zen Arkidamo. Amaitu zuenean, Estenelaidasek, orduan eforoetako bat zenak, hartu zuen hitza, eta honelaxe mintzatu zen lazedemonдарren artean:

**86.**— «Ez ditut ulertzen atenastarren arrazoiketa ugariak, zeren, euren burua eurrez goraipatu zuten arren, inola ere ez zuten esan ez zituztenik gure aliatuak eta Peloponeso iraindu. Hala eta guztiz ere, orduan mediarren aurrez aurre ongi jokatu bazuten eta orain, ordea, gurekin gaizki portatzen badira, zigor bikoitza merezi dute, hobetu beharrean, gaiztotu egin direlako.

«Guk lehen bezalaxe jarraitzen dugu orain ere, eta, zentzudunak bagara, ez dugu onartu behar haiek aliatuak irain ditzaten, ezta gu laguntza ematen atzera gaitezen ere, zeren kaltea ez baitute atzerapenez hartzen.

«Besteek diru, ontzi zaldi asko dituzte; guk, atenastarrei entregatu behar ez dizkiegun aliatu onak; auziak, gainera, ez dira arbitraje eta hitzen bidez ebatzi behar haiengandik harturiko kaltea hitzezkoa ez denean, baizik agudo indar guztiekin zigortu beharrekoa. Inork ez diezagula irakats guri, saminduai, deliberatzea komeni zaigula, zeren, aitzitik, hobena egiteko asmotan dabiltzanak baitira gehiago deliberatzea komeni zaienak.



«Beraz, lazedemondarrok, gerraren alde eman botoa Espartaren duintasunari jarrai, ez utzi atenastarrei handiagotzen eta ez entrega gure aliatuak; aitzitik jainkoen laguntzaz abia gaitezen erasotzaileen aurka».

**87.**— Hitz horiek esanda, hark berak, eforo gisa, lazedemondarren Batzarrak botatzea proposatu zuen. Botoz barik aldarriz bozkatzten dutenez, esan zuen ez zuela bereizten zein aldarri zen handiagoa eta euren iritzia argi eta garbi azal zezaten honako hau proposatu zien gerrara are gehiago bultzatzeko: «Zuetarik itunak hautsiak izan direla eta atenastarrek bidegabekeria egin dutela uste duena bihoa horraxa –leku bat seinalatuz–«eta ezetz uste duena bihoa hara beste aldera». Batzuk alde batera eta besteak bestera joan zirelarik, askoz gehiago izan ziren itunak hautsiak izan zirela uste izan zutenak. Aliatuei bilerara deitu ondoren, jakinarazi zieten beren ustez atenastarrek bidegabekeria egin zutela, baina aliatu guztiei deitu nahi izan zieten botoa eman zezaten, denen artean deliberatu ondoren, gerra egiteko, horrela erabakiz gero.

Emaizta horrekin etxera itzuli ziren, eta ondoren gauza bera egin zuten enbaxadore atenastarrek ere, etortzean izan zuten helburua beteta.

Itunak hautsi izanari buruz Batzarrak harturiko erabaki hau Eubeakoaren ostean hogeita hamar urterako sinatu ziren itunak indarrean hasi eta hamalagarren urtean gertatu zen.

**88.**— Lazedemondarrek itunak hautsiak izan zirela eta gerrara joan behar zela botatzea ez zen izan hainbeste aliatuen berbek konbentzitu zituztelako, baizik atenastarrek euren boterea areago zezaten beldur zirelako, Helade gehienbat menderatuta zutela ikusita.

**89.**— Atenastarrek zeukaten oparotasun egoerara honelaxe iritsiak ziren: Pertsiarrek Heleniarrek itsasoz eta lehorrez garaituta Europatik joan zirenean eta euren artetik Mikalara eta Leotikidasera ihes egin zutenak suntsituak izan zirenean, Mikalan hain zuzen ere tropa Heleniarren buru izan zen lazedemondarren erregea bere aberrira joan zen Peloponesotik etorritako aliatuekin batera. Alabaina, atenastarrek eta errege pertsiarren huts egin zioten Jonia eta Helespontoko aliatuek jarraitu egin zuten eta pertsiarren mende zegoen Sesto setiatu zuten, eta, negua igaro ondoren, pertsiarrek abandonatu zutelarik, eurek okupatu zuten. Geroago Helespontotik nor bere hirira abiatu ziren.

Barbaroek euren lurretik alde egin eta gero, agintari atenastarrek berehala eraman zituzten bertara beren seme-alaba, andre eta tresnak arris-



kutik kanpo utzi zituzten lekutik, eta hiria eta harresiak berreraikitzeke prestatu ziren, esparruaren zati txiki bat besterik ez baitzegoen zutik, etxe asko zeudelarik eraitsita, nahiz eta pertsiar buruak bizi izandako etxe gutxi batzuk zutik zeuden.

**90.**— Baina lazedemondarrak, jasoko zenaz konturatzean, enbaxada batekin joan ziren, aldeaz haiek ez bestek harresirik ez edukitzea gogo-koago zutelako, baina horregatik baino areago euren aliatuek horretara bultzatzen zituztelako, haien beldur baitziren lehen zuten baino askoz ontzi gehiago zituztelako eta pertsiarren kontra kuraia handia erakutsi zutelako. Euren harresiak ez eraikitzeke eskatu zieten, eta, gainera, Peloponesotik at zutik zirauten esparruak eraisten laguntzeko, beti ere iritzi horrek estaltzen zituen asmoak eta susmoak atenastarrei jakinara-zi gabe; aitzitik, barbaroak berriro erasoak jotzen bazuen, operazio base segururik ukan ez zezan zela esan zieten, oraintsu Tebasen ukan ez zuen bezala; jakina, —gehitu zuten— Peloponeso behar bezainbateko babeslekua eta operazio basea izango zen.

Arrazoiok azaldu zituzten lazedemondarrei agur esan zieten berehala atenastarrek, erantzunez enbaxadoreak bidaliko zizkietela, Temistokle-sen irizpidearen arabera, euren proposamenei buruz hitz egiteko. Temistokleseke Lazedemondera enbaxadore ahalik lasterren bera bidal zezaten aholkatu zien, nahiz eta berarekin batera aukeraturiko beste enbaxadoreak ez zituzten segituan bidali behar, Atenasen atxiki baizik, harik eta defenditzeko aukera emateko moduko garaierako harresia eraiki arte; hiriko biztanle guztiek salbuespenik gabe lan horrexetan jar-dun behar zuten, ez bakarrik eurek, gizonak, baizik emakumeek eta haurrek ere, eraikin pribatu edo publikoetako materialik salbu utzi gabe eta dena eraitsiz.

Jarraibideok eman eta beste puntuei buruz hangoa konpontzeko bera arduratzen zela esan ondoren, alde egin zuen. Lazedemondera heldu zenean, agintariak ikustera joan beharrean, denbora pasatzen utzi eta aitzakiak jartzen zituen. Agintariren batek galdetzen bazion ea zergatik ez zen aurkezten gobernuaren aurrera, enbaxadako kideen zain zegoe-la erantzuten zien, arazoren bategatik nonbait atzeratuta baitzebiltzan, nahiz eta haiek jada han ez egoteak harrituta zeukan eta aurki helduko zirela uste zuen.

**91.**— Hori entzuten ziotenak sinetsita gelditzen ziren adiskidetasunaga-tik; baina, beste batzuk heldu eta ageriki salatu zutenean harresia erai-





kitzen ari zirela eta jada altuera dezentea hartua zuela, ez zen zalantzarako tarterik gelditu. Temistoklesek hori jakin zuenean, aholkatu zien hitz hutsen eraginez ez sinesteko dena, harik eta euren hiritarren artetik gizon zintzoak bidali arte hori guztia egiaztatzeko eta gero sinesgarritasunez jakinarazteko. Orduan bidali egin zituzten, eta aldi berean Temistoklesek ere mandatua bidali zien atenastarrei horiei buruz, lazedemondarrek jakin gabe, enbaxadoreok disimulurik handienaz han atxikitzeko eta eurak Espartatik heldu aurretik abiatzen ez uzteko kontsignarekin –iritsiak ziren ordurako haren enbaxada-kideak, Lisiklesen seme Habroniko eta Lisimakoren seme Aristides, harresia behar adina-koa zelako albistearekin–, lazedemondarrek, berri argiak edukitzean, joaten utziko ez zieten beldur baitziren.

Kontua da ezen atenastarrek, eskatu zitzaaien moduan, atxiki egin zituztela enbaxadoreak, eta Temistoklesek, aldiz, lazedemondarren aurrera aurkeztuta, argi eta garbi esan zien bere hiria bertako biztanleak babesteko moduan harresiturik zegoela jada, eta, lazedemondarrek edo euren aliatuek enbaxada bat bidali nahi bazieten, beren eta guztien interesen artean bereizten dakitenekin elkarriketatzerara doazenen moduan joateko, zeren, hiria bertan behera utzi eta ontzietara abiatzea erabaki zenean, lazedemondarrei ezer esan gabe erabaki eta egitera ausartu baitziren, aparte utzita euren ondoan parte hartu zuten deliberrazio guztietako batean ere ez zutela beste inork baino irizpide txarragorik zutenik eman. Konklusio gisa, uste zutela hobe zela beren hiriak harresiak edukitzea eta hori, gainera, onuragarri izango zela, atenastarrrentzat bakarrik ez eze, aliatu guztientzat ere, aliantzako batzar nagusietan ez baitzen posible itzal berdina edo antzekoa izatea, antzeko baliabide militarretan oinarritu ezean. Beraz –esan zuen– edo aliatu guztiek egon behar zuten harresirik gabe edo aurrekoa ongi egintzat jo behar zen.

**92.**– Lazedemondarrek hori entzun ziotenean ez ziren ageriro haserretu atenastarren kontra, enbaxada inola ere ez baitzuten harresia eraikitzen ez uzteko bidali, jakina, baizik atenastarren Batzarrari euren iritzia buruz aholkua emateko, eta, gainera, garai horretan elkarren adiskide handiak ziren pertsiarren aurrez aurre erakutsitako adoreagatik; hala ere, euren asmoen porrotak barruz nahigabetuta utzi zituen. Eta alde bietako enbaxadoreek erreklamaziorik egin gabe alde egin zuten norbere aberrietara.



**93.**— Horrelaxe harresitu zuten atenastarrek beren hiria denbora laburrean eta orain ere igartzen da arineketan eraiki zutela, zimenduak mota guztietako harriez eginak baitira eta, leku batzuetan, ahokatzeko landurikoak izan beharrean, pilatu ahala halaxe utzita baitaude; hilarri asko eta beste xede batzuetarako landuriko harriak ere sartu zituzten, hiriko esparrua zabaltzeko egin baitzuten leku guztietan eta, horregatik, presaren presaz dena hartu zuten bereizi gabe haraxeko.

Temistoklesek Pireoan falta zena eraikitzeko ere konbentzitu zituen —lehenago hasia zuen, Atenasko arkonte izan zen urtean—, kontuan izanda lekua ona zela hiru portu natural zituelako eta, atenastarrek itsasorantz dena emanda zihardutenez, boterea eskuratzeko oso baliagarriak izango zirelako —itsasoan jardun behar zutela esaten ausartu zen lehena izan zen— eta horregatik obrak segituan hasteko laguntza eman zuen.

Haren iritziazen arabera, Pireoaren inguruko harresia orain ere ikus daitekeen zabalerakoa eraiki zuten; harriak galdi bik garraiatzen zituzten, elkarren kontrako norabidean; barrutik ez zegoen hartxintzarrik ez basarik, harri handi akoplatuak baizik, laukizuzenean ebakita eta kanpotik burdinazko eta berunezko grapekin lotuta; altueran planifikatu zen erdira inguru utzi zen, izan ere, Temistoklesek altuera eta lodierarekin saihestu nahi zituen etsaien erasoak, eta uste zuen harako gizon gutxi, ezgaienak, aski izango zirela, eta beste guztiek ontzietara joan behar zutela.

Oso arreta berezia ematen zien ontziei, uste baitzuen, ene iritziz bederen, Erregearen armadaren inbasioa lehorrez baino itsasoz errazago egin zitekeela; Pireoa, jakina, hiri garaia baino baliagarriagozat zeukan eta maiz aholkatzen zieten atenastarrei, inoiz lehorrean atzera egin beharrean aurkitzen baziren, Pireora jaitsi eta han ontziekin denei aurre egin ziezaieten.

Atenastarrek, bada, horrelaxe eraiki zituzten harresiak eta jaso zituzten gainerako gotorlekuak pertsiarrek erretretan alde egin eta segituan.

**94.**— Lazedemongo Kleonbrotoren seme Pausanias, Peloponesotik Heleniarren komandante bidali zuten hogeitaz ontzirekin; atenastarrak zermatzen lagun, hogeita hamar ontzirekin, eta gainerako aliatuetako asko. Zipreren kontra egin zuten espedizio bat eta uharte horren zati handi bat menderatu zuten; eta gero baita pertsiarren mende zegoen Bizantzioren kontra ere, eta setioz hartu zuten.



**95.**— Jada burutza horretan ziharduela bortizkeriaz jokatu zuenez, gainerako Heleniarrak haserretu egin zitzaizkion, eta batez ere joniarrak eta Erregearengandik oraintsu aske gelditurikoak. Atenastarrekin maiz izaten zituzten elkarriketetan eskatzen zieten eurak izateko buru ahaidetasunaren arabera eta ez uzteko Pausaniasi bidegabekeriari egiten. Atenastarrek ontzat hartu zituzten haien hitzak eta hari hori egiten ez uzten eta beste guztia ondoen zeritzoten moduan antolatzen saiatu ziren tinkotasunez.

Bitartean, lazedemondarrek Pausaniasi deitzeko agindu zuten eurek zituzten informazioei buruz galdetzeko, delitu askoz akusatzen baitzuten Espartara heltzen ziren Heleniarrak, harenak burutza baino areago tiraniaren imitazioa ematen zuelarik.

Halaber gertatu zen, deitu zioten aldi bertsuan, aliatuak, soldadu peloponesoarrak izan ezik, hari zioten gorrotoaren eraginez atenastarrena pasala zirela. Espartara iritsita, epaitu zuten batzuen kontra egindako bidegabekeria partikularrengatik, baina garrantzizko delituetatik aske gelditu zen errudun ez zela eta; maila ez txikian pertsiarren alde egiteaz akusatzen zuten, eta ematen zuen oso argi zegoela hori.

Jada ez zuten hura komandante bidali, Dorzis eta beste batzuk baizik, armada ez oso jendetsuarekin; baina aliatuek ez zieten jada eman agintea gorena. Jakin bezain laster alde egin zuten, eta lazedemondarrek gero ez zuten beste inor bidali, euren hiritarrak kanpoan gaiztoago bihur ez zitezen —Pausaniasekin egiaztatu zuten bezala—, baita pertsiarren kontrako gerra bertan behera uzteko gogoak eraginda eta atenastarrak agintean jarduteko gai zirela uste zutelako ere, baita orduko zirkunstantzietan euren lagun zirelako ere.

**96.**— Behin atenastarrek horretara aginte gorena hartu zutenean, aliatuen pozerako Pausaniasi zioten gorrotoagatik, zehaztu zuten zein hirik ekarri behar zuen dirua eta zeinek ontziak. Aitzakia, izan, jasandako guztiagatik mendeku hartzea zen, Erregearen herrialdea suntsituz.

Orduantxe eratu zen lehenengo aldiz atenastarren artean helenotamien kargua, zerga jasotzen zutenena, izen horixe jarri baitzitzaion finantza ekarpenari. Lehenengo zerga laurehun eta hirurogei talentutan jarri zen; altxorra Delosen zegoen eta batzarrak santutegian egiten ziren.

**97.**— Haiek, burutza hasieran aliatu independenteen gainean zutenek eta Gerra Mediarretatik honetara arte erabakiak batzar orokorretan hartzen



zituztenek, gerrarekin eta antolaketa politikoekin erlazonaturiko ondo-ko gertakarietan esku hartu zuten, gertakariotan aurkari, une bakoitzean aurrez aurre edukitako barbaroa, beren aliatuak edo peloponesoarrak izan zituztelarik. Hori idatzi nuen eta kontaktetik aldendu nintzen, nire aurreko guztiei tarte kronologiko hori falta zitzaielako eta Gerra Mediarrez edo Gerra Mediarren aurrekoez ari zirelako; hain zuzen ere bere *Atikaren Historia* lanean gai hori erabili zuenak, Helanikok, labur jardun zuen eta zehaztasunik gabe kronologian. Gainera, kontaketa honek inperio atenastarra nola eratu zen azaltzen du.

**98.**– Hasieran, Milziadesen seme Zimon buru zutela, pertsiarren menpean zegoen Strimonen ondoko Eon hartu zuten, setiaturik eduki ondoren, eta bertako biztanleak esklabo bihurtu zituzten; geroago Esziros hartu zuten, dolopeak bizi ziren Egeoko uhartea, atenastarrek bertako biztanleak esklabotzapean ipini eta uhartea kolonizatu zutelarik. Karistioen kontra egin zuten gerra bat beste eubearrek parte hartu gabe eta, denborarekin akordio batera heldu ziren. Horren ostean altxatu ziren naxoarrek ere borrokatu zuten eta setioa ezarri zieten; horixe izan zen hitzarturikoaren kontra bere independentzia galdu zuen lehenengo hiria; gero beste guztiek galduko zuten zeinek bere zirkunstantzia partikularren arabera.

**99.**– Altxamenduetarako zioak ezberdinak izan ziren, baina garrantzitsuenen artean zergak eta ontziak ekartzeko uzkuratasuna eta zituenak bere tropak elkartetik kentzea ziren, zeren atenastarrek gogor jarduten baitzuten eta zorrotz agertzen baitziren ahalegintzen ez zirenei eta aha-legindu nahi ez zutenei euren betebeharrak betetzea galdatu orduan.

Atenastarren agintea, nolabait, jada ez zen gertatzen hain atsegin, eta espedizioetan ez zuten berdintasunez parte hartzen eta, gainera, matxinaturiko aliatuak erraz menderatzen zituzten. Horren errudun aliatuak berak izan ziren, zeren, espedizio militarretan esku hartzeko uzkuratasun horregatik, beretako gehienek, beren aberritik ez irteteko, ontzien ordeaz balio berdinean dirua ematea erabaki baitzuten, eta horrela, haiek gehituriko aurrekontuarekin, handitu egiten zen atenastarren ontzidia, eta, gainera, aliatuak matxinatzen zirenean, ekipamendurik ez esperimentziazik gabe joaten ziren gerrara.

**100.**– Horren ondoren, Eurimedon ibaian, Panfilian, lehorreko bataila batean eta itsasoko beste batean borrokatu zuten atenastarrek eta beren aliatuek pertsiarren kontra, eta atenastarrak atera ziren garaile bietan





egun berean, Milziadesen seme Zimon buru zutela, feniziarren trirremeez jabetu ziren eta orotara berrehun bat matxuratu zituzten. Hainbat denbora geroago, tasoarrek haiengandik banantzeko ahalegina egin zuten, aurrez aurre zuten itsasbazter traziarreko merkatuak eta ustiatzen zituzten mehatzeak lortzeko lehian zebilzkielako. Atenastarrak Tasosera abiatu ziren, itsas bataila batean garaitu zituzten tasoarrak eta lehorreratu egin ziren.

Garai bertsuan berenen eta aliatuenen artean hamar mila kolonok osaturiko espedizio bat bidali zuten Strimonera orduan Bederatzi Bideak eta orain Anfipolis deritzona kolonizatzeraz; hartu zituzten Bederatzi Bideak, edoniarrek okupatzen zutena, baina Trazia barrenerantz aurrea egitean Edoniako Drabeskon traziarrak guztiek batuta suntsitu egin zituzten, kolonia sortzea mehatxu bat baitzen haientzat.

**101.**– Tasoarrak batailan garaituak eta setiopean jarriak izan ondoren, lazedemondarrei egin zieten dei eta Atika inbadituz eurei laguntzeko eskatu zieten; haiek agintzariak egin zizkieten atenastarren ezkutuan eta betetzera zihoazen, baina lurrikara batek eragotzi zien, hura gertatzean euren hilotek eta Turia eta Eteako periekoek matxinatu egin baitzitzaizkien Itoma mendira alde eginez. Hilota gehienak orduan esklabotzapean zeuden antzinako meseniarren ondorengoak ziren, eta horregatik meseniarrek ere esaten zietenak. Kontua da Itomakoen eta lazedemondarren artean gerra sortu zela, eta orduan tasoarrek, setioaren hirugarren urtean, atenastarrekin akordio bat egin zutela, honako baldintza hauek jarrita: euren harresiak suntsitzea, ontziak entregatzea, segituan ordaindu beharreko diru-kopurua eta aurrerantzean zerga moduan ordaindu beharrekoa zehaztea, baita kontinentetik alde egin eta mehatzeak bertan behera uztea ere.

**102.**– Lazedemondarrek, Itomakoen kontrako gerra luzatuz zihoala eta, beste aliatuen artean atenastarrei deitu zieten, eta haiek joan egin zitzaizkien, ez gutxi, Zimon buru zutela. Setioetan trebeak ziren ospea zutelako deitu zieten batez ere, baina, setioa luzatuz zihoalarik, ematen zuen ez zutela trebetasun hori, zeren bestela indarrez hartuko zuketen.

Espedizio horrexegatik sortu zen lehenengo desadostasun argia lazedemondarren eta atenastarren artean, zeren lazedemondarrek, leku hura indarrez hartzen ez zenez, atenastarren ausartziaren eta sen berritzailearen ikaraz, euren leinuagatik ezberdintzat hartzeaz gain, beldur baitziren, eurekin segitzen bazuten, aldaketak ezarriko zituztela Itomakoek



horretara limurtuta, eta horregatik aliatuen artean eurei bakarrik esan zieten agur, euren susmoak agertu barik eta jada ez zituztela behar esanda. Atenastarrek barruntatu zuten agur esate hura ez zela arrazoi onen ondorio, nolabaiteko mesfidantzarena baizik; jokaera hori txartzat hartuta eta uste izanik lazedemondarrengandik ez zutela horrelako traturik onartu behar, alde egin bezain laster bertan behera utzi zuten mediararren garaian haiekin zuten aliantza eta haien etsai ziren argostarren lagun egin ziren, eta hiri biok zin eta aliantza berak egin zituzten tesaliarrekin.

**103.**– Itomakoek hamargarren urtean, jada eusterik ez zutenez, lazedemondarrekin akordio batera heldu ziren, Peloponesotik itun batek babesturik irteteko eta sekula berriro han oinik ez ipintzeko baldintzarekin; han harrapatuz gero, atxilotzen zituenaren esklabo izango ziren. Horren aurretik, lazedemondarrek Pitiairen orakulu bat hartu zuten Ito-mako Zeusen erregutzaila askatzeko aginduarekin.

Irten ziren haiek, haurrak eta emakumeak eta, atenastarrek, lazedemondarrekin ordurako zeukaten etsaitasunagatik, harrera eginda, Nau-pakton bizitzen jarri zituzten, orduan okupatzen zuten lokro ozolei oraintsu kenduta zeukaten hirian.

Megararrak ere atenastarren aliantzara pasa ziren, lazedemondarrendik bananduta, korintoarrek, mugak zirela eta, gerran zihardutelako eurekin. Atenastarrek Megara eta Pega okupatu zuten eta megararren-tzat harresi luze batzuk eraiki zituzten, hiritik Nisearaino zihoazenak eta eurek zaintzen zituzten.

Batez ere une horretatik aurrera hasi ziren korintoarrak atenastarrenganako gorroto bizia sentitzen.

**104.**– Inaro, Psametikoren semea, Libiar bat, Faros baino gorago dagoen Marea hirian hasita Egiptoko mugan dauden Libiarren erregea zen eta Egiptoren zatirik handiena altzarazi zuen Artaxerxes erregearen kontra eta, euren buru bihurtuta, laguntza eskatu zien atenastarrei. Haiek –hain zuzen ere Zipreren kontrako espedizio batean ziharduten beren eta aliatuen ontzien artean osaturiko berrehuneko ontzidiarekin– Zipre utzi eta Inarorengana joan ziren eta, itsasotik Nilo ibaira igaro eta ibaiaren eta Menfis hiriaren bi hirurenen jabe eginda, Gotorleku Zuria deritzon hirugarren partearen kontra jo zituzten erasoak. Barruan erre-fuxiatu pertsiar eta mediarrek eta matxinadan parte hartu ez zuten egip-toarrak zeuden.



**105.**— Halaber atenastarrek, Halieisen lehorreratze bat egin ondoren, korintoarren eta epidauroarren kontra bataila bat egin zuten, eta korintoarrek irabazi zuten. Geroago, Zekrifalian, atenastarrek ontzi peloponesoarren kontra borrokatu eta atenastarrek irabazi zuten. Horren ondoren, eginarren eta atenastarren artean gerra sortu zelarik, bataila handi bat izan zen Egina inguruan eta bando bakoitzari bere aliatuek lagundu zioten; atenastarrak atera ziren garaile, eta hirurogeita hamar ontzi eginarrez jabetu ziren eta lehorreratu ondoren setiopean jarri zituzten Estreboren seme Leokratesen aginduetara.

Jarraian, peloponesoarrek, eginarrei laguntzeko asmoz, aurretik korintoarrei eta epidauroarrei lagunduriko hirurehun hoplita pasarazi zituzten Eginara. Korintoarrak eta beren aliatuak Geraniako goienez jabetu ziren eta Megaraldera jaitsi ziren, uste baitzuten atenastarrak ezingo zirela megararrei laguntzera etorri, euren tropen zati handi bat Eginan eta Egipton zegoelako, eta, etorritz gero ere, Eginako setioa utzi beharra izango zutela. Baina atenastarrek ez zituzten mugitu Eginako tropak, eta Mironidesen aginduetara Megarara etorri zirenak hirian gelditu zirenak izan ziren, agureak eta gazteegiak. Korintoarren kontra dudazko emaitza izan zuen bataila bat hasi zutelarik, bando bakoitzak borrokan txarrena berak leporatu zuela uste izan gabe banandu ziren. Orduan atenastarrek —hala eta guztiz ere, handiagoa izan zen beraien abantaila— trofeoa eraiki zuten korintoarrek alde egin zutenean; baina korintoarrak, euren hiriko zaharrek koldartzat jo zituztelarik, prestatu bezain laster, itzuli egin ziren handik hamabi egunera eta berek ere trofeoa eraiki zuten, euren burua garailetzat jota. Alabaina, atenastarrek Megaratik egin zuten irteera batean trofeoa eraikitzen ari zirenak suntsitu zituzten eta gainerakoak bataila batean garaitu.

**106.**— Garaituek erretretan alde egiten hasi ziren, eta euren zati ez txiki bat, etsaiek jazarrita eta okerreko bidea hartuta, lubanarro handi batez inguraturik zegoen eta irteerarik ez zuen partikular baten lursailera sartu zen. Atenastarrak horretaz konturatu zirenean, aurea hoplitekin blokeatu zuten eta inguru guztian tropa arinak kokatuz harrikatu egin zituzten bertara sarturiko guztiak; hondamendi handia izan zen korintoarrentzat. Beraien tropen gehiengoak euren aberrira alde egin zuten.

**107.**— Garai bertsuan hasi ziren atenastarrak itsasoraino heltzen diren Horma Luzeak, Falerokoa eta Pireokoa, eraikitzen.



Fozearrek lazedemondarren metropolia osatzen duten doriarren kontra, Beo, Zitinio eta Erineoren kontra, jo zuten eraso batean herri horietako batez jabetzean, lazedemondarrak, Kleonbrotoaren seme Nikomedes buru zutela –Pausaniasen seme Plistoanakteren ordeztu, ez baitzuen oraindik adinik– doriarrei laguntzera etorri ziren beren mila eta bostehun hoplitarekin eta aliatuen hamar milarekin, eta fozearrak akordio baten bidez hiria bihurtzera behartu ondoren, itzultzen hasi ziren; baina itsasoz, Krisa golkoan zehar joan nahi bazuten, atenastarrek galaraziko zieten euren ontziekin; Geranian zehar pasatzea ez zuten seguru ikusten atenastarrek Megara eta Pega okupatzen zutelarik, izan ere, Geraniak bide txarrak zituen eta atenastarrek etengabe zainduta zegoen, eta lazedemondarrek bazekiten eurei handik pasatzen ez uzteko asmo sendoa zutela. Orduan beoziarren artean itxarotea eta segurtasun handiagoz nola pasako ziren pentsatzea erabaki zuten. Halaber gertatzen zen atenastar batzuek abiatzera animatzen zituztela ezkutuan, demokrazia-ri eta Horma Luzeen eraikuntzari amaiera emateko esperantzarekin.

Atenastarrak, zuten indar guztiekin, mila argostar eta gainerako aliatuen hainbat indarrekin etorri zitzaizkien; guztira hamalau bat mila gizon ziren. Ez zekitela nondik igaro pentsatuta eraso zieten, baina baita demokrazia suntsitu nahi zutela uste zutelako ere. Egina zuten aliantzaren indarrez zaldizko tesaliarrak etorri ziren atenastarrei laguntzera, baina ekintza barruan lazedemondarren aldera pasa ziren.

**108.**– Bataila Beoziako Tanagran izan zelarik, lazedemondarrek eta beren aliatuek irabazi zuten eta asko hil ziren alde bietan. Lazedemondarrak, Megaridera heldu eta zuhaitzak bota ondoren, beren aberrira itzuli ziren Geraniatik eta istmotik zehar. Atenastarrek, hirurogeita bat egun batailaren ostean, erasoaldi bat egin zuten beoziarren kontra Mironides buru zutela eta, beoziarrak Enofitan garaitu ondoren, Beozia eta Fozideko lurraldearen jabe egin ziren, Tanagrako harresia suntsitu zuten, lokro opuntetarrengandik bahitu moduan ehun gizon, aberatse-nak, hartu zituzten eta beren Horma Luzeak amaitu zituzten.

Horren ostean, eginarrek atenastarrekin hitzartu zuten beren harresiak suntsitzea, beren ontziak entregatzea eta aurrerantzean zerga ordaintzea.

Atenastarrek beste espedizio bat ere egin zuten Peloponesoko itsasbazterrari jarrai Tolmeoren seme Tolmidesen aginduetara, lazedemondarren armategiari su eman zioten, korintoarrena zen Kalzisen jabe egin





ziren eta siziondarrak garaitu zituzten lehorreratzean hasi zuten batail-  
lan.

**109.**– Bitartean atenastarrek eta aliatuek Egipton segitzen zuten fase ezberdinak izan zituen gerra batean: hasieran atenastarrak Egiptoren jabe izatera heldu ziren eta orduan errege pertsiarrak Megabazo per-  
tsiarra Lazedemondera bidali zuen diruarekin, peloponesoarrak Atika inbaditzera eta atenastarrei Egiptotik alde eragitera limurtzeko. Arra-  
kastarik izan ez eta dirua beste gauza batzuetan xahutu zuelarik, Mega-  
bazo Asiara itzuli zen gelditzen zitzaion diruarekin; orduan Zopiroren  
seme Megabizo pertsiarra bidali zuen armada handi batekin; lehorreko  
bidetik joanda, egiptoarrak eta beraien aliatuak garaitu zituen, Helenia-  
rrak Menfisetik kanpora atera zituen eta azkenean Prosopitis uhartera  
zokoratu zituen. Setiaturik eduki zituen urtebete eta sei hilabetez, harik  
eta, kanala lehorte eta ura beste leku batetik bideratu ondoren, ontziak  
lehorretan utzi eta uhartearen zati handi bat lehor bihurtu zuen arte, eta,  
horrela, oinik busti gabe igaro eta uharteaz jabetu ahal izan zuen.

**110.**– Horrelaxe joan ziren pikutara Heleniarren aukerak sei urtez  
gerran jardun ondoren. Izan ziren aunitzetatik, gutxi batzuk salbatu  
ziren Libian zehar Zirenera joanda, baina gehienek bizia galdu zuten.  
Egipto berriro ere pertsiar erregearen menpean gelditu zen, Amirteo,  
zingiretako erregea, izan ezik, ezin izan baitzuten atxilotu, zingira  
hedadura handikoa delako eta, gainera, zingiretako egiptoarrek gerra-  
zaleenak direlako. Inaro, Egiptoko hori guztia eratu zuen Libiarren  
erregea, preso hartu zuten traizioz eta zutoinean sartu zuten.

Atenastik eta gainerako konfederaziotik Egiptora bidean zihoazen erre-  
lebuko berrogeita hamar trirreme heldu ziren Mendesen ahora jazota-  
koaz ezer jakin gabe; orduan, feniziarren infanteriak eta ontzidiak leho-  
rrez eta itsasoz aldi berean eraso zielarik, ontzirik gehienak suntsitu  
zizkieten eta gutxienek egin zuten ihes etxerantz.

Horrelaxe amaitu ziren atenastarrek eta beren aliatuek Egiptora egin  
zuten espedizio handiaren gertaerak.

**111.**– Tesaliarren errege Ekekratidasen seme Orestesek, Tesaliatik  
erbesteratua izan zelarik, tronuan birjar zezaten konbentzitu zituen ate-  
nastarrak; orduan atenastarrek euren aliatu ziren beoziarrekin eta foz-  
arrekin batera espedizio bat egin zuten Tesaliako Farsalora. Lurralde-  
aren jabe ziren, tropen gehiengoarengandik aldentzen ez ziren heinean,  
zalditeria tesaliarrak galarazten zuelako; ez zuten lortu hiria hartzerik



eta joatean nahi zutenetik ezer ere ez zitzaien ontsa atera, eta Orestesekin alde egin behar izan zuten berriro ezer erdietsi gabe.

Horren ondoren, ez asko geroago, mila atenastar ontziratu ziren Xantiporen seme Periklesen aginduetara Pegasen zeuden ontzietan –euren mende zirauen Pegasek–, Sizioneko itsasbazerrean zehar joan ziren eta lehorreratze batean garaitu egin zituzten kontra etorri zitzaizkien siziondarrak. Segituan, tropa akearrak gehitu eta itsasartearen beste aldera igaro ondoren, Akarnaniako Eniada erasotzeko prestatu ziren eta setiatu egin zuten, baina ez zuten hartzerik lortu eta etxera itzuli ziren.

**112.**– Geroago, hiru urte igarota, bost urterako itunak sinatu ziren peloponesoarren eta atenastarren artean. Atenastarrek ez zuten gerrarik egin Heleniar munduan, eta euren eta aliatuen artean berrehun ontziko espedizio bat bidali zuten Zipreren kontra Zimonen aginduetara. Eurotarik, hirurogei Egiptora joan ziren Amirteo zingiretako erregearen eskariari erantzunez, eta besteek, artean, Zitio setiatu zuten; baina Zimon hil egin zenez eta ezaldia gertatu zenez, Zitiotik alde egin zuten eta Salamina parean, Zipren, itsas bataila batean eta lehorreko beste batean, bietan aldi berean, borrokatu zuten feniziar, zipretar eta ziliziarren kontra; bataila bietan garaile irten eta gero euren aberrira joan ziren ordurako Egiptotik itzulitako ontziekin batera.

Horren ostean, lazedemondarrek Gerra Sakratua deritzona hasi zuten, eta Delfoseko santutegiaren jabe egin ondoren, delfostarrei entregatu zieten; hala ere, geroago, haiek alde egin ondoren, tropa atenastarrak heldu ziren eta, santutegiaz jabetu ondoren, fozeareei entregatu zieten.

**113.**– Horren ondoren, denbora apur bat igarota, beoziar erbesteratuek Orkomeno, Keronea eta Beoziako beste herri batzuk okupatzen zituztenez, atenastarrek euren mila hoplitak eta beste tropa aliatu batzuek osaturiko espedizio bat bidali zuten Tolmeoren seme Tolmidesen aginduetara herri etsai horien kontra; Keroneaz jabetu eta bertako biztanleak esklabotzapean jarri ondoren, alde egin zuten bertan goarnizio bat utzita.

Koronean zehar pasatzean Orkomenoko erbesteratu beoziarrek, lokroak, erbesteratu eubearrak eta ideologia berekoak ziren guztiak lagun zituztela, eraso zieten, eta batailan garaile irten zirelarik, atenastarren zati bat hil egin zuten eta beste batzuk preso hartu zituzten. Orduan atenastarrek Beozia guztitik alde egin zuten, euren gizon guztiak eramate-



ko ahalmena ematen zien akordio bat eginda; itzuli ziren beoziar desterratuak eta beste beoziarrekin batera berriro ere independente izan ziren.

**114.**– Horren ondoren, ez askoz geroago, Eubea atenastarren kontra altxatu zen, eta, Perikles tropa atenastarrekin jada uhartera igarota zegoenean, jakinarazi zitzaion Megara ere altxatu zela, peloponesoarrak Atika inbaditzera zihoazela eta zaintzaile atenastarrak megararrek hil zituztela guztiak, Nisean babestu zirenak izan ezik; megararrek korintoarren, siziondarren eta epidauroarren laguntza eskatuta alxtatuak ziren.

Orduan, Periklesek Eubeako armada tximistaren pare eramanean zuen. Geroago, peloponesoarrak, lazedemondarren errege Pausaniasen seme Plistoanakten aginduetara, Eleusis eta Triaraino heldu ziren Atikako inbasioan, suntsitu egin zuten eta euren herrialdera itzuli ziren aurrerago jo barik. Atenastarrek, berriz, Periklesen aginduetara berriro Eubea igaro ondoren, erabat menperatu zuten; uhartearen gainerakoa erdietsi zuten akordioaren arabera antolatu zen, hestiarrei dagokienez, ordea, euren lurretatik egotzi zituzten eta berek okupatu.

**115.**– Eubeatik alde egin ondoren, ez askoz geroago, lazedemondarrekin eta beraien aliatuekin sinatu zituzten hogeita hamar urterako tratatuak, Nisea, Pega, Trezen eta Akaia bihurtuz, horiexek baitziren atenastarren mende zeuden lurralde peloponesoarrak.

Seigarren urtean gerra bat sortu zen samoarren eta milesiarren artean Prienen jabetza zela eta, eta milesiarrak, parterik txarrena zegokienak, samoarren kontrako erreklamazioak egiten ari zitzaizkien atenastarrei. Samostik bertatik etorrira zenbait partikular gehitu zitzaizkien erregimen politikoa aldatzeko gogoz; azkenean, atenastarrak Samosera joan ziren berrogei ontzirekin, demokrazia ezarri zuten, berrogeita hamar ume eta beste horrenbeste gizon bahitu gisa hartu zituzten, Lemnosentzuz zituztelarik, eta alde egin zuten bertan goarnizio bat utzita.

Zenbait samoarrek, alabaina, ez zuten itxaron eta, beso luzeko gizon batzuekin eta aldi hartan Sardes gobernatzen ari zen Histaspesen seme Pisutneseekin ados jarri ondoren, zazpiehun bat gizon erreklutatu zituzten tropa laguntzaile moduan eta Samosera joan ziren gauez. Lehenbizi demokrateri egin zieten aurre eta preso hartu zituzten gehienak; gero, Lemnosentzuz zituzten bahituez jabetu ondoren, matxinada bultzatu zuten, goarnizio atenastarra eta han zituzten agintariak Pisutnesi entregatu



zizkioten eta segituan Miletoren kontra abiatzeko prestatu ziren. Haiekin batera bizantziarrak ere matxinatu ziren.

**116.**– Atenastarrek horren berri izan zutenean, Samosera abiatu ziren hirurogei ontzirekin, baina euretatik hamasei ez zituzten erabili, zeren batzuk Kariarantz abiatu baitziren ontzi feniziarrek jagoteko eta besteak Kio eta Lesbo inguruan ibili baitziren laguntza bila; gainerako berrogeita lauekin, Perikles eta beste bederatzi komandante buru zirela, Tragiako uhartearen ondoan hirurogeita hamar ontzi samoarri egin zieten aurka, ontziotariko hogeitropen garraiorakoak izanik eta Miletotik zetozelarik guztiak, eta atenastarrak atera ziren garaile. Geroago berrogei ontzi atenastar eta kiotarren eta lesbotarren hogeita bost etorri zitzaizkien laguntzera; irabazi eta gero, lehorreratu eta hiria lehorretik hiru hormaz inguratzeari ekin zioten, itsas blokeoa ezartzeaz gain. Hala ere Perikles agudo abiatu zen Kauno eta Kariarantz itsas blokeorako erabilitako ontzietako hirurogeirekin, ontzi feniziarrek euren aurka zetozela jakinarazi ziotenean, zeren Estesagoras eta beste batzuk Samostik itsasoratuak baitziren bost ontzirekin ontzi feniziarren bila.

**117.**– Bitartean samoarrek, bat-bateko irteera batean defentsarik ez zeukaten tropa atenastarren gainera etorrira, zaintzako ontziak suntsitu eta eurei aurre eman zieten ontziak garaitu egin zituzten itsas batailan; hamalau egunez inguratzen dituen itsasoaren jaun eta jabe gelditu ziren, hainbestearino, non nahi zuten guztia sartu eta atera ahal izan baitzuten; baina Perikles itzuli zenean, berriz ezarri zen itsas blokeoa. Geroago berrogei ontzi, Tuzidides, Hagnon eta Formionen aginduetara, eta beste hogeita bost, Tlepolemo eta Antikles buru zituztela, eta Kio eta Lesbotik etorritako beste hogeita hamar batu zitzaizkien.

Samoarrek aurre egin zieten itsas borroka laburren bat edo bestetan, baina, ezin eutsi eta, bederatzigarren hilean akordio bat egin behar izan zuten honako hauek egitera behartzen zituena: harresiak eraitsi, bahituak entregatu, ontziak eman eta epe zehatzetan gerrako gastuak ordaindu. Bizantziarrak ere lehen bezala mendekoak izateko prest agertu ziren.

**118.**– Horren ostean, ez urte asko geroago, gertatu ziren lehen aipaturiko gertakariak, Korzira eta Potideakoak eta gerra honen kusatzat hartuak izan ziren guztiak. Guzti-guztiak, Heleniarrek elkarren kontra edo barbaroaren kontra burutu zituztenak, berrogeita hamar bat urteko tartean gertatu ziren, hau da, gerra honen hasieran Xerxesek erretretan





alde egin zuenetik honakoan. Tarte horrexetan sendotu zuten atenastarrak beren inperioa eta hedatu zuten izugarri beren boterea. Lazedemondarrek, horretaz konturatzen ziren arren, ez zuten galarazten neurri txikian baino, eta lasai mantentzen ziren ia denbora guztian, alde ordura arte ez zirelako gerrarako bizi agertzen, horretara behartuta aurkitu ezean, alde barruko liskarrek eragozten zirelako, harik eta atenastarren boterea argi nabarmentzen hasi eta euren aliatuengana hedatu zen arte. Une horretan jada jasanezintzat jo zuten eta pentsatu zuten indar guztiaz jokatu behar zela eta haien boterea suntsitu, gerra hau burutuz.

Kontua da lazedemondarren aldetik jada irizpena emanda zegoela baieztatuz itunak hautsita zeudela eta atenastarrak errudun zirela Delfosera mandatariak bidali zituztenean jainkoari kontsultatzera ea eurentzat hobe izango zen gerran hastea; erantzun omen zien garaipena indar guztiekin borrokatzen zutenentzat izango zela eta berak ere lagunduko zuela, deitua izan nahiz ez izan.

**119.**— Aliatuei berriro bilerara deitzea eta gerrara joan ala ez bozkatzea erabaki zuten. Behin aliantzako enbaxadoreak heldu zirenean, batzarra egin zen eta bertan besteez beren iritziak azaldu zituzten, gehienek atenastarrak akusatuz eta gerran sartzea eskatuz, eta korintoarrak ere, zeintzuek aurretik hiriei banan-banan eskatua zieten botoa gerraren alde eman zezaten, beldur baitziren Potideako egoerak erabat txarrera egingo ote zuen laguntzera joan ahal izan baino lehenago, han izan ziren eta hitza azken hartuta ondokoa esan zuten:

**120.**— «Aliatuok, ezin ditugu jada lazedemondarrak akusatu gerraren alde ez bozkatzeaz eta gu horretarako ez bilarazteaz. Beharrezko da buruek ardura bera jartzea interes partikularrak nahiz orokorrak zaintzeko, beste arlo batzuetan ohore kontuan beste guztion aurretik lehenatasuna beraiei ematen zaien neurrian.

«Guk bezala atenastarrekin harremanak izan dituztenek ez dute behar neurriak hartzen inork irakasterik, eta, era berean, barrualdean eta haien bideetatik kanpo bizi direnek jakin behar dute ezen, itsasbazterrekoiei laguntzen ez baldin badiete, zailago gertatuko zaiela euren produktuak itsasoraino garraiatzea, baita itsasoak ematen dituenak lehorrekoek hartzea ere. Ez dira izan behar esaten dena, ez zaiela axola uste dutelako, maleziaz epaitzen duten horietakoak ere, baizik kontuan izan behar dute itsasbazterrekoak abandonatuz gero, arriskua noizbait



eurengana ere heldu ahal izango dela, eta, horretan, ez dira ari euren interesen alde besteenen alde baino gutxiago deliberatzen; eta, horregatik, ez dira uzkur izan behar bakea aukeratu beharrean gerra aukeratzeko, zeren zentzundunena da bakean irautea irainik edo kalterik jaso ezean, baina adoretuena, iraindua edo kaltetua izanez gero, bakea utzi eta gerrara pasatzea, eta aukera egokia datorrenean gerratik akordiora pasatzea berriro, gerrako arrakastagatik puztu gabe eta bakearen lasaitasunean atsegin hartzen duen biktima bat ere izan gabe. Atsegin horregatik nagi bihurtzen dena, bakean iraunez gero, laster geldituko litzateke erasotasun horren gozorik gabe, eta, bestalde, gerrako arrakastagatik harropuzten denak ez du pentsatu fidatzekoa ez den konfiantza bategatik puzten dela; sarri askotan, gaizki harturiko erabakiek etsaiak hain zuhurak izan ez zirelako ukan izan dute arrakasta, eta, are sarriago, ongi aholkatua zirudiena, aitzitik, ohorerik gabe bukatu izan da; inork ez du planik egiten plan hori gauzatzean izaten duen konfiantza beraz, izan ere, proiektua bai egiten dugu segurtasunez, baina gauzatzea, beldurraren eraginez, urri gertatzen da eta.

**121.**– «Guk orain gerra bati ekingo diogu irainduak eta kaltetuak izan garelako eta erreklamaziorik aski dugulako, eta, atenastarrengandik kalte-ordaina hartzen dugunean, bertan behera utziko dugu une ego-kian. Espero izatekoa da gerra geuk irabaztea arrazoi askorengatik:

«Lehenik, haien gainera gaude kopuruz eta esperientziaz eta, gainera, den-denok, bereizketarik gabe, betetzen ditugu aginduak; haien indarra den ontzidiari dagokionez, geuk ere eskuratuko dugu geure poltsikotik eta Delfosen eta Olinpian gorderiko dirutik. Mailegu batekin soldata handiago baten truke haien itsasgizon atzerritarrak erakarri ahal izango ditugu, izan ere atenastarren boterea mertzenarioa baita euren baino areago, eta gure botereari, ordea, hori gutxiago gertatuko litzaioke, gure indarra gizonengan baitatza diruan baino areago. Gertagarria da itsas garaipen bakar batekin guk haiek garaitzea, baina eusten badiote, geuk ere luzaroago praktikatuko dugu, eta gure trebetasuna haienaren parekoa izatera heltzen denean, gainditu egingo ditugu ezbairik gabe, kuraiagatik bederen, zeren guk sortzetikoa dugun dohain hori ez luke-te haiek ikasita berenganatuko, trebetasunean euren alde duten abantaila hori, ordea, txikiagotu egin liteke praktikarekin.

«Diruz lagundu behar dugu ontzidia edukitzeko; benetan ere izugarria litzateke aliatuek beren esklabotasunari iraunarazteko luzatzen dituzten



zergak emateari ez uztea eta guk geure burua salbatzeko eta aldi berean etsaia zigortzeko dirurik ez gastatzea, jakinik, gainera, geure dirua ken ez diezaguten eta gero diru hori erabilita egingo lizkiguketen kalteak jasan beharrik ukan ez dezagun gastatzen dugula.

**122.**– «Beste aukera batzuk ere baditugu gerra burutzeko: bat, jakina, haien aliatuen altxamendua, horrek haiek indarra hartzeko darabiltzaten aliatuengandiko baliabideak kentzea esan nahi duelarik; haien lurraldean gotorlekuak eraikitzea eta orain aurreikusterik ez daukagun beste hainbat gauza ere hortxe dauzkagu. Gerra inondik ere ez doa aurretik zehazturiko ibilguetatik; alderantziz, hark berak erakusten du askotariko estrategietarako bidea zirkunstantzien arabera, eta euroi baretasunez aurre egiten diena seguruago ibiltzen da, eurongatik sumintzen denak, ordea, ez duelarik deskalabru gutxiago batuko.

«Pentsa dezagun ezen, baldin gutariko batek lurralde mugengatik konponduezinak balitu indar berdineko etsaiekin, hori jasangarria litzatekeela; baina oraingo kasua da atenastarrek gu guztiok batuta aurre egiteko adina direla berak bakarrik, eta hiriz hiri are indartsuagoak direla. Beraz, haiengandik herri bakoitza eta hiri bakoitza beste guztiekin batuta defenditzen ez bagara, aise menderatuko gaituzte, bananduta gauden artean behintzat; eta jakin behar da porrotak –hitz hori entzutea batzuentzat izugarri latza bada ere– ez daramala esklabotasun nabarmenera baino. Gainera, bada gauza bat hitzez suposatze hutsa ere lotsagarria dena Peloponesorentzat, alegia, hainbeste hirik hiri bakar baten irainak onartzea; kasu horretan iraina merezia dugula edo koldarkeriagatik jasaten dugula emango genuke, eta, bestalde, gure gurasoen mailatik askoz beherago agertuko ginатеke, haiek Helade askatu baitzuten, guk, oster, askatasun hori segurtatu ere ez baitugu egiten, hiri bati tirano moduan geure gainean jartzen utziz, hiri bakoitzean gobernatzen duten tiranoak akabatzeaz harropuzten bagara ere.

«Eta ez dakigu nola egon daitekeen ere jarrera hori hiru malur nagusiak diren ergelkeria, koldarkeria eta axolagabekeriatik libre; ez zarete, jakina, horiek ekiditearren erori askoren hondamendia dakarren erdeinuzko harrotasunean, askori porrot eragin izanagatik kontrako izena hartuz zentzugabekeria deitu izan zaion harrotasun mota horretan.

**123.**– «Baina, zer premia dago iragana une honetan komeni den neurritik haratago gaitzesteko? Begiak etorkizuneko gertakarietan jarrita ahalegindu behar duzue –eta zuek ohikoa duzue lanaren podesuz mere-



zimenduak erdiestea– oraingoak soluzionatzen, eta ez duzue ohiturarik aldatu behar, orain aberastasun eta aukera gehiago eduki arren –zeren ez baita bidezko oparotasunean galtzea pobrezian irabazitakoa–, eta gerrara joan behar duzue, konfiantzaz beterik joan ere, ondoko arrazoiengatik: jainkoak erantzun eta agindu zizuelako berak ere lagunduko zizuela; zuen ondoan, behin beldurragatik behin interesagatik, Helade osoa ari delako borrokan; ez zaretelako lehenak izango itunak hausten –jainkoak bederen, gerra aholkatzen dizuenean, hautsitzat dituen itunak–, baizik hautsita daudenean haiek defenditzera joango zarete, hausleak euren burua defenditzen dutenak barik, erasoa aurren jotzen dutenak dira eta.

**124.**– «Beraz, edozein ikuspuntutik ere zuentzat onuragarri denez gerra egitea eta guk hori denon onagatik aholkatzen dizuegunez –behintzat egia baldin bada garantiarik irmoena hirien eta norbanakoen interesak bat etortzea dela–, zoazte atzerapenik gabe doriarrak diren eta joniarrak setiatuta dituzten potidearrei –lehen alderantziz gertatzen zelarik– laguntza ematera eta ez zaitezte luza besteak askatasunaren partaide egiten, zerен ez baita onartzekoa ezen, zain gauden bitartean, batzuek kaltea hartzea eta beste batzuk, ez asko geroago, jokabide beraren biktimak izatea, atenastarrek biltzen garela baina haiek defenditzen ausartzen ez garela jakin bezain laster. Kontuan izanik gauzak ekidinezinak izatera heldu direla eta proposamenik onenak azaldutako hauexek direla, eman botoa gerraren alde une honetako arriskuari beldurrik izan gabe, baizik gerratik sortzen den bakea lortu nahirik, horregatik berorregatik bake iraunkorragoa izango dena, zerен gerratik sortzen den bakea tinkoagoa izaten baita, bakea nahi delako gerrari uko egiteak ere ez dakarrelarik neurri bereko arrisku gutxiagorik.

«Heladen finkaturiko hiri bat tirano bat bezala denoi berdin gailentzen zaigula kontuan izanda, halatan gailendu ere, non, batzuen gain jada gobernatzen duen eta besteen gain horretarako proiektua daukan, aurre eman diezaiogun erasoz, bizi gaitezen arriskurik gabe aurrerantzean eta aska ditzagun esklabotasunean bizi diren Heleniarrak».

**125.**– Horrelaxe mintzatu ziren korintoarrak. Orduan lazedemondarrek, denen iritzia entzun ondoren, botoa ematea proposatu zieten han zeuden aliatu guztiei, batak bestearen ondoren, hiria handiagoa nahiz txikiagoa izan; gehienek gerraren alde bozkatu zuten. Hala ere, ezinezkoa zen erabakia berehala betetzea prestaturik egon gabe, eta bakoitzak





behar zuena eskuratzea eta ez berandutzea erabaki zuten; hala ere, behar zutena antolatzeke ia urte bete behar izan zuten, harik eta Atika inbaditu ahal izan eta gerra nabarmenki hasi arte.

**126.**– Denbora-tarte horretan Atenasera enbaxadak erreklamazioekin bidaltzen segitzen zuten gerrarako ahalik justifikaziorik handiena lortzeko, haiek zerbaitetan kasurik ez eginez gero.

Enbaxadoreen bitartez lazedemondarrek ezer baino lehen atenastarrak jainkosaren kontrako hoben sakrilegotik libra zitezen galdatzen zuten. Sakrilegio hori honako honetan zetzan:

Zilon, atenastar noble eta beso luzekoa, iraganeko garaile olinpiko bat zen; aldi hartan Megarako tiranoa zen Teagenesen alabarekin ezkondu-ta zegoen. Behin, Zilonek Delfosen kontsulta bat egin zuelarik, jainkoak Zeusen jai nagusian Atenasko Akropoliaz jabetzeko agindu zion. Teagenesen babeseta hartu eta lagunak konbentzitu ondoren, Peloponeson Olinpiaren jaiak heldu zirenean Akropoliaz jabetu zen tirania ezartzeko asmoz, uste izanik horixe zela Zeusen ohoretan ospatzen zen jairik handiena eta berari egoki zihoana garaile olinpikoa izaki. Orakulua zertaz ari zen, hau da, Zeusek Atikan ala beste edonon zuen jai nagusia, hori ez zuen ez Zilonek ulertu ez orakuluak argitu (Atenasen Diasiak ospatzen dira hiriaren kanpoaldean, Zeus Milikioren ohoretan ospatzen diren jaien izena delarik hori, eta jai horietan hiritar guztiek egiten dituzte beren opariak, baina ez biktimenak, odolik gabekoak baizik, lurreko fruituenak), baina ondo ulertu zuela uste zuenez, ekintzarako prestatu zen. Atenastarrek horren berri ukan zutenean, trumilka etorri ziren soroetatik eta, Akropoliaren oinean kanpatuta, setioa jarri zioten; hainbat denbora igaro zelararik, atenastarrek, setioaz gogaituta, alde egin zuten gehienek, zaintza bederatzi arkonteen ardurapean utzi eta guztiaz ongien zeritzoten moduan ebazteko ahal guztiak eman ondoren, izan ere, garai hartan bederatzi arkonteek betetzen zituzten funtzio publikorik gehienak.

Zilonekin batera setiatuak, berriz, makal aurkitzen ziren janari eta ur eskasiagatik; orduan Zilonek eta bere anaiak ihes egin zuten, eta besteak, akituta eta batzuk goseak hiltzear ere bazeudenez, Akropoliko aldrean jesarri ziren erregutzaile moduan. Haiek zaintzeko ardura zuten atenastarrek leku sakratuan hiltzear ikusi zituztenean, atera egin zituzten handik ezer txarrik ez egiteko baldintzarekin, baina handik urrundu zirenean hil egin zituzten; Jainkosa Agurgarrien aldareen ondotik pasa-



tzean eurengan babestu ziren zenbaitzuk ere hil egin zituzten. Orduz geroztik, haiei eta haien ondorengoei sakrilego eta jainkosaren kontrako orbanetzko hobendun esaten diete. Hitz batean, atenastarrek desterratu egin zituzten sakrilego horiek, eta geroago borroka zibiletan atenastarren bando baten alde ziharduen Kleomenes lazedemondarrak ere berriro desterratu zituen, eta ez zen mugatu biziak egoztera, hilen hezurrak ere lurpetik atera eta herrialdearen mugetatik kanpo jaurti zituzten eta. Hala eta guztiz ere, itzuli egin ziren desterrutik, eta euren familiak hirian bizi dira oraindik ere.

**127.**— Horixe da, bada, lazedemondarrek garbitzea eskatzen zuten sakrilegioa, lehenbizi eta dudarik gabe jainkosari pekamena eman nahi ziotelako, baina baita bazekitelako Xantiporen seme Perikles ukituta gelditzen zela amaren errotik, eta behin hura desterratuz gero politika atenastarrak euren alderantz egingo zuela.

Hala ere Periklesi hori gertatzea baino gehiago jendeari hirian hura errudun zela sentiaraztea espero zuten, hau da, gerra, aldez bederen, zorigaiztoko gertaera hark ekarrita hasiko zela. Bere garaiko gizonen artean besorik luzeena zuen eta politikaren gidaritza zeraman heinean, lazedemondarren erabat aurka agertzen zen eta ez zuen onartzen amore ematerik, baizik, aitzitik, gerrara bultzatzen zituen atenastarrak.

**128.**— Atenastarrek, aldiz, lazedemondarrek Tenaroko sakrilegioa garbitzea galdatzen zuten, zeren lazedemondarrek, behin, Tenaroko Poseidonen santutegian erregutzaile gisa babestu ziren hilota batzuk altxarazi eta kanpora eraman ondoren, hil egin baitzituzten; horrexegatik gertatu zitzairen, euren ustez ere, Espartako lurrikara handia. Brontzezko Etxeko Atenearen kontra egindako sakrilegioa ere garbi zezaten eskatzen zieten; honelaxe gertatu zen:

Espartarrek Pausaniasi lehenengo aldiz deitu eta Helesponton zuen burutzatik etorrazazi zutenean, epaitu egin zuten eta errugabe atera zen, baina ez zuten berriro hara bidali; hura, alabaina, partikular gisa eta lazedemondarren baimenik gabe, trirreme batean Helespontora heldu zen Hermionatik, berak zioenez pertsiarren kontra gerra egiteko, joan pertsiar erregearekin tratuak egiteko joan bazen ere, hasieran ere ahalegindu zen bezala Heladeren burutza hartzeko gogo biziak horretaratu-ta. Hasieran Erregearen ederra irabazi zuen eta kontu guztia honelaxe hasi zen:



Zipretik alde egin eta lehen aldiz arribatzean Bizantzio hartu zuenean (mediarrek eta Erregearen senitarteko eta ahaide batzuek okupatzen zuten, eta guztiak hartu zituzten preso orduan han), horiek harrapatu ondoren Erregearengana bidali zituen beste aliatuen ezkutuan, eskapatu egin zitzaizkiola zioen arren. Hori Eretriako Gongilorekin azpilanean antolatu zuen, hain zuzen ere Bizantzio eta presoan ardura eman baitzizkion; Gongilo eskutitza batekin bidali zuen eta bertan, gero jakin zenez, haxe zegoen idatzita:

«Pausanias Espartako buruak, zure alde egiteko gogo biziz, gerra preso hauek bidaltzen dizkizu; zure gogoko ere izanez gero, zure alabarekin ezkontzeko eta Esparta eta gainerako Helade guztia zure menpeko egiteko asmoa ere badaukat. Hori egiteko gai naizela uste dut zu nirekin egonez gero. Gogoko baduzu, bada, bidal ezazu konfiantzazko gizon bat itsasora, haren bitartez izan ditzagun harremanak aurrerantzean».

**129.**– Horixe bakarrik zioen idazkiak. Mezuak poztu egin zuen Xerxes, eta Farnazesen seme Artabazo bidali zuen itsasora, Daszilioko satrape-riaren ardura hartzeko agindu zion, lehen zuena, Megabates, kargutik kendu ondoren, eta eskutitz bat eman zion hainbat arinen Pausaniasi Bizantziora helaraz eta zigilua erakutsi ziezaion eta, Pausaniasek errege kontuei buruz zerbait jakinaraziz gero, ahalik ongien eta leialkien kudea zezan. Heldu zenean, bestea agindu zitzaion moduan egin eta eskutitza helarazi zuen. Bertan honako hau erantzuten zen:

«Honelaxe mintzo zaio Xerxes Erregea Pausaniasi; itsasoz haraindi Bizantzion salbatu zenizkidan pertsonengatik, betirako esker ona duzu irarrita gure etxean; zure proposamenak ere gogoko ditut. Gauak ez egunak ez zaitzatela atzera agintzen didazunetik zerbait ez egiteko adina, eta urrea edo zilarra gastatu beharrak ere ez diezazula egitea galaraz, ezta tropen kopuruak ere norabait joan behar bada, baizik, Artabazorekin, bidali nizun gizon zintzoarekin, antola itzazu nire eta zure gauzak ahalik ongien eta biontzako onuragarri izateko moduan».

**130.**– Idazkiak hartzean, Pausanias, ordurako Platean ukandako burut- zari esker Heleniarrek oso aintzat hartua zena, askoz gehiago harro- puztu zen orduan eta jada ezin zen ohiko eran bizi, eta pertsiarren modara jantzita irteten zen Bizantziotik eta, Trazia aldera zihoanean, pertsiarrek eta egiptoarrek ematen zioten eskolta, haren mahia pertsia- rren usadiora ipintzen zen, eta ez zen gauza bere asmoak barruan atxi- kitzeko, baizik egintza txikietan agertzen zuen gero, bere ideien arabe-



ra, gehienbat egingo zuena. Beragana inor ez hurbiltzeko moduan eta denekin berdin jokatzzen zuen, eta hain haserrekor agertzen zen, non inor ezin zitzaion inguratu, eta, neurri handian arrazoi horregatik ere, aliatuek atenastarren aldera egin zuten.

**131.**— Lazedemonдарrek, lehenengo aldiz jakin zutenean, dei egin zioten, eta gero, euren agindu barik Hermionatik ontzian abiatu ondoren arestian esandako moduan jokatzzen zuenean eta, Bizantziotik, atenastarren setioaren bidez, indarrez egotzia izan zelarik, Espartara itzuli beharrean Troadeko Kolonasen gelditzen zenean, eta gainera barbaroekin tratuetan zebilela eta hura han egotea ez zela onerako jakinarazi zitzaizenean, ez zuten gehiago itxaron, eta eforoek, heraldo baten eta skitale baten bidez, heraldoarengandik ez apartatzeko agindu zioten, bestela espartarrek gerra deklaratzeko ziotela.

Hura, susmagarri izateko inolako gogorik gabe eta erruztapenak diruaz desegin ahal izango zituela sinetsita, ostera ere Espartara itzuli zen. Hasieran kartzelaratu egin zuten eforoen aginduz (Erregeari ere egin baitiezaiokete hori); gero, tratuen bidez, irten egin zen eta bera judiziopean jartzeko aukera eskaini zien berari buruzko egiaztapenak egin nahi zituztenei.

**132.**— Froga nabaririk ez zuten ez espartarrek, ez haren etsaiek, ez hiri osoak, hau da, errege leinukoa zen eta une hartan kargu bat betetzen zuen gizon bat —errege, nahiz eta adin txikiko, zen Leonidasen seme Plistarkoren tutorea zen, haren lehengusua zelako— segurtasunez zigortzeko moduko frogarik, eta, gainera, gizon hark, erakutsitako araeukiko lokabetasuna eta barbaroen imitazioa bitarteko, indarrean zegoen ordenamenduaren pean jarri nahiko ote zuen errezelo handiak zituen sorraziak jendearen artean. Haren beste berezitasunei dagokienez, ahaleginez aztertzen ari ziren ea ezarritako araez kanpo inoiz jokatu zuen, baita behin hark Heleniarrek pertsiarrei kendutako harrapakinaren hasikin gisa Delfosen eskainitako tripodean bere kabuz honako distiko hau idaztea erabaki izana ere:

«Pertsiarren armada suntsitu zuenean, Heleniarren komandante buru Pausaniasek sagaratu zion Febori monumentu hau».

Kontua da lazedemonдарrek behingoan ezabatu zutela tripodetik distikoa eta barbaroa suntsitzen kolaboratu ondoren zinoparia sagaratu zuten hiri guztien izena inskribatu zuten. Orduan ere, jakina, Pausaniasen gehiegieria ematen zuen eta, egoera horretan egon ondoren, areago zirudien





bere oraingo proiektuen arabera jokatu zuela. Hilotekin tratuetan ibili zela ere jakin zuten, eta horrelaxe zen, izan ere, askatu egingo zituela eta hiritartasuna emango ziela agindu baitzien, matxinadara batzen baldin baziren eta bere plan guztia burutzen kolaboratzen bazuten.

Baina horrela ere, zenbait hilotaren salaketan sinesten bazuten ere, ez zuten erabaki haren kontrako neurriak ertzera eramatea –euren artean elkarrekin jokatu ohi duten moduan, hau da, espartar baten kontra frogatzea eztaba daezinik barik erremediorik gabeko ezer arinegi erabaki gabe–, harik eta Artabazori Erregearentzako azken eskutitzak eraman behar zizkion Argiloko batek, behiala hark babesturiko oso gizon leialak, salatu zuen arte; lehengo mandatarietarikoa bat ere ez itzuli izanak zer pentsatua eta beldurra ematen ziolarik, bera bere ustean oker egonez gero edo hark testua aldatzea eskatuz gero ere konturatu ez zedin zigilua kopia ondoren, bere susmoen arabera horrelako aginduren bat ekar zezaketen eskutitzak zabaldu egin zituen eta aurkitu zuen bera hil zezatela zegoela idatzita.

**133.**– Orduan, idazkiak erakutsi zienean, gehiago fidatu ziren eforoak, nahiz eta Pausaniasen berbak entzun nahi zituzten haiek berek: gizona Tenarora joan zen erregetzaile aurreikusitako plan batekin eta, pareta batez bereizirik gela biko etxola bat eraiki eta bertan zenbait eforo ezkutatu ondoren, Pausanias berarengana joan eta erregetzaile egoteko zuen arrazoia galdetu zionean, den-dena jakin zuten, berari buruz idatzitako hitzak aurpegiaratu zizkionean eta gainerako guztia puntuz puntu azaldu zionean –inoiz ez zuela arriskutan jarri erregearekiko zerbitzuan, eta saritzat beste zerbitzariak bezala hiltzeko ohorea eman nahi ziola–, izan ere, orduan Pausaniasek horixe bera aitortu zuen eta ez zion utzi une horretako egoeratik haserretzen; gainera tenplutik alde egiteko bermeak eskaini zizkion eta bideari lotzeko agudo eta Erregearekiko tratuei oztoporik ez jartzeko eskatu zion.

**134.**– Eforoek dena zehatz-mehatz entzun zutenean, momentuz alde egin zuten, nahiz eta hirian preso hartzeko ustetan, jada dena ziur zekiten eta. Esaten da ezen, kalean preso hartzera zihoazela, bera inguratzen zihoan eforoetako baten aurpegia ikusi bezain laster jakin zuela zertara zihoan eta, batek adiskidetasunagatik disimuluan keinu batez adierazi ziolarik, arineketan hasi zela Kalziekoaren santutegirantz eta hantxe babestu zela preso hartu baino lehen, hur baitzegoen esparru sakratua. Santutegiko gela ez handi batean sartuta eguraldi txarretik



babesteko, mantso egon zen. Eforoak momentuz atzera geratu ziren jazarpenean, baina gero teilatua kendu eta han zegoela egiaztatu eta barruan harrapatuta gelditzen zela ikusi ondoren, ateak hormatu zituzten eta han inguruan jarrita setioa ezarri zioten gosez errenda zedin. Gelan zegoen moduan azken arnasa ematear zegoela, eforoak konturatu eta oraindik arnasa zuelarik atera zuten santutegitik eta ateratzearekin batera hil egin zen. Zeadasera, hain zuzen ere gaizkileak jaurtitzen dituzten leizera, jaurtitzekotan ziren, baina gero han inguruan ehorztea erabaki zuten.

Geroago, Delfoseko jainkoak hilobia hil zen tokira eramateko agindu zien lazedemonдарrei (eta orain santutegiko sarreran datza, hilarrietako inskripzio batek adierazten duen moduan), baita, haien egintza sakrilegioa izan zela uste zuelarik, Brontzezko Etxekoari gorpu bat entregatu beharrean bi entregatzeko ere. Haiek brontzezko estatua bi egin zituzten eta Pausaniasen ordezkoi izateko sagaratu zituzten.

**135.**– Atenastarrek ere, jainkoak ere sakrilegioa izan zela ebatzi zuela kontuan hartuta, sakrilegio horretatik libre geratzeko galdatzen zieten lazedemonдарrei.

Pausanias pertsiarrekin kolaboratzeaz akusatzen zuten garaian, lazedemonдарrek atenastarrei bidalitako mandatarien bitartez Temistoklesi egozten zioten delitu bera, Pausaniasi buruzko frogetatik egiaztatu omen zuten bezala, eta modu berean zigor zezaten nahi zuten. Atenastarrak ados agertu ziren, baina ostrazismoz desterratua izan ondoren Argosen bizi zenez, Peloponesoko beste leku batzuetan ere bazez arren, jazarpenean laguntzeko prest zeuden lazedemonдарrekin batera gizon batzuk bidali zituzten aurkitzen zuten zeinahi tokitik ekartzeko aginduarekin.

**136.**– Baina Temistoklesek, alde zurretik ohartarazita, Peloponesotik Korzirara ihes egiten du, han ongile gisa hartua izateko. Korzirarrek hura babesteko eta ondorioz lazedemonдар eta atenastarrek ertsaitzeko beldur direla esanda, aurrez aurre duten lehorrera pasatzen dute.

Enkargua hartutakoek non zehar zebilen jakinarazteko harturiko berrien arabera jazartzen dutelarik, lagun ez zuen molosiarren errege Admetoren etxean ostatu hartzera beharturik aurkitzen da. Admeto ez zegoen etxean, baina andrearen aurrean erregutzaile jarrera hartuta, hark diotso sutondoan jartzeko euren semea besoetan hartuta. Handik lasterrera Admeto heltzean, nor den adierazten dio eta iheslari batez ez



mendekatzeko eskatzen dio, bera Admetok atenastarrei egindako eskarien kontra jarri bazen ere, zeren, jakina, kalteren bat etor baitzekiokeen egoera hartan askoz ahulagoa zenarengandik, baina prestutasunak norbere parekoez baldintza beretan mendekatzea eskatzen duela diotso. Gainera zioen bera eskari baten gorabeheran atera zitzaiola aurka eta ez bizia salbatzeko kontuan, eta hark, ordea, entregatzen bazuen (nork eta zertarako jazartzen zuen azalduz), bizia kenduko ziola.

**137.**– Admetok, entzun ondoren, zutik jartzen du bere semearekin batera (haren semea besoetan hartuta jesarrita egotea erregu jarrera gorenaren) eta ez du entregatzen handik lasterrera heltzen diren lazedemon-darren eta atenastarren eskuetara haiek arrazoibide askorekin etorri arren, baizik lehorrez beste itsasora bidaltzen du, Pidnara, Alexandroren hirira, errege pertsiarren gortera joan nahi zuelako.

Pidnan Joniara doan kargaontzi bat aurkituta, denboraleak Naxosen setiorako kanpamentura darama. Beldur ikaraz kapitainari nor den –ontzikoek ez zuten ezagutzen– eta ihesi zergatik doan jakinarazten dio, eta gainera adierazten dio, salbatzen ez badu, esango duela kapitainak erosita dagoelako daramala; bere segurtasuna berriro nabigatzen hasi ahal izan arte inor ez lehorreratzean datzala; eta, kasu egiten badio, sari ona emango diola mesedeagatik. Kapitainak kasu egiten dio, eta, egun eta gau batez kanpamentuaren parean ainguratuta egon ondoren, Efesora iristen da. Temistoklesek diruz saritu zuen –gero dirua heldu baitzitzaion lagunengandik eta Argosen gordeta zuenetik– eta itsasbaterreko pertsiar bat bidelagun zuela lur barrurantz joanik, Xerxesen seme Artaxerxes Errege koroatu berriari idazki bat bidaltzen dio. Hauxe zioen eskutitzak: «Zure aurrera nator ni, Temistokles, zure etxeari Heleniar guztien artean kalterik gehien egin diona niri erasoka ari izan zen zuen aitarengandik defenditu nintzen denbora-tarte guztian, baina baita onurarik gehien ekarri diona ere, zeren niretzat segurtaturik baitzegoen erretreta, harentzat, ordea, arrisku handia zenean. Mesede baten errekonozimendua zor zait (Salaminako erretretaren abisuaz eta zubiak ez apurtzeaz ari zen, gezurrez beretzen zuelarik azken ekintza hori). Orain, Heleniarrak zure laguna izatearren jazarrita, zuri mesede handiak egiteko ahalbidearekin natorkizu. Urtebete itxaron nahi dut eta gero zertarako natorren adierazi».

**138.**– Errege pertsiarra, diotenez, haren asmoek harrituta geratu zen eta halaxe jokatzan utzi zion. Hark, berriz, itxaroten egon zen denboran,



pertsiarren hizkuntzaz eta herrialdeko ohiturez ahal zuen guztia ikasi zuen.

Handik urtebetera aurkeztu zenean, Erregearengan eragin handia, ezein Heleniarrek inoiz eduki ez zuen modukoa, izan zuen, bai aurretik azaldu zionagatik eta bai Heleniar mundua bere menpera ekartzeko ematen zuen esperantzagatik, baina batez ere argia zirudielako, emanak baitzitu-  
tuen horren frogak. Izan ere, Temistoklesek indarrez erakutsi zuen bere berezko dohainen bikaintasuna, eta horretan beste inor baino askoz miresgarriagoa zen. Sortzetik zuen adimen argiagatik, adimen hori ez aldeztu aurretiko ikasketez ez osteko ezagutzez areagotu gabe, hausnarketarik txikienarekin unean uneko erabakiak hartzeko gaiena zen, eta, bestalde, oso epe luzera hartu beharrekoak iruditzeke trebeena ere bai. Ulertzen zuena esplikatzeke ere gai zen eta ezagutzen ez zituen gaietan ematen zuen iritzia nahikoa ona zen, eta bereziki alde eta kontrako aldeak aurreikusten zekien, agerian ez egon arren ere. Hitz batean, zituen berezko ahalmenengatik eta prestakizunik txikienak behar izateagatik, gaiena zen behar zena berehala erabakitzeko.

Gaixotasunez hil zen, nahiz eta batzuek dioten bere buruaz beste egin zuela pozoia edanda, Erregeari agindutakoa betetzerik ez zuela pentsatzean. Dena dela, haren hilobia Asiako Magnesiako plazan dago, zeren lurralde hori gobernatzen baitzuen, Erregeak ogi gisa Magnesia, urtean berrogeita hamar talentu ematen ziona, ardo gisa Lanpsako, garai hartako herri ardo-ekoizlerik handiena omen zena, eta jaki gisa Miunte eman zizkiolako. Haren hezurak ahaideek eraman ei zituzten etxera, berak hala eskatuta, eta Atikan ehortzi ei zituzten atenastarren ezkutu-  
tuan, ez baitzegoen hura ehorzterik, traiziozko hobenduntzat zeukatela-  
ko. Horrelaxe bukatu ziren euren garaiko Heleniar ospetsuenak izan ziren Pausanias lazedemondarrari eta Temistokles atenastarrari dagoz-  
kion gertaerak.

**139.**– Lazedemondarrek beren lehenengo enbaxadan gorago esandako galdapen horiexek eman eta hartu zituzten sakrilegoak egozteari buruz; gero, atenastarrekin behin eta berriz izandako elkarriketetan, Potidea-  
ko setioa jasotzeko eta Eginari independentzia emateko eskatzen zie-  
ten, eta batez ere, argi eta garbi gainera, aldarrikatzen zuten ez zela gerrarik izango, baldin megararrei buruzko dekretua, atenastarren inpe-  
rioko portuak eta merkatu atikarra erabiltzea debekatzen ziena, indar-  
gabetzen bazuten.





Atenastarrek ez bestean kasurik egiten, ez dekretua debekatzen zuten, ihardetsiz megararrek lur sakratua eta mugarik ez zuena lantzen zutela eta, gainera, esklabo iheslariei aterpea ematen zietela.

Azkenean, Lazedemongo azken enbaxadoreak, Ranfias, Melesipo eta Agesander, heldu ziren, lehenago esan ohi zutenetik ezertxo ere esan gabe, haxe besterik: «Lazedemondarrek bakea nahi dute, eta izan liteke, izan ere, Heleniarrak independente utziko bazenituzte»; atenastarrek, Batzarrerako deia eginda, euren artean iritziak kontsultatu eta puntu guztiei buruz deliberatu orduan erantzuna ematea erabaki zuten. Askok atera ziren hitz egitera batera eta besterako iritziekin, hau da, gerrara joan behar zela edo dekretuak ez zuela izan behar bakerako oztopo eta indargabetu egin behar zela; orduan Xantiporen seme Periklesek, garai hartan atenastarren artean lehenengoa eta hitz egiteko eta jarduteko gaiena zenak, ondoko haxe aholkatu zien:

**140.**— «Lehengo irizpide berari, peloponesoarren aurrean amore ez ematekoari alegia, eusten diot orain ere, nahiz eta badakidan gizonak gerra gauzatzeko duten sentimendu berarekin ez direla gerrara joateko konbentzitzen, baizik zirkunstantzien arabera aldatzen dituztela euren iritziak. Ikusten dut orain ere aholku berdinak edo antzekoak eman beharra daukadala eta uste dut bidezkoa dela zuen artean konbentzitu-ta zaudetenok, zerbaitetan oker erabakitzen badugu, denon artean harturiko erabakien alde egon zaitezten edo, bestela, garaile ateratzen bagara, ez ezazue pentsa erabaki burutsu baten lorian partaide izaterik. Espero izatekoa da zirkunstantzia politikoak giza asmoak baino era ezagugarriagoan ez garatzea, eta horrexegatik egiten dugu zoria kalkulatu-tik at gertatzen den ororen errudun.

«Lehen argi zegoen lazedemondarrek gure kontra konspiratzen zutena eta orain ez dago ilunago, izan ere, itunean elkarri desadostasunei buruz arbitrajeak eskaini eta onartzea eta alde bakoitzak daukana bereztat gordetzea hitzartzen den arren, haiek inoiz ez ziguten arbitrajerik eskatu, ezta onartu ere, guk eskaini arren, baizik nahiago dute erreklamazioak gerrarekin ebatzi, hitzekin baino, eta jada galdapenekin aurkezten dira, ez eskariekin. Potideako setioa jasotzea, Eginari independentzia ematea eta megararrekiko dekretua indargabetzea eskatzen digute; eta azken etorri direnek Heleniarrei independentzia eman diezaiegun aldarrikatzen dute.



«Zuotariko inork ez dezala pentsa ezerezkeria bategatik sortuko litzatekeenik gerra, megararrekiko dekretua indargabetzen ez baldin badugu –indargabetuz gero ez litzatekeela gerrarik egongo baitiote behin eta berri– eta ez iezaiozue zeuen baitan jalkitzen utzi gerran txikikeria bategatik hasi zinetelako erruari, zeren txikikeria horrek inplizitu daramatza zuen irizpide politikoaren berrespena eta egiaztapena, izan ere, amore ematen baduzue, berehala aurkeztuko dizuete galdapen handiagoa, beldurragatik eman beharra ukan duzuela eta. Egindakoari eusten badiozue, ordea, argiago geratuko zaie baldintza beretan tratatu behar zaituztetela.

**141.**– «Berehala pentsatu behar duzue kaltea jaso edo gerran hasi aurretik haiei kasu egitea komeni dela, hobe dela uste baitut hori zio handi nahiz txikiagatik amorerik eman gabe eta lorturikoa beldurrik gabe edukiz egitea, maila berdineko auzoek justizian oinarritu gabe galdaturiko erreklamazio txikiak zein handiak jopukeria mota bera dakarrelako, amore emanez gero.

«Gerrari eta alde bakoitzak dituen baliabideei dagokienez, jakin ezazue gureak ez direla haienak baino urriagoak izango, puntuz puntu dena kontuan hartuta:

«Peloponesoarrenk berek lantzen dituzte beren lurrak eta ez norbanako ez herri gisa dute dirurik; gainera gerra luze eta itsasoz haraindikoetan ez dute eskarmenturik, pobreak izaki, haien erasoek euren artekoak eta iraupen laburrekoak izaten direlako.

«Horrelako jendea ez da gauza ontziak jendez eta behar denez hornitzeko, ezta espedizioak kanpora lehorrez maiz bidaltzeko ere, ez bakarrik beren interes partikularrak bertan behera utzi behar dituztelako, baizik nork bere lepotik egin behar dituelako, itsasoa betatuta edukitzeaz gain. Gehiago sostengatzen dituzte gerrak finantz soberakinek, derrigorrezko zergek baino, zeren beren lurrak lantzen dituztenek prestatgo izaten baitira gerra beren gorputzekin egiteko, beren diruarekin baino, izan ere gorputzei dagokienez, arriskuetatik onik atera ahal izateko esperantza izaten baitute, baina diruari dagokionez, ez da segurua gerra amaitu aurretik dena ez xahutzea, batez ere, espero izatekoa den moduan, uste baino gehiago luzatzen bazaie gerra.

«Peloponesoarrak eta beren aliatuak bataila bakarrean Heleniar guztiei buru egiteko gai dira, baina ez dira gauza erakunde militar ezberdin baten kontra gerra bat egiteko, izan ere, ez dutenez kontseilu bakarra,



ezin dute berehala eta adorez betearazi edozein erabaki, eta botoek balio berbera dutenez eta leinu berekoak ez direnez, bakoitza berearen alde doa; horren ondorioz, ez da ezer egiten, zeren batzuek mendeku hartzea dute guren, beste batzuek, ordea, beren ondasunek ahalik gale-  
ra txikiena izatea gura dute.

«Biltzeko geldoak izatez aparte, denbora gutxi ematen diote interes komunen azterketari eta ia denbora guztia norbere interesak aztertzen ematen dute; eta bakoitzak uste du bere desinteresarekin ez duela inolako kalterik egiten, bere ordeztu besteren bat arduratuko dela pentsatzen baitu, eta, hartara, zuk ez nik ezean, denon interesak denon artean hondatzen dira, bakoitzak uste ustel berak egitearren.

**142.**– «Baina punturik inportanteena da diru urritasunean eragozpen galanta izango dutela, atzerapenez eskuratzearren berandutzen direnean. Gerrako aukerak ez dute itxaroten.

«Benetan ere, ez haiek gure lurraldean gotorlekuak eraikitzeak ez haien ontzidiak, bata ez besteak, ez dute gure beldurrik merezi. Lehenengorari dagokionez, bake denboran ere, zail da gurearekin erkagarri den hiri batek gotorlekua eraikitzea, baina askoz zailago gerratean eta guk haiek adina harresi edo gehiago eraikitzen baditugu euren aurrez aurre. Gotorleku bat eraikiko balute, kalteak egingo lizkiokete lurraldearen zati bati euren oldarraldiekin eta esklaboen desertzioekin, baina, hala eta guztiz ere, hori ez da izango nahikoa guk, itsasoz joanda, euren lurraldean gotorlekuak eraikitzea eta haiei geure ontziekin –geure indar nagusiarekin– erantzutea galarazteko. Guk, geure itsas esperientziari esker, hobeto menderatzen ditugu lehorreko operazioak, haiek, euren lehorreko esperientziari esker, itsasokoak baino. Itsasgizon trebe izatera ez dira aise helduko, zeren Gerra Mediarrak bukatu zirenetik lanbide hori praktikatzeko duzuenok ere ez duzue erabat menderatzen. Itsasgizonak barik baserritarrak diren gizonek, gainera, ontzi askok blokeatuta edukitzean praktikatzeko utziko ez zaienek, nola egingo lukete merezimenduko ezer? Ontzi gutxi batzuek blokeaturik egonda, agian arriska litezke, gutxi izateak euren esperientziarik ezari konfiantza ematean, baina askok blokeatuta badaude ez dira mugituko, eta praktikarik ez egitean, esperientzia urriagoa izango dute eta, beraz, geldoagoak izango dira.

«Nabigazioa teknika bat da, beste edozein bezalakoa, eta ez du onartzen lantzean behin denbora-pasa praktikatzeko; are, ez du onartzen beste jarduerarik, bigarren mailakorik ere, berarekin batera.



**143.**– «Baldin, Olinpiako altxorrera edo Delfosekora jota, guri itsasgizon atzeritarrak kentzen ahaleginduko balira soldata handiagoa eman ez, beldur izatekoa litzateke ea, gu eta metekoak ontziratuta, ez ginatkeen, hala ere, haiekin erkatzeko modukoak. Baina orain gurekin daude eta, inportanteagoa dena, pilotuak diren hiritarrak dauzkagu eta tripulaziorako gainerako Helade guztiak baino gizon gehiago eta hobeak.

«Arrisku orduan ezein atzeritarrek ez luke onartuko bere lurretik deserratu izatea eta euren aldean borrokatzea garaipenerako itxarobide urriagoekin egun gutxiko soldata handiagoaren truke.

«Peloponesoarren kontuak horrelakoxe edo antzeko ezaugarriak dituelakoan nago, eta gureak ez duela haiengan kritikatu ditudan alderdi txarrik, parekagarriak ez diren beste abantaila batzuk edukitzeaz gain. Gure herrialdea lehorrez inbaditzen badute, gu itsasoz joango gara eurenara, eta ez da izango gauza bera Peloponesoko zati bat deboilatzea eta Atika guztia suntsitzea, haiek ezingo dutelako beste lurrik erdietsi borrokatu gabe, guri, ordea, lur arlo handia gelditzen zaigunean, ez bakarrik uharteetan, baizik lehor-lehorrean ere, faktore handia baita itsasoa menderatzea.

«Pentsa ezazue honetan; uhartetarrak bagina, nortzuk lirateke erasoezinenak? Orain, ahalik hertsikien ideia hori lotuta, lurrak eta etxeak utzi eta itsasoa eta hiria ongi jagoteko eta haiengatik sumindu arren, gu baino askoz gehiago diren peloponesoarren kontra borrokatzera ez joateko plana egin behar dugu –izan ere, gerra irabazten badugu, berriro borrokatu beharko dugu txikiago izango ez den gizon kopuruaren kontra, eta, porrot egiten badugu, gure indarra diren aliatuak galduko ditugu gainera, ez baitira geldi egongo gu haien kontra joateko gai ez izatera heltzen garenean– eta ez gara kexatu behar etxe eta lurrengatik, galdutako biziengatik baizik, zeren gauza horiek ez dituzte gizonak erdiesten, baizik, alderantziz, gizonak erdiesten dituzte gauza horiek. Konbentzitu ahal zaituztedala pentsatuko banu, zuek zeuek irten eta horiek deboilatzeke eta peloponesoarren horiengatik ez zaretela beraien mende jarriko argi uzteko aginduko nizueke.

**144.**– «Beste arrazoi askorengatik irabazteko konfiantzaz segitzen dut, beti ere gerran zaudeten bitartean zeuen inperioa gehitu eta dohaineko arrisku gehiago zeuenganatu nahi ez baduzue. Beldur handiagoa ematen didate gure geure errakuntzek, etsaiaren planek baino, baina hori beste debate batean adieraziko dugu operazioen garapenarekin batera.





«Orain agur esan diezaiegun horiei erantzunez megararrei gure merkatua eta portuak erabiltzen utziko diegula, beti ere lazedemondarrek gu eta gure aliatuak, atzerritar moduan, egozten ez bagaituzte (itunetan ez da bata ez bestea debekatzen); erantzunez, halaber, hiriei independentzia emango diegula, baldin itunak sinatu genituenean independenteak bazi-  
ren eta beti ere eurek ere euren hiriei independentzia ematen badiete, ez lazedemondarren komenentzien arabera, bakoitzak nahi duenaren ara-  
bera baizik, eta arbitraje baten pean jarri nahi dugula itunen arabera eta ez dugula gerrarik hasiko, baina hasten dutenei atzera eragingo diegula.

«Horixe erantzutea da bidezkoa, gisakoa izatez gain, gure hiriarentzat.

«Gerrara joatea ekidinezina dela jakin behar dute –zenbat eta gerra onartzeko gogo handiagoz agertu gu, orduan eta gerran hasteko uzku-  
rrago gure etsaiak– eta arriskurik handienak sortzen direla hiriarentzat eta ohore handienak gizabanakoentzat. Horrela gure gurasoek, media-  
rrari horrelako baliabiderik ukan gabe eta, are, zituztenak ere bertan behera utzita eta zortetik baino adimen argitik gehiago izanda eta euren indarren gainetiko ausartziarekin aurre egitean, atzera eragin zioten barbaroari eta egungo mailaraino garatu zuten gure boterea; eta guk ez dugu haiek baino gutxiago izan behar, baizik bitarteko guztiekin atzera bota behar ditugu etsaiak eta gure ondorengoei ondare hori urrituta ez uzten ahalegindu».

**145.**– Horrelaxe mintzatu zen Perikles. Atenastarrek aholkurik onenak berak eman zituela kontuan hartuta, hark proposatua bozkatu zuten eta lazedemondarrei haren irizpidearen arabera erantzun zieten puntuz puntu hark esan bezalaxe: ezer ere ez zutela exijentziengatik egingo eta prest zeudela erreklamazioak arbitrajez ebazteko itunen arabera ekitate eta berdintasunezko baldintzetan.

Lazedemondarrek beren aberrira alde egin zuten, eta geroztik ez ziren itzuli enbaxadan.

**146.**– Horiexek izan ziren gerra aurretik bitzuek izan zituzten errekla-  
mazio eta desadostasunak, Epidamno eta Korzirako gertaeretatik hasi zirenak. Une horretan harreman komertzialak izaten segitzen zuten eta elkarren lurraldeetara bidaiatzen zuten heraldorik gabe, mesfidantzarik gabe ez baina. Baina gertatzen ari zenak itunen haustura esan nahi zuen, eta, beraz, gerrara jotzeko justifikazioa.



# PELOPONESOKO GERRAREN HISTORIA II. LIBURUA

1.– Hemendik aurrera atenastarren eta peloponesoarren eta eurotako bakoitzaren aliatuen arteko gerra hasten da, non ez zuten eduki heraldorik gabeko harremanik, eta, behin bakea hautsita, etengabeko borrokan jardun zuten. Gertaerak hurrenez hurren idatzi dira, udaz uda eta neguz negu jazo ahala.

2.– Hamalau urtez iraun zuten Eubea konkistatu ondoren sinatu ziren berrogeita hamar urteko itunek; hamabosgarrenean, ordea, berrogeita zortzi urte lehenagotik Argosko emakume apaiz Krisis zela, eta Espartan eforo, berriz, Enesio, eta Pitodorori Atenasko arkontetzan oraindik lau hilabete falta zitzaionean, Potideako batailatik hamaseigarren hila-betera, udaberriaren hasieran, tebastar batzuk, hirurehun baino askoz gehiago ez, –Pitangelo, Filidasen semea, eta Dienporo Onetoridasena buru zituztela– atenastarren aliatua zen Beoziako Platean sartu ziren armatuta, lehen loaldi aldera.

Platear batzuek –Nauklidesek eta bere taldeak– deituta joan ziren, eta eurek ireki zizkieten ateak, kontra zeuzkaten hiritarrak garbitu eta hiria tebastarren babespean jarri nahian baitzebiltzan, euren boterea areagotzeko. Hori Leontiadasen seme Eurimakorekin tratatu zuten, tebastarren artean itzal handiko gizona bera; tebastarrek, gerra piztuko zela aurreikustean, Plateaz jabetu nahi izan zuten, bakean zeudenean eta gerra deklaraturik ez zegoenean ere beti euren etsai zen hiriaz, eta erraz sartu ziren zaingoa atondu barik zeukatelako.



Sartu eta armekin atsedenaldi bat egin zuten plazan, berehala ekintzan hasteko eta euren etsaien etxeetara joateko dei egin zietenek kasurik egin barik; aitzitik, adiskidetzeko aldarrikapenak egitearen eta hiria akordio batera eta adiskidetasunera erakartzearen alde agertu ziren, eta heraldoak aldarrikatu zuen, ezen, baten batek, beoziar guztien ohitura tradizionaleri jarrai, aliatu izan nahi bazuen, utz zitzala armak euren ondoan, hartara hiria erraz batuko zitzaizela uste baitzuten.

**3.**– Platearrak, konturatu zirenean tebastarrak barruan zeudela eta hiria ezustean hartuta zeukatela, izututa eta askoz jende gehiago sartu ziren ustetan –gauaren ilunean ezin zituzten ikusi eta–, akordioa egiteko eta lasai hitz egiteko prest agertu ziren, batez ere kontuan izanda inori ere ez ziotela minik egin.

Tratuetan zebiltzala, konturatu ziren ez zirela asko tebastarrak eta pentsatu zuten, eraso joz gero, aise garaituko zituztela; izan ere, platear gehienek ez zuten atenastarrengandik banandu nahi.

Horretan saiatzea erabaki zuten, bada, eta elkartzeari ekin zioten, horretarako euren arteko hormak zulatuz, etsaiek kalean zehar ikus ez zitzaaten; kaleetan gurdiak jarri zituzten gurtabererik gabe, barrikadak egiteko, eta beste guztiari egoera hartan egokien zeritzoten moduan egin zioten aurre.

Behin hori guztia ahalik ondoen atondu zutenean, oraindik gaua zen bitartean itxaron ondoren, etxeetatik erasora jo zuten haien kontra egunsentian, egun argitan adore handiagoa hartuta eurekin pareka zitekeen etsaiari aurre egin beharrik ez edukitzeko, eta, tebastarrak gauez izutuago egonik, hiria ongi ezagutzen zuten platearrekin desabantailan aurki zitezen. Berehala eraso zieten eta laster korapilatu ziren borrokan.

**4.**– Besteek, iruzur egin zietela ikusita, atzera egin zuten eta erasoei, zetozkien toki guztietatik, aurka egiten saiatu ziren. Bizpahiru alditan eragin zieten atzera; gero harrabots ikaragarriarekin eraso zitenean, emakumeek eta esklaboek etxeetatik oihuka eta alarauka harriak eta tei-lak botatzen jardun zutenean eta gauez euria goian behean hasi zenean, izututa, buelta eman eta hirian zehar ihesi joan ziren tebastarrak, gehienak ilunetan eta lokatz artean ihesbiderik topa ezinik –gertaerok hila-ren amaieran jaso ziren–, jazarleek, orde, ihesbideok ongi ezagutzen zituztelarik, ez zieten hanka egiten utzi; ondorioz, asko hil ziren.



Platear batek etsaiak sartu ziren ateak, zabalik zeuden bakarrak, itxi egin zituen, horretarako iltzearen ordezt xabalina punta bat erabiliz morroiloa finkatzeko, eta, hartara, handik ere ez zegoen irtenbiderik.

Hirian zeharreko jazarpenean, batzuk harresien gainera igo eta kanpora jauzi egin zuten, eta gehienak hil egin ziren; beste batzuek, andre batek emandako aizkora hartu, zaindu gabeko ate baten barra hautsi eta ihes egin zuten inork ikusi gabe, ez askok, hirikoek laster erreparatu baitzieten; beste batzuek hiriaren alde ezberdinetan sakabanatuta galdu zuten bizia. Elkarturik zirauen talderik handiena, hala ere, ateak zabalik zituen harresi ondoko etxe handi batera sartu zen arrapaladan, etxeko ateak hirikoak eta zuzenean kanpora zeramatenak zirelakoan.

Platearrek, harrapatuta ikusi zituztenean, etxeari su emanez erreko ote zituzten ala beste bideren bat erabiliko ote zuten eztabaidatu zuten. Azkenean horiek eta hirian galduta bizirik gelditu ziren tebastar guztiek beren armekin errendatzea adostu zuten platearrekin, nahi zutena egin zezaten eurekin.

**5.**— Horiexek dira Platean jazo ziren gertaerak. Hirira sartutakoek nahi zuten emaitza ez lortzea edo zer gerta ere, armada guztiarekin aurkeztu behar zuten gainerako tebastarrei dagokienez, jazotakoaren berri bidean eman zietenean, laguntzera joan ziren.

Platea Tebastik hirurogeita hamar estadiora dago, eta gauez egindako euria oztopo handia izan zuten aurreratzeko, zerena, Asopo ibaiak ur asko zeramalarik, ez baitzen erraz zeharkatzen; euripean ibili beharra eta ibaia zeharkatzeko zailtasunak zirela eta, berandu heldu ziren, batzuk jada hilda eta besteak preso hartuta zeudenean.

Tebastarrek gertaturikoaren berri izan zutenean, hiritik kanpoan zebiltzan platearrei erasotzea pentsatu zuten —baso eta landetan jendea zebilen eta lanabesak zeuden, bake garaian ezustekoa den zerbait jazotzean gertatu ohi den moduan—, harrapatzen zituztenak barrukoe-kin trukatzeko bahi moduan eduki nahi zituztelako, preso harturikorik egonez gero.

Horiexek ziren haien planak; baina platearrek, besteak deliberatzen ari zirela, haiek pentsatzen ari zirena gertatuko zela sumatuz eta kanpokoek gertatuko zitzaizaienaren beldur, heraldo bat bidali zieten tebastarrei esateko bake garaian hiriaz jabetzen ahalegintzearekin bidegabekeria egin zutela eta kanpoan lanean zebiltzanei inolako minik ez egiteko





eskatzen; bestela, eurek ere hil egingo zituztela bizirik zeuzkaten tebastarrak, eta euren lurraldea uzten bazuten, bizirik itzuliko zizkietela. Horixe kontatzen dute tebastarrek eta horixe zin egin zietela diote, baina platearrek ez dute aitortzen presoak berehala entregatzeko hitza eman zutenik, baizik alde biek hitz egin ondoren, akordioa lortuz gero; eta ez zutela zinik egin diote gainera. Kontua da tebastarrek inori minik egin gabe utzi zutela lurraldea, eta platearrek, eskualdean zeukaten guztia arrapaladan sartu bezain laster hil zituzten presoak. Ehun eta laurogei ziren preso harturikoak, eta euretako bat Euri-mako zen, traidoreekin tratuak egin zituena.

**6.**— Hori egin ondoren, mandatari bat bidali zuten Atenasera, tebastarrei, akordioz, euren hilak itzuli zizkieten eta gai eta arazo publikoak ongien iritzi zioten moduan antolatu zituzten uneko zirkunstantzien arabera:

Plateari buruzko gertaerak berehala jakinarazi zizkieten atenastarrei, eta berehala hartu zituzten preso Atikan zeuden beoziar guztiak, eta Plateara heraldo bat bidali zuten preso zituzten tebastarrekin ertzeko neurririk ez hartzeko aginduz, harik eta haiei buruz eurek deliberatu arte, ez zieten-eta jakinarazi hilda zeudela, zeren lehen mezularia tebastarrak sartu zirenean abiatu baitzen eta bigarrena haiek garaitu eta preso hartu eta batera, geroko gertaerei buruz ezertxo ere ez zekitelarik. Hartara atenastarrek, ez zekitelako, mezu horixe bidali zuten, eta heraldoa heltzean hilda aurkitu zituen.

Horren ostean, atenastarrak Plateara joan ziren armadarekin eta elikagaiak garraiatu zituzten, goarnizio bat utzi zuten han, eta gizonik ezgauzenak emakume eta hurrekin batera eraman zituzten.

**7.**— Plateakoa gertatu zelarik eta tratatuak nabarmenki urratu zirelarik, atenastarrak gerrarako prestakizunetan zebiltzan jo eta ke, eta lan berean zebiltzan lazedemondarrak eta beren aliatuak ere, alde biak zeudelarik prest pertsiarren erregeari eta atzerriko beste herrialde batzuetara, laguntza eskain zezakeen edonora, enbaxadoreak igortzeko, baita beren eragimen eremutik kanpo zeuden hiri guztiak beren aliatu bihurtzeko ere.

Lazedemondarrek, euren aldetik, lehendik zituztenei gehitzeko, Italian eta Sizilian euren alderdia hautatu zutenei agindu zieten itsasontziak eraikitzeko nork bere hiriaren tamainaren arabera, guztira bos-



tehun ontzi edukitzeko moduan, eta esandako dirua prest edukitzeko eta, besteei zegokienez, lasai egoteko eta atenastarrak ontzi batekin bakarrik onartzeko, prestakizun horiek egiten ziren artean.

Atenastarrek beren aliatuen errebista pasa zuten eta enbaxadoreak bidali zituzten batez ere Peloponeso, Korzira, Zefalenia, Akarnania eta Zazinto aldera, uste baitzuten ezen, herrialde horiek adiskide irmo gertatuz gero, Peloponesoa blokeatuz egindako gerra batez garaipena lortuko zutela.

**8.**– Han ez zegoen inor garrantzi txikiko proiekturik egitekotan, ez batzuek ez bestetuek, baizik gerrarako prestatzen ari ziren sutsu –eta ez arrazoirik gabe, gerra bat hastean denak ibiltzen baitira lehiatsu– eta gainera Peloponeson gazteria handia zegoen, baita Atenasen ere, eskarmenturik ez eta, gerrara joateko prest eta gustura zegoena; gainerako Helade guztia beldurrak jota zegoen hiri nagusien enfrentamendu horren aurrean.

Profezia asko kontatzen ziren, orakulu asko erreztatzen ziren, hala gerrara zihoazen hirietan nola besteetan. Gainera lurrikara bat izan zen Delosen, Heladeren gomutan sekula gertatu ez zen modukoa. Bala-bala zebilen, eta jendeak sinesten zuen gertatuko zenaren zantzu bat zela, eta antzekorik gertatzen zenean, dena aztertzen zen zehatz-mehatz.

Jendearen begikotasuna lazedemondarrentzat zen gehienbat, Helade askatuko zutela aldarrikatzen zutelako batez ere.

Mundu guztia, jendea eta hiriak, adoretzu ageri ziren zerbaitetan laguntzeko, hitzez eta egitez. Lagun bakoitzak uste zuen bera ez zegoen tokian eragozpenak izango zirela. Horrela, gehienak berdetuta zebiltzan atenastarrekin, batzuek haien uztarpetik askatzeko gogoz, besteek hark menperatuak izateko beldurrez.

**9.**– Horrela bada, prestakizunok eginda borrokarako prest jarri ziren. Bando bakoitza ondoko hiriak aliatu hartuta hasi zen gerran.

Lazedemondarren aliatuak hauexek izan ziren: peloponesoar guztiak istmoraino, argiboak eta akeoak izan ezik (hauek alde bien lagunak ziren; hasieran Pelenako akeoak bakarrik borrokatu ziren haien aldean, geroago denak); Peloponesotik kanpo, megararrak, beoziarrak, lokroak, fhozearak, anpraziarrak, leukadetarrak eta anaktoriarrak. Horieta-rik, itsasontziak zekartzatenak korintoarrak, megararrak, siziondarrak,



pelenatarrak, Eliderrak, anpraziarrak eta leukadetarrak ziren; zalditeria zekartenak, beoziarrak, fhozearak eta lokroak; beste hiriek oinezkoak zekartzaten. Horiexek izan ziren lazedemondarren aliatuak.

Atenastarren aliatuak: kiotak, lesboarrak, platearrak, Naupaktoko meseniarrek, akarnaniar gehienak, korzirarrak, zazintoarrak eta basai-luak ziren beste herri batzuk, ondoko hirien artean zeudenak: Kariako itsasaldea, kariarren auzoak ziren dorioak, Jonia, Helespontoa, Traziako Kostaldea, Peloponeso eta Kretaren artean ekialdera dauden uharte guztiak, Melos eta Tera kenduta. Horietatik, kiotak, lesboarrak eta korzirarrak zekartzaten ontziak; besteek, oinezkoak eta dirua.

Horiexek izan ziren alde bakoitzaren aliatuak eta prestakizunak gerrarako.

**10.**– Lazedemondarrek, Plateako gertaerak jazo bezain laster, Peloponesoan zehar, baita kanpoko aliatuei ere, abisua igorri zuten zera aginduz: hiriek armada bat eta behar adina elikagai presta zezaten euren lurraldetik kanpora espedizioan joateko Atika inbaditzera.

Hiri bakoitzak horiek prestatu zituenean, esandako aldian, hiri bakoitzeko tropen bi hirurenak bildu ziren istmoan; armada guztia bildu zenean, espedizio hori zuzentzen zuen Arkidamo lazedemondarren erregeak, hiri guztietako komandanteak, goi karguak eta pertsonarik ospetsuenak bilarazi ondoren, honako aholku hauexek eman zituen:

**11.**– «Peloponesoar eta aliatuok: gure gurasoek ere espedizio asko burutu zituzten Peloponeso barruan eta hemendik kanpo, eta gutariko zaharrenak ez dira gerra kontuan eskarmenturik gabekoak; hala ere, ez gara inoiz abiatu hau baino ekipamendu handiagorekin, eta, gure indarrak ugariak eta bikainak badira ere, eraso nahi diogun hiria ere oso boteretsua dugu. Bidezko da, beraz, gure gurasoak baino eskasagoak edo haien mailatik beheragokoak garela ez ematea. Helade osoa dago kezkaz beterik eta ekintza honi adi, atenastarrenganako gorrotoak eraginda, begikotasun handiz gura dutelarik egin asmo duguna azken bururaino eraman dezagun.

«Nahiz eta badirudien inbaditzera indar ugariarekin goazela eta etsaiak seguruenik ez zaizkigula batailan hastera etorriko, ez dugu aurrera jo behar geure prestaketan utzikeria nagusi dugula; aitzitik, hiri bakoitzeko hala buruek nola soldaduek arriskuren bat sortuko den esperoan egon behar dute beti. Gerrako gertakizunak ez dira seguruak eta maiz



erasoak bat-batean eta grinaz beterik gertatzen dira. Sarri askotan jende gutxiagok, zuen beldurrari esker, hobeto eragin izan dio atzera, etsaia gutxiesten zuelako ustekabeen harrapaturiko jende gehiagori.

«Etsaien herrialdean konfiantzaz eta adorez ibili behar da beti, baina, ekintzari begira, erne eta errezeloz beterik. Hartara, etsaiei erasotzeko ausartago eta haien amarruen kontra seguruago ibiliko dira. Gu ez goaz defendatzeko gai ez den hiri baten kontra, baizik alderdi guztietatik ongi prestatuta dagoen hiri baten kontra, eta horregatik daitekeena da, oso daitekeena, gure kontra batailan sartzea, ez agian oraindik ailegatu ez garenean, baizik euren lurraldean euren ondasunak deboilatu eta deuseztatzen dihardugula ikustean; zeren gizaki oro jartzen da irakiten, ezohiko duen zerbait begien aurrean pairatu beharra duenean, eta ikusten duten unean, gehienetan pentsatzen jarri barik, bihotz hutsarekin jarduten dute. Espero izatekoa da atenastarrek, besteek baino gehiago, horixe egitea, besteak euren manupean edukitzeko eta besteen lurrak inbaditu eta hondatzeko merezimenduak dituztela uste dutenez gero.

«Esandako guztiaren ondorioz, jakinda hain hiri handiaren kontra zoatzela eta entzuterik handiena emango diezuela zeuen arbasoei eta zeuen buruei onerako edo txarrerako emaitzen arabera, zoazte gidatzen zaituzteten bidetik, diziiplina zaintzeko eta tentuz ibiltzeko ardurarik handienaz jardunez eta aginduak zehaztasunik handienaz betetz betiere, izan ere horixe baita gauzarik ederren eta seguruena, hots, asko izan arren diziiplina bakar baten pean agertzea guztiok.»

**12**— Hau esan eta bilduak sakabanatu ondoren, Arkidamok lehenik Diakritoren seme Melesipo, espartar bat, bidali zuen Atenasera, atenastarrek bidean zihoazela jakitean amore emateko pretago ote zeuden ikusteko, baina haiek ez zuten hirian ez agintarien aurrean hartu, zeren Periklesen iritzia, lehenago ere nagusi izandakoa, lazedemondarrek kanpainan ziharduten artean heraldorik ez enbaxadarik ez onartzekoa baitzen. Hartara, bada, entzun aurretik bota zuten handik eta egun berean euren mugetatik at egoteko eta aurrerantzean, enbaxadarik igorri nahi bazuten, hori beren lurraldeetara itzuli ondoren egiteko agindua eman zioten. Gainera eskolta bat jarri zioten Melesipori inorekin ere elkarritzeta ez zedin.

Hark, mugara helduta eta banantzera zihoala, haxe soilik esan zuen joan aurretik: «Gaurkoa gaitz handien hasiera eguna izango da Hela-





derentzat». Kanpamentura heldu zenean eta Arkidamo konturatu atenastarrek inola ere ez zutela amorerik emango, kanpamentua altxatu eta haien lurraldearen kontra abiatu zen.

Beoziarrek zegokien tropen eta zalditeriaren partea eman zieten peloponesoarrei espedizioan parte hartzeko, eta gelditzen zirenekin Plate-ara joan eta lur guztia deboilatu zuten.

**13.**– Peloponesoarrak istmoan egon ziren edo Atika inbaditu aurretik bidez zihoazen garaian, Xantiporen seme Periklesek, zeina jeneral atenastarra zen beste bederatzi lagunekin batera, inbasioa gertatuko zela jakin zuenean, errezeloz bete zen, Arkidemok soroak deboilatu gabe utziko ote zizkion beldur baitzen, dela berari mesede partikular bat egin nahirik arrotz-laguna zuelako, dela lazedemonдарren aginduz, bera erruztatzeko asmoz –atenastarren izenean sakrilegioetatik libre gelditzea galdatu zutenean bezala–, eta, horregatik, atenastarren aurrean publikoki deklaratu zuen Arkidamo arrotz-laguna zuela, baina horrek ez zekarkiola hiriari kalterik, etsaiek bere soro eta etxeak bes-teenak bezala suntsitzen ez bazituzten, jabetza publikokoak izan zitezen utziko zituelako; beraz, horrek ez zuela sortu behar inolako susmo txarrik berarekiko.

Orduko egoerari buruz ere lehenago bezala aholkatzen zuen: gerrarako prestatzea, soroetan zegoena hirira sartzea, borrokara ez irtetea, baizik barruan hiria ongi jagotea eta ontzidia, beren indar nagusia, prest-prest edukitzea eta aliatuak kontrolatzea, zeren, zioenez, euren indarra haiexen sarreretakik baitzectorren eta gerraren alderdi asko zuhurtziaz eta baliabide oparoz menperatzen baitziren.

Konfiantza izatera animatzen zituen, normalean aliatuen seiehun talentu sartzin zirelako urtean, gainerako sarrerak kontatu gabe, Akropolian zilar txanponduzko sei mila talentu edukitzeaz gain –zenbatekorik handiena bederatzi mila zazpiehunekoak izan zen, eta honen zati bat akropoliko atarietarako eta beste eraikuntzetarako eta Potide-arako gastatu ziren–, hemendik at beste hauek ere bazituztelarik: txanpondu gabeko urre eta zilarra zinopari publiko eta pribatuetan, prozesio eta jokoetarako hornidura sakratua, pertsiarrei harrapaturikoa, eta horrelakoak, gutxienez bostehun talentuko zenbatekoan. Beste santutegietako aberastasunak ere, urriak ez zirenak, eransten ziren gerrarako erabiltzeko eta, estu eta larri ibiliz gero, jainkosaren urrezko jan-



tziak ere bai, zeren, hark zioen moduan, estatuak urre purutan berrogei talentuko pisua baitzeukan, erabat desmuntagarria zelarik; eta gehitzen zuen ezen, baldin aberastasun horiek salbatzeko erabili beharra bazegoen, berriro itzuli beharko zirela, eta ez kantitate txikiagoan. Kontua da horrela konfiantza ematen ziela diru-baliabideei zegokienez. Hoplitei zegokienez, hamahiru mila zituzten, goarnizio eta harresietako hamasei milak zenbatu gabe; izan ere, horixe zen hasieran, etsaiek Atika inbaditzen zutenean, goardia egiten zutenen kopurua, eta horiek hiritar zaharrenen, gazteenen eta arma astunak zeramatza-ten metekoen artean erreklutatzen zituzten.

Faleroko harresia hogeita hamabost estadio luze zen hiriko hersgunearaino; hersgunearen zati zainduak berrogeita hiru estadio zituen, zati bat, Falero eta Harresi Luzeen arteko tartea, zaingorik gabe gelditzen zelarik; Harresi Luzeek Pireoraino berrogei estadio zituzten, eta horietan kanpoko aldea bakarrik zaintzen zen; azkenez, Pireoko hersgune guztiek, Munikia ere barne, hirurogei estadio, horietarik erdiak zainduta.

Azaldu zuen mila eta berrehun zaldizko, zaldizko arkulariak barne, eta mila eta seihun arkulari zituztela eta nabigatzeko moduan zeuden trirremeak hirurehun zirela.

Horiexek ziren, eta inola ere ez hortik behera, atenastarren indarrak atal bakoitzean, peloponesoarren inbasioa gertatzear zegoenean. Gerra irabaziko zutela agerian jartzeko esan ohi zituen bestelako gauzak ere esan zituen Periklesek.

**14.**– Atenastarrak, hura entzutean, konbentziturik gelditu ziren eta euren haur, emakumeak baso eta landetatik etxeratzeari ekin zioten, baita etxeko tresna guztiak, etxeetako zurezko apaindurak ere kenduz; artaldeak eta laborantzako abereak Eubeara eta inguruko uharteetara pasa zituzten. Zail gertatzen zitzairen lekualdaketa, gehienak beti kanpoan bizitzen ohituak baitzeuden.

**15.**– Ohitura hori atenastarrek zeukaten beste inork baino gehiago antzina-antzinatik. Izan ere, Zekroperen eta lehenengo erregeen garaian Teseoren garaia arte, Atikako populazioa euren pritaneoak eta magistratuak zeuzkaten hirietan banatuta egon zen, eta, beldur zitzakeen ezer ez izatera, ez ziren erregearen aurrean biltzen deliberatzeko, baizik talde bakoitzak aparte gobernatzen zuen bere burua eta delibe-



ratzen zuen, eta inoiz erregearen kontra borrokatu ere egin zuten, eleu-sistarrek Eumolporen ondoan Erekteoren kontra egin zuten moduan.

Teseo errege bihurtu zenean, burutsu izateaz aparte boteretsu ere bazenez, besteak beste herrialdea antolatu zuen eta, beste hirietako kontseiluak eta magistraturak kendu eta kontseilu eta pritaneo bakar bat izendatu ondoren, egungo hirian elkartu zituen beste guztiak, eta bakoitzak lehen zituen lurra eta edukiak zeuzkan arren, egungo hiria hiriburu bakartzat edukitzera bihurtu zituen, eta, hartara, Teseok denek ekarritako zergekin handi eta garrantzitsu egindako hiria utzi zien bere ondorengoei. Ordutik aurrera eta gaurdaino, atenastarrek batasun hura festa nazional moduan ospatzen dute jainkosaren ohoretan.

Hiria, lehenago, orain Akropolia dena gehi haren azpian Hegorantz dagoen aldea zen. Froga bat: Atenearen eta beste jainkoen santutegiak Akropolian bertan daude, eta kanpoan daudenak hiriaren alde horretan aurkitzen dira eraikita gehienbat, hala nola, Zeus Olinpikoarena, Apolo Pitikoarena, Lurrarena, Zingiretako Dionisorena, zeinaren ohorez Dionisoren jairik zaharrenak ospatzen diren Anesterionen hilaren hamabian, orain jonioek egiten duten moduan atenastarrei jarrai.

Orain, tiranoek halaxe konpondu zutelako, Bederatzi Hodietako iturria deritzon eta antzina, iturburuak agerian zituelako, Kalirroez zeritzonari dagokionez, hurbil zegoenez, zeremonia inportanteetarako erabiltzen zuten, eta egun ere, antzinako usadioari jarrai, arau da ezkondu aurretik eta beste errito sakratu batzuetarako iturri horretako ura erabiltzea. Alde horretan jendea antzinatik bizi zelako deitzen diote, hain zuzen ere, atenastarrek egun ere «Hiria» (pólis).

**16.**— Kontua da atenastarrak modu independentean bizi izan zirela herrialdean luzaro, eta, elkartu zirenean, gehienak kanpoan jaio eta bizitzen ohituta zeudenez, bai antzinakoak eta bai gerokoak, gerra hura sortu arte, uzkur zeuden barrura joateko, batez ere oraintsu berreskuratuak zituztelako beren baserriak Mediar Gerren ostean. Euren etxeak eta antzinako sistema politikotik tradizioz zeuzkaten santutegiak utzi eta bizimoduz aldatu beharrak atsekabez betetzen zituen eta ez zebiltzan batere gustura. Izan ere, norbere hiria uztea adina zen hura.

**17.**— Hirira heldu zirenean, gutxienek etxebizitza edo aterpea zuten lagunen edo senideen etxeetan, baina gehienek inor bizi ez zen hiriko



aldea eta jainkoen edo heroien santutegi guztiak okupatu zituzten, Akropolia, Eleusinoa eta ongi itxita zeuden beste lekuak izan ezik; baita Pelargikoa ere, Akropoliaren barrenean, non inor bizitzea mada-rikazio batek debekatzen zuen, baita orakulu pitiko baten honako azken bertso honek ere: «hobe da Pelargikoa ez erabiltzea». Baina une hartako beharrak eraginda, han ere bizitzen jarri zen jendea. Nik uste dut orakulua alderantziz bete zela, zeren hirira zorigaitzak ez baitziren etorri jendea arauen kontra bizi izaten jarri zelako, baizik, alderantziz, Pelargikoa okupatu beharra gerrak ekarri zuelako, eta horregatik orakuluak, gerra kontuan izanda, nahiz eta aipatu gabe, aurreikusten zuen Pelargikora zorigaitztorako sartuko zela jendea bertan bizitzera.

Askok harresietako dorreetan eta bakoitzak ahal zuen lekuan moldatu beharra izan zuen, zeren hiriak ez baitzuen lekurik sartzen ari zen jende guztiarentzat, eta, horregatik, gero Horma Luzeak, zatika banatuta, eta Pireoa ere gehienbat okupatu zituzten.

Aldi berean fin ziharduten gerrarako prestakizunak egiten, aliatuak biltzen eta peloponesoarren kontrako ehun ontziko espedizioa antolatzen.

Prestakizunen fase horrextan aurkitzen ziren atenastarrak.

**18.**– Armada peloponesoarra, bere aitzinamenduan, Atikan Enoeraino heldu zen lehenbizi, hura bertatik inbaditzeko asmoa zeukan eta. Horretarako posizioak hartu ondoren, makinekin eta bestelako bitartekoekin harresiari eraso egiteko prestatu ziren. Enoe, Atika eta Beoziako mugaldean kokatua, harresiturik zegoen eta atenastarrek gotorleku moduan erabiltzen zuten gerrateetan.

Kontua da erasoa antolatu zutela eta aldez edo moldez horretan denbora bat galdu zutela. Hori zela eta, ez zuen kexa gutxi batu Arkidamok; kexu ziren tropak biltzeko uzkur zebilela ematen zuelako, baita atenastarren lagun izateagatik ere, ez baitzien adorez borrokatzeko harengarik egin; eta tropak bildu ostean, bai istmoan berandutzeaz eta bai aitzinamenduan astiro ibiltzeaz eta batez ere Enoen geldialdia eginaz akusatzen zuten, zeren denbora horretan atenastarrak euren gauzak sartzen zihoazen eta. Horrelaxe zegoen haserre armada Arkidamoren kontra geldi zegoenean; baina, ziotenez, atenastarrek euren lurraldea oraindik hondamenik egin gabe oso-osorik zeukatela amore emango zuten esperoan eusten zion Arkidamok armadari aurrera egin





gabe, atenastarrek euren lurra deboilatzen uzteko zalantza handiak edukiko zituztela pentsatuta.

**19.**– Alabaina, Enoeri iruditu ezin ahala eraso egin ondoren, hartzerik izan ez zutenean eta Atenasek ere heraldorik bidali ez zuenean, handik, Plateako gertaeretatik gehienez ere lauorgeri bat egunera, uda gorenean eta gariak helduta zeudela, Atika inbaditu zuten; Zeuxidamoren seme Arkidamo, lazedemondarren erregea, zuten buru.

Geldialdi bat eginda, Eleusis eta Triasiar lautada suntsitu zituzten lehenbizi, eta atenastarren zalditeriako tropa bati ihes eragin zioten Errekak izeneko leku batean; gero Kropiatik zehar segitu zuten Egealeo mendia eskuinaldera utzita Akarnasera heldu arte, Atikako «demoak» deritzenek osatzen dituzten lurraldeetako handiena bera, eta, han gelditu ondoren, kanpamentua eraiki zuten, eta, han geldituta egon ziren aldi luzean, lurra deboilatzeari ekin zioten.

**20.**– Esan ohi denez, Arkidamo akarnastarren gunean gelditu zen batailarako prest eta ez zen jaitsi lautadara inbasio horretan honako honexegatik: espero zuen atenastarrak, gazte ugariz hornituta eta gerrarako inoiz baino hobeto prestatuta zeudenak, bidera irtengo zitzaizkiola eta ez zutela gurako berak euren lurrak suntsitzerik.

Baina ez Eleusisen ez Triasiar lautadan bidera irten ez zitzaizkionean, jada Akarnasen kokatuta, begira zegoen ea borrokara ateratzen ziren. Gainera lekuari egokia zeritzon kanpatzeko eta, batez ere, akarnastarrek, hiriko populazioaren zati handi bat zirenek (hiru mila hoplita izatera heldu ziren) ez zioten utziko –hala uste zuen– euren ondasunak suntsitzen, baizik borrokara bultzatuko zuten hiri guztia. Eta inbasio horretan ere atenastarrak bere kontra ateratzen ez baziren, aurretik beldur gutxiagorekin suntsitu ahal izango zuen lautada eta hiriraino heldu, zeren akarnastarrak, ondasunik gabe gelditu ondoren, ez ziren arriskatuko berdin besteengatik eta irizpideetan desberdintasuna izango zen nagusi.

Asmo horiekin gelditzen zen Arkidamo Akarnas aldean.

**21.**– Atenastarrek, armada Eleusis eta Triasiar lautadan geldituta zegoen artean, bazuten oraindik hiritik hurbilagora joango ez zen esperantza, zera gogoratzen baitzuten, alegia, Pausaniasen seme Plistoanakte, lazedemondarren erregea, orduko gerra baino hamalau urte lehenago Peloponesoko armadarekin egin zuen inbasioan Eleusis eta Triaraino



heldu zenean, atzera egin zuela aurrera joan barik (horregatik Espar-tatik erbesteratu egin zuten erretreta erosi ziotela eta); baina armada hiritik hirurogei estadiora dagoen Akarnas inguruan ikusi zutenean, ez zuten hori onargarritzat jo, baizik, espero izatekoa zen moduan, lurra deboilaturik ikustean –gazteek, eta zaharrek ere, oraindik ikusi gabe zuten halako ikuskizuna, Mediar Gerretan izan ezik–, ikuskizun izu-garria iritzi zioten, eta besteek, gazteriak batik bat, zioten borrokatze-ra irten behar zela eta horrelakorik egiten ez utzi.

Taldeetan bilduta, eztabaida handia zerabilten, batzuek irtetea eska-tzen, besteek irteten ez uzten.

Aztiek orotariko orakuluak iragartzen zituzten, eta bakoitza bere joe-ren arabera entzuten saiatzen zen. Jakina, akarnastarrek, atenastarren populazioaren zati ez txikia zirela uste zutenek, euren lurraren deboi-lamendua hur ikusita, irten egin behar zela zioten beste guztiek baino indar handiagoz. Azken batean, hiria sututa zegoen era askotara eta haserretu egiten ziren Periklesekin; lehenago hark aholkaturiko ezer ez zuen inork gogoratzen, aitzitik, euren jeneralak izanik kanpora ez eramatea aurpegiratzen zioten, eta, gainera, gertatzen zitzaaien guztia-ren errua egozten zioten.

**22.**– Periklesek, zuten egoeraren aurrean haserretu egiten zirela eta haien ideiak onenak ez zirela ikusirik, bere irizpidea, hau da, ez irte-tekoa, zuzena zela sinetsita, ez zuen Batzarrerako ez beste ezein bile-rarako deirik egiten, batzartuz gero zentzugabekeriaren bat egin ez zezaten, adimenak barik grinak gidatuta; halaber, hiriaren aldeko neu-rriak hartzen zituen eta baretasunean eusten zion ahal zuen neurrian.

Hala ere, etengabe ateratzen zituen kanpora zaldizko tropak, armada-ren abangoardiak hurbileko soroetara etorri eta kalterik egin ez zezan. Fhrigian, zalditeriaren borrokatxo bat gertatu zen tesaliarrak lagundu-tako zaldizko atenastarren eskudroi baten eta zalditeria beoziarren artean, non atenastarrak eta tesaliarrak ez zebiltzan gaizkien, harik eta, hoplitak beoziarrei laguntzera etortzean, ihesari eman arte. Ez ziren atenastar eta tesaliar asko hil, egun berean jaso zituzten su-ete-nik behar izan gabe eta peloponesoarren trofeo bat eraiki zuten biha-ramunean.

Tesaliarren laguntza hori atenastarrekin egina zuten itunaren arabera burutu zen, eta laguntzaileak Larisa, Farsalo, Piraso, Kranon, Girton



eta Ferokoak izan ziren. Buruzagiak, berriz, Larisatik Polimedes eta Aristonoo, fakzio bakoitzetik bat, izan ziren, eta Farsalotik, Menon; besteek unitate bakoitzari zegozkion beste buru batzuk zituzten.

**23.**— Peloponesoarren, atenastarrak borrokara ez zetozenez, Akarnasetik Parnes eta Brilesio mendien arteko beste demo batzuk deboilatzeari ekin zioten.

Horiek beren lurrian zeuden artean, atenastarrek Peloponeso ingurura bidali zituzten prestaturik zituzten ehun itsasontziak, eta eurretan mila hoplita eta laurehun arkulari; euren buru Jenotimoren seme Karzino, Epiklesen Proteos eta Antigenesen Sokrates zihoazen. Horiek, aipaturiko indarrekin itsasoratu ondoren, Peloponesoko itsasbazterretik zehar ibili ziren; peloponesoarren, bitartean, elikagaiak zituzten artean Atikan egon ondoren, Beoziatik egin zuten atzera, ez inbasioa hasi zuten lekutik. Oropo parean oropotarren, atenastarren basailuek, ustiatzen zituzten lurrak deboilatu zituzten. Peloponesora helduta, banandu egin ziren tropak.

**24.**— Haiek atzera egitean, atenastarrek zelatariak jarri zituzten itsasoz eta lehorrez gerrate guztian egingo zuten moduan. Halaber, erabaki zuten Akropoliko fondoetatik mila talentu ateratzea, aparte uztea eta ez gastatzea, gerra gainerakoarekin finantzatzuz, baita, norbaitek diru hori beste zerbaitetarako erabiltzea proposatzen edo botaziopean jartzen baldin bazuen, etsaiak ontzidi batekin hiriaren kontra etorri eta defendatu beharra egon ezean, horri heriotz zigorra ezartzea ere.

Mila talentuokin batera, urtero ehun trirremerik onenak eta euroi zegozkien trierarkak apartatu zituzten, diruarekin batera antzeko arrisku baterako baino ezin erabili zirenak, beharrezko izanez gero.

**25.**— Ehun ontzietan Peloponesoko itsasertzean zehar zebiltzan atenastarrak, gehi berrogeita hamar ontzitan elkartu zitzaizkien korzirtarrak eta alde hartako beste aliatu batzuk ere hainbat triskantza han eta hemen egiten ari ziren nabigatu ahala, eta zehazki Lakoniako Metonan lehorreratu eta harresiari, ahula eta defendatzaile gutxikoa bera, eraso zioten. Halabeharrez Telideren seme Brasides, zaintzako tropekin zegoen espartar bat, zebilen inguru hartatik eta, gertatzen zenaren berri izatean, ehun hoplitatekin joan zen bertakoei laguntzera. Eskualdean zehar barreiatu eta harresira soilik adi zeuden atenastar tropen artetik pasa ondoren, Metonan sartu zen tximistaren pare



eta, erasoan gizon batzuk galdu zituen arren, hiriaz jabetu zen; balentria horregatik, horretariko lehenbizikoa gerra honetan, zorion beroak eman zizkioten Espartan.

Atenastarrek, itsasora jo ondoren, nabigatzen jarraitu zuten eta, Elideko eskualdean Fiara sartu ondoren, egun bitan lurra deboilatzeari ekin zioten eta bataila batean Elideko behealdetik eta alboko eskualdetik bidaliriko hirurehun soldadu menderatu zituzten.

Haize indartsu bat ekarri zuelarik, ekaitzak porturik gabeko leku batean harrapatuta, gehienak ontziratu egin ziren eta Arrainaren lurmuturra deritzonetik jarraitu zuten nabigatzen Fiako porturantz; bitartean meseniarrek eta ontziratzerik izan ez zuten beste batzuk lehorrez joan, eta Fia hartu zuten armaz. Gero ontziek, itsasertzean zehar joanda, hartu zituzten berriro, eta Fia utzita itsasoratu egin ziren, Eliderren armada jendetsu bat haiei laguntzen etorri zelako. Itsasertzean zeharreko nabigazioan atenastarrek beste herri asko suntsitu zituzten.

**26.**– Garai berean, atenastarrek hogeita hamar ontzi bidali zituzten Lokridera, Eubea jagoteko bigarren xedearekin. Kliniasen seme Kleoponpo zeramaten komandante; egin zituen lehorreratzeetan, kostaldeko gune batzuk deuseztatu eta Tronio hartu zuen armaz, bahiak eman behar izan zizkioten eta haiei laguntzera joandako lokroak menderatu zituen bataila batean Alopen.

**27.**– Uda berean, atenastarrek Eginatik kanpora egotzi zituzten eginatarrek, gizonak, euren seme-alabak eta andreak, gerraren errua euren egotzita; baita euren kolonoak hara bidaliz Egina, Peloponesotik hur dagoen hiria, kontrolpean edukitzea seguruago zela iruditzen zitzaielako ere. Handik lasterrera beren populatzaileak bidali zituzten hara.

Kanpora egotzitako eginatarrei lazedemonдарrek Tirea eman zieten bertan bizi eta lurak lantzeko, atenastarren etsaiak zirelako eta ongi letzat zituztelako lurrikaran eta hiloten matxinadan izandako jokabideagatik.

Tireako eskualdea Argea eta Lakoniaren artean dago, eta itsasoraino hedatzen da. Batzuk bertan finkatu ziren eta besteak Helade guztian zehar barreiatu ziren.

**28.**– Uda horretako egun batean, ilberri zela, nire ustez une horretanxe bakarrik gerta baitaiteke horrelakorik, eguzkia erabat eklipsatu





zen eguerdian eta osorik agertu zen berriro, ilgoraren itxura hartu eta izar batzuk dir-dir agertu ondoren.

**29.**— Uda berean, atenastarrek Pitesen seme Ninfodoro, Abderako semea, arestian etsai deklaratu zuten arren, proxeno (enbaxadore) deklaratu zuten oraingoan, eta etortzeko deia bidali zioten; arreba Sitalzesekin ezkontuta zeukan eta influentzia handia zuen harengan; Sitalzes, Teresen semea eta Traziako erregea, euren aliatu bihurtzea nahi zuten. Teres hori, Sitalzesen aita, odrisioen monarkia ia Trazia guztira lehenbizi hedatu zuena izan zen, traziarren zati handi bat independentea baita.

Aipaturiko Teresek ez du inolako zerikusirik Atenaseko Pandionen alaba Prokne emaztetzat hartu zuen Tereorekin, Traziakoak berekoak ere ez baitziren, Tereo Daulian bizi zen-eta, gaur egun Fhozea deritzon eta orduan traziarren herria, zeinetan emakumeek Itisi buruzko gertaerak burutu zituzten (poeta asko Dauliako txoriaz mintzo dira urretxindorraz ari direnean).

Uste izatekoa da Pandionek hurbilago zeukan jendearekin itundu zuela bere alabaren ezkontza, elkarri lagundu ahal izateko nonbait, egun askotako bidean zeuzkan odrisioekin baino lehenago. Teres, izen bera ere ez zeukana, odrisioen lehen errege boteretsua izan zen. Haren seme Sitalzes atenastarrek beren aliatu egin nahi zuten, Traziako lurraldeez jabetzen eta Perdikas handik kentzen lagun ziezaien.

Etorri zelarik Ninfodoro Atenasera, aliantza egin zuen Sitalzesekin, baita Sitalzesen seme Sadokoren hiritartasuna lortu ere, eta Trazian gerra bukatzea agindu zuen; halaber, Sitalzes konbentzituko zuen atenastarrei zaldizkoek eta arkulariek osoturiko armada traziarrak bat bidali ziezaien. Gainera Perdikas atenastarrekin adiskidetzea lortu zuen eta atenastarrak Terma berari entregatzera limurtu zituen; Perdikasek, gero, Formioren gidaritzapeko atenastarrekin batera, kalzidetarren kontra jo zuen. Horrela Teresen seme Sitalzes, Traziarren erregea, atenastarren aliatu egin zen, baita Alexandro mazedoniarren seme Perdikas ere.

**30.**— Atenastarrek, ehun ontzirekin Peloponeso inguruan oraindik, Solio, korintoarren gotorleku bat, hartu zuten armaz eta Akarnaniako palereoek eman zieten, beste akarnaniar guztiak kanpo utzita lurra eta hiria ustia zitzaten; Astako indarrez hartu eta bertan tirano zegoen Euarko egotzi ondoren, lurraldea beren aliatu egin zuten. Zefaleniara



abiatuz, borrokarik gabe berenganatu zuten. Zefalenia hori Akarniaren eta Leukaden aurrez aurre dago kokatuta eta lau hiri ditu: Pala, Kranios, Sama eta Pronos. Handik nahikoa lasterrera ontziak Atenasera itzuli ziren.

**31.**– Udan, udagoien aldera, atenastarrek, hala hiritarrek nola metekoek, denek, Megaridea inbaditu zuten Xantiporen seme Perikles buru zutela. Atenastarrek, ehun ontzirekin Peloponesoko itsasertzetik nabigatuta –Eginan zeuden jada etxeranzko bidean–, hirikoak indar guztiekin Megaran zegoela jakin zutenean, bertara joan eta eurekin elkartu ziren. Huraxe izan zen atenastarrek bildu zuten armadarik handiena, hiria oraindik osorik eta izurriteak jo gabe zegoela.

Atenastarrak ez ziren hamar mila hoplita baino gutxiago –horiez gain hiru mila zeuden Potidean– eta gutxienez hiru mila hoplita meteko zeramatzaten lagun inbasioan, oinezko arinen talde handi batez aparte. Lurraldearen zati handi bat suntsitu ondoren, alde egin zuten. Geroago, atenastarrak urtero sartzen ziren Megaridera erasoan, zalditeriarekin edo tropa guztiekin, Nisea armaz hartu zuten arte.

**32.**– Uda horren amaieran, Atalanta, lokro opuntetarren ondoan dagoen eta lehen inor bizi ez zen hiria, harresiz inguratu zuten gotorleku bihurtzeko, euren operazio basea Opunten eta Lokride guztian zeukaten piratek Eubean hondamendirik egin ez zezaten.

Horixe da uda horretan jazo zena peloponesoarren Atika utzi eta gero.

**33.**– Hurrengo udan, Euarko akarnaniarrak, Astakorara itzultzeko irrikitzen, korintoarrak bera agintean birjartzeko berrogei ontzi eta mila eta bostehun hoplita bidaltzera limurtzen ditu; hark berak ere jada kontratatatuak zituen zenbait mertzenario. Espedizioaren buru Aristonimoren seme Eufamidas, Timokratesen seme Timoxeno eta Krisisen seme Eumako zihoazen. Itsasoz bertaratuta, agintean birjarri zuten. Akarnaniako beste eskualde batzuk beren eraginpera ekarri nahirik ibili ondoren, ezin izan zuten ez, etxerantz abiatu ziren.

Etxerantzean Zefalenian gelditu eta kranioen lurraldean lehorreratzeko bat egin ondoren, kranioek engainatuta akordio bati buruz, gizon batzuk galdu zituzten, haiek ezustean eraso zutenean; zertxobait behartuta ontziratu eta etxera itzuli ziren.

**34.**– Negu berean, atenastarrek, ohitura tradizionalari jarrai, gerra honetan lehenbizi eroritakoen aldeko hileta publikoak egin zituzten



honako erritual hau betez: denda bat eraiki ondoren, hileta egin baino hiru egun lehenago hildakoen hezurak jartzen dituzte bertan eta nahi dutenek opariak eramaten dizkiete beren senitartekoei. Segizioan altzifrezko hilkutxak gurdietan –tribuek bana ipinita– eramaten dituzte, barruan tribu bakoitzeko hilen hezurak dituztela. Ohe huts bat ere eramaten da bere estalki eta guzti, bila ibili ondoren topatu ez diren desagertuei dagokiena. Nornahi, hiritarra zein atzerritarra, joan daiteke segizioari laguntzen; familiako emakumeak ere joaten dira erosta batean. Orduan hiriaren sarrerarik ederrenean dagoen eta gerran hildako guztiak –Maratonekoak izan ezik, haien adorea apartekotzat jota han bertan lur eman baitzieten– ehorzten dituzten hilobi publiko batean lur ematen diete.

Lur eman ondoren, adimenez laburra ez dirudien eta ospea duen gizonen batek hitzaldi egoki bat egiten du hildakoak goraipatuz eta ohoratuz; gero alde egiten dute. Horrelaxe izaten da hileta, eta gerrate guztian, aukera izan zuten guztian, ohitura zaindu zuten.

Kontua da gerra honetan lehenbizi hildakoen ohoretan hitz egiteko Xantiporen seme Perikles aukeratu zutela. Ordua heldu zenean, monumentutik eraikitako tribunara hurbilduta, jendetza guztiak urrun-urrunetik ere entzuteko moduan, haxe esan zuen:

**35.**– «Hemendik hitz egin izan duten askok goraipatu izan dute zeremoniari hitzaldi hau erantsi zion gizona, gauza ederra dela uste baitute gerretan hildakoen ohoretan jendaurrean hitz egitea. Ene aburuz nahikoa zatekeen benetan adoretuak izan diren gizonei benetako ohoreak egin izanarekin, hileta hau ofizialki antolatzean egiten diegula ikusten duzuen moduan, askoren merezimenduak ondo edo txarto hitz egin dezakeen gizon bakar baten ardurapean uzteko arriskuan sartu beharrik gabe, zeren zail baita behar bezala mintzatzea egiaren aierua bera ere zailtasunez oinarritzen denean. Izan ere, jakitun eta alde z aurretiko jarrera onean dagoenak, berak nahi lukeenetik eta dakienetik beherako hitzaldia egin dela uste izango luke, eta informaturik ez dagoenak, berriz, pentsatuko luke, inbidiaz nonbait, zenbaite-tan larregikeriak esan direla, bere ahalmenetatik gora dagoen zerbait entzunez gero. Besteei buruz egindako goraipamenak neurri bateraino jasaten dira: norbera ere entzundako zerbait egiteko gai dela uste dugun neurrian; hortik gorakoak, gainez egiten digun guztiaren inbidiaz, ez ditugu sinesten.



«Baina lehenagokoek horrelaxe izan behar zuela erabaki zutenez gero, beharrezko da ni orain, ohiturari men eginez, bakoitzaren gurari eta iritziak ahalik gehien asmatzen saiatzea.

**36.**— «Arbasoengandik hasiko naiz lehenbizi, zeren bidezko eta egoki baita, zirkunstantzia honetan, haiei oroitza penaren ohorea ematea; izan ere, haiek, belaunaldiz belaunaldi beti herrialde berean bizi izanik, euren merezimenduei esker, hiria oraintxe arte libre utzi ziguten oinordetzan.

«Haiek goraipagarriak baziren, are goraipagarriagoak dira gure gurasoak, zeren oinordetzan hartu zutenari orain daukagun inperioa gehitu ziotelarik, geuri, oraingoei, utzi baitziguten ez esfortzurik gabe. Gehienbat guk geuk, oraindik helduaroan gaudenok, handitu dugu, eta gainera alderdi guztietan gai den hiri bat lortu dugu, hala gerrarako nola bakerako.

«Horretatik guztitik, ez ditut aipatuko gauza bakoitza erdiesteko egin ziren gerra ekintzak, ezta guk edo gure gurasoek, adorez, etsai inbadi tzaileari, zirela Heleniarrak edo barbaroak, atzera eragin genioneko ekintzak ere, ez nadin luzeegi mintza hori guztia dakien jendearen aurrean; hala ere, zer nolako jarrerarekin lortu genuen hori guztia, zein erregimen politikorekin eta zer nolako izaerarekin egin zen handi gure hiria, horixe azalduko dut lehenbizi, eta gero hauen gorazarrea egingo dut, uste baitut egoera honetan ez litzatekeela desegokia hori esatea eta komenigarri litzatekeela jende guztiak entzutea, hiritarrak edo atzerritarrak izan.

**37.**— «Besteen legeak imitatzen ez dituen sistema politikoa daukagu, besteentzat eredu egiten gaituena, besteen imitatzailerik. Gure sistemaren izenari dagokionez, bere administrazioaren xede ez direlarik gutxi batzuen interesak, demokrazia deritzo eta, legeen arabera, guztiek dituzte eskubide berdinak beren auzi pribatuetan; bakoitzarekiko balioespenari dagokionez, zer baitetan prestigioa ukanez gero, inor ez da hautatzen arazo publikoetan parte hartzeko talde jakin bateko kide izateagatik lehenago, bere merezimenduengatik baino, eta pobrezia iri dagokionez ere, ospe ilunekoa izatea ez da sekula eragozpen inoren tzat, baldin hiriaren onerako egin ahal badu.

«Askatasunez dihardugu ez bakarrik ekintza publikoetan, baizik eta eguneroko harremanetan sortzen diren elkarrekiko errezeloetan ere ez





gara hurkoarekin haserretzen, ez hari aurpegi txarrez begiratzeko, zeren hori ere, zigorra ez bada ere, ikusteko desatsegina bada eta.

«Gure harreman pribatueta bidegabekeria ekiditen bada, harreman publikoetan ez dugu legez kontra jokatzeko beldurragatik batik bat, eta une bakoitzean karguetan daudenei men egiten diegu, baita legeei ere, batez ere bidegabekeria jasandakoei laguntzeko ezarritakoei eta, idatzita ez egonik ere, ez betetzeak lotsa garbia dakarkigutenei.

**38.**— «Geure gogoei, jakina, lanean egindako tarte edo etenaldi asko eskaini dizkiegu, urte guztian zehar lehiaketak eta festa sakratuak eginez eta luxuzko instituzio pribatuak dedikatuz, horiek emandako atseginak atsekabe eta nekeak aldentzen dituelarik.

«Gure hirian, inportantea baita, mundu guztitik etorritako edozein merkantzia sartzen da, halatan, non berton sorturiko produktuak ez ditugun gozatzen beste edonongoak baino geureagoak balira bezala.

**39.**— «Ariketa militarrei dagokienez, honexek gailentzen gaitu gure etsaiengandik: guztientzat zabalik dagoen hiria eskaintzen dugu eta inoiz ez dugu eragozten, atzerritarrak kanpora jaurtiz, berauek edozer jakin eta ikus dezaten —nahiz eta etsaiak, ezer ezkutatzeko ez zaionez, ikustetik onura ateratzen—, zeren jardun orduan geure balentrian baitugu konfiantza handiagoa, neurri prebentiboetan eta engainuetan baino; heziera sistemei dagokienez, batzuk txiki-txikitatik ariketa nekagarriaz saiatzeko dira ausardia erdiesten, baina guk, osteraz, bizimodu axolagabeagoa ukan arren, ez gara haiek baino gehiago kikiltzen antzeko arriskuen aurrean. Froga bat: lazedemondarrek inoiz ez dute egin gure luraren kontrako espediziorik eurek bakarrik, denekin baizik; gu, ordea, besteen lurak inbaditzean, zailtasun handirik gabe ateratzen gara garaile inorenean, euren edukien defentsan borrokatzen den jendearen kontra ibili arren; ez dugu oraindik eduki etsairik gure indar guztiak elkartuta egon direnean indarroi aurre egiten ausartu denik, ontzidiaz arduratu beharra eta, gainera, lehorreko tropek leku askotara bidali beharra ukan baitugu; baina etsaiak gure indarren zati batekin borrokatu direnean, garaile gertatuz gero, denei atzera eragiteaz harrotzen dira, eta, galtzaile gertatuz gero, denek menderatu dituztela esaten dute.

«Hala eta guztiz ere, arriskuei ariketa nekosoaren ondoren barik ardura larregirik gabe, eta legeek barik geure izaerak ezarritako adorea



aurre egin nahi badiegu, geure alde dugu garaia baino lehen ez nahigabetzea gero etor daitezkeen neke eta oinazeengatik, baita, beraiei aurre egitean, etengabe ahalegintzen ari direnek baino ausardia txikiagoa ez edukitzea ere.

«Horrexegatik da miresgarria gure hiria, baita beste gauza batzuengatik ere.

**40.**— «Edertasunaz harrokeriarik gabe eta espekulazioaz alferkerian erori gabe gozatzen dugu, aberastasun zaleak gara ekitzan jarduteko ematen digun aukeragatik, harropuzkeriagatik barik, eta pobrezia-ri dagokionez, inorentzat ere ez da lotsagarri hura aitortzea, lotsagarriago baita hartatik irteten ez ahalegintzea.

«Jende berak afera publiko eta pribatuei buruzko interesa ukan dezake eta gure artean posible da jendeak, hainbat lanetan jardun arren, afera publikoak gaizki ez ezagutzea, zeren geu baikara horietan parte hartzen ez dutenak axolagabetzat barik gauzaeztat ditugunak, eta geuk bakarrik erabaki edo aztertzen ditugu zuzentasunez aferak, ekitzaren kaltetan doazenak hitzak ez, baina egin beharrekoa egiten hasi aurretik hari buruzko eztabaidaren bidez ez informatzea dela uste baitugu.

«Horretan ere modu ezberdinean jokatzen dugu: ausartziarik handiena erakutsi eta, gainera, egin behar dugunari buruz hausnarketa eginenez; kasu horretan, besteengan ezjakintasunak atrebentzia sortzen du, hausnarketak ezbaia. Bidezki leudeke bihotz indartsuagokotzat, arriskugarria eta atsegina zer den argiro jakin arren, arriskuak saihesten ez dituztenak.

«Eskuzabaltasunari dagokionez ere gehiengo ez bezalakoak gara, eta are kontrakoak, zeren mesedeak hartzen ditugunean barik egiten ditugunean egiten baititugu adiskideak. Bere adiskidetasunean irmo-agoa da mesedea egiten duena, zeren, mesedea harturikoarenganako begikotasunaren bidez, zor den esker onari iraunarazten dio eta; mesedea zor duena, ordea, ahulagoa da, badakielako bestearen esku- zabaltasunari mesede moduan barik zor moduan erantzun beharko diola. Eta edonori, interes kalkulu bategatik baino areago askatasu- netik sortzen den konfiantzagatik, erreparorik gabe laguntzen daki- gun bakarrak gara.



**41.**— «Laburbilduta, hiri osoa Heladeren eskola dela diot eta gure arte-  
tik irtendako norbanakoak, ene ustez, ahalmen askoren eta dohainez  
beteriko trebeziaren jabe den gorputza aurkez dezakeela.

«Hori arrandia erretoriko hutsa barik egitateetan oinarrituriko erreali-  
tatea dela argi uzten du hiriaren botereak, arestian aipaturiko gure iza-  
erari esker geureganatu genuen botereak. Geure hiri dugu ospearen  
gainetik frogari aurre egiten dion bakarra, eta, halaber, ez etsaiarengan  
haserrikerik, sufriarazten dionaren ezaugarriengatik, ezta basailuaren-  
gan kexarik, jende duinezaren agintepean egoteagatik, sortzen ez duen  
bakarra ere.

«Botere hori froga handiekin eta testigantza askorekin aurkeztean,  
oraingoek eta gerokoek miretsiko gaituzte, eta ez dugu izango gorai-  
patuko gaituen Homero baten beharrik ezertarako ere, ezta bere ber-  
tsoekin oraingo une hau gozaraziko digun baina gertakariez egiten  
duen interpretazioa egiak suntsituta utziko dion beste inoren beharrik  
ere, nahikoa izango baitugu itsaso-lehorrak oro gure ausardiaren  
mende jartzea, gure zoritxarren eta arrakasten oroigarriak utziz alde  
guztietan betiko.

«Azken batean, horrelako ezaugarrien jabe den hiri baten alde borro-  
kan, inork ez ziela beren hiri kendu behar nobleziaz pentsatuta, hil  
ziren hauek, eta espero izatekoa da gelditzen garenetariko edozein  
dagoela geure hiriaren alde jokatzeko ahalgintzeko prest.

**42.**— «Horrexegatik luzatu naiz horrenbeste hiriari buruz, zuei behar  
bezala azaltzeko borrokak ez duela zentzu bera guretzat eta horrela-  
korik ez dutenentzat, eta aldi berean agerian jartzeko, frogan bidez,  
mintzaldi honetan ohoratzen ari naizen hauek merezia dutela gure  
gorazarrea.

«Esana dago jada gorazarre horretatik inportanteena, zeren hiriari  
kantatu diodan himnoa hauen eta hauek bezalako jendearen merezi-  
menduek edertu baitute; eta hitzak ez ziren Heleniar askoren ohoretan  
gertakarien pare erabiliko, hauen kasuan darabiltzadan bezala. Nik  
uste dut gizakien merezimenduaren lehen seinalea eta azken egiazta-  
pena beraien azkena dela, bidezko delako beste ikuspegi batzuetan  
hain onak ez diren lagunen alde aberriaren aldeko borrokan erakutsi-  
tako adorea azpimarratzea, zeren, oker bat onura batez ezabatzean,  
handiagoa izan baitzen hiriari eskainitako laguntza, euren jardun pri-  
batuaz egindako kaltea baino.



«Horietako inor ere ez zen koldarra izan aberastasuna maiteago izan zuelako, eta ez zion arriskuari ihes egin, pobrezian izan ohi den esperantza –egunen batean pobrezia utzi eta aberats izatekoa, alegia– aintzat hartuta; ez, hortik urrun, ondasun horiek baino etsaiak zigortu nahiago izan zutelako eta horixe zutelako arriskurik ederrentzat, arrisku horrekin batzuk zigortu eta besteak gura izaten segitu nahi izan zuten, arrakastaren ziurgabetasuna esperantzaren besoetan utzita, baina ekintzari zegokionez euren buruengan konfiantza jarrita jada ikusten zena lortzeko. Arriskuan bertan, borrokatu eta eutsi nahiago izan zutelako, errendatuz salbatu baino, entzute lotsagarriari ihes egin zioten, baina ekintzari aurre egin behar izan zioten eta zoriaren aukera labur-labur batean beldurrarena barik loriaren goiena jota joan ziren.

**43.**– «Hauek, bada, hiriak merezi bezala jokatu zuten. Gelditzen direnei dagokionez, berriz, beren etsaiekiko planak seguruagoak izan daitezen erregutu behar dute, baita hauen adore mailatik ez jaisten ahalegindu ere, onurei begira beti ere (onuron inguruan asko luza daiteke bat, zuek neure moduan ezagutzen badituzue ere, esanez zenbat abantaila dakarren etsaiei atzera eragiteak), baina ez onuroi begira hitz eginda bakarrik, baizik hiriaren boterea egunero ikusi eta bera maitatuta baizik, eta, handia dela baderitzozue, pentsatuta euren eginbeharra ezagutzen zuten eta duintasunez betetzen ausartu ziren gizonek lortu zutela handitasun hori, eta, ahaleginean porrot egin zutenean, hiria bere adorerik gabe gera ez zedin, euren ekarpenik ederrena eman ziotela.

«Euren bizia gizarteari ematean, zahartzen ez den gorazarrea eta hilibirik ospetsuena hartu zituen bakoitzak, ez eurak dautzan hilobia, baizik euren ospari, aipatzeko edo ospatzeko beta sortzen den bakoitzean, betirauteko aukera emango diona. Lurbira osoa da gizon ospetsuen hilobi, eta hori ez dute adierazten hilarrietako inskripzioek soilik, baizik atzerriko lurretan ere norbanako bakoitzarengan –egindako obran baino areago bakoitzaren pentsamenduan oinarrituta– dirauten oroitzapen idatzigabeek ere.

«Orain zuek, hauen mailara iritsi nahirik eta zoriona askatasunean eta askatasuna adorean oinarritzen direla kontuan hartuta, ez begiratu gehiegi gerrako arriskuei, zeren ez baitira ondasunik itxaroten ez duten zorigaiztokoak beren bizia emateko arrazoi gehiagoz uzkur ibili





behar ez luketenak, baizik euren bizitzan aldaketa kaltegarria jasateko arriskua dutenak eta behaztopatuz gero zirkunstantzia oso ezberdinetan aurkituko liratekeenak. Bere burua preziatzen duenarentzat mingarriagoa da gaixotasunari datzekion gainbehera, sentitu ere egingo ez den heriotza baino, sendotasuna eta denon itxaropen komuna daukagunean.

**44.**– «Eta horregatik, hauen gurasoei, hemen zaudeten guztioi, ez diet nire dolumina nire kontsolamendua baino indar handiagoz agertzen. Jabetzen dira zirkunstantzia aldakorretan haziak direla eta, hauek orain bezala azkenik ederrena erdiesten dutenentzat dela zoriona, zuek penaz beterik zaudeten arren, eta bizia halatan neurtzen zaienentzat, non zoriona heriotzarekin batera amaitzen zaien.

«Badakit zaila dena besteen pozean, zuek zeuek ere beste batzuetan harrotasunez sentitu izan duzuen pozean, gogoratuko dituzuenengatik, pena gozatzen laguntzea. Pena ez da sentitzen dastatu gabe kentzen dizkiguten ondasunengatik, baizik beraietara ohituta egonik kentzen dizkigutenengatik.

«Etsipena aurkitu behar dute, halaber, seme-alaba berriak ekartzeko esperantzan oraindik horretarako adinean daudenek, zeren, norbanakoen ikuspegitik, mundu honetara jaiotzen direnek jada hemen ez daudenak ahanzaraziko dizkizute, eta hiriari mesede egingo diote bi arrazoiengatik: despopulazioa ekiditeagatik eta segurtasunagatik; izan ere, ezin baitute ekitatez eta bidezki deliberatu beren semeak eskainiz maila berean arriskatzen ez direnek.

«Horretarako adina gaingitu duzuenok, ordea, izan ezazue gogoan zeuen bizitzaldiaren zatirik handiena zoriontsu bizi izana dela zuen irabazia, eta bizitza laburra izango duzuela; lasai zaitezte, halaber, hauen ospeaz gozatuta, zeren ohore gosea baita zahartzen ez duen gauza bakarra, eta, baliagarri ez garen bizitzako aldian, batzuek uste duten legez aberastasunak barik, ohoreak jasotzeak pozten gaitu eta.

**45.**– «Hauen seme-alaba eta anai-arrebentzat, hemen zaudetenontzat, ikusten dut handia dela lehia –jada hemen ez dagoena goraipatzen baitu mundu guztiak–, eta nekez izango zarete, merezimendu nabarmenak eduki arren, haien parekotzat, ez eta apur bat txikiagotzat ere, hartuak, bizion artean lehiakideari inbidia izaten baitiogu eta trabarik egiten ez diguna, oster, norgehiagokarik gabeko sinpatiaz baloratzen.



«Alargun geldituko direnen emakumeen merezimenduez hitz egin behar badut, labur esango dut esan beharrekoa: zuen jite naturalaren azpitik ez gelditzea da zuen loria, eta gizonen artean zurrumurru gutxi izan behar du loria horretaz, dela zuen merezimenduen inguruan zein zuek gaitzesteko.

**46.**— «Nire aldetik, hitzaldian ohiturari jarrai egoki neritzon guztia esan dut, eta ehortziko ditugunek hartu dute jada euren omenaldiaren zati bat hiletetan; baina, euron seme-alabak, hiriak bere bizkar haziko ditu une honetatik helduarora iritsi arte, lehiaketongatik probetxuzko koroa hori eskainiz hala hildakoei nola bizirik dirautenei; merezimuenduatik saririk handienak eskaintzen zaizkien artean izaten dira hiritarrik onenak. Orain, hil zaizuen ahaidearen heriotza deitoratu ondoren, zoazte.»

**47.**— Horrelaxe egin zen hileta negu horretan, gerrako lehen urtea amaitu zen neguan.

Uda hasi bezain laster, peloponesoarren eta beren aliatuek, euren tropen bi herenekin lehenbizikoan bezala, Atika inbaditu zuten (Zeuxidamoren seme Arkidamo, lazedemondarren erregea, zeramaten buru), eta, kanpatu ondoren, herrialdea deboilatzeari ekin zioten.

Oraindik egun askorik ez zeramatarik Atikan, atenastarren artean gaixotasuna zabaltzen hasi zen, nahiz eta esaten zen Lemnos aldean eta beste leku batzuetan lehenagotik zegoela, baina, hala ere, ez zuten gogoratzen beste inon izan zutenik halako izurrite handirik, hainbeste lagun hiltzeko modukorik.

Hasieran, ezjakintasunez, medikuak ere ez ziren jendea sendatzeko gai; aitzitik, eurentarikoak hiltzen ziren besteak baino gehiago, gaixoe-kin harreman estuagoan zeudelako, eta ez zegoen beste giza baliabiderik: santutegietan egiten ziren errezoak edo orakuluetara edo antze-koetara jotzeak, denak ziren alferrekoak; azkenean bitarteko horiek guztiak baztertu zituzten gaixotasunak mendean hartuta.

**48.**— Etiopian, Egipto baino gorago, hasi omen zen, eta gero Egipto eta Libiara eta errege pertsiarren lurraldearen zati handi batera jaitsi.

Atenasera ustekabean heldu zen, eta Pireoko biztanleak jo zituen lehenbizi, eta horregatik esaten zuten peloponesoarren putzuak pozoi-tu zizkietela, zeren oraindik ez baitzegoen han iturririk. Geroago hiriraino heldu zen eta askoz jende gehiago hiltzen hasi zen.



Bakoitzak, medikua zein osasun kontuetan ezjakina izan, esan beza bere ezagutzen arabera zein izan zitezkeen gaixotasun horren sorburua eta horrenbesteko aldaketa eragiteko arrazoiak; ni neu zein bilakaera izan zuen esatera eta, berriro horrelakorik gertatuko balitz, gaixotasun hori hobeto ezagutzeko balioko lukeen esperientzia azaltzera mugatuko naiz; hori nik neuk gaixotasun hori sufritu nuelako eta beste batzuk gaixotasun berak jota ikusi nituelako azalduko dut.

**49.**– Urte hura, eskuarki aitortzen zen bezala, beste gaixotasunei zegokienez, bereziki ona izan zen, baina aurretik gaitzen bat edukiz gero, izurri horrexetan bukatzen zuten denek.

Besteei zegokienez, itxuraz inolako zergatirik gabe, osasuntsu zeudela, bat-batean burua harrapatzen zieten sukar handiak agertzen zitzaizkien, begiak gorri-gorri eta handituta jartzen zitzaizkien eta barrutik eztarria eta mihia odolduta, eta arnasa arraro eta kirastua botatzen zuten. Sintoma horiekin hasita, gero doministikuka eta marrantaturik jartzen ziren eta, nahikoa laster, gaixotasuna bularrera jaisten zitzaien ezul gogorra eraginez; urdailera pasatzean, zeharo nahasten zien urdaila eta behazun-botaka jartzen zen gaixoa, ondoez larriak jota. Gaixorik gehienek dardara ikaragarriak eragiten zizkien goragale handiak izan zituzten, batzuek sintomak arindu ondoren, beste batzuek askoz geroago.

Kanpotik, haien gorputza ukitu eta ez zen beroegi sentitzen eta ez zen ikusten zurbil, baizik gorrixka, ubel, azalean oilaur eta zauri txikitxoak irtenda.

Barrutik, ordea, gaixotasunak erre egiten zuen laguna, halatan non ezin zuten jantzita jasan lihozko tunika meherik ez biluzik egotea galarazten zien beste ezer, eta gustura murgilduko ziratekeen ur hotzetan. Askok, zaintzailerik eduki ez eta, horixe egin zuten putzuetan, ase ezinezko egarriak mendean hartuta; berdin zitzaien asko zein gutxi edan.

Gainera, ezinegon eta insomnio etengabea sortzen zitzaien. Gaixotasuna indartsu zegoen artean gorputza ez zen zimel agertzen; eutsi egiten zion sufrimenduari espero zitekeenaren kontra, eta, hartara, gehienak, indarren batzuk gordez, zazpi edo bederatzi egunen barruan hiltzen ziren barne erreduraren ondorioz, edo gaixotasunetik libratzen baziren, gaixotasunak hesteak jota utzi izanaren eta ultzerazio handia



eta beheranzko likidoa agertu izanaren ondorioz, gaixotasunak eragindako makalaldiaren ostean hiltzen ziren gehienak.

Gaitzak lehenbizi burua hartzen zuen eta hortik gorputz guztira zabal-tzen zen, eta, norbaitek eraso larrienak gairatzen bazituen, gorputz-adarretako ondoezak gaixotasuna hantxe zebilela adierazten zuen, genitaletan eta esku-oinen puntetan grinatzen baitzen, eta batzuk horiek, eta begiak ere, galduta salbatzen ziren.

Eriandoan zeudenak amnesia orokorrak jota gelditzen ziren, euren buruak ez senitartekoak ere ezagutzeko gauza ez zirela.

**50.**– Gaixotasunaren irudia hitzez esan daitekeena baino izugarriagoa da, eta, beste alderdietan, giza izaerak jasan dezakeen baino gogor-rago eraso zion haietako bakoitzari. Honako honetan batez ere ikusi zen ohikotik gorakoa zela: giza haragia jaten duten hegazti eta koadrupe-doak, ehortzi gabe lagun asko egon arren, edo ez ziren gorpuetara inguratzen edo jan ondoren seko hiltzen ziren; froga bat: horrelako hegaztiak zeharo desagertu ziren eta ez ziren ikusten aipaturiko egoe-ran ez beste ezein egoeratan; txakurrak, gizakiarekin bizi direlako, gaia-go ageri ziren gertaturikoaz ohartzeko.

**51.**– Gaixotasunak, lagun batengandik beste batengana izan ziren aldeak kontuan izanda agertu ziren gauza bitxiak alde batera utziz gero, oro har aipaturiko ezaugarriak izan zituen, izan. Aldi hartan ez zen agertu beste gaixotasun ohikorik, eta egon bazen ere, gaixotasun horrexetara jo zuen.

Asko zainketa faltaz hiltzen ziren, beste batzuk ondo zainduta egon-da; hitz batean, ez zen aurkitu balioko erremediorik, zeren batentzat mesedegarri zena, kaltegarri baitzen beste batentzat; ezein gorputzek, sendo zein makalek, ez zirudien hari aurre egiteko gai, zeren guztiei, eta edozein tratamenduren mende zeudenei, oratzen baitzien.

Gaitzaren txarrena, laguna haren mende sentitzean sortzen zuen ad-o-regabezia zen –zeren etsipenak jota bertan behera jartzen ziren gai-tzari aurre egin gabe–, baita bata bestea zaintzen ibilita elkar kutsa-tzean artaldeak bailiran hiltzen zirela ere.

Eta horrexek zekarren hondamenik handiena, zeren, beldurrez elka-rrekin harremanik gabe gelditzen baziren, bakarrik hiltzen baitziren, eta etxerik asko hutsik gelditu ziren zaintzailerik ezagatik; eta haien-





gana hurbilduz gero, hil egiten ziren, batez ere beren eskuzabaltasuna erakutsi nahi zutenak, zeren lotsarren ez ziren lagunuen etxeetara joan gabe gelditzen; eta azkenean, senideak eurak ere, gaixotasunaren hedakuntzak mendean hartuta, hilengatiko aieneak egiteari utzi egin zioten nekatuta.

Gaixotasunetik libratu-rikoek, ordea, erruki handiagoa erakusten zuten hil-hurren eta gaixo zeudenenganako, eurak ere gaixoa pasatakoak zirelako eta, gainera, lasaiago zeudelako, jakinik gaixotasun hark ez ziola lagun berari erasotzen hiltzeraino; besteen zorionak jasotzen zituzten, eta eurak hain pozik zeuden une horretan, non halako itxaropen moduko batek ziotsen geroztik ez zirela inoiz beste ezein gaixotasunez hilkor.

**52.**– Izurritearekin batera, baserrietako jendea hirian biltzeak larritu zituen areago hiritarrak, eta ez gutxiago hiriratu zirenak; etxerik ez zegoenez, udako bero galdatan itogarriak ziren txaboletan bizi behar izan zuten, eta araurik errespetatzen ez zuen hondamendia sortu zen, eta jendea hiltzean gorpuak bata bestearen gainean pilatzen ziren, eta hil-hurrenak herrestan zebiltzan kaleetan zehar eta batez ere iturrien inguruetan ur bila egarriak itota. Karpak prestatuta zeuzkaten santutegiak han bertan hildakoen gorpuz beterik zeuden, zeren, gaixotasunak era berezian behartuta, gizonek, zer egin ez zekitela, hala alde sakratuarekiko nola gizatiarrarekiko utzikeriara jo zuten. Hiletetarako lehenago erabiltzen zuten erritual guztia aldatu egin zen eta hilak ahal zuten moduan ehorzten zituzten. Asko ehorzketa desitxurosoak egin beharrean aurkitu ziren, lehenago bata bestearen ondoren egindako ehorzketen ondorioz behar zen bitartekorik ez zegoelako; batzuek beren hila inoren hil-txondorrean, hura pilaturikoei aurea hartuta, ipini ondoren, su ematen zioten, eta beste batzuek, beste gorpu batzuk sutan zeudela, gainera botatzen zuten eurek zeramatena eta alde egiten zuten.

**53.**– Beste ikuspegi askotatik ere, gaixotasuna arau-*ei* errespetua gal-tzen hasteko unea izan zen hiriarentzat. Errazago ausartzen zen jendea lehen agerian gauzatzen ez zuen nahikaria gauzatzen, ikusirik nolako aldaketa gertatzen zen bat-batean aberatsek ustekabez hiltzean eta lehen ezer ez zeukatenek haiena berenganatzean. Ondorioz, asebetetze azkar eta plazer-ekarleetara jotzen zuten, bai gorputza eta bai aberast<sup>1</sup>asunak iragankorrak direla pentsatuta. Inor ez zegoen prest ederra



zirudiena lortzen ahalegintzeko, erdietsi aurretik hilko ote zirelako zalantzan; une hartantxe erdiestea atsegina edo onuragarria zena, huraxe jo zen eder eta baliagarritzat.

Ez jainkoekiko beldurra ez gizakien legea ziren eragozpen, konbentziturik baitzeuden berdin zela begirunetsu izatea zein ez izatea, ikustean denak berdin hiltzen zirela eta inor ez zela epaiketa egunera arte biziko bere delituen ordaina pagatzeko; zigor handiagoa zeukatela ikusten zuten euren gainean zintzilik eta jada dekretaturik, eta, zigorrra gainera erori aurretik, normala zela bizitzaz apur bat gozatzea.

**54.**— Atenastarrak, hondamen horretan murgilduta, estu eta larri zebiltzan barruan lagunak hiltzen zitzaizkienean eta kanpoan lurra deboilatzen zietenean.

Zorigaitzaren aurrean, espero izatekoa zen moduan, antzina zaharrenek erreztatzen zuten bertsoa ere gogoratu zuten:

«Etorriko da gerra dorioa eta izurritea berarekin»

Jendearen artean liskarrak egon ziren antzinakoek bertso horretan «izurritea» barik «gosea» erabili zutela eta, baina, zirkunstantzia haietan bidezko zenez, «izurritea» erabili zutela atera zen nagusi, giza-kiek, izan ere, daukaten sufrimenduaren arabera izaten dituzte-eta gauzak gogoan. Uste dut, honen ostean beste gerra dorio bat gertatzen bada, segurutik beste hori errezitatuko dutela.

Adituen artean lazedemondarrei emandako orakulua ere gogoratu zen, hau da, haiek gerrara joan behar zuten ala ez galdetzean, orakuluak garaipena sutsu borrokatzen zirenentzat izango zela eta berak lagunduko zuela erantzun zienekoa. Gauza da ezen, orakulua kontuan izanda, gertaerak ados zetozeela ikusten zutela, zer gaixotasuna peloponesoarren inbasioa hasteaz batera hasi zen, ez zen Peloponesora hedatu, azpimarratzekoa delarik hori, Atenasen izan zuen eraginik handiena eta gero, gainerako lekuetan, jenderik gehien bizi zen guneeetan. Horiexek dira izurriteari dagozkion gertaerak.

**55.**— Peloponesoarrak, lautada suntsitu ondoren, Paralia deritzon lurraldean zehar ibili ziren Laurioraino, non atenastarrek zilar mehatzeak zituzten. Lehenbizi Peloponesora begira dagoen aldea suntsitu zuten eta gero Eubea eta Androsera begira dagoena.

Periklesek –bera ere estrategia– lehenengo inbasioko iritzi bera zuen borrokan ez hasteari buruz.



**56.**— Peloponesoarrak Paraliara joan aurretik oraindik lautadan zeudela, Perikles Peloponesoaren kontrako ehun ontziko espedizio bat presatzen ibili zen, eta prest eduki zituenean itsasoratu egin zen; ontzietan lau mila hoplita atenastar zeramatzan, eta hirurehun zaldizko zalditeriako garraiagailuetan, lehen aldiz orduantxe eraikiak garraiagailuok, horretarako antzinako ontziak erabilita; kiotar eta lesboarrak zihoazen eurekin berrogeita hamar ontzitan. Atenastarren espedizio hau itsasoratu zenean, Paralian utzi zituzten Atikan zeuden peloponesoarrak. Peloponesoan Epidauroa iritsita, lurraldearen zati handi bat suntsitu zuten eta hiriari egindako eraso batean hartuko zutela pentsatu zuten, baina ez zuten lortu. Epidaurotik itsasorata, Trezen, Halieis eta Hermionako lurraldea suntsitu zuten; horiek guztiak Peloponesoko kostaldeko lurak dira. Handik Prasiasea heldu ziren, Lakoniako itsas gotorleku bat bera, eskualdearen zati bat suntsitu zuten eta gotorlekua bera ere hartu eta arpilatu egin zuten. Hori eginda, etxera itzuli ziren. Ez zituzten jada aurkitu peloponesoarrak Atikan, handik alde eginda zeuden eta.

**57.**— Peloponesoarrak atenastarren lurlean egon ziren bitartean eta bigarrenek itsas espedizioa egin zuten aldian, gaixotasunak hala hiriko nola espedizioko atenastarrak hiltzen zituen, jendeak esateraino peloponesoarrak gaixotasunaren beldurrez alde egin zutela arin-arin, desertoreek ziotena entzunda eta ehorzketetatik susmoa hartuta.

Inbasio honetan oso luze egon ziren eta lurralde guztia deboilatu zuten; berrogei bat egun egon ziren Atikan.

**58.**— Uda berean, Niziasen seme Hagnon eta Kliniasen seme Kleoponpo, Periklesen lagunak estrategia lanean, hark erabilitako indar berekin, Traziako kalzidetarren eta setiatuak segitzen zuen Potidearen kontra abiatu ziren; hara iritsita, gerra makinak hurbildu zituzten Potideara eta alde edo moldez hartzen ahalegindu ziren. Ez hiria hartzea ez gainerakoa gertatu zitzaizen euren bitartekoen neurritik, zeren, gaixotasunak hantxe eraso zielarik, biziki larritu zituen atenastarrak eta armadaren suntsipena ekarri zien, zeren lehen zeuden soldaduak, Hagnonen espediziokoek kutsatuta gelditu baitziren, lehenago osasuntsu zeuden arren (Formio eta mila eta seiehun soldadu ez zeuden jada kalzidetarren lurraldean). Azkenez, Hagnonek Atenasera alde egin zuen ontziekin, lehenago gaixotasunagatik, gehien ere berrogei egunetan, lau milatik mila eta berrogeita hamar hoplita galdu ondoren.



Aurretik herrialdean zeuden soldaduek Potideako setioan jarraitu zuten.

**59.**– Peloponesoarren bigarren inbasioaren ondoren, atenastarrak, euren lurra bigarren aldiz suntsituta geratu zenez eta gaixotasuna gerrarekin batera eurengan grinatzen zenez, iritziz aldatu ziren, eta Perikles egiten zuten gerran sartzearen eta zoritxarrez gainezka egotearen errudun; gainera presioa egiten zuten lazedemondarrekin adiskidetzeko, eta enbaxadoreak ere bidali zizkieten, emaitzarik lortu ez bazuten ere. Inondik ere aterabiderik ez aurkitzean, Periklesi erasotzen hasi ziren; hark, momentuko egoeraren eraginez haserre ikusi zituenean, berak jada pentsatuta zeukana eginez, batzarrera deitu ondoren –oraindik estratega zen– animatu nahi izan zituen eta lasaia-go utzi. Hitza harturik, hauxe esan zuen:

**60.**– «Zuek nire kontra etortze hori jada espero nuenean heltzen da, zeren, banekizkielarik arrazoiak, horrexegatik egin bainuen Batzarre-rako deialdia, arrazoirik gabe haserretzen zaretela eta ezbeharraren aurrean amore ematen duzuela gogorarazteko eta aurpegiratzeko. Nik uste dut bere osotasunean ondo dabilen hiria onuragarriagoa dela bertako hiritarrentzat, hiritar bakoitzak norbanako gisa duen oparotasunaren jabe den baina kolektiboki huts egiten duen hiria baino. Bere asuntoak norbanako gisa ongi doazkion pertsona bat, bere aberria hondatzen baldin bada, bera ere aberriarekin batera hondatzen da, baina, zorigabea bada, hobeto salbatzen da zoriduna den aberrian. Horrela, bada, hiri bat norbanakoen zoritxarrak eramateko gai denean, baina norbanako bakoitzak harenak eraman ezin dituenean, nola gera gintezke guztiok hari laguntzera joan gabe, zuek orain egiten ari zareten moduan, zeren, zoritxarrak durduzatuta, salbamen kolektiboari hor konpon esan eta purrustadaka ari baitzarete hori aholkatu zizuen honen kontra eta ene iritziarekin bat etorri zinetenon, hau da, zeuen buruen kontra? Eta, gainera, nire moduko gizon baten kontra haserretzen zarete, hau da, zer egin behar den ulertzen eta esplikatzen inor baino gutxiago ez dela uste duen eta eroskerien gainetik dagoen gizon baten kontra. Jakin dakienak eta argi esplikatzen ez duenak pentsatu ez balu bezalaxe jokatzeko du; biak egiten dituenak baina hirizalea ez denak ez luke interes berdinarekin aholkatuko; eta nolakotasun hori edukita ere, diruaren aurrean makurtzen bada, dena galduko litzateke horrexegatik bakarrik. Orduan, bada, gerrara joateko kontuan kasu





egin bazenidaten nik nolakotasun horiek guztiak nituela uste zenute-lako, orain arrazoi gabe egongo nintzateke neure gain hartzen jokaera txar baten errua.

**61.**– «Oparotasun aldietan hautatzeko aukera dutenak gerlara joatea ergelkeria handia da; baina derrigorrezkoa balitz norbaiten aurrean amore ematea edo arriskatu eta irabazten saiatzea, arriskuari ihes egiten dionak gaitzespen handiagoa merezi du aurre egiten dionak baino.

«Nik lehen bezalaxe segitzen dut eta ez naiz aldentzen neure erabakitik, baina zuek aldatu egiten zarete, zeren zuek minik gabe zeundetenean konbentzituta baitzeundeten, baina mina hartu duzuenean damutu egin zarete, eta nire arrazoiketari ez baderitzozue egokia, zuen iritziak tinkoak ez direlako da; eta ez dira tinkoak, denok probatu dugulako egoeraren latza, denontzat oraindik demostraturik gabe egonik berorren baliagarritasuna; eta nahasmendu handia, eta ia bat-batean, sortu denez, zuen pentsamenduak ez du erabaki zenutenari eusteko mailarik, derrepente, uste gabe eta aurretik kalkulatuaren kontra gertatzen denak adimena blokeatzen duelako; eta zuei hori, besteak beste, izurritearen eraginagatik gertatu zaizue.

«Hala ere, zuek, hiri handi bateko biztanleak eta hiri horri dagokion mailako hezkuntza harturikoak izanik, hondamendirik handienei aurre egiteko eta zeuen ospea ez lardaskatzeko nahia agertu behar duzue –zeren jendeak bidezkotzat baitu, hala bere ospetik beherago dagoena gaitzestea, nola ez duen ospearean mailan agertu nahi duena gorrotatzea– eta, interes indibidualetikiko sorgor izanda, kolektiboak zaintzeari ekin behar diozue soin eta muin.

**62.**– Gerrako ahalegina handiegia izatea eta, hala ere, ez irabaztea gertatzeari dagokionez, nahikoa izan bekizkizue lehenago antzeko ego-kieretan errezeloek oinarririk ez zutela demostraturik uzteko erabili izan ditudan argudioak; eta zuek zeuen inperioaren handitasunerako eduki zeukatela inoiz uste izan ez duzuen eta neuk ere lehenagoko hitzaldietan sekula erabili ez dudana eta orain ere, norbere buruari aplikatzea harropuzkeria dirudielako, erabiliko ez nukeen beste gauza bat ere ikusaraziko dizuet: boterea aliatuengan baino ez duzuela uste duzue zuek, eta nik demostratuko dizuet guk erabil ditzakegun elementu bietatik –lehorra eta itsasoa–, baten gain erabateko nagusitasuna duzuela, ez bakarrik orain erabiltzen ohi duzuen zatian, zati handiagoan ere baizik, nahi izanez gero; eta ez dago inor oztopo izan



dakigukeenik, ditugun itsas indar guztiekin nabigatuz gero, ez pertsiar erregea ez une honetako beste ezein herri.

«Horregatik, botere hori ez da konparagarri galera handitzat hartuz galduko zenituzketen etheen eta lurren erabilerarekin; ez da normala ondasun horiengatik haserretzea ere, aipaturiko boterearekin alderatuta aberatsen lorategi edo luxutzat hartuta mespretxatu beharrean; eta konturatu beharra dago askatasunak, gogor atxikita salbatzen baldin badugu, ondasun horiek erraz berreskuratzeako aukera eskainiko digula, eta, inoren manupeko bagara, ordea, ditugunak ere gutxitu egin daitezkeela; ez da normala kasu bi horietan guk geure gurasoen mailaren azpitik gaudela erakustea, haiek, beste inorengandik hartu gabe, bien jabe egin baitziren eta gainera, biei eutsita, geuri utzi baitzizkiguten –lotsagarriagoa da norberari daukan ondasuna besteek kentzea, berori eskuratu orduan huts egitea baino–, baina bada normala, ordea, etsaiei aurre egitera joatea harrotasunez ez eze, mespretxuz ere.

«Zorte oneko oharkabetasunean sorturiko harrokeria koldar batengan ere erne daiteke, baina mespretxua, gure kasuan bezala bere zuhurtasunagatik etsaiak azpiratzeko konfiantza duenarengan sortzen da. Antzerako zortea izanez gero, zuhurtasunak ausartzia seguruagoa ematen du nagusitasun sentimenduari esker; gutxiago fidatzen da esperantzaz, esperantzaren indarra soluziorik ezean datzalako, eta gehiago zirkunstantzien inguruko hausnarketaz, beraren aurreikusteko ahalmena sendoagoa delako.

**63.**– «Espero izatekoa da, halaber, hiriak inperiotik hartzen duen ohorearen laguntzan joan zaitezten, ohorea gauza handitzat baituzue denok, eta, beraz, ez zarete ibili behar ahalegin horretatik iheska, ohorea nahi izateari utzi ez badiozue bederen. Ez ezazue pentsatu esklabo ala aske izatea dela borroka honen zio bakarra; aitzitik, inperioaren galera ere jokoan dago, dominio horren ondoriozko gorrotoaren arriskua gainean dugularik. Eta orain, krisi honetan borrokarako beldurrak edo uzkurtasunak eraginda amore ematea eta gizon onarena egitea norbaiti bururatzen bazaio, beranduegi duzue inperio horretatik erretiratzeko; zeren honezkero, eskuetan duzuen inperio hori tirania baita, hala onartzea latza dirudien arren, baina ahanzteia ere, ziur, arrisku-tsua. Horrelako ideiak leuzkaketen eta beste batzuk limurtzea lortuko luketen hiritarrek, berehala suntsituko lukete hiria, eta gauza bera ger-tatuko litzateke independente biziz gero, elementu ez eraginkorra ez



baita salbatzen eraginkorraren aldean lerrokatu ezean, eta esklabotasunean oinarrituriko segurtasuna eskuratzea ez zaio agintzen duen hiriari komeni, manupekoari baizik.

**64.**— «Ez zaitzatela limur horrelako hiritarrek, eta ez zaitezte haserre nirekin, gerrara joateko erabakia hartzean kide izan zenuten honekin, baldin etsaiek beren inbasioan espero izatekoa egin zutelako zuek haiei men egiteari uko egin zeniotelako, eta, aurreikusitakoa txiki utzita, izurrite hau etorri zaigulako, gure aurreikuspenak gainditu dituen zirkunstantzia bakarra izan delarik. Badakit, alde zuzurriteagatik, are gorrotatuagoa naizela, arrazoirik gabe, espero izandakoaren kontra zoriontsu zaretenean ere hori ere neuri egotzen ez badidazue bederen. Ekidinezin moduan eutsi behar zaio jainkoengandikoari eta adorez etsaiengandikoari, horixe baitzen ohikoa hiri honetan; eta orain ez dadila sor eragozpenik zuengan.

Kontuan izan Atenasek ospe handia duela mundu guztian zorigaitzaren aurrean kikildu ez izanagatik eta gerrarako bizi eta ahalegin asko eman izanagatik; kontuan izan egundaino izan den botererik handiena duela, ondorengoentzat betirako oroitzapena utziko duena, orain zer-baitetan amore eman arren, —zeren, berez, denak du gainbehera etortzeko joera— Heleniarrak izanik Heleniar asko eta askoren gaineko burutza izan genuelako oroitzapena, gerrarik handienetan denei batera eta banan aurre egin genielako eta ikuspegi guztietatik hiririk prosperoenean eta biztanletsuenean bizi izan garelako oroitzapena; hala ere, bakezaleak gaitzetsi egingo du hori; ekintza zalea, ordea, hori berdintzen ahaleginduko da eta zaletasun hori ez daukanak inbidia izango dio.

Besteei agindu nahi izan zieten guztiei egokitu izan zaie unereren batean gorrotoaren eta saminduraren jomuga izatea; gauzarik garrantzitsuenengatik inbidiaren jomuga dena da egoki erabakitzen duena, zerren gorrotoak ez du luzaro irauten, oraingo distirak eta etorkizunerako loriak, ordea, betiereko iraupena dute.

Zuek, begirada etorkizun loriatsuan eta desohorezkoa ez datekeen orainean ipinita, erdiets itzazue jada gauza biak zeuen adorea, eta ez bidali heraldorik lazedemondarrei eta ez agertu oraingo nekeek atsekabetuta, zerren hondamenen aurrean gogoz gutxien samintzen direnak eta ongien aurre egiten dietenak, horiexek dira garaipena lortzen dutenak, direla hiriak direla norbanakoak».



65.— Hitz horiekin Perikles atenastarrek bere kontra zuten haserrea baretzen eta haien pentsamendua orduko arriskuetatik aldentzen saiatu zen.

Haiek ofizialki kasu egin zioten haren arrazoibideari, ez zuten mandataririk bidali Lazedemoniara eta gerrarako jarrera hobea eduki zuten; baina pribatuan atsekabetu egiten zituen gertatzen zenak: herria, baliabide gutxiago baldin bazeukan ere, horiez ere gabeturik ikusten zuelako bere burua; aberatsak, eskualdean zituzten etxalde ederrak, eraikin eta instalazio bikainez hornituak, galduagatik, baina batez ere bakearen orde z gerra edukitzeagatik. Hala eta guztiz ere, haren kontrako sumindura orokorra ez zen baretu harik eta isun bat ipini zioten arte. Geroago, hala egiten ohi du jendetzak, berriz ere estrategia hautatu zuten eta asunto publiko guztien ardura eman zioten, interes indibidualekiko hain sentibera izan ez zirenean eta hiriak oro har behar zuenerako merezimendurik handieneko gizontzat jo zutenean.

Baketean hiriaren buru izan zen aldian, moderazioz gidatu zuen politika eta segurtasunez gorde zuen hiria, eta boteretsuena izatera heldu zen haren garaian; eta gerra hasi eta gero, argi dago bere boterea ere aurreikusi zuela.

Gerra hasi zenetik bi urte eta sei hilabetez bizi izan zen, eta hil zenean askoz hobeto aintzat hartu ziren hark gerrarako egindako aurreikuspenak, zeren esan baitzuen ezen, baldin defentsiban irauten bazuten, ontzidiaren ardura hartzen bazuten, gerratean beren inperioa areagotzen saiatzen ez baziren eta hiria arriskuan ipintzen ez bazuten, gerra irabaziko zutela; baina haiek dena aldrebes egin zuten eta euren anbizio eta lukuruagatik gerratik atekoak ziruditen erabaki politikoak hartu zituzten, emaitza kaltegarriak ekarri zituztenak eurentzat eta euren aliatuentzat, eta erabaki horiek, arrakasta izatera, partikularrei zekarkieten onura, eta, porrot egitera, hiriaren kalterako ziren, gerrari zegokionez.

Arrazoia zera zen: hark, bere ospe eta argitasunarengatik besteengan eragin handikoa eta diru kontuan erostezina izanik, jendetzari eutsi egiten ziola eta, hari bera gidatzen utzi gabe, berak gidatzen zuela hura, ez baitzuen hitz egiten haien ederra irabazi eta haiengan bide zikinez eragina ukan ahal izateko, baizik, bere ospeari esker, haien grinei ere kontra egiteko ere gai zelako.





Adibidez, konturatzen zenean haiek, era desegokian, lotsagabeki hazten zirela, beldurtzeraino nahasten zituen bere hitzekin, eta, arrazoi gabe beldurretan jartzen zirenean, ordea, konfiantza berrekartzen zien. Izenez demokrazia zen, baina izanez lehenengo hiritarraren gobernuaren. Geroagoko politikoak, ordea, euren artean berdinduago egonik, hala ere bakoitzak lehenengoa izan gura zuelako, asunto publikoen gidaritza herriari emateraino heltzen ziren hari eder egiteko. Horregatik, beste errakuntza askoren artean, inperio baten jabe den hiri handi batean gertatzen den moduan, oker jokatu zuten Siziliako espedizioan; baina ez zuten egin erasoaren jomuga aldetik plantamenduko okerririk, baizik bidali zituztenek, abiatu zirenen komenentzian pentsatu beharrean, herriaren burutza berenganatu nahian azpikeria pertsonalekin espedizioan zihoan armadaren egoera ahuldu zuten eta lehenengo aldiz euren arteko liskarrak hiriaren administrazioa pasa zituzten.

Siziliako hondamena, beste indarren artean ontzidia gehienbat kaltetu zuen hondamena, handia izan zen arren, eta hirian gerra zibila hasi zen arren, hala ere, hamar urtez egin zieten oraindik aurka lehendik zeuzkaten etsaiei, haiengana bildu ziren Siziliakoei, matxinaturik zebiltzan aliatu gehienei eta Ziro errege pertsiarren semeari, zeina gero peloponesoarrekin batu zen eta haiei ontzidirako finantza baliabideak eman zizkieten; eta ez zuten amorerik eman harik eta, liskar pertsonaletan kokoteraino sartuta, euren buruak azpiratu zituzten arte. Horrenbesteraino huts egin zuen Periklesek, hiriak peloponesoar hutsen aurkako gerra erraz irabaz zitekeela esanez egindako iragarpenean.

**66.**— Lazedemondarrek eta beren aliatuek uda berean espedizio bat egin zuten Elideren aurrez aurre dagoen Zazinto uhartera (Peloponesoko akeoen kolonoak dira eta atenastarren aliatuak ziren); mila hoplita lazedemondar joan ziren almirante Cnemo espartarra zutela. Lehorreratu ondoren, uhartearen zatirik handiena suntsitu zuten, eta, akordiorako bat ez zetozenez, itsasoratu eta etxerantz abiatu ziren.

**67.**— Uda beraren amaieran, Aristeo korintoarra, Aneristo, Nikolao eta Protodamo enbaxadore lazedemondarrak, Timagoras tegearra eta bere kontura Polide argostarra Asiarantz abiatu ziren errege pertsiarren gortera, hura dirua ematera eta gerlan parte hartzera limurtzen saiatzeko asmoz; lehenengo Trazian Tereoren seme Sitalzesengana heldu ziren, hura konbentzitzekotan, ahal bazuten, atenastarrekin zuen aliantza utzi eta gero Potideara, non atenastarren armada setioan ari



zen, joan zedin, horrexetarako hain zuzen ere abiatu baitziren, haren laguntzaz Helespontoaren beste aldera pasatzeko eta Farnabazoren seme Farnazes ikusteko, azken honek errege pertsiarraren aurrera eskolta zitzan.

Kalimakoren seme Learko eta Filemonen seme Aminiades Sitalzesen gortean zeudenez, Sadoko, Sitalzesen semea, atenastar hiritartasuna hartua zuena, gizonok entrega ziezazkien konbentzitu zuten, errege pertsiarrari egindako bisitaz Sadokoren hiriari okerrik egin ez ziezaioten. Hura konbentzituta, Trazian zehar zihoazela Helespontoa zeharkatzeko erabiliko zuten ontzira bidean, ontziratu orduko atxilotu zituen, Learko eta Aminiadesekin jende gehiago bidaliz gizonok beraiei entregatzeko aginduarekin; euren kargu eginez, Atenasera eramane zituzten. Hara heldu zirenean, atenastarrak Aristeok, ihes eginez gero, oraindik oker handiagoak egingo ez ote zizkien beldur zirenez –argi baitzegoen bera izan zela Potidea eta Traziako guztia eratu zuena–, guztiak hil zituzten egun berean epaiketarik egin gabe –haiek azalpenak eman nahi zituzten arren– eta leizeetara jaurti zituzten, bidezkotzat baitzuten lazedemondarrek merkataria atenastarrak eta aliatuak Peloponeso inguruan merkantzia ontzietan zihoazenean atxilotu zituztenei hil eta leizeetara jaurtiz egin zieten berbera egitea haiei. Izan ere, gerraren hasieran, lazedemondarrek etsai moduan hiltzen zituzten itsasoan atxilotzen zituzten guztiak, hala atenastarren aldean borrokatzen bazuten nola neutralak baziren.

**68.**– Garai bertsuan udaren amaieran, anpraziarrek eta erreklutatuak zituzten barbaro askok espedizio bat egin zuten Anfilokiako Argosen eta gainerako herrialde guztiaren kontra; argostarrei zieten etsaitasuna honelaxe hasi zen:

Anfilokiako Argos eta gainerako herrialdea Anfiaraoren seme Anfilokok kolonizatu zuen Anpraziako golkoan, bere aberrira itzultzean Argosko egoera gustatu ez zitzaionean, eta bere aberriaren izena eman zion, Argos. Anfilokiako hiririk inportanteena izan zen, eta bertako biztanleak, botererik handiena zutenak; baina belaunaldi asko geroago, zorigaitzek biztanleen artean sarraskiak eginda, biztanle berri gisa anpraziarrek, Anfilokiako mugakideak zirenak, ekarri zituzten, eta orduantxe hartu zuten elkartu zitzaizkien anpraziarrengandik orain egiten duten greziera, beste Anfilokiarrak, ordea, barbaroak diren arren. Orduan, urteak joan urteak etorri, anpraziarrek euren herritik



kanpora bota zituzten argostarrak eta hiriarekin gelditu ziren; Anfilokiarrak, hau gertatzean, akarnaniarren babespean jarri ziren eta beraiekin batera atenastarrei deitu zieten, eta haiek hogeita hamar ontzi bidali zizkieten Formio buru zela; Formio hara helduta, indarrez hartu zuten Argos, esklabo bihurtu zituzten anpraziarrak, eta Anfilokiarrak eta akarnaniarrak elkartuta Argos populatu zuten. Horren ostean lehenbiziko aliantza egin zen atenastarren eta akarnaniarren artean. Orduantxe, halaber, haserretu ziren anpraziarrak argostarrek euren jendea esklabo bihurtu izanagatik, eta geroago, gerratean, espedizio hori egin zuten Kaoniakoak eta herri barbaroetako batzuk lagun zituztela; Argosera helduta, herrialdearen jabe egin ziren, baina eraso arren hiria hartzerik izan ez zuten, etxera itzuli ziren eta espedizioa desegin egin zuten. Hau guztia udan gertatu zen.

**69.**– Hurrengo neguan, atenastarrek hogeitaz bidali zituzten Formioren agintepean Peloponeso ingurura, eta hark Naupakton zuen basetik arduraz zaintzen zuen Korintotik eta Krisako golkotik ontzirik irten ez sartu ez zedin; beste sei ontzi Karia eta Lizia bidali zituzten Melesandro buru zela, dirua biltzera eta peloponesoarren pirateriak, baseak han kokatuta, Fazelistik, Feniziatik eta kontinenteko alde hartatik zetozen merkantzi ontzien trafikoari kalte egitea galarazteko; ontzietatik lehorreraturiko atenastarren eta aliatuen tropekin Lizian barna zihoala, bataila batean azpiratuta, Melesandro hil egin zen eta bere tropen zati bat galdu.

**70.**– Uda berean, potidearrak setioari eutsi ezinik zebiltzanez, peloponesoarren Atikara egindako inbasioek ez baitzuten lortzen atenastarrek alde egitea, janariak urritu egin ziren eta, jatekorik ezagatik gertatu ziren gauzen artean, batzuk giza haragia jateraino heldu ziren, eta, horregatik, euren kontrako gerra zeramaten jeneral atenastarrei akordio proposamenak egin zizkieten: zehazki Euripidesen seme Xenofonteri, Aristoklidesen seme Hestiodorori eta Kalimakoren seme Fanomakori. Haiek onartu egin zituzten proposamenok, euren tropak eguraldiaren gogorraren pean pairatzen ari ziren neke handiak ikusita eta hiriak setioan jada bi mila talentu gastaturik zituenean. Kontua da akordiora heldu zirela honako baldintza hauekin: eurak, euren seme-alabak, euren andreak eta euren soldadu laguntzaileak mantu batekin –emakumeak birekin– eta bidaiarako adosturiko diru kopuruarekin irtetea.



Itunak babestuta, Kalzidikara eta bakoitza joan ahal zen tokira joan ziren; hala ere, atenastarrek erantzuki egin zieten jeneral atenastarrei, eurekin kontsultatu barik egin zutelako akordioa (uste baitzuten hiria armaz hartuko zuketela gura izango zuketena moduan); geroago euretariko jendea bidali zuten Potideara eta bertan bizitzen jarri zituzten.

Hori neguan jazo zen eta Tuzididesek idatzi zuen gerra honen bigarren urtea bete zen.

**71.**– Hurrengo udan peloponesoarren eta beren aliatuek ez zuten inbaditu Atika, baizik Platearen kontra egin zuten espedizio bat; Zeuxidamo lazedemondarren erregearen seme Arkidamo zeramaten agintean; ongi kokatu ondoren lurraldea deboilatzeari ekin zion, eta platearrek berehala, harengana bidalitako mandatarien bidez, hauxe esan zioten:

«Arkidamo eta lazedemondarrok, ez zarete bidezko gauzarik egiten ari, ezta zuen ez zeuen gurasoen duinekorik ere, Plateako lurraren kontra etorritz, zeren Kleonbrotoaren seme Pausaniasek, lazedemondar batek, gure herrian borrokatu zen batailaren arriskuari aurre egitea erabaki zuten Heleniarren laguntzaz Helade pertsiarrengandik askatzean Plateako plazan Zeus Askatzaileari sakrifizioa eskaini zionean eta aliatu guztiak batu zituenean, platearrei beren lurra eta hiria itzuli zizkien bertan independente bizi zitezen, eta platearrei inoiz erasorik ez egiteko eta haietako inor sekula esklabo ez bihurtzeko agindu zuen; eta esan zien aginduok bete ezean, han zeuden aliatuak defentsan joango zitzaizkietela euren botere guztiarekin. Hori zuen gurasoek eman ziguten arrisku haietan erakutsitako geure adore eta ausardiagatik, eta zuek kontrakoa egiten duzue, tebastarrekin, gure etsai handienekin, baitzatozte gu esklabo bihurtzera. Orduko zin haien bermatzaile izan ziren jainkoak, zuen arbasoak eta gure lurrekoak lekuko ipinita diotsuegu Plateako lurrari kalterik ez egiteko eta zeuen zinak ez hausteko, baizik guri independente segitzen uzteko, Pausaniasek bidezki erabaki zuen moduan.»

**72.**– Platearrek hori esan eta gero, Arkidamok hitza hartu eta hauxe esan zuen: «Platearrok, ekintzak hitzen parekoak dituzuenean, orduantxe mintzatu justiziaz. Pausaniasek eskubidea eman bezala, segi independenteak izaten eta eman laguntza orduko arriskueta parte hartu eta zuekin batera zin egin ondoren orain atenastarren menpean dauden besteak askatzeko, haien eta gainerakoen askapenerako ari baikara prestakizun handiak eta gerra egiten. Askapen horrexetan parte hartuz batez ere izango zarete egindako zinekiko leialak; bestela –horixe proposa-





tzen dizuegu— bizi baketan zeuen asuntoak konpontzen, ez jarri bando bataren ez bestearen alde, biak hartu adiskidetzat eta bat bera ere ez etsaitzat; horixe izango da nahikoa guretzat».

Horrelaxe mintzatu zen Arkidamo; mandatari platearrak, hori entzun ondoren, hirira sartu ziren eta, haren hitzak herriari jakinarazi ziotelarik, erantzun zioten ezin zutela proposatzen ziena egin lehenago atenastarrekin kontsultatu barik (beraien seme-alaba eta andreak Atenasen baitzeuden), eta gainera hiri guztiagatik zirela beldur, zeren haiek alde egin ondoren atenastarrak etor baitzitezkeen eta horrelakorik egiten ez utzi, edo tebastarrak berriro hiriaz jabetzen saia baitzitezkeen bando biak onartzea zin egin izanaz baliatuta. Arkidamok, konfiantza emateko, honelaxe erantzun zien eragozpen horiei: «Zuek eman zeuen hiria eta etxeak lazedemonдарrei, zeuen lurraldearen mugarriak argi seinalatu, esan zenbat zuhaitz eta kontatu ahal den beste zenbat gauza dituzuen; joan nahi duzuen tokira gerrak dirauen artean; amaitzen denean itzuliko dizuegu orain hartzen dugun guztia; ordura arte gordailutzan edukiko dugu, landuz, eta aski deritzozuena ordainduko dizuegu».

**73.**— Hari entzunda, hirira sartu ziren berriro eta, herriarekin deliberatu ondoren, bere proposamenak lehenengo atenastarrei jakinarazi nahi zizkietela esan zioten ea horretara limurtzen zituzten ikusteko. Une horretara arte su-etena egiteko eta lurraldea ez deboilatzeke eskatu zioten. Hark, gestio hori egiteko beharko zuten denboran, su-etenari eutsi zion eta ez zuen lurraldea deboilatu. Mandatari platearrak atenastarren aurrera helduta, eurekin kontsultatu eta jakinarazpen hauxe ekarri zuten hirikoentzat:

«Lehenago, platearrok, aliatuak garenetik hona —diote atenastarrek— ez zaituztegu inoiz hor konpon utzi irainik edo erasorik jaso duzuenean, eta orain ere ez dugu horrelakorik egingo eta eskura ditugun bitarteko guztiekin lagunduko dizuegu. Zuen gurasoek egindako zinengatik, arren eta arren eskatzen dizuete aliantza ezertxotan ere ez aldatzeko».

**74.**— Jakinarazpen hori ezagutzera eman zietenean, platearrek honako hauek erabaki zituzten: atenastarrak ez traizionatzea, eta, beren lurrak deboilatuta ikustea edo gerta zitekeen beste edozer jasan behar baldin bazen, jasatea; hiritik inor berriro ez irtetea, eta harresitik erantzutea ezin zutela egin lazedemonдарrek proposatzen zutena.

Haiei erantzuna jaso bezain laster, Arkidamok segituan, herriko jainko eta heroiak lekukotzat ipinita, hauxe esan zuen: «Plateako lurra babes-



ten duzuen jainko eta heroiok, zeuek zarete testigu gu ez garela izan justiziari huts egiten aurrenak, baizik euren zina hautsi zuten beste horiek eta ez gu herrialde honi erasotzean, non zuei egindako erreguei esker pertsiarrei irabazi zieten eta zuek Heleniarrei borrokarako leku aproposa eman zenien; orain ere, kalterik egiten badugu, ez dugu justiziaren kontra egingo, zeren, proposamen arrazoizko asko egin dizkiegun arren, ez baitugu arrakastarik izan. Barka iezaguzue huts egiten aurrenak izan zirenak zigortzea, eta, mendekua, bidezki erreklamatzan dutenek erdiets dezatela».

**75.**– Jainkoak era horretan lekukotzat ipini ondoren, borrokarako neurriak hartu zituen. Lehenbizi, mozturiko zuhaitzekin, oholesi bat egin zuen hiriaren inguru guztian, handik aurrera inor irten ez zedin; gero lubeta bat eraiki zuten hiriaren aurrez aurre, hain armada handiarekin berehala hartuko zutelakoan. Orduan Ziteron mendietan mozturiko zuhaitzekin estali zuten lubeta alde bietatik, egurrak gurutzatuta hesi gisa ipiniz, pilaturikoa asko barreia ez zedin. Pilora egurra, harriak, lurra eta bertara botata piloa sendotuko zuen edozer ekarri zuten. Hirurogeita hamar egun eta hirurogeita hamar gautan segidan egin zuten lan lubetan, lanari txandaka ekinez, batzuk materialak garraiatzen ari zirenean besteek lo egin eta jan zezaten. Hiri bakoitzeko indarren agintera batu ziren lazedemonдарrek lan egitera behartzen zituzten.

Platearrek, lubeta eraikitzen ikustean, egurrezko horma bat egin zuten, beren harresiaren gainean kokatu zuten lubeta mehatxari ageri zen gunean eta inguruko etxeetatik kenduriko adreiluez bete zuten; armazoi moduan egurra zeukaten, eraikuntza, garaia izan arren ere, mangelgia izan ez zedin, eta babeserako larruak zituen, hala lanean ari zirenak nola zura su-gezetatik libre eta seguru egon zitezten. Harresiak altuera handia hartu zuen eta haren aurrean lubeta ez zen hazi astiroago: orduan platearrek zera asmatu zuten: harresia lubeta euskarritzen zen gunean zulatu eta lurra barrura sartzen hastea.

**76.**– Peloponesoarrak konturatu zirenean, ihiz bildutako buztin-lurrez bete zuten husgunea, lokatza sakabana ez zedin eta lurra nahi bezala atera ez zezaten. Besteek, oztopo hura jarri zietenez, ez zuten hori egi-terik izan; baina hiritik tunel bat egiten hasita, lubetaren azpian zeudela kalkulatu zutenean, ostera ere lurra ateratzen hasi ziren; kanpokoak luzaroan egon ziren horretaz ohartu gabe, halatan non, luzaroan lurra metatzen jardun arren, gutxiago aurreratzen zuten, platearrek lurra



azpitik kentzen zietelako eta peloponesoarren botatzen zutenak hustu-takoaren lekua betetzen zuelako.

Baina hala eta guztiz ere, gutxi zirenez askoren kontra, haiei eusterik izango ez zuten beldurak eraginda, ondoko trikimailua asmatu zuten. Utzi egin zioten lubetaren aurrean eraikitzen ari ziren obran lan egiteari, baina obraren bi puntutatik, harresi txikian hasita, horma bat eraiki zuten hirirantz ilargierdi forman, harresia hartzen bazuten, barrera lana egin zezan eta etsaiek haren aurrean osteria ere beste lubeta bat eraiki beharra ukan zezaten, barrurako bidean lan doblea ukan zezaten eta alde bietako erasoan pean aurki zitezen.

Lubetakoaz aparte, peloponesoarren hiriaren kontrako setio-makinak ere ekarri zituzten. Batek, lubetara eramanda, eraikitako obraren zati handi bat apurtu zuen eta benetan beldurtu zituen platearrak. Harresiaren beste alde batean jarritako beste makina batzuk, ordea, platearren, lakioez narras eramanez ondoren, apurtu egin zituzten. Haba handiak lotuz, ertz bietan kate handiez, harresiaren gainean bermaturik zituzten garabi biri, zeharkakoan zintzilik ipinita, arietea non edo non jotzera zihoanean, kateak laxatuz habeak askatzen zituzten eta jaustean hartzen zuten indarraz arietearen punta apurtzen zuten.

**77.**— Horren ondoren, makinak gauza ez zirenez eta lubetaren kontra beste harresi bat altxatzen zenez, zeuzkaten bitartekoekin hiri hartzerik ez zutela pentsatuta, hiriaren inguruan horma bat eraikitzeko prestatu ziren. Hori baino lehen, suarekin proba egitea erabaki zuten, ea haizeaz baliatuta hiriari su ematea lortzen zuten, ez baitzen hiri handia; prozedura guztiak imajinatu zituzten, hiriaz, dirurik gastatu gabe eta setiopean jarri gabe, jabetzeko; gabilak ekarri eta lubetatik jaurti zituzten harresiaren eta euren lubetaren kanpoko aldearen artean zegoen tartera; tarte agudo beteta langile ugari zirelako, hiriko beste lekuetara ere ahalik urrunen jaurtitzen segitu zuten zeuden altueratik; sufrea eta bikea bota ondoren, su eman zioten egurrari. Ordura arte gizakiak eginda inoiz ikusi ez zen moduko su izugarria piztu zen, zeren mendietan zuhaitzen adarrek haizeak eraginda elkar marruskatzean berez pizten baita sua eta gero garra. Su handia izan zen hura, eta beste trikimailu guztietatik eskapatu zuten platearrak harexek garbitu zituen ia-ia; izan ere barrutik ez zegoen hiriko arlo handi batera hurbiltzerik, eta aldeko haizea jotzen hasi balitz —horixe espero zuten etsaiek— ez ziren libratuko; orain, honako hau gertatu



omen zen: euria gogor egin zuen trumoi artean, sua itzali zuen eta erabat kendu zuen arriskua.

**78.**– Peloponesoarren horretan ere porrot egin zutenean, armadaren zati bat han utzi eta soldadu gehienak kanpora bota ondoren, hiria horma batez inguratzeari ekin zioten, lanerako lekuak hirika banatuz. Lubanarroa zegoen hormaren barru eta kanpoaldetik eta handixe atera zuten adreiluak egiteko lokatza; guztiz amaituta zeukatenean Arkturo agertzen hasten den aldian, hormaren erdia jagoteko guardiak utzi ondoren –tebastarrak zebiltzan beste erdia jagoten– alde egin zuten armadarekin eta hiri bakoitzeko indarrak banatu egin ziren.

Platearrek euren seme-alaba, andre, zahar eta gerrarako gauza ez zen jendea Atenasera eramanak zituzten lehenago; eta bertan geratu eta setioa jasaten ari zirenak Plateako lauhun, lauogei atenastar eta ehun eta hamar andre, sukalde lanetan, ziren; horixe zen setioaren hasierako kopurua eta harresian ez zegoen inor gehiago, ez esklaborik ez librerik. Horrelaxe ezarri zen Plateako setioa.

**79.**– Uda berean eta Platearen kontrako espedizioarekin batera, atenastarrak, euren bi mila hoplitarekin eta berrehun zaldizkorekin, Traziako kalzidetarren kontra eta botiatarren kontra abiatu ziren garia jada helduta zegoela; Euripidesen seme Xenofonte eta beste bi zeramatzaten buru.

Botiako Espartolo aurrera helduta, uza guztia suntsitu zuten. Uste zuten hiria, barruko jendearen amarruei esker, eurengana pasako zela; baina, hori nahi ez zutenek Olintokoei hala eskatu ondoren, hoplitak eta bestelako tropak heldu ziren hiria zaintzeko; tropa horien irteera batean, atenastarrak borrokan hasi zitzaizkien hiriaren aurre-aurrean; atenastarrek hoplita kalzidetarrak eta laguntzaile batzuk garaitu zituzten eta atzera egin behar izan zuten Espartolara, baina kalzidetarren zalditeriak eta tropa arinek atenastarren zalditeria eta tropa arinak garaitu zituzten, nahiz eta atenastarrek peltasta batzuk ere, ez asko, bazituzten euren artean, Kruside deritzon lurraldekoak. Bataila amaitu bezain laster, Olintotik beste peltasta batzuk etorri ziren, eta Espartolotik irten ziren tropa arinek haiek ikustean, konfiantza hartuz indar berriak batzen zitzaizkielako eta lehenago inork ez zituztelako garaitu, berriro eraso zieten atenastarrei zalditeria kalzidetarraren eta heldu zitzaileen laguntzaileen laguntzarekin; eta atenastarrek atzera egin zuten homiduraren ondoan utzitako soldadu talde biekina batera. Atenastarrek eraso





jotzen zuten bakoitzean, kalzidetarrek amore ematen zuten, baina atzera egitean, eraso egiten zieten geziak jaurtiz. Kalzidetarren zalditeriak nondik bururatu handixek hurbilduz erasotzen zien eta, beldur galanta sartuta, ihesean jarri zituzten atenastarrak eta aurretik eraman zituzten bide luzean. Atenastarrak orduan Potidean babestu ziren eta, su-etena bitarteko euren hilak jaso ondoren, Atenasera itzuli ziren armadatik geratzen zenarekin; euretariko lauhun eta jeneral guztiak hil ziren. Kalzidetarrek eta botiatarrek trofeo bat eraiki zuten eta, beren hilak jasota, nor bere hirira joan ziren.

**80**— Uda berean, gertakari horiek baino ez asko geroago, anpraziarrek eta kaontarrek, Akarnania guztia menperatu eta atenastarrendik aldentzeko irrikaz, lazedemondarrak konbentzitu zituzten aliatuen laguntzarekin ontzidi bat presta eta Akarnaniaren kontra mila hoplita bidal zitzen, honako argudio hau erabiliz, alegia, itsasoz eta lehorrez laguntzen baldin bazieten, kostako akarnaniarrek ezin zieten lagundu, erraza zela, behin Akarnaniaz jabetuta, Zazinto eta Zefalenia ere berenganatzea, eta atenastarrentzat ez zela hain erraza izango Peloponesoaren jiran nabigatzea; eta Naupakto hartzeko esperantzarik ere egongo zela.

Konbentzituta, lazedemondarrek Cnemo, oraindik almirante zena, bidali zuten eskaturiko hoplitekin ontzi gutxitan eta ontzidiari, prestatu egon zenean, ahal bait lasterren Leukade aldera abiatzeko agindua helarazi zioten. Korintoarrek gogo biziz hartu zuten kontu hori anpraziarrek euren kolonoak zirelako; Korinto, Sizion eta inguruko herrialdeetako ontzidiak prestatzen ari ziren, baina Leukade, Anaktoria eta Anpraziakoak, lehenago iritsita, zain zeuden Leukaden.

Cnemo eta berarekin zeuden mila hoplitak, itsas bidaia Naupakto inguruan guardian zeuden ontzien buru zen Formio ohartu gabe egin ondoren, berehala hasi ziren lehorrez egingo zen espedizioa prestatzen. Berarekin zeuden, Heleniarren artean, anpraziarrek, anaktoriarrak, leukadetarrak eta berekin ekarritako mila peloponesoarrak; barbaroak mila kaontar ziren, erregerik gabeko jendea, beraien burutza, urtero txandatuta, boterean zegoen familiako Fotio eta Nikanorrek zeramatarik. Kaontarrek espedizioan lagun tesprotioak zekartzaten, erregerik gabekoak hauek ere; molosoar eta atintaniarrei dagokienez, Sabilintok agintzen zien, oraindik haurra zen Taripe erregearen ordezkioak, eta paraboei euren errege Oredok. Paraboeekin mila orestar zihoazen,



Antioko zutenak errege, Antiokok Oredoren ardurapean utzi baitzuen agintea; Perdikasek ere, atenastarren ezkutuan, mila mazedoniar bidali zituen, eta berandu heldu ziren.

Armada horrexekin abiatu zen Cnemo, Korintotik etortzekoa zen ontzidiari itxaron gabe, eta Argosko lurraldea zeharkatzean Limnea, gotortu gabeko baserri bat, suntsitu zuten. Stratora arte heldu ziren, Akarnaniako hiririk inportanteena bera, uste izanik hartaz jabetzen baziren aise batuko zitzaizkiela beste guztiak.

**81.**— Akarnaniarrak, beren lurraldea armada handi batek inbaditu zuela eta itsasoz ere etsaiak euren ontziekin etorriko zirela jakitean, ez ziren laguntza ematera joan, baizik nor berea zaintzen hasi zen, eta mandatoriak bidali zizkieten Formiori laguntzera etor zekien; baina hark esan zien berak ezin zuela Naupakto utzi, Korintotik ontzidi bat itsasoratze-  
ra zihoanean.

Peloponesoarrak eta beren aliatuak, hiru armada taldetan banatuta, Strato hiria-  
ren kontra abiatu ziren, han inguruetan kanpatu ondoren, euren arrazoiei jaramonik egiten ez baldin bazieten, harresiaren kontra ahalegin bat egiteko asmoz. Honelaxe zihoazela hurbildu ziren: erdian kaontarrak, eskuinaldean leukadetarrak, anaktoriarrak eta eurekin zihoz-  
azanak eta ezkerraldean Cnemo peloponesoar eta anpraziarrekin; elkar-  
rrengandik urrun zihozten eta batzuetan elkar ikusi ere ez zuten egiten. Heleniarrek formazioan eta adi egin zuten aurrera leku egoki batean kanpatu zuten arte; kaontarrak, anartean, euren buruenganako uste oso-  
arekin eta inguru guztiko jendearen artean borrokalaririk onenen fama ukanik, ez ziren gelditu kanpamentua eraikitzeko, baizik, beste barba-  
roekin batera erasora abiatuta, hiria lehenengo erasoaldian hartuko zutela pentsatu zuten, meritua eurenak bakarrik izango zelarik.

Stratokoe-  
k ikustean aurrera eta aurrera zeto-  
zela eta uste izanik ezen, haiek bakarrik azpiratzen bazituzten, Heleniarren erasoak ez zituela aukera berdina-  
k izango, segadak jarri zizkieten hiri inguru-  
etan, eta hurbildu zirenean, hiritik eta segadetatik ateraz, gainera etorri zitzaizkien. Izuak erabat jota, kaontar gehienak galdu ziren, eta gainerako barbaro-  
ek, amore ematen ikusi zituztenean, zain gelditu gabe, ihesari eman zioten. Heleniarren kanpamentu bietako inor ez zen borrokaldiaz kon-  
turatu: kaontarrek aurrera eta aurrera egin zutelako, eta Heleniarrek, kanpamentua eraikitze-  
ra zihoazela uste zutelako. Barbaroak ihesean gainera etorri zitzaizkienean, han hartu zituzten hurbildu ahala, eta,



kanpamentuak elkartu ondoren, bertan gelditu ziren bare samar egunez, Stratokoek erasorik ez jotzean, beste akarnaniarrak oraindik etortzeke zeudelako, nahiz eta urrunetik abailez erasoka zebilzkien egoera zailean jarritz, babes-armekin ibili beharra izateraino; horretan, izan ere, akarnaniarrek trebe fama handia dute.

**82.**– Gautu zuenean, Cnemok, azkar, Stratotik laurogei bat estadiora dagoen Anapo ibaira egin zuen atzera, biharamunean su-etena bitarteko bere hilak jaso zituen eta, eniadek adiskidantzez lagundu ziotenez, beraien lurraldera joan zen etsaien errefortzuak iritsi aurretik. Handik talde bakoitza bere aberrira joan zen, eta Stratokoek trofeoa eraiki zuten barbaroen kontra lortutako garaipenaren kariaz.

**83.**– Korintoko ontziek eta Krisa golkoko gainerako aliatuek osaturiko ontzidia, Cnemori lagundu behar ziona kostaldeko akarnaniarrak barrualdera sorospenik bidal ez zezaten, ez zen aurkeztu; izan ere, Stratoko batailako egun bertsuetan, Formioren eta Naupakton jagole zeuden hogeitaz ontzi atenastarren kontra borrokatzera behartu zuten. Formio zelatan egon zen golkotik kanpora nabigatu zuten arte, itsaso zabalean eraso nahi zitelako; korintoarrak eta beren aliatuak, aitzitik, borrokarako formatu gabe zihoazen, Akarnaniaren kontra borrokatzekotan eta, gainera, atenastarrek hogeitaz ontzirekin euren berrogeita zazpien kontra ausartzerik ez zeukatela sinetsita; hala ere, euren aurreko kostaldeari jarrai ikusi zituztenean eurak euren lurraldeko kostatik zihoazela, eta Akaiako Patratik euren aurreko kostaldera Akarnaniarantz zeharkatzen ikusi zituztenean, konturatu ziren atenastarrak Kalzidetik eta Eveno ibaitik euren kontra zetozela eta orduan itsasadarraren erdian borrokatzera behartuta aurkitu ziren. Jeneralak zihoazen hiri bakoitzak ekarritako indarraren buru, eta korintoarrenak Makaon, Isokrates eta Agatar-kidas ziren; peloponesoarren biribilean jarri zituzten ontziak, formazioa apurtzen ez uzteko moduan, brankak kanporantz eta popak barrurantz zituztela; barruan txalupa arinak eta maniobretarako gaien ziren bost trirremeak kokatu zituzten, etsaiek non eraso, ahalik lasterren haraxe irits zitezen.

**84.**– Atenastarrak, lerro bakarra eginda biribilean nabigatzen zihoazen haien inguruan zirkulua txikituz, haien ontziak ia marruskatzen baitzihoazen, eta ematen zuen berehala joko zutela eraso; Formiok berak seinalea eman arte ez erasotzeko agindua eman zien, zeren espero baitzuten ez ziotela ordenari eutsiko lehorreko armada baten gisara, baizik



ontziak elkarri talkaka hasiko zirela, ontzi arinek nahasmena sortuko zutela eta, golkoko haizeak joz gero —horrexen esperoan segitzen zuen biribilean nabigatzen, egunsentian hasi ohi zen eta—, ez zutela atsedean unerik izango; halaber pentsatzen zuen bere eskuan zuela erasoa nahi zuenean egitea, ontzien maniobrak hobeto egiten zekielako, eta orduantxe izango zela une aproposa. Haizea jotzen hasi zenean, ontziak alde bietatik aldi berean elkar jotzeraino estutzen zituzten haizearen eta txalupa arinen artean larri zebiltzanez, desordenatu egin ziren eta elkarri talkaka hasi, nahikoa lan izan zutelarik ontziak banandu nahian pertikak erabiliz eta elkarri oihuak, abisu deiadarrak eta irainak jaurtiz; inork ez zien jaramonik egiten ez aginduei ez maniobra buruei, eta esperientziarik gabekoak izanik itsaso haserrean arraunak uretatik ateratzeko gai ez zirenez, ontziek ezin zieten pilotuei obeditu; orduantxe, aukera hori baliatuz, eman zuen seinalea Formiok, eta erasoan atenastarrek ontzi almiranteetako bat hondoratu zuten lehenengo eta gero bidean aurkitu zituzten guztiak suntsitu zituzten, eta, desordenagatik, inork ezin izan zien aurre egin, eta Akaiako Patras eta Dimeraino ihes eragin zieten.

Atenastarrek, haiek jazarri, haien hamabi ontziz jabetu eta beren gizonik gehienak jaso ondoren, Molikriorantz abiatu ziren eta, Rion trofeo bat eraiki eta Posidoni ontzi bat dedikatu ondoren, Naupaktora itzuli ziren.

Peloponesoarrak gainerako ontziekin Dime eta Patrasetik Zilenara, elearren armategira, joan ziren berehala. Leukadetik, Cnemo eta haiekin elkartu behar ziren hango ontziak heldu ziren Zilenera Stratoko batailaren ondoren.

**85.**—Lazedemondarrek Timokrates, Brasidas eta Likofron bidali zituzten ontzidiari buruz Cnemoen aholkulari moduan, beste itsas bataila bat hobeto planifikatzeko eta ontzi gutxi batzuei itsasoa erabiltzea galarrasten ez uzteko aginduekin, zeren uste baitzuten, batez ere itsas borroketan euren lehen esperientzia zelako, aldrebeskeria galanta egin zela, eta pentsatzen zuten euren ontzidia ez zela haiena baino makalagoa, baina nolabaiteko utzikeria eduki zutela, hori guztia atenastarren esperientzia luzea beren praktika urriarekin ez alderatzeagatik; kontua da eman zituztela aipaturiko aginduak, zeharo haserretuta eman ere. Cnemoengana iritsita, hiriei ontzi gehiago bidaltzeko agindu zieten eta borrokarako lehendik prest zeudenak atondu zituzten.





Formiok mandatariak bidali zituen Atenasera haien prestakizunak jakinarazteko eta garaile atera ziren itsas batailaren berri emateko eta, gainera, laster batean ahalik ontzi gehien bidali ziezaioten eskatzeko, edozein egunetan eduki zezaketelako borrokan hasi beharra. Hogei ontzi bidali zizkieten, baina zeramatzanari lehenbizi Kretan lehorreratzeko agindu zioten, zeren Niziasek, euren proxenoa zen Gortinako kretar bat bera, Zidoniara joateko konbentzitu baitzituen, esanez hiri horrez jabetuko zirela etsaia zen arren; zidoniarren auzoak ziren poliknarren alde egiteko deitu zien. Ontziak hartuta, Kretara joan zen eta poliknarren laguntzarekin zidoniarren lurra suntsitu zuen; eta haizeen eta nabigatzeko zailtasunen erruz hainbat denbora galdu zuen.

**86.**– Zileneko peloponesoarrak, atenastarrak Kretan geratuta zeuden artean, batailarako prest, itsasertzean zehar joan ziren Akaiako Panormoraino, nora joana baitzen lehorrez peloponesoarren armada. Formio ere itsasertzean zehar joan zen Molikrioko Rioraino eta handik kanpo ainguratuta utzi zituen bataila egiteko erabilitako hogeia ontziak hain zuzen. Rio hori atenastarren adiskidea zen; beste Rio, ordea, aurrez aurre dago, Peloponesoan, bata bestetik zazpi bat estadiora itsasoz; bien artean dago Krisako golkorako sarrera.

Azkenez, peloponesoarren, atenastarrak ikusi zituztenean, eurek ere Akaiako Rion ainguratu zuten, zeina euren infanteria zegoen Panormotik urrun ez zegoen. Sei edo zazpi egunetan elkarren aurrez aurre ainguratuta egon ziren batailarako prestatzeko ariketak egiten, batzuek Riotik itsaso zabalera ez irteteko planarekin lehen gertatu zitzaienaren beldur, besteek gune estuan ez sartzekoarekin, leku estu batean borrokatzea peloponesoarren mesedetan izango zelakoan.

Gero, Cnemo, Brasidas eta peloponesoarren beste komandanteek, batailan ahal bait arinen, Atenastik errefortzuak heldu aurretik, hasi nahirik, soldaduak batu zituzten lehenbizi eta, ikusirik aurreko porrotaren eraginez euretariko asko beldurturik eta uzkur zeudela, honako hauek esanda adoretu zituzten:

**87.**– «Peloponesoarrok, aurreko batailak, harengatik inor oraingoaren beldur baldin bada, ez du justifikatzen beldur hori, zeren, dakizuen moduan, gure prestakuntza eskasa izan baitzen eta, itsas bataila batera barik, lehorreko kanpaina batera joan baikin; gainera, zortea nahikoa kontra izan genuen, eta, bestalde, gure lehenengo itsas borroka izateak eta, beraz, esperientziarik ezak ere, porrota ekarri zigun; horregatik gal-



tzea ez zen gure balio urriaren ondorio izan, eta ez da bidezko indarrez azpiratua izan ez zen eta egun ere berrizta daitekeen sentimendua ezbehar horren aurrean ahultzea; aitzitik, bidezkoa zera pentsatzea da: gizonek zorteagatik egiten dutela porrot, baina kementsuak euren sentimenduengatik direla –arrazoiz gainera– halakotzat hartuak, eta kementa daukagun artean ez dela inoiz normala doilorkeriaz jokatzeari esperientziarik eza estakuru hartuta.

«Izan ere, esperientziarik eza kontra baduzue ere, adorea duzue alde, esperientziarik eza kontra baino askoz areago; horien ezagutza tekniko, gehien beldurtzen zaituztenei, dagokienez, ordea, gogoratuko dituzte arrisku uneetan, ikasitakoa praktikan jartzeko, baina ausardiari gabe, ez dago ezagutzarik arriskuaren aurrean balio duenik, zeren izuak oroimena aldrebesten baitu eta ofizioak kemenik gabe ez baitu ezertarako balio.

«Beraz, haien esperientzia handiagoaren aurrean ipin ezazue zeuen amore handiagoa, eta porrotak sortarazi dizueten beldurraren aurrean ipin ezazue orduko zuen prestakuntzarik eza. Alde gelditzen zaizue ontzi kopurua eta borroka zeuen hopliten aurrean eta zeuena duzen lurraren ondoan egingo dela; gehienetan garaitza kopuruz gehien direna eta ondoen prestatutik daudenena izan ohi da.

«Ondorioz, ez dago arrazoi bakar bat ere porrot egitea espero dezagun; lehen egindako okerrak, orain abantaila bihurtuta, irakaspen izango ditugu.

«Konfiantza hartuta, bada, pilotu eta marinelok, nor bere eginkizunean tinko, jarrai iezaguzue izendatzen zaizuen postua utzi gabe. Erasoa ez dugu zuen lehengo buruzagiek baino txartoago prestatuko, eta inori ez diogu utziko txarto jokatzeko aitzakiarik jartzenei; baina, hala ere, norbaitek horrela badihardu, zigor egokia hartuko du; kementsuek, ordea, euren merezimenduei dagozkien ohoreak jasoko dituzte».

**88.**– Horrelaxe adoretu zituzten peloponesoarrak euren buruzagiek. Formiok ere, bere soldaduen beldurraren susmoak zituelarik eta konturatzeko zelarik euren artean taldetxoak egiten eta etsaien ontzi kopurua aurrean beldurra erakusten ari zirela, biltzeko deia egin nahi izan zien harengatik egin eta une hartan adoretzeko, zeren lehenago behin eta berriz errepikatzen baitzien eta barruz prestatzen baitzuten esanez ez zegoela ontzidirik, handiena izanda ere, euren eraso gero, euren aurre



egin beharko ez ziotenik, eta soldaduek aspalditik zuten buruan sartuta atenastarrek ez zutela amore eman behar peloponesoarren ontzien kontzentraziorik handienaren aurrean ere. Orduan, bere soldaduak, ikusten zutenaren eraginez, adoregabeturik ikustean, bere konfiantza gogorarazi nahi izan zien, eta, bilduta ukan zituenean, hauxe esan zien:

**89.**— «Etsaien kopuruaren aurrean beldurrez ikusi zaituztedalako bildu zaituztet, uste baitut ez diogula beldurrik izan behar ezagutzen ez dugu-nari.

«Lehenik, horiek ontzi kopuru hori, eta ez gurearen adinako indar bat, prestatu badute, lehen garaituak izan direlako eta gure parekoak ez direla uste dutelako izan da.

«Gainera, guri erasotzeko duten konfiantzaren oinarriari dagokionez, hau da, adorea euren bertutea eta ez beste inorena dela uste izateari dagokionez, adoretzu sentitzen badira, euren esperientziari esker lehorrean gehienetan irabazi izan dutenez, itsasoan ere gauza bera gertatuko zaiela uste dutelako da; baina hori, behar bezala pentsatuta, geuretzat izango dugu abantaila, peloponesoarrek lehorrean abantailak dituztela emanda, zeren adoretik ez dute guk baino gehiago eta beste guztian konfiantza handia hartzen dugu haiek baino esperientzia gehiago daukagulako. Gidari dituzten lazedemonдарrek, duten famaren indarrez, arriskura daramatzate asko, nahi ez izan arren, zeren bestela, hain alde handiarekin garaituak izan ondoren, ez baitziren abiatuko beste itsas bataila batera. Ez izan, beraz, beldurrik haien adoreari; zuek, ordea, haiei beldur asko handiago eta justifikatuagoa ematen diezue, aurrekoan garaitu zenituztelako eta uste dutelako zuek ez zenietetela aurre egingo, askoz hobeak izate horri dagokion moduko zerbaitegiteko asmorik ez bazenute. Indarrez parekoak izanik, gehien direnek, horiek diren bezala, beren adimenaren argitasunean baino areago beren indar armatuetan fidatuta jotzen dute eraso; indar askoz urriagoekin eta inork behartu gabe eraso jotzen dutenek, ordea, ideiak oso tinko dituztelako erantzuten dute adore horrekin. Horrela kalkulata, beldur handiagoa digute ezustekoz beteriko jarrera daukagulako, gure indar eta tresnen arabera jokatu bagenu baino. Etsai askok porrot egin izan dute jada etsai kaskarragoen aurrean esperientzia faltaz eta batzuetan baita adore faltaz ere, eta guk orain ez ditugu akats horiek.

«Hala nahi dut eta, ahaleginduko naiz bataila golkoan gertatu ez dadin eta sartu ere ez naiz egingo han, zeren ikusten baitut ontzi askori, eza-



gutza urrikoak izan arren, aurre egiteko, leku estua ez zaiela komenigarri ontzi gutxi dutenei, nahiz eta esperientzia eduki eta maniobretan trebeagoak izan, etsaiak urrunetik ikusi gabe ezingo luketelako behar bezala tupust egin, ezta inguraturik aurkitzean atzera egin ere une egokian, ezta etsaien lerroa apurtu ez bira egin ere —maniobretan trebeenak direnen pribilegioa—, baizik itsasoko bataila lehorreko bataila bihurtu beharra legoke, eta, baldintza horietan, ontzi gehiago dituenak du irabazteko aukera.

«Laburbilduz, hori lortzeko, ahal dudan neurri guztian aurreikuspenak egingo ditut; baina zuek bederen, egon nor bere ontzietan diziplina osoz, bete agudo aginduak, batez ere hurbil ainguratuta gaudenean, eta, jokatu orduan, balio handitan eduki diziplina eta isiltasuna, zeren hori, gerra egoera askotan inportantea bada, are inportanteagoa baita itsas bataila batean, eta atzera eragin horiei lehenago ere eginak dituzuen balentrien neurrian.

«Garrantzitsua da zuentzat borroka hau, zeren bitarik bat: edo peloponesoarren ontzidian dituzten esperantzak deuseztatzen ditugu, edo atenastarrek itsasoaren kontrolari buruz ditugun arrangurak areagotu egingo ditugu.

«Horietako gehienak garaitu dituzuela gogorarazi nahi dizuet: garaituriko gizonen sentimenduak ez dira berdinak izaten arrisku berdinen aurrean».

**90.**— Horrelaxe aholkatu zituen Formiok.

Peloponesoarren ikusirik atenastarrek ez zietela golkoan eta gune estuetan erasotzen, haiek, euren nahiaren kontra bazen ere, barrurantz erakartzeko asmoz, egunsentian itsasoratu ziren eta, ontziak lau lerrotan eratuta, nabigatzen hasi ziren euren kostaldean zehar golko barrurantz, eskuineko ertza buru zela, ainguratuta egon ziren moduan; ertz horretan ongien nabigatzen zuten hogeitaz ontziak zituzten kokatuak, Formio, eurak Naupaktoren kontra zihoazela uste izanik, haiei laguntzera itsasertzean zehar etortzen baldin bazen, atenastarrek beren ertzari gainez egiten zion erasotik ihes egiterik eduki ez zezaten eta ontzi horiek atenastarrak ingura zitzaten.

Formiok, hain zuzen ere espero zuten bezala, goarniziorik gabe zegoen Naupaktogatik beldur, abiatzen atsekabez ikusi zituenean, ontziratzea arrapaladan agindu ondoren, itsasertzari jarrai joan zen; infanteria meseniarra zeraman lagun lehorrez.





Peloponesoarren ikustean itsasertzari jarrai zihoazela banako ilaran eta jada golko barruan eta lehorretik hurbil zeudela, hain zuzen ere eurek nahi zuten bezalaxe, lehenengo seinalean ontziei brast bira eragin eta aurrez aurre nabigatu zuten atenastarren kontra ontzi bakoitzak ahal zuen arinen, eta uste zuten ontzi guztiak geldiarazteko gai izango zirela; baina aurrean zihoazen haietako hamabi ontzi peloponesoarren ertza eta mugimendu inguratzailea gaingitu eta itsaso zabalera irten ziren; gainerakoak ezustean harrapatu zituzten, eta euren ihesean bultzaka lehorreraino eramanez ondoren, matxuratu egin zituzten, eta atenastarretarik igeri eskapatu ez zuten guztiak hil zituzten. Ontziei dagokienez, batzuk amarratu eta atoian eramanez zituzten hutsik –bat jada harrapatuta zuten tripulazio eta guzti–, beste batzuk meseniarrek berreskuratu zituzten jada atoian zeramatzatela, zeren laguntzera etorri baitzitzaizkien arma eta guzti itsasoan sartuz eta, ontzietara igo ondoren, ontzigenetan borrokatu baitziren.

**91.**– Kontua da horrelaxe irabazi zutela eta ontzi atikarrak suntsitu zituztela peloponesoarren; eskuin ertzean zeuzkaten hogeitaz ontziek mugimendu inguratzailetik itsaso zabalera eskapatuz itzuri ziren hamaika ontzi atenastarren atzetik joan ziren, eta atenastar guztiek, batek izan ezik, Naupakton babestea lortu zuten; Apoloren tenpluaren aurrean ainguraturik branka kanporantz zutela, borrokarako prest zeuden, lehorrerantz euren gana baldin bazetozen; baina peloponesoarren, geroago helduta, nabigatzen zihardutela peana kantatzen zuten garaipena ospatuz, eta, bitartean, ontzi leukadetar batek, gainerako peloponesoarren baino askoz aurrerago zihoanak, atzeratuta zihoan ontzi atenastarrari segika ekin zion. Merkantzi ontzi bat zegoen itsasoan ainguratuta; orduan atikarra arineketan joan zen merkantzi ontziaren ostera segika zetorkion leukadetarrari aurrea hartuz, eta atikarrak albotik eraso eta hondoratu egin zuen. Kontua da ezusteko eta logikarik gabeko gertaera hori jazotzean, peloponesoarren zeharo beldurtu zirela eta, gainera, garaile izatean jazarpena modu desordenatuan zeramatenaz, ontzi batzuek arraunei jaregin eta martxa geldiarazi zuten –errakuntza handia ontzi etsaiek hurbil zituztela kontuan hartuta– ontzidiaren zati handienari itzaroteko, eta beste batzuk hareapiloetan hondartu ziren, ez baitzituzten inguru haiek ezagutzen.

**92.**– Atrebentziaz bete ziren atenastarrak hori ikustean, eta lehenengo seinalean oihuka batean abiatu ziren haien kontra. Peloponesoarren,



egindako okerrengatik eta zerabilten desordenagatik, ez zioten luzaro eutsi erasoari; gero, abiagune izan zuten hirira, Panormora, itzuli ziren. Atenastarrak, jazarraldian, hurbilen zeuden sei ontzien jabe egin ziren eta peloponesoarren hasieran atoian eraman eta lehorra hurreratuta gauzaeztandu zizkieten ontziak berreskuratu zituzten; ontzi etsaietako tripulazioari dagokionez, berriz, batzuk hil egin zituzten, besteak preso hartu.

Timokratesek, merkantzi ontziaren ondoan hondoraturiko ontzi leuka-detarrean zihoan lazedemondarrak, bere ontzia suntsitu zutenean, bere buruaz beste egin zuen eta Naupaktoko portuan amaitu zuen.

Atenastarrek trofeoa eraiki zuten garaipena lortzeko itsasoratu ziren tokian, beren aldean zeuden gorpuk eta ontzi-zatiak jaso zituzten eta etsaiei eurenak jasotzen utzi zieten su-etena bitarteko. Peloponesoarren ere trofeoa eraiki zuten kosta ondoan suntsitu zituzten ontziei ihes eraginez lortu zuten garaipenaren kariaz, eta harrapatu zieten ontzia Akaiako Rion ipini zuten trofeoaren ondoan. Horren ostean, errefortzu atenastarren beldur, guztiak, leukadetarrek izan ezik, gauez, Krisako Golkora eta Korintora abiatu ziren.

Kretatik Formiori lagundu behar zioten hogeitaz ontziekin zetozen atenastarrak, berriz, Naupaktora ontziak handik irten eta ez askoz geroago heldu ziren, eta uda amaitu zen.

**93.**— Korintora eta Krisako Golkora sartu zen ontzidia lizentziatu aurretik, Cnemok, Brasidasek eta beste buruzagi peloponesoarren ahalegin bat egin nahi izan zuten Atenaseko portua den Pireoaren kontra, megarraren argibideen arabera; ez zegoen babestuta ez itxita, Atenasek ontzi kontuan zuen nagusitasun handia kontuan hartuta espero zitekeen moduan. Erabaki zen marinel bakoitza, bere arraun, kuxin eta uhalarekin, Korintotik lehorrez Atenasen aurrean dagoen itsasora joan zedin eta, Megarara heldu bezain laster, Niseatik, euren ontziolatik, bertan zituzten berrogei ontzi atera eta segituan Pireorantz abia zitezen, zeren ez baitzegoen han sarrera zaintzeko ontzidirik, ezta etsaiek ustekabean erasorik jo zezaketen susmorik ere, ez zutelako suposatzen agerian eta denborarekin egiten ausartuko zirenik eta, planifikatuz gero, bertakoek lehenago ez konturatzeke modurik ez zegoelako.

Erabaki eta batera bideari ekin zioten; gauez heldu eta ontziak Niseatik aterata, ez zuten jada jo Pireorantz planifikatu bezala, arriskuaren beldurrez —haizeak ere galarazi omen zien—, baizik Megarara begira



dagoen Salaminako tontorrera; han goarnizio bat eta zaintzako hiru ontzi zeuden, Megarara ezer sartu ez ateratzerik egon ez zedin. Goarnizioari eraso zioten, trirremeak –ez zuten tripulaziorik– atoian ipini zituzten, eta, hango biztanleei ustekabea erasoz, Salamina guztia suntsitzeari ekin zioten.

**94.**– Suteek Atenaseraino helarazi zuten etsaien presentziaren berria, eta gerrako beste ezein unetan baino izu handiagoa sortu zen, zeren hirikoek pentsatzen baitzuten etsaia Pireoa sartua zela, eta Pireokoek, berriz, Salaminaz jabetu zela eta instant batean erasoko ziela; eta eraso ere aise egingo zieten adorea eduki eta zalantza-balantzan ibili ez baziren, eta haizeak ez zien galaraziko ekintza.

Atenastarrak, egunsentian, denak batera joan ziren Pireora, eta, ontziak atera eta presaka eta astrapala batean ontziratu ondoren, Salaminara abiatu ziren ontziekin, lehenago lehorreko tropak Pireoa zaintzeko ipinita. Peloponesoarrak, laguntza-operazioaz konturatu zirenean, Salaminaren zati handi batean zehar ibili eta pertsonak eta harrapakina hartuta, baita Budornon goarnizioan zeuden hiru ontziak ere, arrapaladan itsasoratu ziren Nisearantz, zeren, gainera, ontziak luzaroan lehorretaruta egon izanak eta hermetikoak ez izateak beldurra ematen baitzien. Megarara helduta, lehorrez itzuli ziren Korintora; atenastarrak ere, Salaminan aurkitu ez zituztenean, etxera itzuli ziren; horren ostean, hobeto zaindu zuten Pireoa, ordutik aurrera portuak itxiz eta beste neurri batzuk hartuz.

**95.**– Sasoi bertsuan, neguaren hasieran, traziarren errege Teresen seme Sitalzes odrisioak espedizio bat egin zuen Mazedoniako errege Alexandroren seme Perdikasen kontra eta Traziako kalzidetarren kontra, promes bitatik bata betearazi eta bestea burutzeko. Perdikas, Sitalzesek atenastarrekin adiskidetzen baldin bazuen eta tronuan bere anaia Filipo jartzen ez bazuen, promesak egin zizkion arren gerraren hasieran estu eta larri zebilenean, ez zen agindutakoa betetzen ari; gainera, Sitalzesek berak, aliantza sinatu zuenean, Trazian kalzidetarrekin zuen gerrari amaiera ematea itundu zuen atenastarrekin. Orduan, bada, erasoaldia bi arrazoiengatik egiten zuen, eta Filiporen seme Amintas zeraman mazedoniarren errege ezartzeko, baita enbaxadore atenastarrak ere, horrexetarako zeudenak han, eta buru Hagnon zeraman, zeren atenastarrek ontziekin eta ahalik armadarik handienarekin etorri behar zuten berarekin kalzidetarren kontrako espedizioan.



**96.**— Horrela, bada, Sitalzesek, lehenik, Hemo eta Rodope mendiak baino honagotik itsasoraino berak agintzen dien traziarrak guztiak mobilizatzen ditu Ponto Euxino eta Helespontoraino; gero baita getak ere, Hemo pasata, eta Istro ibaiaren eta itsasoaren artean Ponto Euxino aldean bizi diren gainerako herriak; getak eta alde horretakoak szitiarren auzoak dira eta berdin armatuta ibiltzen dira: zaldizko arkulariak dira denak. Independentek diren eta ezpata erabiltzen duten mendietako traziarrak ere gonbidatzen ditu; jainkoaren izena hartzen duten jendea da, eta gehienak Rodope mendikatean bizi dira; batzuk mertzenario gisa kontratatzen ditu eta beste batzuk boluntario doaz.

Agriantarrek, Laiokoak eta bere agintepean zituen Peoniako beste herriak ere mobilizatzen ditu; horietatik dira bere inperioko azkenekoak. Haren inperioa, peoniar independenteekin muga, peoniar laioenganaino eta Strimon ibairaino hedatzen zen, Eskonbro mendian jaito eta agriantarren eta laioen lurraldea zeharkatzen duen ibaia bera; mugak tribaloarren lurretan —independenteak horiek ere— trereek eta tilateoek markatzen zituzten; azkeneko horiek Eskonbro ibaiaren iparraldera bizi dira eta mendebaldera Oszio ibairaino hedatzen dira; ibai hori Nesto eta Hebro jaitzen diren mendikate berean sortzen da, Rodoperen ondoan dagoen mendi handi eta biztanlerik gabeko mendikatean.

**97.**— Tamainari dagokionez, odrisioen inperioa Abdera hiritik Ponto Euxinoraino hedatzen zen, Istro ibairaino; inguru-nabigazio laburrena, haizea etengabe poparean edukiz gero, merkantzi ontzi batentzat lau egun eta lau gaukoa da; Abderatik Istrorako bide laburrena gizon azkar batek hamaika egunean egiten du.

Horixe zen itsasaldean zeukan hedapena; barrualdean, aldez, Bizantziotik laioen lurraldera eta Strimonera joateko—handiex dago itsasotik barrualderako distantziarik handiena— gizon azkar batek hamahiru egun behar ditu. Beren agintepean zituzten barbaroen eta hiri Heleniarrren aldetik Seutesen garaian hartzen zituzten zergak —hark gero Sitalzes errege zela asko gehitu zituen— gutxi gorabehera lauhun zilarrezko talenturen baliora iristen ziren, urre eta zilarretan; horri gutxiago balio ez zuten opariak gehitzen zitzaizkion, hala nola, oihal brodatuak edo singleak eta bestelako etxeko gauzak, ez bakarrik berarentzat, odrisioen arteko dignatario eta aitoren semeentzat ere baizik. Pertsiarren erregetzak zuen ohituraren kontrakoa ezarri zuten, beste traziarrak ere bazutena eta eman baino gehiago hartzean zetzana, zeren lotsagarria-





goa baitzen eskabidea ez onartzea, eskatu eta ez erdiestea baino; hala ere, ohitura hori zabaltasunez erabiltzen zuten, oparirik egin gabe ez baitzegoen ezer konpontzerik. Ondorioz, tronua botere maila altura heldu zen, zeren Europan Jonia eta Ponto Euxinoaren artean dauden erreinuen artean inportanteena izan baitzen finantza baliabideengatik eta gainerako oparotasun-erakusgarriengatik, nahiz eta borroka ahala-gatik eta indar militarrengatik szitiarrena askoz inportanteagoa izan.

Horiekin ezin dira alderatu beste herriak, ez bakarrik Europakoak, zeren Asian bertan ere ez baitago herririk bera bakarrik szitiar guztiei, elkartuta egonez gero, aurre egiteko gai denik. Egia esan, erabakien zorroztasunean eta bizitzako zirkunstantzietan erakusten duten argitasunean ere ez dira besteak bezalakoak.

**98.**– Harira etorrita, Sitalzes, hain lurralde zabaleko erregea, bere espe-dizioa prestatuz joan zen. Prest egon zenean, lehenik Mazedoniara abiatu zen bere inperioan zehar, gero sintoen eta peoniarren arteko muga den Zerzinako biztanlerik gabeko mendialdean zehar. Lehenago, peoniarren kontra joan zenean, sastrakak kenduz zabaldu zuen bidetik zeharkatu zuen.

Odrisioen herrialdetik mendialdea zeharkatu ondoren, eskuinean peoniarrek zituzten, ezkerrean sintoak eta medoak; zeharkatu eta gero Peoniako Doberora heldu ziren. Aurrera zihoala ez zen urritu armada, gaitasunaren bategatik izan ezik, gehitu baizik, zeren deitu gabe batu zitzaizkion arpilaketari begira traziar independente asko, halatan non, diotenez, guztira ez ziren ehun eta berrogeita hamar mila baino gutxiago izan, eta kopuru horretatik gehienak infanteriakoak ziren eta herena inguru zalditeriakoak. Zalditeriaren parterik handiena odrisioek eurek jarri zuten eta gero getek; infanterian, borrokazaleenak Rodopetik etorritako herri independenteak ziren; gainerako partaideak jendetza heterogeneoa ziren, beldur hartzekoak asko zirelako.

**99.**– Doberon, bada, bildu ziren, eta goialdeetatik Mazedonia beheara, non Perdikasek boterean ziharduen, inbaditzeko prestatu ziren. Mazedoniarren artean badira linzeotar eta elimiotarrak, baita horien aliatu eta basailu diren baina beren erregeak dituzten beste herri batzuk ere. Oraingo Mazedonia, itsas ondoan, Perdikasen aita Alexandrok eta haren arbasoek konkistatu zuten lehenbizi; arbaso horiek Temenidak izan ziren, jatorriz Argoskoak, eta euren erregetza ezarri zuten bataila baten ondoren Pieriako pieriarrak handik kanpora bota eta gero; azken



hauek, gero, Fagres eta beste hiri batzuk okupatu zituzten Pangeo barrenean –egun ere oraindik Pangeo barreneko itsasertz aldeari Pieriako golkoa deritzo– eta Botia deritzonetik botiatarrak bota ondoren, zeintzuk orain kalzidetarren auzoak diren; Peonian Axio ibaian zehar zerrenda estu bat konkistatu zuten Strimoneraino, Migdonia deritzona, edoniarrek egotzi ondoren; era berean, eordiarrek ere bota zituzten orain Eordia deritzonetik, euretako gehienak hil zituztelarik, gutxi batzuk Fiska inguruan bizi diren arren; almopiarrek ere egotzi zituzten Almopiatik; mazedoniar horiek beste herri batzuk ere garaitu zituzten eta haien lurretan bizi dira orain: Antemunte, Grestonia eta Basaltian, eta Mazedonia bertako hiri askotan. Guztiari Mazedonia deritzo, eta Alexandroren seme Perdikas zen hango erregea Sitalzesek inbaditu zuenean.

**100.**– Mazedoniar horiek, aipaturiko armada anitzak inbaditu zituenean, haiei atzera eragiterik ez zutenez, herrialdean ziren gotorleku eta zitadeletan babestu ziren. Ez ziren asko gotorlekuok, zeren orain dau-denak Perdikasen seme Arkelaok eraiki zituen errege izatera heldu zenean; horiez gain, bide zuzenak zabaldu zituen eta beste guztia anto-latu zuen, bereziki arlo militarri zegokiona, hainbestearaino non, zalditeria, armamentu eta bestelako ekipamendu kontuan bere aurreko zortzi erregeek baino gehiago egin baitzuen.

Doberon basea zuen traziarren armadak aurretik Filiporen mende egondako gunea inbaditu zuen, eta indarrez hartu zuen Idomena, baina Gortinia, Atalanta eta beste herri batzuk eurengana pasa ziren akordio-en bidez, han zegoen Filiporen seme Amintasen adiskidetasunari esker; setiatu zuten Europo, baina ezin izan zuten hartu. Gero Mazedoniako gainerako guztia inbaditu zuten, Pela eta Zirroren ezker aldean dagoe-na; ez ziren Botia eta Pierian sartu, baizik Migdonia, Grestonia eta Antemunte deboilatzeari ekin zioten.

Mazedoniarrek haiei infanteriaz atzera eragiteko asmorik ere ez zuten erakutsi, baina, barrualdeko aliatuei zalditeriako errefortzuak eskatu ondoren –asko ez ziren baina, haien kopuruaren aldean– armada traziarrari egoki zeritzen tokian erasotzen jardun zuten; eta erasoak jotzen zuten tokian inork ez zien aurka egiten, zaldizko trebe-ak zirelako eta armadura zeramatelako aldean; hala ere, askok ingu-ratuta, arriskutan zebiltzan hainbat bider handiagoa zen jendetzaren aurrez aurre; azkenerako, bada, lasai egotea erabaki zuten, haiek



kopuruz zuten nagusitasunaren aurka arriskatzen ibiltzea ez zela emankorra ikusten zutelako.

**101.**– Sitalzes bere espedizioaren helburuei buruz elkarrizketak edukitzeke proposamenak egiten hasi zitzaion Perdikasi, eta, atenastarrak aurkeztu ez zirenez ontziekin, bera ez zela joango uste zutelako –enbaxadoreak eta erregaluak bai bidali zizkioten–, kalzidetarren eta botiatarren aurka bidali zuen bere armadaren parte bat, eta euren harresien ostean babestera behartu zituen, herrialdea deboilatzeari ekin zion.

Inguru horietan kanpatzen zuelarik, hegoaldera bizi diren tesaliarrek, Magnesiakoek, tesaliarren gainerako basailuek eta Termopiletaraino hedatzen diren Heleniarrek, armada hori euren kontra etor zedin beldur, prestatzeari ekin zioten. Errezeloz bete ziren Strimon inguruko ibaier-tzean iparrerantz bizi diren traziarrak ere, hau da, paneoak, odomantotak, droanoak eta derseak, independenteak guztiak. Atenasen etsai ziren Heleniarrei ere zer pentsatu eman zien, beldur baitziren, aliantzako tratatuaren indarrez atenastarrek deituta, ez ote ziren euren kontra etorriko.

Baina hark Kalzidika, Botia eta Mazedonia suntsitzen jarraitu zuen eta, inbasioa egiteko eduki zituen helburuetako batik ere lortzen ez zuenez eta armada, zer janik ez edukitzeaz gain, neguaren gogorra pairatzen ari zenez, kasu egin zien Esparadokoren seme Seutesek, beregan hain eragin handia zuen ilobak, handik agudo alde egiteko jarritako arrazoiei (Perdikasek bere alde jarri zuen ezkutuan Seutes arreba eta dirua emateko promesarekin). Sitalzesek, hari jaramon eginik, guztira hogeita hamar egun –eurotatik hamar Kalzidikan– egon ondoren, alde egin zuen armadarekin. Gero, Perdikasek bere arreba Stratonika eman zion Perdikasi, agindu bezala. Horrelaxe burutu zen, bada, Sitalzesen espedizioa.

**102.**– Negu horretan Naupaktoko atenastarrek, ontzidi peloponesoarra barreiatu ondoren, espedizio bat egin zuten Formio buru zutela; itsasertzari jarrai joan ziren Astakoraino, lehorreratu eta Akarnania inbaditu zuten ontzietatik laurehun hoplitarekin eta laurehun meseniorekin; Strato, Korontas eta beste herri batzuetatik seguruak ez zerizkion gizonak egotzi eta Korontasen Teolitoren seme Zines berririo agintean ipini ondoren, ontzietara itzuli ziren, zeren ez baitzirudien neguan eniaden –akarnaniarren artean beti etsai izan zituztenen– kontrako espediziorik egin zitekeenik; izan ere, Akeloo ibaia, Pindoko mendikatean jaiotzen dena, Dolopeko, Agreoko eta Anfilokoen lurraldean eta Akarnaniako lautadan zehar doa –non Strato hiriaren ondoan sartzen den–



eta eniaden lurraldetik itsasoratzen da, eta paduraz inguratutako haien hiriaren kontra espedizioa egitea, neguan ur asko zuen eta, oso gauza zaila zen. Gainera, Ekinadak deritzen uharte gehienak eniaden aurrez aurre eta Akelooen ahoetatik hurbil daude, eta horregatik ibaia, handia izanik, etengabe sedimentuak ekartzen ari da, uharteotako batzuk kontinentearen zati bihurtzeraino; espero izatekoa da laster denei gauza bera gertatzea; izan ere, korrontea handia, urtsua eta zurrunbilotsua da, uharteak elkarrengandik oso hurbil daude eta bata bestearekin sedimentuen estekadura bihurtzen dira, nahikoa indar duena desegin ez daitezen irregularki jarrita daudelako eta lerrokaturik ez daudelako, eta urari ez diotelako uzten zuzenean itsasora pasatzen.

Uharteetan ez da inor bizi, eta ez dira handiak; Apolok orakulu baten bidez agindu omen zion Anfiraoren seme Alkmeoni, ama hil ondoren alderrai ibili zenean, lurralde horretan bizi zedin, esanez ez zela bere beldurretatik libratuko harik eta ama hil zuenean eguzkiaren bistan ez zegoen eta lehorra ere ez zen lurralde bat aurkitu eta bertan bizi arte, beste guztia berak kutsaturik zegoela uste zuen eta. Diotenez, hori zaila zenez, azkenean Akeloo ibaiaren sedimentazio horixe otu zitzaion, eta iritzi zion ama hil ondoren alderrai ibili zen aldi luzean pertsona bat bizitzeko adina lur metatu zela han. Eniadengandik hurbileko lurraldeetan jarri zelarik bizitzen, botereaz jabetu zen, eta herrialdeari bere seme Akarnanengandik eman zion izena. Horiexek dira, bada, Alkmeoni buruz jaso ditugun kontuak.

**103.**– Atenastarrak eta Formio, Akarnaniatik irten eta Naupaktora heldu ondoren, Atenasera itzuli ziren udaberrirako, harrapaturiko ontziez gain, itsas batailetan preso hartutako gizon libreak ere berekin zituztela –bat baten truke eman zituztenak–, eta amaitu zen uda hori, baita Tuzididesek idatzi zuen gerra honen hirugarren urtea ere.





# PELOPONESOKO GERRAREN HISTORIA III. LIBURUA

1.— Hurrengo udan, garia helduta zegoela, peloponesoarren eta beren aliatuek espedizio bat egin zuten Atikaren kontra; buru Zeuxidamoren seme Arkidamo, lazedemonarren erregea, zeramaten. Kanpatu ondoren, lurra deboilatzeari ekin zioten; eta, ohikoa zenez, atenastarren zalditeriak erasoak jotzen zituen aukera zuen tokian eta tropa arinei basetik irten eta hiriaren inguruetan kalteak egitea eragozten zien. Elikagaiak eduki zituzten artean bertan egon ondoren, alde egin zuten, eta soldadu-talde bakoitza bere hirira joan zen.

2.— Peloponesoarren inbasioa burutu eta segituan, Lesbo, Metimna izan ezik, atenastarren kontra altxatu zen; hori gerra aurretik egin nahi izan zuten arren, lazedemonarrek ez zituzten hartu; hala ere, altxamendua planifikaturik zuten baino lehenago egin beharrean aurkitu ziren, zeren portuak estutzeko, harresiak eraikitze eta ontziak egiteko lanak amaitzeko eta Pontotik behar zutena, hots, arkulariak, garia eta hara joan eta bilatzeko agindutako guztia heltzeko zain zeuden eta. Hala ere, Tenedoskoak, haiengandik desberdintsuak, baita Metimna-koak eta atenastarren proxenoak ziren Mitilene bertako partikular batzuk ere, lesboarrekin etsaiturik zeudenez barne enfrontamenduen-egatik, atenastarrei salatu zieten Lesbo Mitileneren agintepean batu nahi zutela indarrez, eta lazedemonarren eta beoziarren laguntzaz, zeintzuekin arrazazko loturak zituzten, jo eta ke zebiltzala matxinada-



rako dena prestatzen eta, aurea hartzen ez baldin bazieten, galdu egingo zutela Lesbo.

**3.**– Atenastarrek, izurriteagatik eta hasi berri zuten eta larrienean zegoen gerrarengatik estu aurkitzen zirelarik, uste zuten enpresa handia zela Lesbon kontra gerra eramatea, zeren ontzidia baitzuen eta boterea oso osorik, eta ez zieten kasurik egiten akusazioei, egiazkoak izatea nahi ez zutelako gehienbat; hala ere, mandatarien bitartez Mitilenetarrek irla batzeari eta prestakizun militarrek egiteari utz ziezaien limurtzerik izan ez zutenean, zeharo beldurtuta, aurea hartzen saiatu ziren ahalegin handiz.

Eta, bat-batean, berrogei ontzi bidali zituzten, Peloponesoaren jiran joateko prest zeudenak; Diniasen seme Kleipedes eta beste bi zeramatza-ten buru; hiriaren kanpoaldean Apolo Maleakoaren festa ospatzen zela jakinarazi zitzairen, non Mitileneke guztiek parte hartzen zuten, eta, azkar ibiliz gero, ustekabea haien gainera etortzeko aukera zegoela, eta ahalegina ongi aterako zela agian; horrela gertatu ezean, mitilenetarrrei esateko entrega zitzatela ontziak eta suntsi zitzatela harresiak eta, kasurik egin ezean, orduan borrokara abia zitezela.

Haiek abiatu ziren, baina aliantza betez Atenasen errefortzu moduan zeuden hamar trirreme mitilenetarrek, atenastarrek atxiki zituzten eta zaintzapean ipini.

Halere, gizon batek espedizioaren berri eraman zien mitilenetarrei; gizon horrek Atenasetik Eubearako bidea zeharkatu zuen, oinez joan zen Gerestora, merkantzi ontzi bat aurkitu zuen itsasoratzen zihoala, itsasaldia egin zuen eta Mitilenera heldu zen hirugarren egunean. Mitilenetarrek ez ziren jada irten festa ospatzera, eta, erdi amaituta zituzten harresien eta portuen zatiak sendotu ondoren, zaintza atondu zuten.

**4.**– Atenastarrek, ez askoz geroago hara helduta, hori ikusi zutenean, euren aginduak jakinarazi zituzten, eta, mitilenetarrek onartu ez zituztenez, borrokarako prestatu ziren.

Mitilenetarrek, prestatu egon gabe eta bat-batean borrokatzera beharturik, portutik kanporantz egin zuten irteeraren bat, borrokara bazihoazen legez; baina gero, atikarren ontziak segika hasi zitzaizkierarik, atenastar jeneralei elkarriketak edukitzea proposatu zieten, ontziak segituan urrun zitezen lortu nahirik euren gurrietara nahikoa egokitzen zen akordioen baten bidez; eta jeneral atenastarrek ere onar-



tu egin zuten, Lesbo osoaren kontra borrokatzeko nahikoa jende ez ote ziren beldurrez. Behin armistizioa adostuta, mitilenetarrek eurak salatu zituztenetako bat, ordurako damututa zegoena, eta beste batzuk bidali zituzten Atenasera, ontziek atzera egin zezaten atenastarrak konbentzitzen saiatzeko, eurek matxinatzeko asmorik ez zutenez gero. Aldi berean Lazedemoniara ere enbaxadoreak bidali zituzten trirreme batean, Malean, hiriaren iparraldean, ainguratuta zegoen ontzidi atenastarra konturatu barik, ez baitzuten Atenasen emaitza onik lortzeko esperantza handirik. Itsaso zabalean zehar itsasaldi nekoso baten ondoren Lazedemoniara iritsita, tratuak egin zituzten haiekin laguntzaren bat bidali ziezaieten.

5.— Enbaxadoreak Atenasetik ezer lortu barik etorri zirenean, mitilene-tarrak eta Lesboko gainerakoak borrokatzeko prestatu ziren; atenastarrei laguntzera inbrostarrak eta lemnostarrak eta gainerako aliatuen indar banaka batzuk ziren etorriak. Mitilene-tarrak denak batera atera ziren atenastarren kanpamentuaren kontra, eta borrokan hasi ziren, eta ostean, nahiz eta gaizkien eurak ez atera, ez zuten han kanpatu, ez baitzuten konfiantzarik euren buruengan, alde egin baizik; gero, egonean gelditu ziren, Peloponesotik laguntzaren bat hartu eta indar gehiago edukiz gero bai, baina bestela arriskuan ez sartzeko asmoarekin, zeren Melides lakoniarra eta Hermeondas tebastarra iritsi baitziren beraien-gana, zeintzuk matxinada aurretik bidali zituzten, baina, atenastarren ontzi espedizioari aurea hartzerik izan ez zutenez, isilpean sartu ziren batailaren ostean trirreme batean, eta eurekin beste trirreme bat eta enbaxadoreak bidaltzera animatu zituzten; eta bidali zituzten.

6.— Atenastarrek, mitilene-tarren baretasunagatik erabat oilartuta, beren aliatuei deitu zieten, eta haiek lasterrago heldu ziren, lesboarrek inolako indarririk erakusten ez zutela ikusita; hiriaz hegoaldera ainguratu ondoren, fortifikazioz hornitu zituzten bi kanpamentu, hiriaren albo banatan, eta portu biei blokeoa ezarri zieten. Horrela itsasoa erabiltzea galarazten zieten mitilene-tarrei; horiek eta laguntzera etorritako beste lesboarrak lurraldearen gainerako guztiaren jabe ziren, baina kanpamentuen inguruan zegoen zatia atenastarrek okupatzen zuten, nahiz eta euren ontzien ainguratokirako nahiago zuten Malea erabili. Horrelaxe zebilen gerra Mitilene inguruan.

7.— Uda horretako egun beretan, atenastarrek Peloponesoaren jiran ere ontziak bidali zituzten, Formioren seme Asopio jeneral zela, akarna-



niarrek buru Formioren senideren bat, semeren edo ahaideren bat bidaltzeko eskatu baitzieten; ontziek, itsasertzari jarrai, Lakoniako itsasertzeko lurraldeak suntsitu zituzten; gero Asopiok etxera bidali zituen berriro ontzirik gehienak, eta bera, hamabirekin, Naupaktora heldu zen; gero, akarnaniar guztiak mobilizatu ondoren, eniadarren kontra jo zuen eta ontziekin Akelooan zehar ibili zen, armadak lehorrez herrialdea hondatzen zuen artean; baina hauek amorerik ematen ez zutenez, lehorreko tropak lizentziatu egin zituen, eta, itsasoz Leukadera jo eta Neriko inguruan lehorreratu ondoren, atzera egitean bera eta bere armada-  
ren zati bat galdu ziren laguntzera etorritako hango jendearen eta goarnizio txiki baten eskuetan. Gero, alde egitean, atenastarrek euren hilak eraman zituzten, leukadetarren su-etena bitarteko jaso ondoren.

**8.**– Lehenengo ontzian bidali zituzten mitilenetarren enbaxadoreak, lazedemondarrek Olinpian aurkezteko esan zietenaz aliatuek eurei entzun ondoren erabaki zezaten, Olinpiara heldu ziren; Rodaseko Dorieo bigarrenaz garaile atera zen Olinpiada jokatzeko. Jokatu ondoren elkarrizketak hasi zituztenean, haxe esan zuten:

**9.**– «Lazedemondarrok eta aliatuok, ezagutzen dugu Heleniarren artean indarrean dagoen araua gerran desertatzen eta aurreko aliantza bertan behera uzten dutenei buruz: hauek aliatutzat hartzen dituztenek hori atseginez egiten dute baliagarri zaizkien neurrian, baina era berean gutxiago estimatzen dituzte, euren lehengo lagunei traizioa egin dietela pentsatzen dutelako. Eta ez da desegokia balorazio hori, baldin banantzen direnek eta haien lagun izandakoek sentimendu eta begikotasun berak badituzte, indarrei eta botereari dagokienez maila berekoak badira eta banantzeko justifikazio errespetagarririk ez badago, eta hori ez zen gure eta atenastarren arteko kasua. Inork ez dezala pentsa estimu txikiagotan edukitzekoak garenik, bake garaian haien ohoreak hartu arren, arrisku uneetan haiengandik banantzen garelako.

**10.**– «Gure hitzak, lehenik, justiziaz et zintzotasunaz izango dira, bereziki aliantza bilatzera gatozelako eta badakigulako ezen ez norbanakoen arteko adiskidetasunak ez hirien arteko elkartasunak ez dutela ezer bermatzen, baldin elkarrekiko onestasun sentimendua lagun ez badaramate eta besteek ere antzerako portaeraz jokatzeko ez badute, zeren irizkide ez izatean baitautza jokaera ezberdinak.

«Gure eta atenastarren arteko aliantza, izan ere, zuek mediarren kontrako gerratik alde egin zenutenean eta haiek falta zena egiteko geratu





zirenean hasi zen. Hala eta guztiz ere, haien aliatu ez ginen egin Heleniarrak menderatzeko, Heleniarrak mediarrengandik askatzeko bazik. Buru gisa berdintasun baldintzetan jokatu zuten artean, adorez jarraitu genien; baina haiek mediarren etsaitasunean moteldu egiten zirela eta euren aliatuak esklabo bihurtzera zihoazela ikusi genuenean, ez ginen jada lasai egon. Elkartuta defendatzeko gai ez zirelarik euren artean iritzi asko zegoelako, etsaien mendera eroriz joan ziren denak, geu eta kiotak izan ezik. Guk, ofizialki aske eta independenteak ginen arren, espedizioetan atenastarren lagun joaten segitu genuen, baina ez ziren jada guretzat fidatzeko moduko buruak, aurrerago gertatukoaren adibidea geneukanez gero, izan ere, ez baita normala haiek gurekin batera itunetan sarturikoak menderatzea eta gauza bera ez egitea itunetik irten-dakoekin, inoiz edo behin ahal zutenean.

**11.**— «Oraindik ere denok independente segituko bagenu, seguruago litzateke haiek gure egoera ez aldaraztea; baina gehienak basailu moduan dituztenez eta gu maila berean tratatzen gaituztenez, normalean txartoago jasango dute, eta areago maila berean tratatuak garen bakarrak garenean gehienek jada amore eman dutenean, eta batez ere haiek gero eta boteretsuago diren neurrian, gu bakartuago geratzen garen artean. Norbere maila berekoarenganako beldurra da aliantza baterako bermea, zeren aliantza urratu nahi duenak ere uko egiten dio horrelakorik egiteari, baldin erasotzeko indar handiagoak ez baditu.

«Independente segitzen dugu arrazoi bakar honexegatik, alegia, uste zutelako euren inperioari begira errazago zela egoera hitz ederrez eta adimena erabilia kontrolatzea, indarraz baino; gainera boto berdintasuna zuten aliatuek inoiz ez zietela —eurek erasotzen zietenek hutsen bat eginda egon ezean— desgogara lagunduko frogatzeko testigantza moduan erabiltzen gintuzten; sistema berarekin lehenik indartsuenak makalenen kontra eramaten zituzten eta, azkenerako uzten zituztenez, besteak garbitu ondoren, ahulago aurkituko zituzten; gurekin hasi balira, ordea, haiek guztiek oraindik boterea eta nork lagundu zutenean, ez zituzten era berean menderatuko.

«Gure ontzidiak eurentzako arriskua izango ote zen beldurra ematen zien, baldin zuekin edo beste edonorekin elkartu eta beste unitate bat gehitzen bazuen. Haien uneko gobernu eta buruzagiei eskaintzen genien adeitasunari esker ere irauten genuen bizirik. Hala eta guztiz



ere, ezingo genuen iraun, luzaro bederen, gerra hau sortu ez balitz, eta horren adibide gure ingurukoak izan ditugu.

**12.**– «Labur esanda, zer nolako adiskidetasun edo askatasun fidagarria zen hura, non harremanak geure sentieraren kontra genituen eta, haiek gerratean, beldurrak eraginda, adeitasunez tratatzen gintuzten, guk bake garaian beraiekin gauza bera egiten genuelarik? Eta besteen kasuan begikotasuna bada batez ere leialtasuna segurtatzen duena, gure kasuan segurtasun hori beldurrak ematen zigun; adiskidetasunak baino gehiago beldurrak lotzen gintuelako ginen aliatuak, eta segurtasunetik konfiantza hartzen zuen biotako lehenengoa izango zen aliantza urratzen lehena.

«Hala da ezen, baldin baten batek uste badu brast desertatzean huts dagigula, haiek guri ertzeko neurriak aplikatzen geroratzen direlako eta neurriotakoren bat burutuko den jakin arte itxaroten ez dugulako, horren azterketa ez da zuzena; izan ere, haien azpikeriei baldintza berdinetan erantzuteko gai bagina, baldintza beretan erasotzea geroratu egin beharko genuke; baina erasotzeko aukera beti euren eskuetan dute-larik, geuretan izan behar dugu defentsarako aurrea hartzekoa.

**13.**– «Kausa eta erreklamazio horiexengatik, lazedemondarrok eta aliatuok, banandu ginen; guztiak dira argiak, entzuleek jakin dezaten espero izan zitekeen moduan jokatu genuela, baita nahikoak ere, gu beldur gaitezen eta non edo han segurtasuna bila dezagun; nahiz eta hori lehenago ere nahi izan genuen, oraindik bake denboran geundela matxinadari buruzko proposamenak bidali genizkizuenean, baina ezin izan genuenean burutu, zuek ez onartzean. Orain, beoziarrek dei egin zigutenean, berehala egin genien kasu. Aldi berean bi erretreta egitea zen gure asmoa: bata Heleniar federaziotik, atenastarrei kalte egiten barik askatzen laguntzeko; bestea atenastarrendandik, gero geuk bizia ez galtzeko, baizik, aitzitik, haiei aurrea hartzeko.

«Hala eta guztiz ere, gure matxinada goiztiarregia eta prestatu gabekoa izan da, arrazoi bat gehiago delarik hori aliatutzat har gaitzazuen eta lagundu beharrekoen defendatzaile moduan ager zaitezen, aldi berean etsaiei kalte eginez. Sekulako abagunea dugu, atenastarrak izurriteak eta gastuek hondatuta daude; haien ontziak, zati bat zuen lurraldea inguratzen eta beste zati bat geure aurrez aurre lerrokatuta ditugu. Horregatik ez da aurreikustekoa haiek ontzirik edukitzea, baldin zuek uda honetan ontziekin eta lehorrez bigarren aldiz inbaditzen badituzue;



aitzitik, ez diote zuen itsas erasoari aurka egingo edo bietatik alde egingo dute. Inork ez beza pentsa inoren lurrarengatik arriskua hartuko dutenik beren arrisku moduan, zeren Lesbo oso urrun dagoela uste duenari, hark ekarriko duen onurak hur jarriko baitio, gerra uste den moduan Atikan barik, Atikak onura hartzen duen tokian erabakiko denez gero.

«Haien finantza baliabideak aliatuek ematen dizkienak dira, eta are handiagoak izango dira gu menderatzen bagaituzte, zeren ez baita beste inor matxinatuko eta gureak gehituko baitituzte, eta, jakina, lehenago esklabo bihurturikoak baino neurri gogorragoak pairatu beharko genituzke. Hala ere, zuek arduraz etorriko bazinete, ontzidi handi bat, zuek beharrezkoen duzuen, daukan hiri batez jabetuko zinatekete, eta atenastarrak errazago suntsituko dituzue aliatuak kenduta, zeren edonor pasako da konfiantza handiagoz zuen aldera eta inork ezingo dizue aurpegiatu, orain bezala, matxinatzen direnei ez laguntzea; askatzaile moduan agertzen bazarete, seguruago izango duzue nagusitasuna gerran.

**14.**– «Horrela, bada, Heleniarrek zuengan jarrita dituzten esperantzei eta Zeus Olinpikoari, zeinaren santutegian erregugileen baldintza bertuetan gauden, errespetua erakutsiz, defenda itzazue mitilenetarrak haien aliatu bihurtuz eta ez gaitzazue bakarrik utzi, geure biziak geurea bakarrik dugun arriskuan ipintzen baditugu ere, garaipena lortuz gero onura orokorra, eta zuek ez konbentzitzeagatik porrot eginez gero kalte are orokorragoa denei egingo diegunok. Izan zaitezte Heleniarrek nahi luketen eta gure beldurrak biziki gura duen bezalakoxeak.»

**15.**– Horrelaxe mintzatu ziren mitilenetarrak; lazedemondarrek eta aliatuek horiek entzun ondoren, haien hitzak onartuta, aliatu egin zituzten lesboarrak, eta han zeuden aliatuei esan zieten euren tropen herenarekin Istmora joateko arin, Atikako inbasioa burutzeko; eurak heldu ziren aurren, eta Istmoan ontzientzako arrasteak prestatzeari ekin zioten, ontziok Korintotik Atenaseko itsasora eraman eta infanteriarekin eta ontziekin erasotzeko asmoz. Horretan jo eta ke ziharduten, bada, baina gainerako aliatuak astiro-astiro baino ez zetozen; uzta batzeko sasoia zen, eta ez zuten espediziorako gogo modurik.

**16.**– Atenastarrek, konturatu zirenean prestakizun horiek eurak ahul zeudela uste zutelako egiten ari zirela eta haien iritzia ez zela zuzena, ontzidia Lesbok atera barik Peloponesoko erasoari aurka egiteko gai zirela demostratu nahirik, ehun ontzi ekipatu zituzten hiritarrak –zal-



dizkoak eta pentekosiomedimnoak izan ezik— eta metekoak ontziratuta eta, itsasoratu ondoren, Istmoan zehar beren burua erakusten ibili ziren eta Peloponesoan ongi zeritzen puntu guztietan lehorreratzten ziren. Lazedemondarrek, euren kalkuluetan izandako errakuntza handia zela ikustean, lesboarrek esandakoa ere ez zela egokia pentsatu zuten, eta egoera zaila zela uste izanik, hala euren aliatuak aurkeztu ez zirelako nola Peloponesoaren inguruko hogeita hamar ontzi atenastarrek euren eskualdeak suntsitzen ari zirelako abisua hartu zutelako, etxera alde egin zuten.

Gero Lesbora bidaltzeko ontzidi bat prestatzeari ekin zioten; hiriei berrogeita hamar ontzi galdatu zieten eta Alzidas ipini zuten espedizio-rako almirante. Atenastarrek ere, etsaia alde egiten ikustean, etxerako bidea hartu zuten euren ehun ontziekin.

**17.**— Ontziak itsasoan zeuden aldi horretantxe eduki zuten, beste alde batetik zeudenak barne, ontzi kopururik handiena zerbitzuan, gerraren hasieran beste edo gehiago: ehunek jagoten zuten Atika, Eubea eta Salamina, beste ehun zeuden Peloponesoaren jiran, Potidearen inguruan eta beste leku batzuetan zeudenez gain, halatan, non orotara uda bakar batean berrehun eta berrogeita hamar ontzi ziren; Potidearekin batera, horixe izan zen diru gehien eraman zuena, zeren hoplitek drakma bigatik egiten zuten guardia Potidean (bakoitzak egunean drakma bat beretzat eta beste bat bere otseinarentzat kobratzen zituen); hiru mila ziren hasieran, eta kopuru horrek ez zuen behera egin setio aldian, eta mila eta seiehun etorri ziren Formiorekin, eta hauek setioa bukatu aurretik alde egin zuten; soldata bera ordaintzen zen ontzi guztietan. Horrelaxe gastatu zen hasieran dirua, eta horixe izan zen ekipatu zituzten ontzien kopururik handiena.

**18.**— Mitilenetarrek, lazedemondarrak Istmoan zeuden aldi berean, espedizio bat egin zuten tropa laguntzaileekin batera lehorrez Metimnaren kontra, uste izanik traizioa bitarteko entregatuko zietela; hiriaren kontra eraso jo ondoren, espero zuten moduan atera ez zenez, Antissa, Pirra eta Eresora joan ziren, eta, hiri horietan egoera finkatu eta harresiak sendotu ondoren, berehala itzuli ziren etxera.

Metimnarrek ere espedizio bat egin zuten Antissaren kontra haiek alde egin zutenean, baina irteera bat egin zutelarik, Antissakoek eta euren tropa laguntzaileek garaitu zituzten, eta asko hil zituzten, eta gainerakoek alde egin zuten berehala.





Atenastarrek, jakitean mitilenetarrak eskualdearen jaun eta jabe zirela eta bertako soldaduak ez zirela hori eragozteko gai, udazkenaren hasieran Epikuroren seme Pakes bidali zuten komandante euren mila hoplitarekin. Horiek itsasaldia eurak arraunlari zirela eginda heldu ziren eta Mitilene horma single batez inguratu zuten eta tartean-tartean, goienetan, gotorlekuak eraiki zituzten. Mitilene, bai lehorretik eta bai itsasotik, blokeo gogor baten mende gelditu zen, eta negua muturra erakusten hasi zen.

**19.**– Atenastarrek setiorako dirua behar zutenez, aparteko zerga bat, berrehun talentukoa, ezartzera jo zuten aurreneko aldiz, eta aliatuei hamabi ontzi bidali zizkieten, jeneral Lisikres eta beste lau zeramatza-tenak, dirua biltzeko. Lisikres, zerga-bilketan zebilela, Kariako Miuntetik Meandroko lautadan zehar Sandio muinoraino igotzen zihoala, kariarren eta anaiten erasoaldi batean hilik gertatu zen bere armadako beste askorekin batera.

**20.**– Negu berean, platearrak –oraindik ere peloponesoarren eta beoziarrek setiatuta segitzen zuten– jatekorik ezagatik akituta eta atenastarren aldetiko laguntzaren esperantzarik gabe zeudenez eta beste irtenbiderik ere ikusten ez zutenez, setio-kide zituzten atenastarrekin denak batera irten eta, ahal izanez gero, harresiak pasatzeko plana egin zuten, Tolmidasen seme Teaeneto, aztia, eta Daimakoren seme Euponpidas, jenerala, zituztelarik gidari ahalegin horretan; gero modu batera edo bestera atzera egin zuten erdiek, arriskua handia zela eta, eta berrehun eta hogeitaz gizon inguru gelditu ziren boluntario irteera bat egiteko, honelaxe hara: etsaien harresien tamaina bereko eskailerak egin zituzten; aurrean luzitu gabe zeukaten harresiaren aldeko adreilu ilaretatik kalkulatu zuten luzera; askok batera kontatu zituzten ilarak, eta, maiz kontatu zituztenez eta oso urrun ez zeudenez, batzuek oker kontatu arren, gehienek ondo zenbatu zituzten, aise ikusten baitzuten ikusi nahi zuten harresiaren aldea. Horrelaxe, bada, kalkulatu zuten eskaileren luzera, neurria adreiluaren lodieratik ateraz.

**21.**– Peloponesoarren harresia honelaxe eraikita zegoen: hersgune bi zituen, bat platearren aurrean eta bestea badaezpada Atenasetik etorri eta kanpoaldetik erasotzen bazieta ere, eta bata bestetik hamasei bat oinera zeuden; barrualde horretan goarnizio tropen artean banaturiko etxolak zeuden eraikita eta elkarren alboan zeuden, eta alde bietatik almenak zituen harresi lodi baten itxura zuten. Hamar almenarik behin



harresiaren zabalera bereko dorreak zeuden, harresiaren barrualdera eta kanpoaldera heltzen zirenak, halatan, non dorrearen albotik pasabiderik ez zegoelarik, erditik pasatzen ziren. Orduan gau euritsuetan almenak utzi eta bata bestetik hurbil zeuden eta teilatutxoa zuten dorreetatik egiten zuten zaintza. Horrelakoxea zen, bada, platearrak inguratzen zituen harresia.

**22.**— Platearrak, prestatu zirenean, gau euritsu, haizetsu eta, gainera, ilargirik gabeko baten zain egon ondoren, hiritik irten ziren; ahaleginaren bultzatzaileak, hain zuzen ere, zihoazen buru. Lehenbizi, inguratzen zituen lubanarroa zeharkatu zuten, gero etsaien harresira inguratu ziren haiek ohartu gabe, ilun egonik ezin baitzituzten ikusi, ezta entzun ere haizearen zaratak haien aurrerakadarena estaltzen zuelako; gainera bata bestearengandik aparte zihoazen armak elkar jo eta etsaiek suma ez zitzen; arinki armatuta zihoazen eta ezkerreko hankan bakarrik zeramaten oinetakoa lupetzan oreka izateko. Orduan almenetara hurbildu ziren dorre arteko tartean, bazekitelako haietan inor ez zegoela, eskailerak zeramatzatenak lehenengo; gero sastakaiz eta halakretaz arinki armaturiko hamabi igo ziren, buru zuten Koreboren seme Ammeas aurren zela; haren ondoren berarekin zihoazenak igo ziren, dorre bakoitzera sei; gero haien atzetik gainerakoek egin zuten aurrera, xabalinez arinki armatuta, zeinei, aurrera errazago egin zezaten, atzeko besteek zeramazkien ezkutuak etsaien aurrera iristean ematekotan; eurentako gehienak goian zirela, konturatu egin ziren zentinelak, platear batek almenari oratzean teila bat bota eta erortzean zarata atera zuelako.

Berehala oihu bat entzun zen eta kanpaturik zegoen armadak harresira jo zuen bat-batean, gau ilunean eta ekaitz harekin ez baitzekien zertan zetzan arriskua; aldi berean hirian gelditu ziren platearrak irten eta beren gizonek igaro nahi zuten aldearen aurrez aurretik jo zioten eraso harresiari, haiei kasurik txikiena egin ziezaien. Kontua da etsaiak zeharo nahasita zeudela eta inor ez zela ausartzen bere jagoletza utzi eta haiei laguntzera joaten, gertaturikoa iruditzeke zailtasunak baitzituzten. Behar izanez gero laguntzera joateko agindua eman zitzaion hirurehuneko taldea harresitik irten zen alarma oihuarekin batera eta suak piztu ziren Tebasi etsaiak han zirela jakinarazteko. Baina hiriko platearrek ere alde z aurretik horrexetarako prestatuturiko su asko piztu zituzten, suen seinaleak ezin ulertuz nahasita ibil zitezen eta, gertatzen zena ez



bezalako beste zer edo zer gertatzen zela uste izanik, harik eta irtenda-ko gizonak ihes egin eta leku segurura heldu arte etor ez zitezen.

**23.**— Bitartean, igaro nahian zebiltzan platearrek, lehenengoak igo eta zentinelak hil ondoren dorreez jabetu zirenean, dorreen pasabideetan kokatuta, ongi zaintzen zituzten laguntza emateko inork erabil ez zitzan, eta, bitartean, eskailerak jartzen zituzten harresitik dorreetara eta gizon gehiago igoarazten zituzten; batzuek, dorreetatik jaurtiketak eginez, goitik eta behetik beren kontra zetozenei oztopoak jartzen zizkieten, eta besteek, gehienek, eskailera asko jarri eta aldi berean almenak erauzi ondoren, dorreen arteko tartetik gainditzen zuten harresia; igaro ahala lubanarroaren ertzean jartzen ziren eta handik geziak eta xabalinak jaurtitzen zituzten, baten bat harresiaren ertzetik pasatzea galaraztera etorritz gero. Denak igaro zirenean, dorreetakoak, azkenekoak izatearren zailtasunez jaitsi zirenak, lubanarrora joan ziren, eta une horretan hirurehunek eraso zieten zeramatzaten lastargien argitan. Orduan platearrek hobeto ikusi zituzten lubanarroaren ertzean ilunetan zeudelako eta beren gezi eta xabalinak haiek agerian zituzten gorputz aldeetara jaurtitzen zituzten; eurak, ordea, gun e ilunean zeudelako ez zituzten hain argi ikusten lastargien eraginez, eta, hartara, azkeneko platearrek ere lehenago zeharkatu zuten lubanarroa, nahiz eta zailtasunez eta borroka egin da, lubanarroan izotz geruza bat egin zegoelako segurtasunez aurrera egiten galarazten zuena, aise urtzen baitzen ekialdeko haizeak jotzen duenean bezala, eta haize horrekin elur arina egitean, ur asko sartu baitzen barrura, eta horregatik ibitik igaro zuten lubanarroa nekez eta pekez; baina ihesa errazago gertatu zitzairen ekaitzaren gogorragatik.

**24.**— Lubanarroak platearrek denek batera ekin zioten Tebasera daroan bideari, Androkates heroia ren santutegia eskuinera utzita, uste zutela-ko etsaien norabidea hartuko zutela haiek azken susmatuko zuten gauza zela, baita ikusten ari zirelako ere peloponesoarrak Atenasara daroan Ziteron eta Drioszefalako bidetik zihoazela euren atzetik lastargiekin. Sei edo zazpi estadiotan platearrek Tebaseko bidetik jo zuten; gero, bira eginez, mendira Eritre eta Hisiarantz daroana hartu zuten eta mendirik mendi Atenasera ihes egin zuten, guztira berrehun eta hamabi gizon zirela, zeren batzuk hirira itzuli baitziren harresia pasa aitzin eta arku-lari bat atxilotu baitzuten kanpoko lubanarroan. Peloponesoarrak nor bere postura itzuli ziren bilaketa amaitutzat jota; hiriko platearrak, gertatukoaz ezer jakin gabe, eguna argitzean heraldo baten bitartez hilak



jasotzeko menia eskatzera joan ziren, baina egia jakitean bertan behera utzi zuten. Horrelaxe salbatu ziren platearrak harresia zeharkatuz.

**25.**– Negu beraren azken aldera, Saleto lazedemondarra bidali zuten trireme batean Lazedemoniatik Mitilenera. Pirrara iritsita eta handik aurrera oinez, hiria inguratzen zuen horma bat gainditzeko modua eskaintzen zuen troka bat ezkutuka zeharkatuz, Mitilenera sartu zen; hango agintariei Atikan inbasio bat egongo zela esan zien, baita lagun-duko zieten berrogei ontzi etorriko zirela ere, eta horrexetarako eta beste xehetasunak atontzeko bidali zutela bera aurretik. Mitilenetarrak adoretu egin ziren eta atenastarrekin akordiora heltzeko uzkurrago jarri ziren. Amaitu zen negu hori, baita Tuzididesek idatzi zuen gerra hone-tako laugarren urtea ere.

**26.**– Hurrengo udan, peloponesoarren, Mitilenera berrogei ontziak igorri ondoren, beren almirantea zen Alzidas buru ipinita, eurek eta euren aliatuek Atika inbaditu zuten, atenastarrekin, eraso biek durduzatuta, Mitilenera zihoazen ontzien kontra errefortzuekin abiatzeko ahalbide gutxiago ukan zitzaizkien; espedizio horren buru Kleomenes zihoan oraindik gazteegia zen Plistoanakteren seme Pausaniasen ordean, hura honen aitaren – Plistoanakteren – anaia baitzen. Lehenago deboilaturiko Atikako aldeak suntsitu zituzten, zerbait erne bazen ere, baita aurreko inbasioetan ukigabe utzitako guztia ere; atenastarrentzat horixe izan zen inbasiorik gogorrena bigarrenaren ostean, zeren peloponesoarren, beren ontzidiaren balentriaren baten berri noiz izango zain zeudenez beti, itsasaldia eginga zutela uste zutelako, aurrera eta aurrera egin baitzuten gehiena suntsituz. Espero zutenetik ezer gertatu ez zenez eta janari falta nozitzen hasi zirenez, atzera egin zuten eta soldadu-talde bakoitza bere hirira abiatu zen.

**27.**– Mitilenetarrak, anartean, ikusirik ontzidia ez zela iristen Peloponesotik, baizik bidean denbora alferrik galtzen ari zela, eta janariak amaitu zitzaizkiela, atenastarrekin akordioa egitera behartuta aurkitu ziren, honexegatik hara: Saletok, ontzien esperantzarik berak ere jada ez zuenez, hoplita gisa armatu zuen lehen arinki armaturik zegoen herria, atenastarrei erasotzeko asmoz; baina herriak, armak hartu ondoren, ez zien buruei esana egin, baizik, batzarrak egin ondoren, aberatsei hazkurriak ikusgai jartzeko eta denen artean banatzeko galdatu zien, eta, bestela eurek, herriak, atenastarrekin akordio bat egin eta hiria entregatuko zietela.





**28.**— Boterean zeudenak herriari hori galarazterik ez zegoela eta akordiotik kanpo geratzen baziren arriskuan geldituko zirela konturatzean, Pakes eta beraren armadarekin akordio orokor bat egitera heldu ziren, zeinaren arabera atenastarrek nahi zutena erabaki ahal izango zuten mitilenetarrei buruz eta mitilenetarrek beren hiriaren barruan onartuko zuten armada; gainera, mitilenetarrek mandataria bidali zituzten Atenasera euren etorkizunari buruz hitz egiteko, eta, haiek etorri arte, Pakesek ez zuen mitilenetarrik atxilotuko, esklabo bihurtuko ez hilko.

Horixe izan zen akordioa, eta lazedemonдарekin izandako tratuetan gehien esku hartu zutenek, zeharo beldurtuta armada sartu zenean, ez zioten beldurrari eutsi, baizik aldareetan babestu ziren, akordioaren klausula alde eduki arren. Pakesek, minik ez okerrik ez egiteko baldintzapean, handik atera ondoren, Tenedos uhartean utzi zituen harik eta atenastarrek erabakia hartu arte. Trirreme batzuk bidalita, Antissaz jabetu zen eta bere armadari buruz egoki ikusi zituen gainerako erabakia hartu zituen.

**29.**— Bien bitartean, peloponesoarrak, zeintzuek berrogei ontziekin berehala aurkeztu behar zuten, atzeratu egin ziren Peloponeso bertako uretan eta itsasaldi guztian astiro ibiliz; hiriko atenastarrak ohartu gabe pasa ziren Delos ukitu arte, eta, handik Ikaro eta Mikonosera hurbiltzean, atenastarrek Mitilene hartua zutela zioen lehen albiste heldu zitzaien. Ziurtasunez jakin nahirik, Enbatonen, Eritra aldean, lehorreratu ziren; Mitilene hartu zutenetik gehien ere zazpi egunera heldu ziren Enbatonera. Berri ziurrak hartuta, egoerari buruz deliberatzen jarri ziren, eta Teutiaplo izeneko elear batek haxe proposatu zuen:

**30.**— «Nirekin batera tropon agintea konpartitzen duzuen Alzidas eta peloponesoarrok, ene iritzia berehala Mitileneren kontra abiatzea da atenastarrek gu non gauden jakin aurretik. Hiri bat hartu berri duen orori gertatu ohi zaion moduan, segurutik oso zaingo urria aurkituko dugu, eta batez ere itsasoz, non ez duten espero inork erasotzerik eta non datzan, hain zuzen, gure indarra; gainera espero izatekoa da haien infanteria axolagabe egotea etxeetan barreiatuta garaile gisa. Beraz, baldin haien gainera bat-batean eta gauez egiten badugu jauzi, espero dut ezen, barrukoen laguntzaz han, bidezko denez, aldekorik gelditzen bazaigu, egoeraren jabe izango garela. Eta ez dezagun atzera egin arriskuaren izenean, zeren gerrako sorpresa motako ekintza halakoxea baita berez.



**31.**– Hitz horiekin ez zuen Alzidas konbentzitu. Beraiekin zihoazen emigratu joniar batzuek eta lesboarrek aholkatzen zieten ezen, arrisku horren beldur zirenez, hiri joniarren baten edo Eoliako Kimeren jabe egin zitezen, hiri hori basetzat erabilita Joniarren altxamendua eragiteko –eta, ziotenez, bazegoen horretarako posibilitatea, zeren inori ez zitzaion gaitzitzen haien etorrera– eta sarrera hori, atenastarrek zuten handiena, kentzeko, eta aldi berean, atenastarrek blokeoetan jartzen bazituzten, haientzat gastu handia izan zedin; uste zuten, gainera, Pisutne ere konbentzi zezaketela gerran parte har zezan. Ez zuen hori ere onartu, eta tinko eutsi zion, Mitilenera berandu heldu zenez gero, Peloponesora ahalik lasterren arribatzeko ideiarri.

**32.**– Enbatonetik itsasoratuz, itsasertzari jarraitu zion, eta, teiarren lurraldeko Mioneson egindako geldialdian, itsasaldian preso harturiko gehienei lepoa moztu zien. Efeso parean aingurutatu zegoela, Aneako samoarren enbaxadoreak heldu ziren, eta esan zioten ez zegoela ongi Heleniarrak askatzeko zuen modua, bere kontra eskurik altxatzen ez zuten gizonak eta etsaiak barik atenastarren derrigorrezko aliatuak ziren gizonak hiltzen zituenean; hori egiten segitzen bazuen, etsai gutxi bihurtuko zitzaiola lagun, eta askoz lagun gehiago, oster, etsai. Alzidasak aintzat hartu zituen haien arrazoiak eta oraindik preso zituen kiota guztiak eta beste batzuk askatu egin zituen, zeren jendea, ontziak ikustean, ihes egin beharrean hurbildu egiten baitzen atikarrak ziren ustez, inondik ere ez baitzuten espero, atenastarrak itsasoaren jaun eta jabe izanik, Joniara ontzi peloponesoarrak arribatzea.

**33.**– Efesotik, azkar nabigatzen eta ihes egiten hasi zen Alzidas, zeren Salaminia eta Paralos trirremeez ikusi baitzuten, oraindik Klarosen aingurutata zegoenean –haiek Atenasetik zetozen–, eta jazarriko zuten beldur itsasaldia itsaso zabalean zehar egin zuen, bere gogoz bederen Peloponeson beste inon ez lehorreratzeko asmoz.

Pakesi eta atenastarrei ere Eritrasetik eta beste leku askotatik heldu zitzaien berria, zeren, Joniak gotorlekurik ez zeukanez, beldurrak jota baitzegoen jendea, kostarik kosta zebiltzala, bertan geratzeko asmorik eduki ez arren, ez ote zuten hirien kontra eraso jo eta arpilaketan jardungo.

Lekuko gisa, Klarosen ikusi baitzituzten, Paralos eta Salaminia ontziek albistea jakinarazi zuten. Orduan Pakesek jartzazeari ekin zion arrapaladan eta Patmos uharteraino jazarri zituen, baina haiek harrapatzerik



ez zuela zirudienez, itzuli egin zen. Itsaso zabalean topatu ez zituenean, bere aldekotzat jo zuen ontziak inon aurkitu eza, hartara ez zuelako kanpamenturik eraiki eta haien zaingoa eta blokeoa antolatu beharrik.

**34.**– Berriro itsasbazterretik itzultzean, Kolofoneko Notion lehorreratu zen, kolofondarren portua berau; Itamenesek eta bere barbaroek –barne liskarrengatik bertara deituak– goieneko hiria hartzean etorri ziren kolofondarrak leku horretara; hiri hori peloponesoarren Atikako bigarren inbasioa burutu zuten aldi bertsean hartu zuten.

Kontua da Notion errefuxiatuak, bertan bizi zirenak, berriro euren arteko borrokan ari zirela; batzuek mertzenarioei deitu zieten, eta Pisutnek bidalitako mertzenario arkadiar nahiz barbaroak aparteko esparru hesituan zituzten, hirigunetik at (eta eurekin batera sartuta hiri goienetik etorritako kolofondar pertsiar zale eta hiritartasun eskubidedunak ere); besteek, horien ezkutuan ihes egin eta erbestaturik zeudenek, Pakesi deitu zioten.

Pakesek Hipias, esparruko akadiarren burua, gonbidatu zuelarik elkarriketak edukitzera, bere proposamena gogoko ez bazuen berriro gotorlekuan onik utziko zuen baldintzapean, Hipias irten egin zen, eta Pakesek zaingopean jarri zuen katez lotu gabe; orduan, bat-bateko eta ustekabeko batean gotorlekua hartu eta barruan zeuden arkadiarrek eta barbaroak hil zituen; gero barrura eraman zuen Hipias, adostu bezala, eta, behin barruan, atxilotu eta gezika hil zuen; Notio kolofondarrei entregatu zien, baina ez pertsiarren lagun zirenei. Geroago, atenastarrek kolonoak bidali zituzten eta Notio euren legeen arabera fundatu zuten, kolofondarrak zeuden hiri guztietatik bertara bilduta.

**35.**– Pakesek, Mitilenera helduta, Pirra eta Ereso bereganatu zituen, eta hirian ezkutaturik zegoen Saleto atxilotu eta Atenasera bidali zuen Tenedosen utzi zituen mitilenetarrekin eta matxinadaren erruduntzat jo zezakeen beste edozeinekin batera. Bere troparik gehienak ere bidali zituen, eta, gainerakoekin geldituta, Mitilenen eta Lesbo osoan ere egoera egoki iritzi zion moduan antolatu zuen.

**36.**– Mitilenetarrak eta Saleto heldu zirenean, atenastarrek segituan hil zuten Saleto, zeinak, besteak beste, peloponesoarrak Plateatik ateratzea eskaintzen zuen (oraindik setioak iraun zirauen).

Mitilenetarrei dagokienez, iritziak kontsultatu ziren, eta berotasunean han zeudenak ez ezik, mitilenetar heldu guztiak ere hiltzea eta haurrak



eta emakumeak esklabotzapean jartzea erabaki zuten atenastarrek, matxinada oro har beraiei leporatuz, inperioaren menpean ez zeudelako gainerako aliatuak zeuden moduan, eta haien berotasuna areagotu egiten zuen peloponesoarren ontziak Joniaraino joatera arriskatu izanak haiei laguntzera, ez baitzuten sinesten matxinada arinki egin zutenik.

Pakesi, bada, trirreme bat bidali zioten beren erabakiak jakinarazteko, mitilenetarrek segituan hil zitzaizkien aginduarekin. Baina biharamunean jada damutu egin ziren, eta konturatu ziren erabaki anker eta ertzekoa hartu zutela: hiri oso bat jo eta akabatzea, errudunak bakarrik akabatu beharrean.

Mitilenetarren enbaxadoreak eta haien alde ziharduten atenastarrak horretaz ohartu zirenean, agintariei eragin zieten erabakia berriro kontsultapean jar zedin; errazago eduki zuten haiek konbentzitzea, beraiek ere argi ikusten zutelako hiritar gehienek berriro deliberatzeko aukera eman zekien nahi zutela.

Batzarra segituan bilduta, azaldu ziren iritzien artean, Kleenetoren seme Kleonek –aurreko batzarrean beraren iritzia, mitilenetarrek hiltzearen aldekoa, nagusitu zen eta, beste zentzu guztietan ere hiritarrik bortitzena izateaz gain, jendea limurtzeko abildade handiena zeukan garai hartan– berriro hitza hartuz honako hau esan zuen:

**37.**– «Maiz egiaztatu izan dut lehenago ere demokrazia ez dela besteak gobernatzeko gai, baina batez ere mitilenetarrei buruz orain erakusten duzuen damuan ikusten dut hori garbi; zeuen artean egunero beldurrik eta intrigarik gabe ari zaretenez, modu berean diharduzue aliatuekin ere, eta haien hitzek limurtuta oker jokatzeari eta errukiak eraginda amore ematean, ez duzue uste belaxkak zaretenik zeuentzako arriskua- rekin eta aliatuen esker onik gabe, ez duzuelako ikusten inperioa tirania moduan eta meneko izan nahi ez duten eta intrigatzen ari diren mene- ko batzuen gain daukazuela eta meneko horiek ez dizuetela men egiten zeuen buruak kaltetuz egiten dizkiezuen mesedeengatik, baizik haien gainetik zaudetelako zeuen indarrari eta ez haien zuenganako zaletasu- nari esker.

«Baina honetan lazgarriena da erabakitzen den ezer ere tinko ez geldit- ztea eta ez konturatzea lege txarragoak baina aldaezinak dituen hiria indartsuagoa dela onak baina baliotasunik gabekoak dituen baina; ez konturatzea ezjakintasuna, moderazioa lagun duela, galgarik gabeko





trebetasuna baino onuragarriagoa dela, eta gizon dorpeek argiek baino askoz hobeto administratzen dituztela hiriak, zeren argiek legeak baino argiagoak direla agertu eta herriari egiten zaizkion proposamenen gainetik gelditu nahi izaten baitute, beren adimen argia gauza inportanteagoetan erakusterik ez balute bezala. Besteek, ordea, beren adimenaz fidatzen ez direnez, legeek baino gutxiago dakitela eta hizlari on baten proposamenak kritikatzeko hain gai ez direla uste dute, eta, lehiakide barik epaile inpartzialak direlarik, garaile ateratzen dira gehienetan.

«Ondorioz, horrelaxe jokatzuz eta trebetasun eta argitasunean inorekin lehian ibili gabe, beharrezko da guk zuei, herriari, geure irizpidearekin ados ez datorren aholkurik ez ematea.

**38.**— «Izan ere, nik neuk iritzi berean segitzen dut, eta erabat harritzen nau jendeak berriro mitilenetarrez hitz egitea eta horrela denbora galtzea proposatu izanak, hori hobendunaren alde baitoa; zeren biktimak haserre motelduagoaz erasotzen baitio errudunari, erantzuna, ordea, hobena egin denetik ahalik lasterren ematen baldin bada, hobenaren neurri bereko mendekua lortzen da; era berean harritzen nau norbaitek niri ihardetsiz agertu nahi izateak mitilenetarren hobenak baliagarri ditugula eta gure hondamenak aliatuen kaltetan direla; argi dago ezen horrelakoa, bere bokantzaz seguru, lehian ariko litzatekeela irmoki erabakita dagoena ez dagoela diktaminaturik erakusten, edo, lukuru gosez, zuek limurtzen saiatuko dela diskurtso engainagarria areagotuz. Hiriak horrelako lehiaketengatik sariak besteei ematen dizkie, eta bitartean bera arriskuekin gelditzen da; errudunak zeuek zarete, lehiaketak behar ez bezala antolatzen dituzuelako, oratoria zaleak eta gertakari-entzuleak zaretelako, geroke jarduerak hizlarien hitz ederrei esker posibletzat aztertzen dituzuelako, eta jada buruturikoak, oster, haiek hitz-edertasunez baloratzen dituzten neurrian, jada egindakoa ikustearren kontatzen entzutearren baino gehiago sinetsi gabe; entzuten denaren orijinaltasunak engainatuta gelditzeko egokienak zarete, baina ez erabakitakoa betetzen segitzeko, ezohikoaren esklabo uneoro, ohikoaren mesprextaizale baitzarete; eta batez ere zuetariko bakoitza ele-eder izateko irrikaz bizi da, eta hori lortu ezean, aipaturikoak bezalako hizlariarekin lehian aritzen zarete, adimen kontuan ulertzen azkenak zaretela inork pentsa ez dezan; are, lehian hizketan ari denaren ateraldiak eta zorrozkeriak txalotzen lehenak izateko, nahiz eta ondorioak aurreikusten oso motelak izan; halaxe esatearren, inguruan daukagunetik ezberdina



datekeen zerbaiten bila ari zarete, orainaldian behar beste pentsatu gabe; itzulingururik gabe, entzuteko plazerak menpean hartuta zaude-te, eta euren herrietako sofisten entzuleen antzekoagoak zarete hiriari buruz deliberatzen duten gizonenak baino.

**39.**— «Hori guztia zuei burutik kentzen saiatuko naiz, eta demostratuko dizuet Mitilene zuei egindako hutsengatik nabarmentzen dela bereziki; nik ulertzen ditut zuen inperioa jasaten ez dutelako edo etsaiek presionatuta matxinatzen direnak, baina gotorlekuz hornituriko uharte batean bizi zirenek, gure etsaien beldur itsasoz bakarrik zirelarik –eta handik ere, trirremeak zituztenez gero, ez zeuden defentsarik gabe haien aurrean–, eta administrazio independentearen, guk goren mailan ohoretuaren, jabe zirenek, egintza horiek burutu zituztenek zer egin zuten besterik, matxinatu barik (matxinatzea bortizkeriaren baten biktima direnei dagokie eta) intrigatu eta eraso baino eta, gure etsairik amorratuenen aldean jarritz, gure galbidea bilatu baino? Hori, jakina, beren boterea areagotu ondoren gerra garbian eurek bakarrik aurre egin izan baligute baino kontu larriagoa da.

«Besteen zorigaitzak ere, desertzioaren ondoren menperatu genituene-nak, ez zituzten erakusbidetzat hartu, eta oraingo oparotasunak ere ez zieten arriskutik ihes egitera eragin, baizik, etorkizunean uste osoa jarrita eta, euren ahalbideen gainetik baina euren gurarien behetiko itxaropenekin, gerra abiarazi zuten, indarra justiziaren aurretik ipinita, irabaziko zigutela uste izan zutenean, guk aurretik haien kontrako bidegabekeriarik egin gabe eraso baitziguten.

«Batez ere denbora labur-laburrean oparotasuna iristen zaien hiriak erortzen dira harrokerian (giza arrakastak asko seguruagoak dira kal-kuluaren ondorio direnean, ustekabekoak direnean baino eta, nolabait esateko, errazago da zorigaitza aldaratzea oparotasunari eustea baino); mitilenetarrei ez geniekeen egin behar besteei baino abegi hobea, eta orduan ez ziratekeen hain harro bihurtuko, berezkoa baitu gizakiak, batez ere gizonak, lausengaria mespretxatzea eta amorerik ematen ez duena mirestea.

«Eman iezaiezue, bada, orain euren hutsegiteari dagokion zigorra eta ez bota oligarkei errua eta herria absolbitu, denek neurri berean eraso zizutenez gero, zeren zuekin elkartzeko eta orain berriro beren hirian egoteko aukera izan zuten eta; baina oligarkekin bat eginda arriskua seguruagoa izango zela pentsatuta, haiekin bat egin zuten huts ematean.



«Etsaiek presionatuta desertatzen dutenei eta eurek nahita egiten dutenei zigor bera ezartzen baldin badiezue, nork, uste duzue, ez du motibo txiki bategatik desertatuko, garaile ateratzen bada askapena lortuko baitu eta porrot eginez gero ez baitu erremediorik gabeko ezer sufritu beharko? Guk, oster, geure biziak eta baliabideak arriskatuko ditugu hiri bakoitzaren aurrean, eta, zortea alde izanda, hiria, suntsituta, hartzen baldin baduzue, aurrerantzean galdu egingo ditugu harengandiko sarrerak, gure indarraren arrazoia; baina porrot egiten baldin badugu, lehengo etsaiei haiek gehitu beharra izango dugu, eta gure oraingo etsaiei aurre egiten erabili behar dugun denbora geure aliatuekin borrokatzen erabiliko dugu.

**40.**— «Ondorioz, ez zaie eman behar, gizaki legez erratu egin direla eta, ele-edertasunez lorturiko edo diruz erositako barkamena lortzeko aukearik, zerren kalte ez ziguten euren nahiaren kontra egin, baizik kontzienteki jardun zuten azpikerietan; eta barkatu, konturatu gabe egindakoa egiten da.

«Hitz batez, nik, orduan eta orain, zeuen aurreko erabakiak alda ez ditzazuen eta inperio bati gutxien komeni zaizkion hiru gauzetan, hots, errukian, bokantzaren plazerean eta barkaberatasunean, nahasi ez zaitzen segitzen dut borrokan. Errukiari dagokionez, bidezko da errukiaz erantzutea geu bezalaxe portatzen direnei, baina ez portaera berdina itzuliko ez digutenei, eta horiek ezinbestez etsai moduan gelditzen dira betiko. Euren ele ederrez gozarazten duten hizlariak izango dute betarik garrantzi txikiagoko gaitan elkarren lehian ibiltzeko, eta ez hiriari gozamen labor baten truke kalterik handienak ekarriko dizkioten auzietan, eurek, ordea, horretan onura hartuko dutelarik euren bokantzagatik. Barkaberatasuna etorkizunean ere lagun izango direnekin erabiltzen da, eta ez lehen bezainbesteko etsai gelditzen direnekin.

«Gauza bakar bat, laburbiltzeko: nire proposamena aintzat hartzen baduzue, bidezkoa dena, eta aldi berean komenigarria dena, egingo duzue mitilenetarrekin; baina bestela erabakitzen baduzue, besteek ez zaituzte begi onez ikusiko eta badaezpadakotzat geldituko zarete, zerren horiek arrazoiz altxatu izan balira, zuek inperioa bidegabeki zenerabiltelako litzateke. Baina, gisakoa ez balitz ere, inperioari eustea erabakitzen baduzue, itxurosoa dena albo batera utzita eta komenentziagatik, zigortu egin behar dituzue, edo bestela inperioa utzi eta euren aurrean pertsona ontzat gelditu arriskueta sartu barik.



«Bidezkotzat eduki ezazue haiei zigor berarekin erantzutea eta eskapatu duzenok zeuen aurka konspiratu zutenak baino atsekabetuago ez agertzea, haiek, eurak irabaztera, zuekin egingo zutena gogoan izanda eta batez ere kalte egiten lehenak izan zirela kontuan hartuta; hain zuzen ere, motiborik gabe txarkeriak egiten dituztenek suntsiduraraino heltzen dira, bizirik dirauen etsaiaren baitan dagoen arriskua aurreikusten dutelako; mina edo kaltea motiborik gabe hartzen duena, izan ere, ihes egitea lortuz gero, norberaren pareko etsaia baino gogorragoa baita.

«Horregatik, ez zaitezte zeuen buruekiko traidore izan, baizik, gertaerak jazo zirenean sentitzen zenutenera ahalik gehien hurbilduz eta ororen gainetik haiek menperatzea nahi izan zenutela gogoratu, erantzun orain uneko zirkunstantziengatik belaxkatu gabe eta behiala inguratu gintuen arriskua ahantzi gabe. Zigortu horiek merezi duten moduan eta erakusbide argia jarri aliatuentzat: matxinatzen dena heriotzara kondenatua izango da. Hori baldin badakite, gutxiago borrokatuko duzue zeuen aliatuekin, etsaiak kontu egin gabe utzita».

**41.**– Horrelaxe mintzatu zen Kleon. Haren ostean, Eukratesen seme Diodotok, zeina aurreko batzarrean hain zuzen ere mitilenetarrak hiltzearen aurka zorrotzen mintzatu zen, orduan ere hitza hartuz, hauxe esan zuen:

**42.**– «Ez ditut gaitzesten mitilenetarrei buruz beste eztabaida bat proposatzen dutenak, ezta gai nagusiez maiz deliberatzea kritikatzten dutenak goresten ere, baizik uste dut deliberamendu on baten ezin aurkago dauden gauza biak agudotasuna eta grina direla, horietako batak amorru bizia eta besteak ezagutzarik eza eta ikuspegi moztasuna izaten dituztelarik lagun.

«Hitzak ekintzaren irakasle izan ez daitezen borrokatzen duenak edo babo hutsa da edo interes pertsonalen bat dauka; baboa, baldin uste badu etorkizun dena eta argi ez dagoena beste moduren batean esplika daitekeela; interes pertsonalen bat daukana, baldin, desondragarri den zerbaitez konbentzitu guran, uste badu ohoragarri ez den zerbaitez ezin litekeela ongi mintza, baina gezurra behar bezala erabilia kontra irten-dakoak eta entzule dituenak nahasi litzakeela.

«Baina are gogorragoak dira norbait bere proposamenak diruagatik egiteaz akusatzen dutenak, zeren ezagutza faltaz akusa balezate, konbentzitzea lortuko ez zukeenak desonesta barik dorpea dela emanda egingo luke atzera; baina, onestasan falta egotziz gero, konbentzitzea lor-





tzen badu, susmagarri bihurtzen da, eta lortzen ez badu, dorpez gain, desonest bihurtzen da. Hiriak ez du horrelako jarreatik onurarik jasotzen, zeren beldurrez bere aholkulariak galtzen ditu eta; eta oso zorioneko litzateke horrelako hiritarrak hitz egiteko gaitasunik gabe geratu-ko balira, ez luketelako hiria egindako errakuntzez konbentzituko.

«Hiritar onak hizlari hobe delako erakutsi behar du, ez besteei beldurra sartuz mintzatzen delako, baizik baldintza beretan mintzatzearren; eta hiri zentzudunak ez dizkio ohore berriak luzatu behar aholku on asko ematen dituenari, baina ezta emandako ohoreak kendu ere; eta bere proposamenetan arrakastatsu ez dena inola ere ez du zigortu behar, ezta begirunerik gabe tratatu ere. Hartara, arrakastatsuak inola ere ez luke proposamenik bere sentieraren kontra eta ohore are handiagoak merezitzeko besteei eder egiteagatik egingo, eta, era berean, arrakastarik gabekoak ere ez luke joko mesedeen bidez herria berarenganatzen saiatzera.

**43.**— «Baina guk kontrakoa egiten dugu, eta, areago, baldin susmatzen bada norbaitek, proposamenik onenak egin arren, irabazi-asmoz egiten dituela, begi txarrez begiratzen diogu egiaztatu gabeko ustelkeria egotziz, eta hartara hiria begi-bistako zerbitzu baliotsu batez gabetzen dugu. Zenbait kasutan, proposamen onek, itzulingururik gabe aurkeztuek, ez dute sortarazten txarrek baino susmo gutxiago, halatan, non ideiarik izugarrienen ona sinestarazi nahi dutenak herria engainuz berenganatzen saiatzen diren, proposamenik onenak egiten dituenak gezurrak esanda fidagarri agertzen saiatzen den bezalaxe.

«Hiri hau, bihurria delako, engainatu gabe onik egin ezin zaion hiri bakarra dugu, zeren, publikoki onik egiten bazaio, hori egin duenak moduren batean eta inork ikusi gabe gehiago aterako duela susmatzen baita.

«Gainera, kontuan izan behar da ezen, gai nagusietan ari garenean, baldintzapen horiekin ere, guk geure proposamenak zuen helburu motzetatik haratago eramanez egin behar ditugula, batez ere geure proposamenen erantzule garelako, eta zuek, ordea, ez zarete zeuen onarpenaren erantzule, zeren, baldin limurtzen duenak eta onartzen duenak zigor berbera hartuko balute, sen handiagoz erabakiko baitzenukete; baina orain, noizbait porrot egiten baduzue, limurtu zintuztenaren irizpidea bakarrik zigortzen duzue, sekula ere ez zeuena, asko izan baziren errakuntzan bat egin zutenak.



**44.**– «Nik mitilenetarren auzian ez nuen hitzik hartu ez haien aurka jotzeko ez haiek akusatzeko, zeren, zentzudunak bagara, gure eztabaidak ez luke izan behar haien hobenez, baizik gure ebazpenaren zuzentasunaz. Mitilenetarrak bidegabekeria handien egile legez aurkezten baldin badizkizuet, ez dizuet horregatik hil ditzazuen eskatuko, interesatzen ez baldin bada; eta, barka diezaiogun arrazoiaren bat dutela azaltzen badizuet, horrek ez du esan nahi hargatik haien bizia barkatzea, hori egitea hiriarentzat onuragarri ez dela demostratuko balitz argiro.

«Uste dut guk geroari buruz orainari buruz baino gehiago deliberatu behar dugula, eta horixe azpimarratzen du bereziki Kleonek ere, geroari begira haiek heriotzara kondenatzea komeni zaigula, huts emate gutxiago gerta dadin; nik, hark bezala etorkizuneko interesak kontuan hartuta, kontrakoa deritzot, eta zuek haren proposamen engainagarrien ondoan nireen baliagarritasuna ez ukatzea nahi dut, zeren mitilenetarren kontra orain duzuen haserre biziak hala ikustarazita haren arrazonomenduari bidezkoagoa iriztea normala denez gero, behar bada haren iritzira eramango zaituzte; baina gu ez gabilta auzitan haien kontra justizia galdatzeko, baizik baliagarri izan dakizkigun lortu nahirik ari gara haiei buruz deliberatzen.

**45.**– «Egia da hirietan heriotza zigorra dagoela jarrita mintzagai darabilguna bezain larriak ez diren delitu txikiago askorentzat; hala ere, jendea, esperantzak bultzatuta, arriskatu egiten da, eta inoiz ere ez da arriskura abiatu bere burua antolaturiko ekintzan porrot egitera kondenaturik ikusi duen inor. Zein hirik, matxinatzean, burutu zuen bere ahalegina beharrezkotzat zituen baino bere edo aliatuen indar eta baliabide gutxiagorekin? Denek, banaka edo taldean, jokutzen dute oker, eta ez da hori galaraziko duen legerik, gizonak zigor larritik larriagora joan direnez gero, gaizkileengandik bidegabekeria gutxiago jasotzea lortu nahian. Pentsatzekoa da antzina txikiagoak izango zirela delituri inportanteengatik penak, baina legeak hausten zituztenez, penarik gehienak azkenerako heriotza zigor izatera heldu dira; eta, hala ere, hautsi egiten dira legeak. Orduan, edo beldur beldurgarriagoren bat topatzen da, edo aipaturiko horrek behintzat ez dio inori atzera eragingo; aitzitik, txirotasunak, beharraren aurrean ausartzia emanez, oporatasunak, harrokeria eta astinkeriagatik anbiziara bultzatuz, eta grinarekin batera doazen beste giza zirkunstanziek, beraietako bakoitza indartsuagoa eta ekidiezina den beste zerbaitek menperatzen duen neurrian,



arriskura bultzatzen dute. Eta uneoro, esperantzak eta desirak, bata gidari bestea laguntzaile, bata eraso planifikatuz besteak zortearen laguntza bermatuz, oker handia egiten dute, eta, ikustezinak izan arren, begi-bistako arriskuak baino indartsuagoak dira.

«Zortekak, haiei itsatsita, zirikaldia areagotzen du ez gutxi, zeren batzuetan, ustekabeen bere laguntza ematean, arriskura bultzatzen baitu bitarteko ahulegiak eduki arren ere, eta ez gutxiago hirien kasuan, gauzarik inportanteena, hots, askatasuna edo besteen gaineko aginpidea, jokatzen den neurrian, eta bakoitzak besteekin dagoenean bere burua handiagotzat edukitzen duelako arrazoirik gabe. Itzulgingururik gabe esanda, ezinezkoa da, eta gainera jende arrunt inozoena, uste izatea giza izaera, zerbait egitera gartsu jotzen duenean, handik aparta daitekeela, dela legeen indarrez edo bestelako beldurren baten eraginez.

**46.**– «Beraz, ez dugu hartu behar erabaki okerragorik heriotza zigorra bermetzat erabilita, ezta matxinatuen etsipena eragin ere, damutzerik eta euren hutsa epe labur-laburrean kitatzerik izango ez dutela sinestaz.

«Pentsa ezazue ezen orain, hiri matxinaturen bat konturatzen bada ez duela arrakastarik izango, balitekeela akordio batera heltzea gerrako gastuak ordaintzeko eta etorkizunean zergak pagatu ahal izateko adina baliabiderekin; baina beste era horretara, nor, uste duzue, ez da prestatuko orain baino hobeto eta ez du setioa ahalik gehien luzatuko, baldin berandu zein agudo ituntzeak berdina balio badu? Eta guretzat nola ez da izango, bada, okerra akordiorik ez egitearren setioan dirua gastatzea, eta hiri hartuz gero ere, hiri suntsitu bat berreskuratzea eta aurrerantzean harengandiko sarrerarik gabe gelditzea? Horrexetan datza etsaien aurrez aurre daukagun indarra.

«Horregatik, ez dugu geure burua kaltetu behar oker jokatu zutenen epaile zorrotz bihurtuz, baizik ondo begiratu nola, hiriak neurritz zigor-tuta, erabili ahal ditugun beraiegangandik baliabideak eskuratzeko moduan; eta legeen beldurrez barik geure ekintzak kontuz erabiliz jagon behar ditugu. Horren kontrakoa egiten dugu, baldin, hiri libre bat menperatzen dugunean eta hura, indarrez apalarazita egonik, espero izatekoa den moduan independentzia bila altxatzen denean, zigor gogorra ezarri behar zaiola uste badugu; ez da gogor zigortu behar banantzen saiatzen den hiri libererik, baizik hiriok, horretan ahalegindu aurretik, kontu handiz jagon eta horretan pentsatu ere egin ez dezaten neu-



rriak hartu eta, behin menderatzen ditugunean, ahalik erreklamaziorik gutxien egin.

**47.**– «Pentsa ezazue, Kleoni kasu eginez gero, noraino erratuko zinateketen honako honetan: orain herria zeuen zale duzue hiri guztietan eta, edo ez da oligarkekin batzen desertzioan, edo horretara behartuta aurkituz gero, berehala bihurtzen da desertoreen etsai, eta aurre egiten dizuten hiriko herria zeuen aliatu izanik zoazte gerrara. Mitilenetarren herriari, huts ematean parte hartu ez zuenari eta armen jabe egin zenean hiria bere kabuz entregatu zuenari, bizia kentzen badiozue, lehenik bidegabekeria handia egingo duzue ongile batzuk hilda eta, gainera, handi-mandiei nahien duten mesedea egingo diezue, zeren, hiriak matxinatzen saiatzean, segituan izango dute herria aliatu, zeuek aldarrikatzen duzuelako zigor bera dagoela huts egiten dutenentzat eta hutsik egiten ez dutenentzat.

«Beharrezko da –errudunak balira ere– ez direla inkariotzea, oraindik aliatu dugun bakarra etsai bihur ez dakigun. Eta inperioaren iraupenerako honako hau askoz komenigarriago iruditzen zait: gu geu bidegabekeriaren biktima atseginez izatea, hil behar ez ditugunak bidezki hil baino lehenago; eta Kleonek esandakoa, hots, zigorra bidezkoa bezain komenigarria zela, nire arrazoibidean ezinezkoa da aldi berean gertatzea.

**48.**– «Nire proposamenak hobeak direla jakinda eta errukiari eta bar-kaberatasunari Keonek baino leku handiagorik eman gabe, neuk ere ez baitut onartzen zuek horien mende jokatzea, neure kontseiluak besterik gabe kontuan hartuta, egidazue kasu: epai itzazue baretasunez Pakesek erruduntzat jota bidali zituen mitilenetarrak eta utz besteei aurrerantzean ere bertan bizitzen.

Etorkizunerako onurak dira horiek, eta etsaiak beldur izateko moduko motiboak, zeren behar bezala deliberatzen duena indartsuagoa baita etsaien aurrez aurre, bere indar guztiekin eraso e roki jotzen duena baino».

**49.**– Horrelaxe hitz egin zuen Diodotok. Elkarren aurkakoenak ziren iritzi horiek azalduta, atenastarrek zer erabaki ez zekitela eta botaketan ia berdinduta gelditu ziren arren, Diodotoren iritzia atera zen nagusi.

Berehala beste trirreme bat bidali zuten arrapaladan, aurrekoa lehengo heldu eta hiria suntsituta aurki ez zezan; egun bat eta gau bateko





abantaila zeramakion gutxi gorabehera. Enbaxadore mitilenetarrek ontzirako ardoa eta irina prestatu eta saririk handienak agindu ondoren lehenago heltzen baldin baziren, hain lehiatsu nabigatu zuten, non ardo eta olio oraturiko irina jaten eta aldi berean arraunean jo eta ke zihoa-zen, eta batzuek lo egiten zuten bitartean besteek arraunean gogor. Zorionez, haizerik kontra ez zuten eta aurreko ontzia presarik gabe zihoanez urduritasunik gabeko mandatuan, eta bestea, ordea, esan bezala arrapaladan, lehenengo ontzia Pakesek dekretua irakurri eta erabakiak betetzera abiatzeko adinako tarteaz heldu zen doi-doi bestearen aurretik, eta bigarrena haren atzetik lehorreratu zen eta suntsipena gauzatzea eragotzi zuen. Horrelakoxe arrisku mailara iritsi zen Mitilene.

**50.**– Huts ematearen errudun nagusitzat Pakesek bidali zituen gainerako gizonei dagokienez, atenastarrek hil egin zituzten Kleonen iritzia-ri jarrai –mila eta gutxi gehiago ziren–, Mitileneko harresiak suntsitu zituzten eta haien ontziak berenganatu.

Gero ez zieten zergarik ezarri Lesboarrei, baizik haien lurra, Metimna-koa izan ezik, hiru mila lursailetan zatitu zuten, hirurehun zati sagara-tu jainkoentzat gorde eta besteetara lursail-jabe moduan euren hiriko jendea bidali zuten, zotz eginda ateratakoa; lur-saileko urtean bi mina horiei ordainduta, Lesboarrek beren lurrak lantzen jarraitu zuten. Ate-nastarrak mitilenetarrek kontinentean zituzten gotorleku guztiez ere jabetu ziren eta gero Atenasen mende gelditu ziren. Horrelaxe jazo ziren gertaerak Lesbon.

**51.**– Uda berean, Lesbo konkistatu ondoren, atenastarrek, Nizeratoren seme Niziasen burutzapean, espedizio bat egin zuten Megararen aurrez aurre dagoen eta megararrek bertan dorre bat eraikita talaiia moduan erabiltzen zuten Minoa uhartearen kontra. Niziasek atenastarrek jago-letza lanak handixek egitea nahi zuen, hurbilagotik, eta ez Budoro eta Salaminatik, eurak konturatu gabe peloponesoarrak itxasoratu ez zite-zen aurrekoan bezala trirremeen espedizioetan, edo piratenetan, eta gai-nera megararrei merkantziarik hel ez zekien itsasoz. Orduan Nisea aldetik itsasorantz sartuta zeuden bi dorre okupatu zituen lehenbizi eta, kontinentearen eta uhartearen arteko pasabidea segurtatu ondoren, kon-tinente aldea horma batez isolatu zuen, handik paduraren gainetiko zubi batean zehar heltzen baitzitzaion laguntza kontinentetik oso urrun ez zegoen uharteari. Egun gutxiren buruan hori egin ondoren, uhartean gotorleku bat bere goarnizioarekin utzi eta alde egin zuen armadarekin.



**52.**— Uda horretako garai bertsuan, platearrak, jada elikagairik gabe eta setioari eutsi ezinik zeudelarik, peloponesoarrekin akordiora heldu ziren honako era honetan: peloponesoarrek haien harresiei eraso zieten eta haiek ez ziren atzera eragiteko gauza; baina komandante lazedemondarrak, haien makaltasunaren berri izatean, ez zuen indarrez hartu nahi izan hiria —zeren Lazedemoniaren agindua baitzuen horixe egiteko, zertarako eta, baldin atenastarrekin su-etenera heltzen baziren eta alde bakoitzak gerran konkistaturiko plaza guztiak itzultzeko akordioa egiten bazuten, Platea itzuli beharrik egon ez zedin, euren aldera bere borondatez pasatakoa izateagatik—, baizik heraldo bat bidali zien haiei esateko ezen, lazedemondarrei hiria entregatu eta beraien epailetzapean jarri nahi bazuten, beraiek errudunak bakarrik zigortuko zituztela, baina inor ere ez bidegabeki. Heraldok horixe bakarrik jakinarazi zien eta haiek —makal baino makalago baitzeuden— entregatu egin zuten hiria.

Peloponesoarrek jaten eman zieten platearrei egun batzuetan, harik eta Lazedemoniatik bost epaile etorri arte. Heldu zirenean ez zieten inolako akusaziorik egin, baizik judiziora deitu ondoren bakar-bakarrik galdetu zieten ea gerra hartan lazedemondarrei eta beraien aliatuei zer-bitzurik egin zieten; haiek zabalago hitz egiteko baimena eskatuz erantzun zieten eta Asopolaoren seme Astimako eta lazedemondarren proxeno zen Eimnestoren seme Lakon izendatu zituzten eledun; hitza hartuta haxe esan zuten:

**53.**— «Hiria entregatu genizuen, lazedemondarrok, zeuengan fidatuta, horrelako judizioaren pean jarriko gintuzuenik pentsatu gabe, arauen araberakoa izango zela uste baikenuen; ez genukeen onartuko zeuek ez zinateketen beste ezein epaileren aurrera aurkeztea, orain gauden moduan, judizioa horrelaxe izango zela inpartzialagoa uste genuelako. Orain, baina, beldur gara ez ote garen oker egon puntu biotan: susmatzen dugu, eta arrazoiz, penarik handienerako izan daitekeela judizioa eta badaitekeela zuek epaile inpartzialak ez izatea, eta hori alde z aurretik erantzun beharreko akusaziorik ez egotetik —geu izan ginen hitz egitea eskatu genuenak— eta zuen galderaren laburretik ateratzen dugularik, galdera horri egiaz erantzutea geure kontra doalarik, eta gezurra ezeztagarria delarik.

«Ikuspuntu orotatik daukagun zailtasunaren aurrean, beharturik aurkitzen gara, eta seguruago dirudi, hitz egiteak dauzkan arriskuei aurre



egitea, zeren esan gabe geratuko litzatekeenak gure egoeran daudenei euren burua gaitzesteko motiboa emango lieke, esan izan balitz salbazioa ekarriko zukeen ustetan.

«Besteak beste, zuek limurtzea ere zail gertatzen zaigu, zeren, elkar ezagutuko ez bagenu, ezagutzen ez duzuenaren lekukotasunak ekarritik abantailaren bat izango genuke; baina kontua da dena azalduko dela dakien jendearen aurrean eta beldur gara, baina ez, gure meremezi-menduak zuenak baino urriagoak direla uste izanik, hori gaitzespenzat ez ote duzuen edukiko, baizik beste batzuei eder egiteagatik jada erabakitako judizio batera aurkeztuko ez ote garen.

**54.**— «Hala eta guztiz ere, tebastarrekin izandako eztabaidaren eta gure zuekiko eta gainerako aliatuekiko jarreraren justifikazioa aurkeztearekin batera, geure alde onak gogoratuko ditugu eta zuek konbentzitzen saiatuko gara.

«Gerra honetan lazedemonдарrei eta beraien aliatuei zerbitzurik egin ote diegun jakin nahirik egin diguzuen galdera laburrari ihardesten diogu ezen, galdera etsaiak bagina bezala egiten badiguzue, zuek ez zinetela bidegabeki tratatuak izan gure mesedeak ez hartzean, eta laguntzat bagauzkazue, berriz, justiziari huts handiagoa egiten diozuela zeuek, erasotzen diguzuenok. Ongi jokatu dugu bakean eta mediarren aurrez aurre, eta gu ez gara izan aurrenak orain bakea urratzen; eta mediarrei dagokienez, geu izan ginen Heladeren askatasunaren alde zuekin elkartu ginen beoziar bakarrak.

«Lehortarrak izan arren, parte hartu genuen Artemisioko itsas batailan, eta gure lurraldean borrokatu zenean zeuen eta Pausaniasen aldean izan ginen; garai hartan Heladerentzat beste arriskurik egon baldin bazen, hantxe izan ginen gu geure indarren neurrian parte hartuz. Eta bereziki zuei, lazedemonдарroi, hilotak, lurrikararen ondoren, Itomera atzera egitean Esparta izurik latzenaren mende gelditu zenean, geure tropen herena bidali genizuen laguntzera, eta ez dago ondo hori ahanzte.

**55.**— «Iraganeko gertakari garrantzitsuetan horrelaxe jokatzearabaki genuen, baina etsai egin ginen gero; zeuek zarete errudunak, zeren, tebastarren indarkeriaren biktima ginela aliantza eskatu genizuenean, ezezkoa eman zeniguten eta atenastarregana joateko esan zeniguten, hur genituela eta, zuek, oster, urrun bizi zinetela. Hala ere, gerran ez zenuten ezer desitxurosorik jasan gugatik. Baldin, zuek eskatu zenigutenean, atenastarregandik banantzerik nahi izan ez bagenuen, ez



genuen inolako hutsik egin, zeren haiek lagundu egin ziguten tebas-  
tarren kontra zuek ezetza eman zenigutenean, eta ez zegoen ondo  
haiei traizioa egitea, batez ere haien mesedeak hartu, geuk eskatuta  
geure aliatu bihurtu eta gu euren hiritartasunaren partaide egin eta  
gero, eta, horregatik, espero izatekoa zen guk haien eskariei baiezkorik  
beroena ematea. Alde borrokalari bakoitzak zeuen aliatuak era-  
manda burutzen dituzuen ekintza eta eginkizunei dagokienez, ez dira  
errudun zuei jarraitzen dizuetenak, baizik gauza desagokietara bul-  
tzatzen dituztenak.

**56.**— «Tebastarrek irain eta eraso asko eta askotarikoak egin zizkiguten,  
eta zeuek ere ezagutzen duzue azkenekoa, hain zuzen ere gu egoera  
honetan aurkitzearen zergatia dena, zeren, haiek gure hiriaren jabe egi-  
ten saiatu zirenean itunak indarrean zeudela eta gainera jaiegunean,  
arrazoiz zigortu baikenituen edonon dagoen legearen arabera, zeinaren  
indarrez zilegi baita erasoka datorren etsaiarengandik defendatzea, eta  
orain, arrazoirik gabe, ezbeharra letorkiguke haien erruz.

«Justizia oraingo zuen onaren eta tebastarrek diguten etsaitasunaren  
arabera aplikatzen baduzue, argi geldituko da ez zaretela zuzena dena-  
ren atzetik zabiltzaten epaileak, zeuen interesei begira ari zaretenak bai-  
zik. Baina orain horiei baliagarriak baderitzezue, askoz baliagarriago-  
ak izan ginen gu eta beste Heleniarrak, zuek arrisku handiagoan egon  
zinetenean, zeren orain zeuek baitzarete erasoka zabiltzatenak eta bes-  
teak beldurraztzen dituzuenak, baina atzerritarak denoi esklabotza  
ezarri nahi zigun hartan, horiek haren aldean egon ziren, eta bidezkoa  
da orduko gure adorea gure oraingo hutsegitearen gainetik jartzea,  
hutsegiterik izan badugu; ikusiko duzue lehenengoa –adorea– bigarre-  
na baino handiagoa dela, eta Heleniar adorea neurri batean ere Xerxe-  
sen botereari kontra egiten jartzea gauza bakana zen uneetan gorai-  
patuak izan ginela, inbasioaren aurrean norbere segurtasunari begira nor-  
bere interesen arabera jokatzeko zutenak barik, arrisku artean ausartzia  
ederrenetarako prest zeudenak izanik.

«Horietarikoak izan ginenok eta ohorerik handienak hartu genituenok  
beldur gara orain portaera berdinatik garbituko ez ote gaituzten,  
geure probetxurako zuek baino lehenago atenastarrak bidezki aukeratu  
izanagatik. Antzeko egoeretan, alabaina, antzeko erabakiak hartu behar  
dituzue, eta uste izan behar duzue, zeuen aliatu onei esker on iraunkor-  
ra segurtatzen diezuenean, zeuen interesa erdiesten ari zaretela.





**57.**— «Pentsa ezazue, gainera, orain Heleniar askok gizontasun eredutzat zaituztela, baina orain gurekiko bidegabeki jokutzen baduzue (eta judizio hau ez da oharkabe pasako, zuek gaitzespenik merezi ez dugunon epaile goraipagarriak baitzarete), kontuz ibili, zeren agian jendeak ez baitu onartuko gizon adoretzu batzuei buruz are adoretzuagoak zaretenok desegokia den zerbait erabakitzea, ezta gugandik, Heladeren ongi-leongandik, erdietsitako harrapakinak denon santutegietan sagaratzea.

«Izugarria iritziko dio jendeak Lazedemondarrek Platea suntsitzeari; haien gurasoek hiri hori bere adoreagatik Delfoseko tripodean irarri ondoren, zuek, tebastarren erruz, Heleniar mundutik erabat ezabatzea.

«Horrexenbesteko zorigaitzera heldu gara, mediarra garaile ateratzera, bizia galduko genukeenok, eta orain zuen aurrean, gure lagunik onenen aurrean, tebastarren atzetik jarriak gara eta bi proba handiagori aurre egin beharrean aurkitzen gara: arestian, hiria entregatu ezean, gosez hiltzeari, eta orain heriotz zigorreko judizio bati.

«Platearrok, Heladeren alde geure ahaletik gorako entrega erakutsi ondoren, denek arbuiatu gaituzte eta bertan behera eta laguntzarik gabe utzi; ez digu laguntzarik ematen orduko ezein aliatuk, eta zuek ere, lazedemondarrok, gure esperantza bakarra zaretenok, babesik emango ez diguzuen beldur gara.

**58.**— «Hala ere, behinola gure aliantzaren bermatzaile izan ziren jainkoengatik eta Heladeren alde erakutsi genuen adoreagatik eskatzen dizuegu malguak izan eta iritziz alda zaitezte, baldin neurriren batean tebastarrek limurtu bazintuzteten; eskatzen dizuegu, halaber, haiei erreklamatzeko gu ez hiltzeko mesedea, hilez gero zuentzat desohorea litzateke eta, hartara laidogarritzat barik ohoregarritzat onartuak izateko, eta gainera zitalkeria ez leporatzeko inori eder egiteagatik; izan ere, guri bizitza kentzea berehala egiten da, baina nekeza da horrek sorturiko izen txarra ezabatzea, zeren ez baikaituzue, espero izatekoa den moduan, etsai bezala zigortuko, gerran sartzerako beharturiko lagun bezala baizik. Beraz, gure biziak segurtatzean jainko legeen arabera epaituko zenukete, kontuan izanda, halaber, geuk hala nahita eta geuk eskuak luzatuta atxilotu gintuzuela —Heleniarrek horrelako egoeran ez hiltzea dute arau— eta, gainera, beti zuen ongile izan garela; izan ere, begira itzazue zeuen gurasoen hilobiak pertsiarrek hil ondoren gure lurraldean ehortzita; jendaurrean ohoratzen genituen guk haiek urtero erritualeko arropa eta gainerako opariekin eta gure lurrak sasoian ematen



duen guztiaren hasikinak eskainiz; hori geuk, beraien lagunek, egiten genuen lur adiskide batean fruituak bilduz, geuk, beraien aliatuek, behinola haien lagun izandakoen ohoretan; horren kontrakoa egingo zenukete, zuzen erabakiko ez bazenute.

«Azter ezazue honako hau: Pausaniasek hantxe enterratu zituen, lur adiskidean eta horrelakoxe tankerako gizonen artean uzten zituela uste zuelako; baina hilko bagintuzue eta lur platearra tebastar bihurtuko bazenute, zer egingo zenukete zeuen guraso eta ahaideak lur etsaian eta euren eraileen artean utzi besterik, orain dituzten ohoreez gabeturik? Gainera Heleniarrak aske izatea lortu zuten lurra esklabo bihurtuko duzue, pertsiarrek azpiratzeko haien errezoak entzun zituzten jainkoen santutegiak hutsik utziko dituzue eta santutegiak eratu eta fundatu zituztenen sakrifizio tradizionalak betiko kenduko dituzue.

**59.**– «Hori ez doa zuen loriaren alde, ezta Heleniarren arau nagusiei eta zeuen arbasoei huts egitea ere, ezta guri, zeuen ongileei, guk zuei inolako okerrik egin gabe eta inoren etsaitasunagatik, bizia kentzea ere; zuen loriaren alde guri barkatzea eta iritziz aldatzea doa, erruki burutsua erabiliz, jasan beharko genukeenaren ankerkeria ez eze, biktimen kalitate ona gogoan izanda, baita ezbararra, merezi ez arren ere, noren-gana eroriko den auresaterik ez dagoela ere.

«Guk, dagokigun bezala eta derrigorrek behartuta, aldare beretan dau-den eta Heleniar guztienak diren jainkoei limur zaitzatela erregutuz eskatzen dizuegu; zuen gurasoek egin zituzten zinak ez ahanztera dei eginez, erregutzaila gisa jartzen gara haien hilobien aurrean eta zenduei eskatzen diegu inola ere ez onartzeko gu inork ere tebastarren menpean jartzea eta euren lagunik onenak garenok etsairik gaiztoenei entregatzea; eurekin batera balentriarik loriatsuenak burutu genituen egun hura gogorarazten diegu, orain, ordea, paturik latzena geureganatzeko arriskuan gaudenean.

«Eta gure egoeran daudenentzat ekidinezina eta oso gogorra dena dator orain, diskurtsoari amaiera ematea, zeren berarekin batera hur dago gure biziaren arriskua; amaitzeko jada, diogu ez diegula hiria tebastarrei entregatu –hori baino lehenago modurik laidagarrienean, gosez, hiltzea nahiago genukeen–, baizik zuengan fidatuta hurbildu garela, eta bidezko da konbentzitzen ez bazaituztegu, utz gaitzazuen datorkeen arriskua aukeratzen, gu lehengo egoera berean utzita; gainera guk plaitarrok, Heladeren alde joran handia erakutsi ondoren orain erregutzai-



le gauzkazuenok, berriro ere diotsuegu ez gaitzazuela zuen eskuetatik eta zuen fede onetik tebastarregana, gure etsairik handienengana, pasa, baizik gure salbatzaileak izan zaitezela eta ez gaitzazuela suntsi, beste Heleniarrak, ordea, askatu egiten dituzuenean».

**60.**– Horrelaxe mintzatu ziren platearrak; orduan tebastarrek, lazemondarrek haien hitzak entzunda amore emango zuten beldur, aurrera eginez, eurek ere hitz egin nahi zutela esan zuten, euren iritziaren kontra, beraien galderari zegokion erantzuna baino diskurtso luzeagoa egiten utzi zietelako; hitza eman zietenean, hauxe esan zuten:

**61.**– «Ez genukeen hitz egitea eskatuko, baldin horiek ere galderari labur erantzun baliote eta, gure kontrako akusazioa desbideratuz, euren buruen defentsa luzea egin ez balute planteatzen zenetik kanpoko gauzei buruz, zeintzuez, gainera, inork ez zituzten akusatzen, baita inork gaitzetsi ez zuen goraipamen bat egin ez balute ere. Baina orain puntu batzuei ihardetsi eta beste batzuk gezurtatu egin behar ditugu, gure aipu txarrak ez berorien loriak mesederik egin ez diezaien, zuek alde bioi buruz egia entzun ondoren erabaki dezazuen baizik.

«Horiekin ditugun desadostasunak honako honengatik hasi ziren, alegia, Beoziako gainerako hirien ostean Platea eta berarekin populazio heterogeneo bat egotzi ondoren okupatu genituen beste leku batzuk eraiki genituen, hasieran erabaki zen moduan gure gidaritzapean

egoteari uko egiteaz harrotzen ziren, eta tradizioak urratuz gainerako beoziarregandik aparte jarri zirelarik haiek bestera behartzen saiatu ginenean, atenastarregana pasa ziren eta haiekin batera hainbat kalte egin ziguten, eta geuk ere eurei kalte eginez ordaindu genien.

**62.**– «Barbaroa Heladera heldu zenean, beoziarren artean haien alde jarri ez ziren bakarrak direla diote, eta horrexetaz harrotzen dira gehien eta laidoztatu egiten gaituzte. Baina guk diogu ezen horiek ez zirela pertsiarregana pasa atenastarrek ere ez zutelako hori egin, eta ezen, planteamendu berberarekin hain zuzen, geroago atenastarrek Heleniarrei eraso zietenean, haien alde jarri ziren beoziar bakarrak izan zirela. Azter ezazue, hala ere, nola egin zuen hori gutariko bakoitzak; gure hirian orduan ez zuen agintzen ez legearen aurreko berdintasunean oinarrituriko sistema oligarkiko batek ez sistema demokratiko batek, baizik legeen eta sistema moderatu baten kontrakoena denak: boterea gizon gutxi batzuen nagusigoak zeukan bidegabeki. Horiek, mediarrak irabaziz gero euren boterea are handiagoa izango zen esperantzaz,



herriari indarrez eutsiz, dei egin zioten; eta hiri osoak, erabakimenik ez zuelarik, horixe egin zuen, baina herriak ez du merezi bere legeek agintzen ez zutenean egindako hutsegiteak inork aurpegiatzerik; kontua da mediarrek alde egin zuenean eta herriak bere legeak berreskuratu zitue-nean, azertu beharra dagoela ea egia den gero atenastarrak hala gure herrialdeari nola gainerako Helade guztiari erasotzen hasi zirenean, gu euren menpean jartzeko ahaleginean eta gure arteko desadostasunengatik gure herrialdearen zati baten jabe egin zirenean, guk Koronean borrokan egin eta haiei irabaziz askatu egin genuela Beozia eta orain gartsu laguntzen dugula besteak askatzen, zaldiak eta hornidurak beste aliatuek egiten ez duten neurrian emanez.

**63.**— «Horixe gure defentsa mediarrekin lankidetzan jardun izanari dagokionez; baina zuek oker handiagoak egin diezuela Heleniarrei eta arrazoi handiagoz merezi dituzuela zigor guztiak agerian jartzen saiatuko gara.

«Gugandik defendatzeko bihurtu omen zineten Atenasen aliatu eta bertako hiritar; baina, orduan, gure kontra laguntzeko soilik deitu behar zenieketen, eta ez besteei egindako erasoetan lagun egin, posibilitateren bat gelditzen zen bitartean bederen, zeren, zeuen nahiaren kontra eramaten bazintzuten atenastarrek, oraindik indarrean zenuten lazedemondar hauekin mediarri erasotzeko egindako aliantza, zeinaren atzean era berezian babesten zireten; aliantza horixe zen nahikoa gu zuengandik apartatzeko, eta, inportanteagoa dena, zuei beldurrik gabe erabakitzen uzteko; hala ere, zeuek hala nahi izanda, eta inork behartu gabe, atenastarren alderdia aukeratu zenuten.

«Desleiala dela diozue ongile zirenei traizioa egitea; askoz desleialago eta bidegabeagoa zen Heleniar guztiei, zeintzuekin zinez elkartuta zeundeten, traizioa egitea, atenastarrei traizioa egitea baino, horiek Helade guztia esklabo bihurtu nahi baitzuten, besteek, ordea, askatu. Atenastarrei maila bereko eta desohore gabeko mesedearekin erantzutera ere ez zineten iritsi, zeren zuek, diozuenez, irainduak zinetelako deitu baitzenieten, baina besteak iraintzen zituztenen gaizkide egin zineten; eta, jakina, desohoragarriagoa da balio bertsuko mesede bat ez itzultzea, bidezki zorra egin arren bidegabeki itzuli behar denean ez itzultzea baino.

**64.**— «Argi utzi zenuten zuek mediarrengana pasa ez zineten beoziar bakarrak izatea ez zela izan orduantxe ere Heladeren alde egitearren,





atenastarrek ere pasa ez zirelako baizik, eta haiek nahi zuten gauza bera eta besteek nahi zutenaren kontrakoa lortu nahi zenutela; eta orain besteek esker ongi jokatura buruturiko ekintza horiei probetxua atera nahi diezue. Baina hori ez dago ongi: atenastarrak aukeratu zenituzten era berean, segi borrokan euren alboan eta ez aipa orduan egindako zin komuna haren indarrez orain bizirik utz zaitzaten, zeren bertan behera utzi baitzenuten zin hura, eta bera hautsiz zin hura egin zuten eginarrak eta beste batzuk esklabo bihurtzen hori eragozten baino gehiago lagundu baitzenuten, eta hori, zeuek hala nahita, gaurdainoko lege berekin eta gu bezala inork behartu gabe. Setio aurretik, neutralak izateko egin genizuen bakerako azken gonbidapena ere ez zenuten onartu. Orduan, bada, nork jasoko du Heleniar guztien gorrotoa beti zeuen gizatasuna goraitpatzen ibiltzen zinetenok baino bidezkiago? Zeuek diozuenez, noizbait egin zenuten onari dagokionez, orain ongi demostratu duzue ez zenutela egin, argi gelditu baita zuen izaerak beti nahi izan duena, bidegabekeriaren zidorretik zihoazen atenastarren alboan joan baitzineten. Hori xe da, bada, mediarrekin izan duzuen nahi gabeko kolaborazionismoaz eta Atenastarrekin izan duzuen nahitako kolaborazionismoaz dioguna.

**65.**— «Jasan omen dituzuen azken erasoei, hau da, guk legeak hautsiz bake eta jai garaian zuen hiriaren kontra erasota egin omen genituenei dagokionez, uste dugu kasu horrexetan ere ez dela gure hutsegitea zuena baino handiagoa, zeren gu errudun baikara, baldin zuen hirira joan ginenean etsai moduan borrokatu eta herrialdea suntsitu bagenuen; baina, zuen hiritar printzipalek, hala diruari nola familiari dagokionez, eurek nahita dei egin baziguten, zuen kanpo aliantzari amaiera eman eta zuek berriro ere beoziar guztien tradizioetan tinko sartuta utzi nahirik, orduan zertan egin dugu huts? Eskaria egiten dutenek erantzuten dutenek baino erantzukizun handiagoa dute; baina, gure ustez, haiek ere ez dira erantzule, ezta gu ere, zeren, zuek bezalako hiritarrak izanik eta gehiago arriskatzean guri harresia irekiz eta lagun moduan —ez etsai moduan— barrura eramanez, euren ideien zuhurtasunari esker zuen arteko txiroak txiroago ez izatea eta aberatsak merezi zutena edukitzea nahi baitzuten, bertako biztanleei hiria kendu barik euren ahai-deengana hurbildu gurarik, inoren etsai inola izan gabe, denekin bakean egotea lortuz.

**66.**— «Ez genuela etsai moduan jokatu agerian jartzeko frogatik bat: ez genion inori minik ez kalterik egin eta beoziar guztien tradizioen ara-



bera bizi nahi zuena gurekin etor zedin aldarrikatu genuen. Zuek ados etorri eta akordio batera heldu ondoren, lasai egon zineten hasieran; baina gero, gutxi ginela konturatu zinetenean –nahiz eta guk, zuen herriaren baiezkorik gabe sartzean, behar ez bezala jokatu genuela ematen zuen–, ez zeniguten era berean erantzun, hau da, ertzeko neurririk hartu gabe eta gu irteteko konbentzitzen ahaleginduz, baizik adosturikoa albo batera utzita gure kontra erasoz; ez digute hainbesteko minik ematen ekintzan zehar hil zenituztenek –zeren hori arauen barruan baitzegoen nolabait–, baizik, nahiz eta eskua luzatu zizueten eta, atxilotu ondoren, ez zenituztela hilko agindu zenieten, legea hautsiz bizia kendu zenietenek ematen digute min.

«Nahiz eta denbora laburrean hiru delitu horiek egin, hots, akordioa hautsi, ondorioz gizonak hil eta gureei zuen soroetan kalterik egin ezean ez zenituztela hilko gezurrez agindu, zuek, hala ere, diozue geuk hautsi genuela legea eta, beraz, zuei zigorrik ez ezartzea nahi duzue.

**67.**– «Puntu horiek azaltzera aurreratu gara, lazedemondarrok, zuengatik eta geugatik, zuek bidezki kondenatuko dituzuela jakin dezazuen eta guk jainko legeen arabera mendekatuak izango garela jakin dezagun. Eta ez zaitezte barkaberak izan horien lehengo merezimenduei begirata, merezimendu horiek biktimentzat lagungarri eta desohoregarri den zerbaiten egileentzat zigor bikoitzerako zio baitira, eurengandik espero denaren kontra huts egiten dutelako. Ez dezatela onurarik atera zuen gurasoen hilobiengatik agerturiko erosta eta errukitik eta eurak bertan behera utziak izatetik, zerengatik, horren kontra, argi erakutsiko baitugu ezen askoz ikaragarriagoa dela horiek suntsituriko gazteriak sufritu zuena, eta gazteon gurasoek, Koronean hil zirenek beoziar alian-tza zeramakizuetenean, edo zahartzaro tristean euren etxeetan bakardadean bizi direnek, mendeka ditzazuen eskatzen dizute, askoz eskari justuagoa eginez.

«Merezi ez duten zerbait sufritzen ari direnak errukarriak dira benetan, baina, hauek bezala merezitako sufrimendua pairatzen ari direnek poz handia ematen digute.

«Bertan behera utziak izatea, berriz, euren erruz pairatzen dute, zerengatik euren aliatu onenak nahita arbuiatu zituzten.

«Eurek hautsi zituzten arauak, aldezturik guregandik minik ez kalterik hartu gabe, justiziak barik gorrotoak aginduta eta orain erruaren neurriko zigorrik hartu beharrik gabe, zerengatik arabiarako zigo-



rrak ezarriko baitzaizkie, eta ez, alegatzen duten moduan, bataila baten ondoren eskuak luzatzeagatik, baizik hitzarmen baten arabera judizio baten mende egoteagatik.

«Defenda ezazue, bada, lazedemondarrok, hauek hautsitako legea, eta guri, horien delituaren biktimoi, egiguzue erakutsi dugun adore gartsuagatik zor zaigun mesedea, eta horien hitzen eraginez ez gaitzela zuen aurrean arbuatuta gera, aitzitik, ezar ezazue Heladerentzako jarraibidea, bokantza lehiaketak barik egintzen lehiaketak antolatzen dituzuela argi utziz, egintzok, onak izanez gero, azalpen labur bat baino ez dutelarik behar, baina, okerrekoak izanez gero, eurok azaltzeko erabilitako hitzez apaindutako diskurtsoak estalki bilakatzen direlarik.

«Buruzagiek, zuek orain bezala, euren epaia funts orokorrari kasu egin da ematen badute, gutxiago joko da bidegabeko ekintzetarako esamolde ederrak erabiltzera».

**68.**– Horrelaxe mintzatu ziren tebastarrak.

Epaille lazedemondarrek, egokitzen joz gerran haiengandik onurarik edo laguntzarik hartu zuten galdetuz egindako itauna –zeren, dudarik gabe, uste baitzuten hortik kanpoko denbora guztian bakeari eutsi ziotela Gerra Mediarren osteko Pausaniasen itunen arabera– eta, gero, setiatu aurretik, itun haien arabera neutral mantentzeko eskaintza egin zietenean euren proposamenak onartu ez zituztenez, orduan, euren gurari zuzenei kasurik egin gabe, akordioetatik libre gelditzeko besteko kaltea egin ziotela pentsatuz, banan-banan deitu eta gerratean lazedemondarrei eta beraien aliatuei zerbitzuren bat egin zieten galdetu ondoren, ezetz erantzuten zietenean, handik eraman eta hil egiten zituzten inori ere barkatu gabe.

Berrehun platear eta beraiekin batera setiaturiko hogeita bost atenastar baino gutxiago ez ziren izan hil zituztenak; emakumeak esklabo bihurtu zituzten. Hiriari dagokionez, berriz, barne liskarrengatik beren hiritik egotzitako megarar batzuei eman zieten urtebete inguruan bertan bizi zitezen, baita euren ideiekin bat etortzearren salbatu ziren platear guztiei ere.

Geroago, zeharo suntsitu ondoren, zoruraino, zimentarriak Hereo alboan aldeko berrehun metroko karratu baten forman ostatu bat eraikitzeko erabili zituzten, logelekin ingurune guztian, goian eta behean; Plateako sabaiak eta atea erabili zituzten; harresi barruan zeuden beste



brontze eta burdinazko gauzekin oheak egin zituzten eta Herari sagaratu zizkieten; ehun oineko marmolezko tenplu bat ere eraiki zuten beraren ohoretan. Lurra konfiskatu eta hamar urterako errentan eman zuten eta tebastarrek landu zuten.

Hartara, lazedemondarrak tebastarrek zeharo edo ia zeharo limurtuta jokatu zuten platearrei zegokienez, orduantxe hasi berri zuten gerran haiek baliagarri izango zituztela pentsatuta.

Horrelaxe bukatu zen Plateakoa, atenastarrekin egindako aliantzatik laurogeita hamabi urtera.

**69.**– Lesboarrei laguntzera joan ziren peloponesoarren berrogei ontziak, itsaso zabalean zehar ihes egin ondoren eta atenastarrek jazarri arte, Kretaraino eraman zituen ekaitzak eta handik Peloponesora sartu ziren arribadan; Zilenen hamairu trirreme leukadetar eta anpraziar topatu zituzten, baita Telisen seme Brasidas ere, Alzidasen aholkulari gisa bidalia.

Lesbon porrot egin zutenez, lazedemondarrek erabaki zuten euren ontzidia gehitu eta gerra zibilean ziharduen korziraren kontra jotzea, Naupakton atenastarren hamabi ontzi bakarrik zeuden bitartean, arin ibiliz Atenastik ontzidi handiagoa heldu aurretik; Brasidas eta Alzidasek jardun zuten prestakizun horiek egiten.

**70.**– Korzizarrek gerra zibila hasi zuten, korintoarrek askaturiko Epidamno inguruko itsas batailetan preso hartuak heldu bezain laster ofizialki euren proxenoek zortziehun talentuko fidantza ordainduz erresketaturik, baina egitan korintoarrek Korziraz jabetzeko limurturik; horiek, hiritar bakoitzaren baitan eragina izaten saiatuz, hiria atenastarrengandik banandu nahi zuten.

Ontzi atikar bat eta korintoar bat heldu zirelarik enbaxadoreekin eta elkarrizketak eduki zituztelarik, korzizarrek atenastarren aliatu lehengo akordioen arabera eta peloponesoarren lagun lehen ziren bezala izatea erabaki zuten.

Orduan, askaturiko bahituen taldeak Feitiasen kontra prozesu bat sustatzen du –Feitias Atenasen proxeno zen bere borondatez eta herri fakzioaren buru ziharduen–, Korzira atenastarren mende jarri nahi izatearen akusazioarekin. Absolbiturik irtetean, berriz, berak eraman zituen auzitara bost aberatsenak, Zeus eta Alzinooren esparruan zurkaitzak moztu izanaren akusaziopean; ezarritako multa zurkaitzeko estatero





batekoa zen, eta, kondenatuak izan zirenez eta, isuna handia izaki, santutegian erregutzaile moduan babestu zirenez epeka ordaintzen utz ziezaien, Feitiasek –izan ere, Kontseiluko kide baitzen– legea aplikatzea lortu zuen. Haiek, behin beraien eskaerari ezezkua legez eman zitzaionean eta, gainera, konturatu zirenean Feitias Kontseiluko kide zen bitartean herria limurtzen saiatuko zela lagun edo etsaitzat atenastarrek hartakotzat zituzten berberak har zitzen, konplota egin zuten, eta, sastakaiekin Kontseiluan sartuta, Feitias eta beste kontseilari eta partikular batzuk hil zituzten, eta, bitartean, Feitiasen ideiekin bat zetozen gutxi batzuek oraindik han zegoen trirreme atikarrera ihes egin zuten.

**71.**– Besteek, hori egin zutenean, korzirarrak bildu ondoren esan zieten hori onena ez ezik atenastarren mende gutxiago egoteko modurik egokiena zela eta, aurrerantzean, bakeari eutsiz, bando bietako bata ere ez zezatela onar, ontzi bakarrarekin izan ezik, ontzi gehiago eramatea etsaitasunezko ekintzat hartua izango zelako. Horrelaxe mintzatu ziren eta beren erabakia berrestera behartu zituzten. Halaber, segituan Atenasera enbaxadoreak bidali zituzten gertaturikoa euren interesen aldera azal zezaten eta han errefuxiatuak behar ez zenen bat egin ez zezaten konbentzi zitzen, atenastarren errepresaliarik gerta ez zedin.

**72.**– Heldu zirenean, atenastarrek preso hartu zituzten enbaxadoreak, erreboltaritzat jota, baita haiek konbentzitu zituzten guztiak ere, eta Eginara eraman zituzten.

Bizkitartean, boterean zeuden korzirarrek, trirreme korintoar bat eta enbaxadore lazedemondarrak iristean, herri fakzioari eraso eta azpiratu egin zituzten borrokan. Gaua heltzean herri fakzioa Akropolian eta beste gorune batzuetan babestu zen, eta elkartu ondoren han bertan hartu zituen posizioak; Hilaiko portuaren jabe ere egin ziren. Besteak haietako asko bizi ziren plazaren jabe egin ziren, baita ondoan daukan eta kontinenteari begira dagoen portuaren jabe ere

**73.**– Biharamunean borrokatxo batzuk izan ziren eta bando biek mandataria bidali zituzten, esklaboak bildu eta askatasuna agintzera; morroien gehiengoa herri fakzioaren alde jarri zen; besteei, oster, zor-ziehun laguntzaile etorri zitzaizkien kontinentetik.

**74.**– Egun bat igarota, berriro bataila bat egiten dute, eta herri fakzioa ateratzen da garaile, lekuaren abantailagatik eta kopuruagatik nagusituz. Andrazkoek ausartki laguntzen zieten etxeetatik teilak jaurtiz eta



iskanbilari euren izaeraz haratago eutsiz. Iluntzean ihesa gertatu zenean, oligarkek, herritarrek batera erasota itsas armategiaz jabetu eta hil egingo zituzten beldur, su eman zieten etxe partikularrei eta plazaren ingurukoei, ez eurenik ez besteenik salbuetsi gabe, pasabidea ixteko; eta ondasun asko erre zen, eta hiria zeharo desagertzeko arriskuan egon zenugarretarantz haize apur batek jo izan balu.

Borroka bukatuta, bando bakoitzak, baretuta ere, zelatan pasa zuen gaua; ontzi korintoarra, herri fakzioak irabaztean, ezkutuan itsasoratu zen, eta laguntzailerik gehienak isilpean eraman zituzten kontinentera.

**75.**– Biharamunean, Diitrefes jeneral atenastarraren seme Nikostrato heldu zen Naupaktotik hamabi ontzi eta bostehun hoplita meseniarrekin. Hitzarmen bat negoziatu zuen, eta alde biak akordio batera heltzeko konbentzitu zituen; akordio horren arabera hamar errudun printzipal—jada itxaron ez zutenak— epaituko zituzten eta besteek hirian segituko zuten beraien artean eta atenastarrekin akordioak sinatu ondoren, lagun eta etsaitzat atenastarrek hartakotzat zituztenak hartzeko klausularekin.

Akordio hori burutu ondoren, itsasoratzeko prestatu zen, baina herri fakzioaren buruzagiek bere bost ontzi eurei utz ziezazkien konbentzitu zuten, beren etsaiengandiko nahasteetatik libre egoteko; horren truke beste horrenbeste ontzi bertako hiritarrez hornitu eta berarekin bidaliko zituzten. Nikostrato ados egon zen, eta besteek beren etsaiak aukeratu zituzten ontziak hornitzeko; orduan haiek, Atenasera bidaliko ote zituzten beldur, erregutzaile gisa jesarri ziren Dioskuroen santutegian. Nikostrato haiek zutitu eta adoretzen saiatu zen, baina ezin izan zitue-larik horretaratu, herriak armak hartu zituen, aitzakiatzat haiek, ontziratze-ko mesfidati agertzen zirenean, asmo onik ez zutela esanez, eta armak etxeetatik atera zituzten, eta hil egingo zuketena haietako baten bat, baldin Nikostratok galarazi ez balie.

Gainerakoek gertaturikoa ikustean, Heraren tenpluan babestu ziren erregutzaile gisa eta azkenerako lauhun bederen izan ziren. Herri fakzioak, nahasteak sortuko ote zituzten beldur, haiek limurtu eta zutitzea lortu zuen, eta Heraren tenpluaren aurrean dagoen uhartera eraman zituen eta hara ere behar zutena bidaltzen segitu zuen.

**76.**– Puntu horrexetan zegoen gerra zibila gizonak uhartera pasa eta handik hiruzpalau egunera Zilenetik, Joniatik itzuli ondoren ainguratu zuten herritik, zetozen berrogeita hamahiru ontzi peloponesoarrak ber-



tara agertu zirenean; Alzidas, lehengo bera, zeramaten buru eta Brasi-  
das zihoan aholkulari. Sibotan, kontinenteko portuan, ainguratuta,  
egunsentian Korzirara egin zuten.

**77.**– Korzirarrak, zeharo aztoratu eta ikaratuta, hala hiriaren egoeraga-  
tik nola erasoaren beldurrez, hirurogei ontzi prestatzen jarri ziren eta  
etsaien kontra bidaliz joan ziren tripulazioa osotu ahala, nahiz eta ate-  
nastarrek aholkatu zieten eurei aurretik irteten uzteko eta gero berak  
etortzeko ontzidi guztia bilduta.

Ontziak noizean behin etsaiarengana hurbiltzen zirenez, bik berehala  
desertatu zuten; beste batzuetan, barrukoek borrokan egin zuten beren  
artean eta ez zuten diziplinarik ezertarako. Peloponesoarren anabasa  
hura ikustean, hogeitaz ontzi lerrokatu zituzten korzizarren aurrean, eta  
gainerakoak, hamabi ontzi atenastarren aurrean, euroatik bi Salaminia  
eta Paralos zirelarik.

**78.**– Korzirarrak, eraso gaizki eta talde txikietan egiten zutenez, ego-  
era txarrean zeuden kontra zituztenen aurrez aurre; atenastarrek, berriz,  
haien kopuruaren eta inguratuak izatearen beldur zirenez, ez zioten era-  
sotzen ontzidiaren zati handienari, ezta euren aurrean lerrokatutako  
ontzien erditik ere; baina hegaletik erasota, ontzi bat hondoratu zuten.  
Horren ostean, biribilean jarrita jirabiraka hasi ziren eta anabasa sor-  
tzen saiatzen ziren. Korzizarren aurrean lerrokatuta zeudenak horretaz  
ohartzean eta han ere Naupakton jazo zena gertatuko ote zen beldurrez,  
laguntzera etorri zitzaizkien eta elkartu zirenean batera eraso zieten ate-  
nastarrei. Atenastarrek txopa aurretik zutela alde egin zuten, aldi bere-  
an korzizarren erretreta ahalik gehien babesten zuten bitartean, astiro  
amore emanaz eta euren aurrean kokaturiko etsaien ontziek ere gauza  
bera eginda.

Horrelaxe, bada, burutu zen itsas bataila eta ilunabarrean amaitu zen.

**79.**– Orduan korzizarrek, beldur zirenez etsaiek hiriaren kontrako eraso  
batean, garaile sentitzen zirelako, uhartean sarturikoak beraiekin era-  
mango ote zituzten edo beste nahasteren bat sortuko ote zuten, uharte-  
tik Heraren tenplura eraman zituzten berriro, eta hiria zaintzen jarri  
ziren; baina besteak ez ziren ausartu hiriaren kontra jotzen, batailan ira-  
bazi arren, baizik itsasoratzeko abiapuntu izan zuten kontinentera abia-  
tu ziren hamabi ontzi korzizar preso hartuta.

Biharamunean ez zuten hiriaren kontra joateko asmorik erakutsi, nahiz  
eta hirian anabasa eta beldur handia egon eta horixe aholkatu, diotenez,



Brasidasek Alzidasi; baina hark ez zuen aginpide berdinik; ostera, Leuzimnen lehorreratu ondoren, soroak suntsitzeari ekin zioten.

**80.**– Bizkitartean Korzirako herri fakzioa, ontziek erasoko ote zien beldur handiz, erregutzaileekin eta gainerakoekin tratuetan hasi zen hiria salbatzeko, eta batzuek ontziratzera limurtu zituzten; eta, denak jota, erasoaren zain hogeita hamar ontzi hornitzera heldu ziren.

Peloponesoarren, alabaina, egun erdi lurra suntsitzen eman ondoren, alde egin zuten; eta gauez suteez iragarri zieten Leukadetik hirurogei ontzi atenastar hurbiltzen zetoze, atenastarrek Tuklesen seme Eurimedonen burutzapean bidaliak, gerra zibilaren eta Alzidasekin Korzitarra joango ziren ontzien berri jasotzean.

**81.**– Kontua da peloponesoarrak segituan, gau hartan bertan, etxerantz abiatu zirela azkar itsasertzari jarrai; beren ontziak Leukadeko istmoan zehar garraiatu ondoren hura inguratzean inork ikus ez zitzaizkion, itzulera-ko zeharkaldian segitu zuten.

Korzirarrek, ontzi atikarrak hurbiltzen ari zirela eta etsaienak bazihoazela ohartzean, hiri barrura sartu zituzten lehen kanpoan zeuden meseniarrek eta, hornitu zituzten ontziei Hilaiko porturaino joan zitezen agindu ondoren, preso hartu zituzten etsaiak hil zituzten zeharkaldian; era berean hil zituzten, lehorreratzera behartu ondoren, ontziratzera limurtu zituzten guztiak ere, eta, Heraren tenplura joan eta berrogeita hamarren bat erregutzaile judiziopean jartzera limurtu zituzten: heriotzara kondenatu zituzten guztiak.

Erregutzaileetako askok, limurtu ez zituzten guztiek, gertatua ikustean, hantxe bertan, tenpluan, hil zuten elkar; batzuek zuhaitzetatik eskegita urkatu ziren eta beste batzuek ahal izan zuten moduan egin zuten beren buruez beste.

Eurimedon hirurogei ontziekin heldu ondoren han gelditu zen zazpi egunetan, korzizarrek euren etsai zirela uste zuten guztiak hiltzeari ekin zioten; demokrazia eraistiaz akusatzen zituzten arren, batzuk etsaitasun pertsonalagatik hil ziren eta beste batzuk, dirua zor zielako, euren zordunek hil zituzten; mota guztietako heriotzak gertatu ziren, eta horrelakoetan jazotzen den moduan, edozer eta gehiago gertatu zen: aita semea hiltzen zuen, erregutzaileak santutegietatik narras aterata edo han bertan hiltzen zituzten; are, batzuk horma artean sartuta hil zituzten Dionisoren santutegian.





**82**— Horrexenbesteko krudeltasunez egin zen gerra zibila eta are kru-  
delagoa zirudien lehenengoa zelako, zeren geroago Heleniar mundu  
guztia, horrela esaterik badago, astindua izan zen nolabait, herri bakoit-  
zeko buruzagiek liskarrean jardun eta atenastarrei deitzean, eta oligar-  
kek lazedemondarrei. Nahiz eta baketean ez zuten estakururik eta ez  
zeuden haiei deitzeko prest, gerran hastean bando bien onerako alian-  
tza eskariei, hala lehiakideen kalterako nola, horren berorren ondorioz,  
norbere boterea areagotzeko, aise egiten zitzaizkien jaramon egoera  
aldatzeko irrikitzen zeudenen probetxurako.

Izugarrikeria handiak egin ziren hirietan gerrate zibilean, giza izaera  
berdina den artean beti gertatzen eta gertatuko diren izugarrikeriak, bor-  
titzagoak edo arinagoak eta itxuraz diferenteak kasu bakoitzean gerta-  
tzen diren zirkunstantzien aldaketaren arabera, zeren baketean eta gau-  
zak ongi doazenean, hala hiriek nola norbanakoek bereizmen handiagoa  
izaten baitute, beharrak estutu gabe aurkitzen direlako; baina gerrak  
eguneroko ongizatea kentzen duenean, bortizkeriaren maisu bilakatzen  
da eta zirkunstantzietara moldatzen ditu gehienen sentimenduak.

Horrela, bada, hiriak gerra zibilean aurkitzen ziren, eta gero sartzen  
zirenei, gertatuaren berri izan eta gero, ertz-ertzeko gauza berriak buru-  
ratzen zitzaizkien, hala erasoen bihurrikeriari nola mendekuen ezohi-  
kotasunari zegokionez. Euren buruak zuritzeko, gertakarien ohiko  
balorazio terminologikoa ere aldatu egin zuten. Hartara, ausarkeria  
burugabea alderdiarekiko entrega adoretsua zen, baretasun zuhurra,  
ordea, koldarkeria faltsua; zuhurtzia koldarraren itxura zen, eta dena  
ongi pentsatzea, denerako ebatzirik gabekoa izatea. Presaka ibiltze  
nahasgarria gizontasuntzat egon zen eta azpitik segurtasun bila ibiltzea,  
desertatzeko aitzakia dotoretua. Denarekin deskonforme zegoena beti  
ere leialtzat zegoen, hari eragozpenak jartzen zizkiona, ordea, susma-  
garritzat. Norbaitek arrakastaz konspiratzen bazuen, argitzat hartzen  
zen, baina hori barruntatzen zuena, are argiagotzat. Horretariko ezerta-  
ra jo beharrik ez edukitzeko proposamenak egiten zituenari alderdiaren  
saboteatzailea eta etsaien aurrean koldar kikildua izatea leporatzen zio-  
ten. Hitz batean, hala gaiztakeria egiten hasten zena, nola gaiztakeria  
egitea inoiz pentsatu ez zuenari aurrea hartzen ziona, biak ala biak jaso-  
tzen zuten onespena.

Are, azkenerako ahaidetasunak berak ere alderdiak baino gutxiago  
lotzen zuen, alderdiak inolako justifikaziorik gabeko ausarkeriarako



joera handiagoa zeukalako, elkarte horiek ez baitzuten bilatzen zeuden legeetatik elkar laguntzea, ezarritako legeetatik kanpo beren interesak inposatzea baizik.

Elkarrekiko bermeak jainkoen zigorragatik gutxiago berresten ziren delituko gaizkidetasunagatik baino. Aurreraren hitz onak aurreikuspen errealistaz onartzen ziren, irabaztea gertatuz gero ere, eta ez barne zintzotasunagatik. Nahiago zuten irain bati ihardestea, irain hori jaso ez izana baino. Eta egindako zinek, akordioa berresteko egiten baziren, une bateko iraunaldia edo indarra baino ez zuten, bando bakoitzak estualdian egindakoak zirelako, horrexetarako bestetarako baliorik gabekoak ziren eta. Kasua helduta, ausartasun kolpe batean aurrea hartzen zuenak, bestea defentsarik gabe ikusiz gero, gehiago gozatzen zuen uste ona burlatuagatik harturiko mendekuaz, engainurik gabe egin balu baino, eta bere hartzekoan jartzen zuen hala segurtasuna nola engainuz irabazteagatik jasotako saria, azkarra izateagatik saria. Izan ere, gehienek nahiago dute gaiztoa izan eta abiltzat egon, dorpea izan eta ontzat egon baino; bigarrenaz lotsatu egiten dira, lehenengoaz, ordea, harro agertzen dira. Horren guztiaren eragilea boterea da, bera-rekin daraman aberastasun eta ohore goseagatik.

Horren ondorio zen, halaber, beren norgehiagoketetan jartzen zuten grina gartsua; hirietan bando bateko eta besteko buruzagiek, bilatzen omen zuten denon onari buruzko itxura ederreko fraseologiarekin, norgehiagoka jarduten zuten, eta saio horiek lehiaketako sari moduan hartzen zituzten, eta, edozein bitartekoz norgehiagoka lehiatuz, ez bakarrik izugarrikeriarik handienak egiten ausartu ziren, baizik mendeku are handiagoak burutu zituzten, hiriarentzat justua eta komenigarria zenari lotu gabe, bando bakoitzak une horretan gogoko zuen puntuan muga jarritz; eta sententzia bidegabekoak edo indarra erabiliz botereaz jabetuta, prest zeuden euren norgehiagoka eta botere irrika asetzeko.

Ondorioz, ez batzuegan ez bestetuegan agintzen zuen errukiak, baizik, euren hitzen edertasunagatik, prestigio handiagoa zuten euren arrakastak era higuinarrarian lortzen zutenek. Bi bandoen bitarteko hiritarrak bata zein besteak hilik gertatzen ziren, dela kolaboratzen ez zutelako, dela bizirik zirautelako inbidiarengatik.

**83.**— Horrelaxe gertatu ziren edozertariko gaiztakeriak Heleniar munduan gerra zibilen erruz, eta tolesgabetasuna, osagai nagusi zintzotasuna duena beti, barregarri bihurtu eta desagertu egin zen; enfrontamen-



du ideologikoak, ordea, konfiantza faltarekin batera, liskarrak gehitu zituen, zeren ez baitzegoen adiskidetzera eraman zezakeen ezer, ez hitz tinkorik ez zin beldurgarririk, eta, aitzitik, boterea zuten guztiek, beren segurtasuna kolokan ikusita, okerra eta kaltea prebenitzera jotzen zuten gehiago, konfiantzari bidea ematera baino.

Dorpeek biziraun egiten zuten gehienetan, zeren, euren gabezien eta aurkarien adimen argiaren errezeloagatik, hitz egiteko orduan desabantailan geldituko ote ziren eta besteek, euren izaera aldakorrari esker, euren intrigeekin aurea hartuko ote zieten beldurrez, ekintzara pasatzen baitziren ausarki. Besteen kasuan, ordea, mespretxuz uste izanik eurak lehenago ohartuko zirela eta ekintza orduan ez zutela beharko euren adimenak eman ezingo zieten ezer, neurrik ez hartzean gehiagok galtzen zuten bizia.

**84.**— Gauza da Korziran egin zituztela lehenbizi ausarkeria horietako asko; zenbat egingo zituzten, errepresalia gisa nonbait, mendekurako zioak eman zituztenen esku gogorrez neurritasunez baino areago ozarkeriaz gobernatuak izan zirenek; zenbat egingo zituzten justiziaren kontra ohiko pobreziatik alde egitearren, baina, batez ere, inorenaz jabetzeko irrika itsuaren eraginez; eta zenbat lagunenganaino helduko ote ziren ankerki eta motiborik gabe, askogurak justifikatuak barik basakeriazko sentimenduek eragindakoak ziren euren kideen kontrako erasoetan!

Orduko hartan, giza izaera legeei nagusitzean, hiriko bizimodua azpiko gora jarri zelarik, legeak bazter utzita justiziari huts egin ohi dion giza izaera gustura agertu zen bere grinak menpean hartzeko ezgai, bidezkoaren gainetik eta gorako gauzen kontra jarrita; zeren ez baitzuen mendekua sakratua denaren aurretik jarri izango, ezta lukurua injustizia ekiditearen aurretik ere, baldin inbidiak indar kaltegarria izan ez balu.

Portaera horiez ari diren lege orokorrak, euren baitan denontzat salbatzeko esperantza daramaten legeak, abolitzen saiatzen dira gizakiak besteez mendekatzeko eta indarrean ez uzteko, zer gerta ere inoiz edo behin, arriskuan, haietakoren bat beharko balitz.

**85.**— Horiexek izan ziren hiriko korzirarrek orduan lehen aldiz izan zituzten sentimenduak, eta Eurimedonek eta atenastarrek alde egin zuten ontzietan.



Geroago, korzirar erbesteratuak –bostehunen bat salbatu ziren– kontinentean zeuden gotorlekuez jabetu ondoren, uhartearen aurrean dagoen eta Korzirarena den lurraldea berenganatu zuten, eta, base gisa erabiliz, uhartea arpilatzen eta hainbat kalte egiten ibili ziren, hirian urritasun handia sortzeraino. Halaber, Lazedemoniara eta Korintora enbaxadoreak bidali zituzten euren itzuleraz hitz egitera, baina, ezertxo ere lortu ez zutelarik, barku eta tropa mertzenarioak prestatu ondoren, uhartera pasa ziren, seiehun bat orotara; barkuak erre ondoren, lurraldea menperatzea beste irtenbiderik gera ez zedin, Istona mendira igo eta gotorleku bat eraikita, hiritarrei okerrak eta kalteak egiteari ekin zioten eta lurraldearen jabe egin ziren.

**86.**– Uda beraren amaieran, atenastarrek Melanoporen seme Nakes eta Eufiletoren seme Kareadas bidali zituzten Siziliara hogeitazirekin, han sirakusarrak eta leontinoak elkarrekin gerran ari ziren eta. Sirakusarren aliatuak ziren, Kamarina kenduta, hiri doriar guztiak, zeintzuek gerraren hasieratik lazedemondarren aliantzan sartuak baitziren, baina oraindik bertan esku hartu gabe; leontinoen aliatuak hiri kalzistarrak eta Kamarina ziren; Italian, Lokros sirakusarren aliatua zen, Regio, ordea, ahaidetasunagatik, leontinoena.

Kontua da ezen, Atenasera bidalitako mandatarien bidez, leontinoek eta beraien aliatuek, antzinako aliantza eta eurak joniarrak izatea arrazoitzat jarrita, atenastarrak ontziak bidal ziezazkieten konbentzitu zituztela, sirakusarrek itsasoa zein lehorra erabiltzen eragozten zietelako. Atenastarrek arrazakidetasunaren aitzakiarekin bidali zizkieten ontziak, baina egiatan handik Peloponesora elikagairik ez bidaltzea lortu nahi zuten, baita Siziliari mendekotasuna ezartzerik ote zegoen egiaztatu ere. Italiako Region kokatu ondoren, gerra egin zuten beren aliatuekin batera. Eta amaitu zen uda.

**87.**– Hurrengo neguan izurritea atzera berriro grinatu zen atenastarrekin; inoiz ere guztiz falta izan ez bazen ere, arnasa pixka bat hartzen ere utzi zuen. Oraingoan urte bete baino gehiagoz iraun zuen, eta lehenbizi bi urtez, ezerk ere ez zuelarik izurriteak baino hildako gehiago eragin atenastarren artean, ezta euren boterea areago kaltetu ere, zeren hopliten lerroetan mila eta laurehun hil baitziren, hirurehun zaldizkoetan eta zehatz jakiterik ez dagoen kopurua gainerako troparenetan. Aldi horretan lurrikara asko ere izan zen Atenas, Eubea eta Beozian, batez ere Beoziako Orkomenon.





**88.**— Siziliako atenastarrek eta Regioko biztanleek uda berean espedizio bat egin zuten hogeita hamar ontzirekin Eoloren uharteak deritzetara, udan egiterik ez zegoelako urik ezagatik. Uharte horiek knidoarren ahaideak diren lipararrek ustiatzen dituzte; horietako batean, ez oso handia bera eta Lipara deritzona, bizi dira; uharte hori base moduan erabilia, besteetako, hots, Didima, Estrongila eta Hierako lurrak lantzen dituzte. Hango jendeak uste du Hefestok Hieran duela bere forja, bertan gauez su handia egiten eta egunez kea ateratzen ikusten delako. Siziliarren eta meseniarren lurraldearen aurrean daude kokatuta uharte horiek, eta sirakusarren aliatuak ziren.

Atenastarrak, hango lurraldea deboilatu ondoren, menperatu ez zituztenez, Reginantz abiatu ziren, eta amaitu zen negua, baita Tuzididesek idatzi zuen gerra honetako bosgarren urtea ere.

**89.**— Hurrengo udan, peloponesoarrak eta beraien aliatuak Istmoraino heldu ziren Atika inbaditzeko asmoz, Arkidamo lazedemondarren erregearen seme Agis buru zutela; baina lurrikara asko sortzean, buelta eman zuten inbasioa bertan behera utzita.

Lurrikarak izan ziren aldi horretan, Eubeako Orobiasen itsasoa, orduan lehorra zenetik atzera egin eta olatuak harrotuz, hiriko auzune bateraino heldu zen, parte bat itsasperatu eta beste batetik atzera egin zuen, eta orain itsasoa da lehen lehorra zena; goienetara arin-aranga alde egin ez zuten guztiek bizia galdu zuten.

Atalantan ere, Lokride Opuntia ondoan dagoen uharte bat bera, antzeko uholdea izan zuten, atenastarren gotorlekuaren zati bat arrastatu zuen eta hondoa jota zeuden bi ontzietako bat zeharo apurtu. Pepareton ere izan zen ur-beheratzea, baina uholderik ez, eta lurrikarak harresiarren zati bat, pritanea eta etxe gutxi batzuk eraitsi zituen.

Uste dut nik itsas handi haren kausa zera izan zela, alegia, lurrikarak, indar handiena izan zuen tokietan, kanpora bota izana gune horietan itsasoa eta, berriro derrepente erakartzean, olatu bortitza goak eragin izana; iruditzen zait lurrikararik gabe ez zela fenomeno hori gertatuko.

**90.**— Uda berean, bere inguruabarren arabera bata bestearen kontra gerran zebiltzan beste hirietatik aparte, siziliarrek euren artean erasoka segitu zuten, atenastarrek, aldiz, beren aliatuen ondoan ari ziren horretan; horri dagokionez, aliatuek atenastarrekin edo atenastarren aurrez



aurre lerrokatzen zirenek burutu zutenetik kontagarriena bakarrik kon-  
tatuko dut.

Sirakusarrek Kareades jeneral atenastarra gerran hiltzean, Lakesek,  
ontzidiaren aginte gorena zuelarik, meseniarren jabetzakoa zen Milasa-  
ren kontra jo zuen aliatuekin batera; goarnizio gisa meseniarren bi kon-  
painia zeuden Milasan, eta lehorreratze tropei segada bat jarri ere egin  
zieten; baina atenastarrek eta beraien aliatuek ihes eragin zieten zelatan  
jarriei eta euretako asko hil zituzten; euren defentsei eraso ondoren,  
akordio baten bidez akropolia entregatzera eta Meseniarren kontrako  
espedizioan eurekin joatera behartu zituzten. Horren ostean atenasta-  
rrak eta beraien aliatuak heldu zirenean, meseniarrek ere alde jarri  
zitzaizkien, bahituak entregatu eta beste bermeak eskaini ondoren.

**91.**— Uda berean atenastarrek hogeita hamar ontzi bidali zituzten Pello-  
ponesoaren jiran ibiltzeko, Alzistenesen seme Demostenes eta Teodo-  
roren seme Prokles buru zirela, eta Melosera beste hirurogei ontzi mila  
hoplitarekin, Nizeratoren seme Niziasen agintepean, meloarrak anxio-  
natu nahi zituzten eta, uhartetarrak izanik ez zutelako gura euren men-  
deko izan, ez euren aliantzan sartu. Amorerik eman ez zutenez lur guz-  
tia suntsitu zieten arren, Graikako Oroporantz jo zuten; gauez heldu  
zirelarik, lehorreraturiko hoplitak segituan abiatu ziren oinez Beoziako  
Tanagrarantz; bitartean hiriko atenastarrak, euren indar guztiekin,  
Kaliasen seme Hiponiko eta Tuklesen seme Eurimedon buru zituztela,  
seinale batera leku berean bat egitera etorri ziren lehorrez; kanpatu  
ondoren, egun horretan Tanagrako lurraldea suntsitzeari ekin zioten,  
eta bertan pasa zuten gaua; biharamunean Tanagratik euren kontra  
irtendakoak eta haien laguntzan etorritako zenbait tebastar bataila bate-  
an azpiratu ondoren, euren armak hartu eta trofeo bat eraiki eta gero,  
batzuk hirira eta besteak ontzietara joan ziren. Niziasek, itsasbazterrari  
jarrai, Lokrideko itsas eskualdeak suntsitzeari ekin zion, eta gero etxe-  
ra egin zuen.

**92.**— Aldi horretan lazedemoniarrek Trakiniako Heraklean finkatu  
zuten euren kolonia ondoko ideiarekin. Melidetar guztiak hiru taldetan  
banatu ziren: paraliarrak, hieriarrak eta trakiniarrak; horietatik, traki-  
niarrek, mugakide dituzten Etakoen eskutik sarraski handiak pairaturi-  
ko jendea, nahiz eta hasiera batean atenastarrekin aliatzeko asmoa izan  
zuten, hala ere, haiek eurekiko leialak izango ez ote ziren beldur, Laze-  
demoniara mandatu bat bidali zuten, enbaxadore Tisameno aukeratuta;



lazedemondarren metropolia den Dorideko jendea zeraman lagun, eskari berarekin, eurak ere etarren sarraski handiak pairaturikoak baitziren.

Lazedemondarrek entzun zietenean, kolonia bat bidaltzea erabaki zuten trakiniarrak eta doriarrak babesteko: gainera komenigarri zela zeritzen hiria eraikitzea atenastarren kontrako gerrari begira, han Eubearen kontra ontzidi bat presta zitekeelako, horrela zeharkaldia laburra izango baitzen eta gainera lekua Traziarako pasatzeko baliagarria. Labur esanda, hiria eraikitzea erabaki zuten.

Horrela, bada, Delfoseko jainkoari kontsulta egin zioten, eta haren aginduz euren eta ingurukoen jendartetik bidali zituzten kolonoak, eta beste Heleniarren artetik nahi zuten guztiek, joniarrak, akeoak eta beste herriren batzuk izan ezik, eurekin joateko eskatu zuten; hiru fundatzaile lazedemondar zihoazen buru: Leon, Alzidas eta Damagon. Bertan bizitzen jarrita, harresi berriak eraiki zituzten orain Heraklea deritzon hirian, Termopiletatik gehien ere berrogei estadiora eta itsasotik hogeira dagoen hiria bera. Ontziolak prestatu zituzten eta haitzartea itxi egin zuten beraren zaintza errazteko.

**93.**— Hiria eraiki zenean, atenastarrak hasieran ikaratu egin ziren, eta batez ere Eubearen kontra eraikitzen zela pentsatu zuten, Eubeako Zeneo lurmuturrera dagoen zeharkaldia laburra delako; gero, alabaina, espero ez zuten bezala gertatu ziren gauzak, zeren handik ez zen arriskurik etorri. Arrazoia izan zen hango lurraldeetan eta hiria eraikiz kontra egin nahi izan zieten herrien gain nagusitasuna zuten tesaliarrek sarraskiak egin zietela behin eta berriz eta etengabeko gerran ari izan zirela han finkatu berriekin, ahituta uzteraino, nahiz eta hasieran asko eta asko izan (fundatzaileak lazedemondarrak izan zirenez, mundu guztia zetorren konfiantza osoz, hiria segurutzat zutelako). Hala ere, ez zuten hondamendi txikiagoa ekarri eta ez zuten populazioaren urritasuna gutxiago bultzatu Lazedemoniatik etorritako buruek, gogortasunez eta batzuetan behar ez bezala gobernatuz gehienak izutzen baitzituzten, hartara, inguruko herriak errazago gailentzen zitzaizkielarik.

**94.**— Uda berean eta atenastarrak Melosen zeuden garai bertsuan, Peloponesoa inguratzen zeuden hogeita hamar ontzietako atenastarrek, lehenbizi, Leukadeko Elomenon zaintzako soldadu batzuei segada bat jarri ondoren, jo eta garbitu egin zituzten; gero Leukaderen kontra jo zuten indar gehiagorekin, beren indar ororekin eurekin zihoazen akar-



naniar guztiekin –eniadak salbu–, zazintoarrekin, zefaleniarrekin eta hamabost ontzi korzirarrekin. Leukadetarrak, Leukade dagoen istmo barru eta kanpoko eskualdeak eta Apoloren santutegia suntsituak izan zirelarik, kopuruak hartara behartuta defentsiban egon ziren; baina akarnaniarrek Demostenesek, jeneral atenastarrak, horma batekin blokea zitzan nahi zuten, uste izanik erraza izango zela hiria setioz menperatzea eta betitik euren etsai zen hiri batengandik libratuko zirela; hala ere, Demostenesek une horretan meseniarrei egin zien kasu esan ziotenean beretzat ohorezko ekintza bat izango zela, armada handi bat bildu ondoren, Naupaktoren etsai ziren etoliarrei erasotzea eta, garaitzen bazituen, kontinenteko alde hartako gainerako herriak aise pasako zirela atenastarrengana; era berean azaltzen zioten ezen herri etoliarra, jendetsua eta borrokalaria zen arren, harresirik gabeko eta bata bestetik oso urrun zeuden baserrietan bizi zenez, eta gainera arinki armatuta, ez zela zaila izango haiek menperatzea elkar laguntzeko elkartu aurretik. Lehenbizi Apodotokoei erasotzeko aholkatu zioten, gero Ofionekoei eta ondoren Euritokoei, etoliarren talderik inportanteena bera, hizkuntza ulertezina dutenak eta okela gordina jaten omen dutenak; eta behin horiek konkistatuta, gainerakoak erraz pasako zitzaizkiela euren lerroetara.

**95.**– Demostenesek alde batetik meseniarrei eder egiteko egin zien kasu, eta bestetik uste zuelako ezen atenastarren indarrrik gabe, kontinenteko aliatuekin bakarrik, etoliarrek ere barne, Beoziaraino heldu ahal izango zela Lokride Ozoliden zehar Dorideko Zitiniarantz jo ondoren Fozideraino jaitsi arte joanda –Beozia Fozide ondoan dago–, uste zuelarik bertako biztanleak berarekin joango zirela atenastarrekin beti izandako adiskidetasunagatik edo besterik ezean indarrez eraman-go zituela; orduan, bada, Leukadetik armada osoarekin itsasoratu eta itsasertzari jarraitu zion Solioraino, akarnaniarren nahiaren kontra. Bere plana akarnaniarrei jakinarazi eta gero, haiek onartu ez ziotenez Leukade sitiatzeko horma egin nahi izan ez zuelako, etoliarren kontra joan zen bere armadaren gainerako jendearekin, hau da, zefaleniarrekin, meseniarrekin, zazintoarrekin eta bere ontzietatiko hirurehun atenastarrekin, hamabost ontzi korzirarrek alde eginak baitziren.

Lokrideko Eneonetik abiatu ziren; lokro ozola horiek aliatuak ziren, eta euren indar guztiekin etorri behar zuten herrialdearen barnean atenastarrekin elkartzera, zeren etoliarren auzoak izatean eta haien antzeko





ekipamendua edukitzean, oso baliagarritzat jotzen zen haiek espedizioan parte hartzea, ondotoxoz zekitelako nola borrokatzen ziren etoliarrak eta herrialdea ere ongi ezagutzen zutelako.

**96.**– Zeus Nemeako santutegian gaua igaro ondoren, non hangoek Hesiodo poeta hil omen zuten –orakulu batek auresan zion Nemean horixe gertatuko zitzaiola–, egunsentian Etoliara abiatu zen. Lehenengo egunean Potidania hartu zuen, bigarrenean Krozileo, hirugarrenean Tikio; hantxe itxaron zuen eta harrapakina Lokrideko Eupaliora bidali zuen, zeren erabaki baitzuen, besteak menperatu ondoren, Naupaktora itzulita, beste espedizio batean ofiondarren kontra joko zuela, baldin akordiora heldu nahi ez bazuten.

Prestakizunak ez ziren etoliarrak ohartu gabe egin, proiektua hasi zenean ere ez, eta armada sartu bezain laster, denak etorri zitzaizkien beren indar ugariekin, Meliako Golkoraino hedatzen den azken Ofioneko azken tributetatik eurentatik ere, hala nola Kalia eta Bomiatik.

**97.**– Hala ere, meseniarrek Demostenesi hasierako aholku berak ematen segitzen zuten; etoliarren konkista erraza izango zela adierazita, baserriek ahalik lasterren erasotzeko eta haiek denak bilduta zeudela batailara jo arte itxaron gabe une bakoitzean bidean zeukana hartzeko aholkatzen zioten. Arrazoibide horiek konbentzitutak eta zortean konfiantza jarrita –inoiz ez zuen kontra eduki–, eurekin elkartu beharreko lokroei itxaron gabe –xabalinaz armaturiko tropa arinen premia handia zuen arren– Egitiona aurreratu zen eta indarrez hartu; bertako biztanleek ezkutuka ihes egin zuten eta hiria ikusmenean jartzen duten muinoetan kokatu ziren, itsasotik lauogeit bat estadiotara dagoen gorunetari-ko batean baitago hiria. Baina etoliarrak –Egitiona laguntzera etorriak baitziren– atenastarrei eta beraien aliatuei erasotzeari ekin zioten puntu ezberdinetatik muinoetan behera arineketan joan eta xabalinak jaurtiz, eta atenastarren armada haienganantz aurreratzen zen bakoitzean, atzera egiten zuten, eta armadak atzera egiten bazuen, gainera etortzen zitzaizkion. Luzaro iraun zuen mota horretako borrokak, hots, jazarpenak eta atzera egiteak, taktika horretan atenastarrak desabantailan zeudelarik.

**98.**– Arkulariek geziak eduki eta erabili ahal izan zituzten bitartean, eutsi egin zieten, zeren etoliarrak, arinki armaturik, arku-tiroz uxatzen baitzituzten; baina gero, arkularien burua hil zutenean, arkulariak barreiatu egin ziren eta ahituta gelditu ziren mota bereko borrokan



luzaz jardun behar izan zutelako, eta etoliarrak erasoka eta xabalinak jaurtitzen hasi zitzaizkien; orduan, bizkarra erakutsita, ihesari eman zioten, eta leize gaindiezinetan eta ezagutzen ez zuten tokietan erortzean, garbitu egiten zituzten; hain zuzen euren gidaria ere, Kromon moseniarra, hilik gertatu zen.

Etoliarrek asko hil zituzten ihesean zihoazela atzetik harrapatuta, gizon bizkorrak eta arinki armatuak baitziren; baina gehienak, okerreko bide-tik jo eta irtenbiderik gabeko baso batean sartu zirelarik, basoari su emanez erre zituzten.

Mota guztietako ihesak eta heriotzak izan ziren atenastarren armadan, eta bizirik irten zutenek ozta-ozta ihes egin ahal izan zuten itsasora eta abiagune izan zuten Lokrideko Eneonera. Aliatuetako asko hil ziren eta atenastarren euren artetik ere ehun eta hogeit bat hoplita. Horrenbeste eta adin berekoak izatean, horiek Atenaseko hiriak gerra honetan galdu zituen gizonik baliozkoenak izan ziren; beste jenerala ere, Prokles, hil egin zen.

Akordio bidez etoliarren eskuetatik euren hilak jaso ondoren, Naupaktora egin zuten eta gero Atenasera joan ziren. Demostenes Naupakto aldean gelditu zen, atenastarren beldurrez gertaturikoagatik.

**99.**— Garai bertsuan, Siziliako atenastarrek, Lokrideraino joanda, lehorrreratze batean, euren kontra etorri eta Aleze ibai ondoan zegoen zain-tzako dorre bat hartu zuten lokroak azpiratu zituzten.

**100.**— Uda berean, lehenago Tolofo, ofiondar bat, Boriades, Euritokoa, eta Tisandro, apodotiar bat, Korintora eta Lazedemoniara enbaxadore bidali zituzten etoliarrek Naupaktoren kontra espedizio bat bidaltzera limurtu zituzten, hiri horrek atenastarrei deitu ziela eta. Udazkenean, lazedemondarrek hiru mila hoplita aliatu bidali zituzten; horietatik bostehun Herakleatik, Trakinian eraiki berri zen hiritik, zetozen; espedizioaren buru Euriloko espartarra zihoan eta Makario eta Menadio espartarrak zeramatzan lagun.

**101.**— Delfosen bildu zelarik armada, Eurilokok tratuak egin zituen lokro ozolekin, Naupaktorako bideak beraien lurraldea zeharkatzen zuelako, eta gainera atenastarrendik banan zitezen nahi zuelako. Batez ere Anfisako lokroek kolaboratu zuten berarekin, ikaratuta baitzeuden Fhozearekin zuten etsaitasunagatik; bahituak entregatzen lehenak izan zirelarik, eurek limurtu zituzten besteak ere bahituak entrega-



tzera, hurbilduz zetorren armadaren mehatxua aipatuta; lehenbizi euren auzoak ziren miuntetarrak kobentzitu zituzten, handik oso zaila baitzen Lokride inbaditzea–, gero Hipnoskoak, mesapiarrak, tritearrak, kalia-  
rrak, tolofoniarrak, hesiarrak eta eantearrak. Horiexek guztiek hartu zuten parte espedizioan; olpearrak, bahituak eman zituzten arren, ez ziren eurekin joan, eta hiearrek ez zuten bahiturik entregatu, harik eta euren baserria, Polis deritzona, hartu zuten arte.

**102.**– Dena prestatu eta bahituak Zitinion eta Doriden utzi ondoren, Naupaktorantz abiatu zen armadarekin lokroen lurraldean zehar, eta bidean Eneon eta Eupalio hartu zituen, hiri horiek ez zitzaizkien batu eta; Naupaktoko lurretara heldu eta etoliarrak etorri zitzaizkienean, herrialdea deboilatzeari ekin zioten, eta harresirik ez zeukan aldiriaz jabetu ziren; aurrera eginez Molikrioraino, Atenasen menpeko kolonia korintoarra bera, hartu egin zuten.

Demostenes atenastarrak –Naupakto aldean zegoen oraindik Etoliatik atzera egin ondoren– armada aurrera zetorrela jakin zuenean, hiriagatik zeharo beldurtuta, joan eta akarnaniarrak limurtu zituen –ez zailtasunik gabe Leukadetik atzera egin zuelako– Naupaktori laguntzera etor zitezten. Mila hoplita ontziratu ziren berarekin, eta beraiek etortzeak salbatu zuen plaza, eutsiko ote zieten beldur baitziren, harresia luzea eta defendatzaileak gutxi zirelako.

Eurilokok eta berarekin zeudenek, hirian sartu zirela eta indarrez hartzerik ez zegoela jakin zutenean, atzera egin zuten, ez Peloponesora, orain Eolide esaten diotenera baizik, hau da, Kalidon, Pleuron eta alde hartako eskualdeetara eta Etoliako Proskiora, zeren anpraziarrak etorri eta euren laguntzarekin Akarnaniari ez eze Anfilokiako Argosi eta Anfilokia guztiari erasotzera limurtu baitzituzten, argudio gisa zera erabilita, alegia, horiek menperatuz gero, kontinentearen parte hori guztia lazedemonarren aliatu eginda geldituko zela.

Kobentzitu zelarik, Eurilokok, etoliarrei agur esan ondoren, bere tropak alde horretan geldi mantentzea erabaki zuen, harik eta anpraziarren espediziora batu beharra etorri arte. Eta amaitu zen uda.

**103.**– Hurrengo neguan, Siziliako atenastarrek espedizio bat egin zuten beren aliatu Heleniarrekin eta euren aldean borrokan ari ziren siziliar guztiakin batera, lehenago sirakusarren derrigorrezko menpekoak eta gero atenastarren aliatuak izanik, sirakusarregandik banandu ondoren;



aurrera zihoazela, Inesako gotorleku siziliarrari eraso zioten, bertako akropolisak sirakusarrek okupatuta zutelarik, eta hartzerik izan ez zuten, alde egin zuten. Atzera egitean, gotorlekutik atera ziren sirakusarrek atenastarren atzeguardia osatzen zuten aliatuei eraso zieten, eta euren oldarrean armadaren zati bati ihes eragin zioten eta asko hil zituzten.

Horren ostean, jada itsasoan, Lakesek eta atenastarrek, Lokriden lehorreratze batzuk eginez, Kaizino ibaiaren ondoan, Kapatonen seme Proxenoren agindupean zetozkien lokroak, hirurehun bat, azpiratu zituzten eta haien armak hartu ondoren alde egin zuten.

**104.**— Halaber, uda berean, atenastarrek Delos araztu zuten orakulu bat betetzeko, zeren lehenago Pisistrato tiranoak araztu baitzuen, baina ez guztia, baizik santutegitik ikusten zen uhartearen zatia soilik; orduan osorik araztu zen honelaxe: zeuden hilobi guztiak kendu zituzten eta aurrerantzean uhartean hiltzea edo erditzea debekatu zuten, horrelakoak Reneiara eramatea galdatuz. Hain hurbil dago Reneia Delostik, non Polikrates, aldi batez itsasoz edo ontzidiz nagusitasuna eduki eta beste uharteen gainean agintaritza erabili zuena, Reneiaz jabetu zen eta Apolo Deloskoari sagaratu zion, kate batez Delosekin lotuz. Orduantxe, arazketaren ondoren, ospatu zituzten lehenbizi atenastarrek hamabost eguneko Deloseko jaiak. Duela urte asko, Delosen, joniarren eta inguruko uhartetarren pelegrinazioa egiten zen; bertara andre eta umeekin joaten ziren, joniarrak orain Efesokoetara joaten diren modura; han atleten eta musikarien lehiaketa bat antolatzen zen, eta hiriek beren koruak bidaltzen zituzten; modu berezian uzten du argi Homerok hori horrela zela *Apolori Himno*-tik ateratako honako bertso hauetan.

Zeure bihotzean pozik handiena hartzen zenuenean, Apolo,  
Delosekin,  
non tunika luzedun joniarrak batzen diren  
zure kaleetan beren seme-alaba eta andreekin,  
non borroka, dantza eta kantuearekin  
zu ohoratuz atsegin ematen dizuten, lehiaketa  
antolatzen dutenean...

Musika lehiaketa ere izaten zela eta bertan lehiazera etortzen zirela argi dago Himno bereko bertsoetatik, zeren, Deloseko emakumeen korua goraipatu ondoren, bere burua ere aipatuta idatzi zituen bertso hauexekin bukatzen baitu bere gorazarrea:





«Baina, ea!, Apolo eta Artemis alde ukan ditzazuela;  
agur zuei guztioi; nitaz ere, gero,  
oroit zaitezte, munduko gizonen batek,  
oinazearen eskarmentuarekin, hona egindako bisitan  
galdetzen dizuenean:  
Neskok, nor duzue gogokoen  
bisitan datozkizuen aedoen artean, eta norekin gozatzen duzue  
gehien?  
Orduan denok, bai, denok, esaiozue nitaz:  
Itsua da eta Kios malkartsuan bizi da».

Bertso horiekin Homerok frogatzen du antzina ere izan zela pelegrinazio eta jai handi bat Delosen. Gero, uhartetarrek eta atenastarrek beren koruak opariekin batera bidaltzen jarraitu zuten, baina lehiaketak eta jaialdirik gehienak desagertu egin ziren zirkustantziengatik espero izatekoa zen moduan, harik et atenastarrek lehiaketa eta lehen ez zegoen zaldi lasterketa ezarri zuten arte.

**105.**— Negu berean, anpraziarrak, Eurilokori bere armada atxiki zuenean egin zioten promesa betetzeko, Anfilokiako Argosera joan ziren hiru mila hoplitarekin eta, argostarren lurraldea inbaditu ondoren, Olpas, itsas ondoko muino baten dagoen gotorlekua, hartu zuten, antzina gotortua eta akarnaniarrek auzitegi komun gisa erabiltzen zutena bera; kostaldean dagoen argostarren hiritik gehien ere hogeita bost estadiora dago.

Akarnaniarrei dagokienez, batzuk Argosi laguntzera zetozen, beste batzuek, ostera Krenas esaten dioten Anfilokiako alde horretan kanpatzen zuten, zelatan egoteko Eurilokorekin zihoazen peloponesoarrak ohartu gabe pasa ez zitezen Anpraziarantz. Demostenesi, Etoliaren kontra haren buru izateko jo zuen jeneralari, eta Timokratesen seme Aristotelesen eta Antimnestoren seme Hierofonteren agintepean Peloponesoaren inguruan zeuden hogeitazintziak atenastarrei ere mandatariak bidali zizkieten. Olpaseko anpraziarrek ere, beren aldetik, mandatari bat bidali zuten beren hirira euren indar guztiekin etorritzeko eskatuz, beldur zirelako Eurilokorenek akarnaniarren lurraldea zeharkatu ezin eta borrokak bakarrik harrapatuko ote zituen edo atzera egin nahi izatean segurtasunik gabe aurkituko ote ziren.

**106.**— Kontua da ezen, Eurilokoren peloponesoarrak jakin zutenean anpraziarrak Olpasera heldu zirela, Proskiotik abiatu eta azkar etorri zitzaizkiela; Akeloo ibaia zeharkatuta, Argosi lagundu ondoren tropa-



rik gabe zegoen Akarnanian zehar egin zuten aurrera, eskuinean Strato hiria eta bertako goarnizioa eta ezkerrean Akarnaniako gainerako guztia zutela; Stratoko lurraldea igarota, Fitiako lurraldean eta Medeonekoaren mugetan zehar jarraitu zuten eta gero Limneakoa zeharkatu; agreotarren lurraldean sartu ziren, zeina ez den Akarnaniakoa, hangoen lagunak badira ere; agretarrena den Tiamo mendira helduta, zeharkatu eta Argoseko lurraldera jaitsi ziren gauez jada; inork ez zituen sumatu Argoseko hiriaren eta Krenan jarritako jagoletzaren artetik pasa zirenean, eta Olpaseko anpraziarrekin elkartu ziren.

**107.**– Haiekin elkartu ondoren, Metropolis deritzon leku batera joan eta kanpamentua eraiki zuten; handik ez asko geroago, atenastarrak hogei ontziekin eta Demostenes berrehun hoplita meseniar eta hirurogei arkulari atenastarrekin Anpraziako Golkora azaldu ziren argostarrei laguntzera. Ontziek Olpasen blokeoa ezarri zuten itsasoz; akarnaniarrak eta anfilokiar gutxi batzuk –gehienak anpraziarrek indarrez atxikita zeuden–, jada Argosen bilduta, etsaien kontra borrokatzeko prestatu ziren eta Demostenes aukeratu zuten aliatu guztien komandante goren bere jeneralekin batera.

Demostenesek Olpas ingurura eraman zituen kanpatzera, tartean troka handi bat bazuten ere. Bost egunez gelditu egon ziren, baina seigarrenean borrokarako formazioa eratu zuten alde biek. Demostenesek, peloponesoarren armada handiagoa izanik euren gaindikatzen zenez, inguratu zituzten beldur, bere bide mehar-gunetsu eta sastrakatsuan arinki armaturiko hoplitak eta soldaduak jarri zituen, laurhun gutzira, txoke unean irten eta etsaiaren atzealdean gera zitezen hark gaindikatzen zituen aldean.

Alde bietatik prest egon zirenean, borrokara jo zuten. Demostenes eskuineko ertzean zen meseniarrekin eta atenastarrak gutxi batzuekin, eta lerroaren gainerakoa akarnaniarrekin, tropa kontingenteen arabera banatuta, eta xabalinaz armaturik zihoazen anfilokiarrak betetzen zuten; peloponesoarrak eta anpraziarrak era heterogeneoan kokaturik zeuden, Mantineakoak salbu; horiek elkartuta zeuden, batez ere ezkerreko ertzean, nahiz eta ez ertz-ertzean, han meseniarren eta Demostenesen aurrez aurre zeuden Euriloko eta berarekin zirenak baitzeuden.

**108.**– Borrokan hasita, peloponesoarrak ertza gaindikatzen hasi eta etsaien eskuineko ertza inguratzen saiatu zirenean, akarnaniarrekin, segadatik brast irtenda etsaien atzetik, eraso eta ihes eragin zieten, halatan,



non haiek, ez bakarrik ez zieten aurre egin, baizik beren izuarekin armadaren gehiengoa ere ihesean jarri zuten, zeren, Eurilokoren aldea, indartsuena, deuseztaturik zegoela ikusi zutenean, are bizikiago ikaratu ziren eta; Demostenesekin alde horretan zeuden meseniarrek eraman zuten esfortzuaren parterik handiena. Anpraziarrek eta eskuineko ertzean zeudenek, ordea, aurrez aurre zituztenak garaitu eta Argoseraino jazarri zituzten, izan ere, han inguruetako gerrazaleenak zirela erakutsi baitzuten: itzultzean ikusi zutenean armadaren gehiengoa azpiratua izan zela eta gainerako akarnaniarrak erasoka zetozkiela, ozta-ozta salbatu ziren Olpasen, eta asko eta asko hirira arrapaladan diziplinarik ez ordenarik gabe heltzeko saioan hil ziren, mantinearrek salbu; horietan izan ziren armada guztian ere ordena handiagoz atzera egin zuten bakarrik. Bataila ilunabarrean bukatu zen.

**109.**– Biharamunean, Euriloko eta Makario hilda, Menedaiok hartu zuen agintea eta, jasandako porrot itzelaren ondorioz, hirian geratu eta setioari eusteko modurik ikusten ez zuenez, lehorrez eta ontzi atenastarrak itsasoz ere blokeaturik zeukaten moduan, ezta atzera egin eta salbatzeko modurik ere, Demostenesi eta komandante akarnaniarrei elkarritzetak proposatu zizkien su-etenaz, beraien erretretaz eta hilak jasotzeaz. Besteek euren hilak entregatu zizkieten, trofeo bat eraiki zuten eta beren hilak jaso zituzten, hirurehun bat gehienik ere; ofizalki guztiei ukatu zieten erretreta, baina Demostenesek eta akarnaniarren buruek mantinearrei, Menedaiori, beste buruzagi peloponesoarrei eta ospetsuenei agudo atzera egiteko baimena eman zieten, anpraziarrak eta mertzenario gehienak bakarrik utzi nahi zituztelako, baina batez ere lazedemondarrei eta peloponesoarrei hango inguruko Heleniarren aurrean ospea kendu nahi zitelako, euren traizioarekin argi erakusten baitzuten askoz gehiago axola zietela euren interesek. Eurek euren hilak jaso eta al bait lasterren ehortzi zituzten, eta atzera egiten laga zietenek isilpean planifikatu zuten erretreta.

**110.**– Orduan Demostenesi eta akarnaniarrei albiste bat heldu zitzaien, hiriko anpraziarrak Anfilokian zehar euren indar guztiekin zetozela zioena, Olpasetik egindako lehenengo deiari erantzunez etorri ere Olpasekoekin elkartzeko asmoz, gertatuaz ezertxo ere jakin gabe. Demostenesek bere tropen zati bat bideetan segadak jarri eta puntu gotorrez jabetzeko bidali zuen, eta bera, berriz, tropen gainerakoarekin haien kontra abiatzeko prestatu zen.



**111.**– Bitartean mantinearrak eta erretretarako baimena eman zitzaie-nak, barazkiak eta egurra batzeko aitzakiaz kanpora irtenda, ezkutuka urrunduz joan ziren talde txikietan euren irteeraren xede omen ziren generoak bilduz; jada Olpasetik urrun zeudela, bizkortu egin zuten pau-soa. Eurekin batera irten ziren anpraziarrek ere arinari eman zioten haiek harrapatu nahian. Hasieran, akarnaniarrek pentsatu zuten denek era berean alde egin zutela, hau da, akordioaren babesik gabe, eta pelo-ponesoarrak jazartzen hasi ziren, eta are batzuek, traizioa egin zietela uste izanik, euren jeneralen kontra jaurti zituzten xabalinak, eta hauek galarazi egiten zieten, eta akordioa egina zutela berresten zieten. Han-diak izan ziren eztabaida eta ziurtasunik eza nor zen anpraziarra eta nor peloponesoarra garbitu ezinik; berrehun bat hil zituzten, eta gainerako-ek mugakide zen Agrea ingurura eskapatu zuten, non Salintio agrea-rren erregeak hartu zituen, euren laguna baitzen.

**112.**– Hiriko anpraziarrek Idomena hirira heldu ziren. Hiri hori muino handi bik osatzen dute; bietako handienera, gaua heltzean, Demostene-sek kanpamentutik aurrera bidalitakoak aurrerratuak ziren muino hori ezkutuka hartzera, eta bestera igoak ziren jada anpraziarrek eta han zeuden gaua pasatzen. Afalondoan, iluntzean, martxan jarri ziren Demostenes eta gainerako armada; bera armadaren erdiarekin haitzar-tera, eta bitartean gainerakoak Anfilokiako mendietan zehar. Egunsen-tian oraindik lo zeuden eta gertatuaren inolako berririk ez zuten anpra-ziarren gainera jo zuten; anpraziarrek, berriz, zetozenak euretarrak zirela uste izan zuten, zeran Demostenesek meseniarrek berariaz aurre-an jarri eta haiei hitz egiteko agindu baitzien –dialekto doriarrez min-tzatzen zirenez zentinelei konfiantza ematen zielako– eta gainera gaua izanik ez zituzten ikusten. Gauza da ezen, haien tropen gainera etorri bezain laster, itsumustuan barreiatu zirela eta soldadurik gehienak hil zituztela, gainerakoak mendietan zehar ihes egiten saiatu zirelarik; baina bideak hartuta zeudenez eta gainera anfilokiarrek beren lurraldea ongi ezagutzen zutenez eta arinki armatuta zihoazenez, eta hoplitek, oster, lurraldea ezagutzen ez zutelarik nora jo ez zekitenez, troketan behera amilduta eta prestatu-eriko segadetan erorita galtzen zuten bizia. Nola edo hala eskapatzeko ahaleginean, batzuek oso urrun ez zegoen itsasora ere jo zuten, eta ekintza burutzen zen bitartean kostaldean zehar zihoazen ontzi atikarrak ikusi zituztenean, beraietarantz abiatu ziren igeri, izuaren eraginez pentsatuz hobe zutela, horrela gertatu





behar bazen, ontzietakoen eskuetan bizia galtzea, anfilokiar barbaro eta anker haienetan baino.

Kontua da ezen anpraziarrak, kalamitate horien guztien biktimak izaki, asko izanagatik, gutxi salbatu zirela hirira sartuz. Akarnaniarrek, berriz, gorpuei aldean zeramaten guztia kendu eta trofeoa eraiki ondoren, Argosera alde egin zuten.

**113.**— Biharamunean Olpasetik etorrira agreetarren lurraldean babes hartu zuten anpraziarren heraldo bat heldu zitzaien, lehenengo batailaren ostean mantinearrekin batera su-etenik gabe alde egiten saiatu zirenean eduki zituzten hilak jasotzea eskatzeko. Heraldok hiritik etorritako anpraziarren armak ikusi zituenean, zurtz eginda gelditu zen arma kopuruari erreparatuta, zeren, zer gertatu zen ez zekienez, eurekin egondakoenak zirela pentsatu baitzuen. Orduan batek zergatik zegoen zurtz eginda eta euretako zenbat hil ziren galdetu zion, Idomenakoen heraldoa zela uste baitzuen galdetzaileak; hark gehien ere berrehun izan zirela esan zion, eta galdetzaileak erantzun zion: «Armek, jakina, ez dute hori adierazten, milatik gora baizik». Orduan heraldoak esan zuen: «Orduan ez dira gure aldean borrokatu zutenenak». Eta besteak erantzun: «Bai, behintzat zuek izan bazineten atzo Idomenan borrokatu zenutenak». «Baina guk atzo inorekin ere borrokarik egin ez bagenuen, herenegun baizik, atzera egiten ari ginenean». «Ba, horiexekin borrokatu genuen atzo, anpraziarren hiritik errefortzuekin zetozenean». Heraldok hiriak bidalitako laguntza deuseztatua izan zela ikusi eta ulertu zuenean, ezbeharren handiagatik atsekabeturik eta durduzaturik, segituan alde egin zuen ezer tratatu gabe eta ez zituen eskatu jada hilak. Gerra honetan horixe izan zen Heleniar hiri bati hain egun gutxitan gertaturiko hondamenik handiena. Ez nuen hilen kopurua ipini, sinesteak ere lanak ematen zituen kopurua izan omen zelako, hiriaren tamaina kontuan hartuta. Anpraziari dagokionez, jakina, badakit ezen, baldin akarnaniarrek eta anfilokiarrek, atenastarrei eta Demostenesi kasu eginda, jo eta haustu nahi izan balute, lehenengo erasoan hartuko zutela; baina, egia esanda, okupatuz gero atenastarrak auzo nekagarriagoak izango ez ote zitzaizkien beldur ziren.

**114.**— Horren ostean, harrapakinen hirurena atenastarrei eman ondoren, gainerakoa hirien artean banatu zuten. Atenastarren partea nabigatzen ari zirela harrapatu zuten, eta orain santutegi atikarretan dagoena Demostenesen parte da, Atenasetik itzultzean ekarri zituen hirurehun



armadura oso; gainera, Etoliako hondamenaren ondoren, ekintza horri esker, itzulera ez zitzaion hain beldurgarria gertatu.

Hogei ontzietako atenastarrek Naupaktora abiatu ziren. Akarnaniarrek eta anfilokiarrek, behin atenastarrak eta Demostenes joan zirenean, Salintioaren eta agreotarren ondoan babestu ziren anpraziar eta peloponesoarrei Eniadatik itzultzeko ahalbidea eman zieten, Salintio uztean bertara joanak baitziren. Geroari begira, akarnaniarrek eta anfilokiarrak itunak eta ehun urterako aliantza bat sinatu zituzten anpraziarrekin ondoko baldintzetan: ez anpraziarrek akarnaniarrekin elkartuta joko zuten peloponesoarren kontra, ezta akarnaniarrek anpraziarrekin atenastarren kontra ere, baizik elkarri laguntza emango zieten euren lurraldeak defendatzeko; anpraziarrek anfilokiarrei hartuta zituzten bahitu eta plaza guztiak entregatuko zizkieten eta ez zioten laguntzarik emango anaktoriarrei, akarnaniarren etsai baitzen. Akordio horiekin bukaera eman zioten gerrari. Gero, korintoarrek euren goarnizio bat, hirurehun bat hoplitek osatua, bidali zuten Anpraziara Eutiklesen seme Jenoklidesen agindupean; kontinentean zehar ibilaldi nekoso bat egin ondoren heldu ziren. Horrelaxe jazo ziren Anpraziako gertaerak.

**115.**– Negu berean, Siziliako atenastarrek lehorreratze bat egin zuten Himeran, Himeraren mugaldeak lur barrutik inbadituak zituzten siziliarrekin koordinatuta. Eoloren uharteetara ere joan ziren.

Regiora itzuli zirenean, Isolokoren seme Pitodoro, jeneral atenastarra, aurkitu zuten ontzidia bidaltzen Lakesek agintzen zituen indarren ardurak hartzera, zeren Siziliako aliatuak joan eta atenastarrak limurtu baitzituzten ontzi gehiagorekin lagun ziezaieten, izan ere, lehorrean nagusi sirakusarrak zirenez gero, baina ontzi gutxi batzuek galarazten zieten ez itsasoa erabiltzen, ontzidi bat biltzen ari ziren horrelakorik egiten ez uzteko. Atenastarrek berrogei ontzi prestatu zituzten haiei bidaltzeko, hala hango gerra laster bukatuko zela uste zutelako, nola ontzi-praktikak egin nahi zituztelako. Hartara, jeneraletako bat, Pitodoro, bidali zuten ontzi gutxi batzuekin, eta Sostratidesen seme Sofokles eta Tuklesen seme Eurimedon gehiengoarekin bidaliko zituzten.

Pitodoro, Lakesengandik agintea hartuta jada, lokroen gotorlekuaren kontra abiatu zen neguaren amaieran; gotorleku hau Lakesek hartu zuen lehenago, baina batailan lokroek azpiratuta, atzera egin zuen.

**116.**– Udaberri berean, Etnak, beste batzuetan bezala, laba-jarioa eman zuen, eta Etna mendiaren oinean dagoen Kataniako lurraldearen zati



bat suntsitu zuen. Jendeak dio laba-jario hori aurrekotik berrogeita hamar urtera gertatu zela eta guztira hiru gertatu direla Sizilian Heleniarrak bizi direnetik.

Horixe gertatu zen negu horretan, eta bukatu zen Tuzididesek idatzi zuen gerra honen seigarren urtea.



# PELOPONESOKO GERRAREN HISTORIA IV. LIBURUA

1.— Hurrengo udan, garia bihitzen den sasoian, hamar ontzi sirakusar eta beste hainbeste ontzi lokro Siziliako Mesenaz jabetu ziren, bertako bizilagunek deituta, eta Mesenak bizkar eman zion Atenasi.

Sirakusarrek hiri horrek Siziliarako sarbidea kontrolatzen zuelako burutu zuten ekintza hori, baita atenastarrek, berori operazioen base gisa erabilita, beste noizbait indar gehiagoz erasoko zieten beldur zirelako ere. Lokroek, ordea, Regiokoenganako etsaitasunagatik egin zuten hori, fronte bietan eraso nahi zitelako, zeren aldi berean Regioko lurraldea inbaditu baitzuten, meseniarrei laguntzera joaterik izan ez zezaten eta beren artean zeuden regiotar erbesteratuen eskariei erantzuteko, Regiok aspalditik jasaten baitzuen gerra zibil bat eta ez zen gauza lokroei aurre egiteko, beste arrazoi bat hori ere horiek eraso jatzeko.

Lokroen infanteriak atzera egin zuen haien lurraldea deboilatu eta gero, baina ontziek Mesenan segitu zuten goarnizio gisa, zeren ontzi gehiago hornitu eta Mesenatik, ontzi-base moduan erabilita, gerran hasteko proiektua baitzuten.

2.— Udaberriko sasoi bertsuan, garia heldu aurretik, peloponesoarren eta beren aliatuek Atika inbaditu zuten Arkidamo lazedemondarren erregearen seme Agisen agindupean, eta kanpamentua eraiki ondoren herrialdea deboilatzeari ekin zioten.





Erabaki bezala, atenastarrek berrogei ontzi bidali zituzten Siziliara falta ziren jeneralekin, hots, Eurimedon eta Sofoklesekin batera, zeren Pitorodoro, hirugarrena, jada Sizilian zegoen eta. Igarotzean hiriko korzira-  
rrez arduratzeko agindua eman zieten, mendietan zeuden erbesteratuen harrapaketaren biktimak baitziren. Hirurogei ontzi peloponesoarrak ere hara joanak ziren mendikoei laguntzera, uste baitzuten ezen, hirian garestitze latza sortu zenez, egoera hartan aise egingo zirela jaun eta jabe. Akarnaniatik alde egin zuenetik kargu ofizialik gabe zegoen Demostenesek eskatu ondoren, atenastarrek esan zioten nahi bazuen erabil zitzakeela Peloponeso inguruan zeuden ontziak.

3.– Itsasaldian aurrera, Lakonia parean zirela ontzi peloponesoarrak jada Korziran zeudela jakinarazi zietenean, Eurimedon eta Sofokles presaka abiatu ziren uharterantz; Demostenesek, oster, Pilosen lehorreratu eta beharrezko obrak egin ondoren euren itsasbideari jarraitze-  
ko aholkatzen zien. Proposamen horiek onartu ez zituzten arren, ekaitza sortu zen eta Pilosen porturatzerara behartu zituen ontziak. Demostenesek leku hura berehala gotortzea nahi zuen, zeren, zioenez, horrextarako joan baitzen bera eurekin, eta berariaz azaltzen zien han harri eta zur asko zegoela, gotorleku naturala zela, eta han bertan ez zegoela troparik, handik urrun baizik, Pilos Espartatik laurehun bat estadiora baitago, behiala Mesenia izandako lurraldean, baina lazedemonдарrek Korifasio esaten diotenean. Beste jeneralek ziotsoten Peloponesoan bertan behera utzitako tontor asko zeudela, okupatu zitzakeenak hiriari gastuak eragin nahi bazizkion. Demostenesek, alabaina, leku horri beste guztietatik diferentea zeritzon, zeren, portua zeukanez eta meseniarrek lurraldera antzinatik ohituta zeudenez eta lazedemonдарren dialekto beraz mintzatzen zirenez, leku hura operazio base moduan erabiltita lazedemonдарrei kalte eta oker asko egin ahalko baitzizkieketen, eta gainera kokagune segurutik zaindu ahal izango zuketena herrialdea.

4.– Ez jeneralak lehenengo ez gero soldaduak konbentzitzea lortu zue-  
nez, taxiarkei jakinarazi zien arren, itsasoratzerik ez zuten eta, egonean egon ziren, harik eta soldaduei eurei, han zuten laxotasunean, leku hura gotortzeko gogo sortu zitzaizen arte. Eta hasi ziren lanean: hargin lanabesik ez zuten arren, aukeraturiko harriak ekarri eta doitu ahala pilatuz joan ziren; kareorea erabili behar zutenean, ontzirik ez zeukatenez, bizkarrean eramaten zuten, makurtuta ahalik gehien iraun zezan eta eskuak elkarri lotuta lurrera eror ez zedin. Egin ahalak egin zituzten



punturik erasogarrienak ahalik lasterren amaituta uzteko lazedemondarrak etorri aurretik, izan ere, leku haren zatirik handienak defentsa naturalak zituenek, ez zuen harresirik behar eta.

**5.**– Lazedemondarrak jai bat ospatzen ari ziren, eta, gainera, jakin zutenean ez zioten kasu handirik egin, uste zutelako eurak hara heldu bezain laster edo haiek ez zirela han euren zain egongo, edo aise hartuko zutela indarrez. Haien tropak oraindik Atenasen egotea ere han segitzeko zio izan zuten nolabait.

Sei egunetan kontinentera begira dagoen hiriaren partea eta premiarik handiena zutenak gotortu ondoren, atenastarrek Demostenes utzi zuten bost ontzirekin leku hura babesteko eta arineketan joan ziren Korzira eta Siziliara ontzidiaren gehiengoarekin.

**6.**– Atikan zeuden peloponesoarren Pilosko okupazioaren berri izan zutenean, euren aberrira alde egin zuten segituan, lazedemondarrak eta euren erregea, Agis, konbentziturik Pilosen arazoak zuzenean ukitzen zituela; horrez aparte, inbasioa garai goiztiarrean egin zenez eta garia oraindik heltzeke zegoenez, hazkurritz eskas zebiltzan tropen gehiengoari jaten emateko; halaber, urtaro hartan ohikoa zena baino eguraldi gogorragoa agertu izanak tropak ahitzea ekarri zuen. Ondorioz, zirkunstantzia asko batu ziren lehenago alde egin zezaten eta inbasio hori laburrena izan zedin, hamabost egun baino ez bazituzten egin Atikan.

**7.**– Aldi bertsuan, Simonidesek, jeneral atenastarretako bat bera, Trazian zeuden atenastar gutxi batzuk eta alde hartako aliatuen gudaroste handi bat biltzea lortu eta, bertako jendearen traizio bati esker, Eon hartzea lortu zuen, mendaiarren kolonia bat, etsai zutena; kalzistarrak eta botiatarrak berehala etorri zirenez, hiritik kanpora bota zuten eta soldadu asko galdu zituen.

**8.**– Peloponesoarren Atikatik alde egin eta gero, espartarrak eurak eta inguruko periekoak Pilosera joan ziren segituan, beste lazedemondarrak euren martxa astiroago prestatzen ari ziren artean, beste kanpaina batetik etorri berriak baitziren. Peloponesoan zehar Pilosi laguntzera ahalik lasterren joateko agindua jakinarazi zuten eta mezulariak bidali zituzten Korziran zeuden beren ontzietara. Horiek Leukadeko istmoa lehorrez zeharkatu, Zazinton zeuden ontzi atikarretara inor konturatu barik pasa eta Pilosera heldu ziren; han zeuden jada lehorreko tropak.

Ontzi peloponesoarrak inguratzen ari zirenean, heldu aurretik, Demostenesek ontzi bi bidali zizkien ezkutuka ontziekin Zazinton zeuden



Eurimedoni eta atenastarrei hara etor zitezela jakinaraztera, arriskuan zegoelako gotorlekua. Ontziak bizkor abiatu ziren bertara Demostenesek eskatu bezala.

Bitartean, lazedemondarrak gotorlekuaren kontra itsasoz eta lehorrez erasoa jotzeko prestatzen ari ziren, arrapaladan egina zen eta defendatzaile gutxi zituen eraikuntza bat agudo hartuko zuten esperantzaz. Hala ere, Zazinton ainguratuta zeuden ontzietatik laguntza iritsiko zitzaizela suposatuta, eraikina hartzea lortu ezean, porturako sarrerak ixteko plana zuten, atenastarren ontziek bertan ainguratzerik izan ez zezaten, zeren Esfakteria deritzon uharteak, hurbil dagoen uharte luzangak, portua babestu eta bertarako sarbideak estutzen baititu. Sarbide batak atenastarren gotorleku eta Pilos aldetik ontzi bi pasatzeko modua eskaintzen du; bestetik, oster, zortzi edo bederatzi ontzi pasa daitezke. Uharte sastrakaz beteta zegoen eta sasiz garbitu barik erabat, bertan inor bizi ez zelako, eta hamabost bat estadioko luzera du gehien ere.

Horrela, bada, pasabideak ixtea pentsatzen zuten ontziak elkarren ondo-ondoan ipinita brankak kanporantz zituztela. Uhartetik erasoko zieten beldur, bertara eraman zituzten hoplita batzuk eta besteak itsasbazerrean zehar ipini zituzten, horrela atenastarrek uhartea eta lehorra kontra izango zituztelako, lurralde hartan ez zegoelarik lehorreratzerik, sarrerako kanalaren kanpotik itsasora begira dagoen Pilosko aldeak porturik ez dauka eta; horregatik, atenastarrek ez zuten edukiko eurretarenei laguntzeko operazio baserik, eta lazedemondarrek, itsas batailarik ez arriskurik gabe, segurutik setioz menderatuko zuten plaza, hazkurrik gabe geratzean eta atenastarrek indar gutxirekin okupatu zutelako.

Erabaki bezalaxe, konpainia guztietatik zozketaz ateratako hoplitak uhartera pasatzen hasi ziren. Lehenago eta txanda ezberdinetan gehiago pasa ziren arren, azkenengoak eta preso hartuak lauhun eta hogei izan ziren, euren zerbitzari zihoazen hilotak aparte utzita. Molobroren seme Eptadasek agintzen zien.

9.– Demostenesek ikusi zuenean lazedemondarrak ontziekin eta lehorreko tropekin batera berari erasotzeko prestatzen ari zirela, prestatu egin zen bera ere, eta utzi zizkietenetatik gelditzen zitzaizkion trirre meak gotorlekuaren oinean hondartu ostean, zuresira lotu zituen. Haieetatik lehorreraturiko marinela kalitate eskaseko ezkutuz armatu zituen –gehienak zumezkoak ziren–, inor bizi ez zen tokian ez baitzegoen armarik eskuratzerik, eta zeramatzatenak ere pirateriara dedikatzen zen



meseniarren hogeita hamar arrauneko barku batetik eta hara kasualitatez arribatu zuen batel batetik lortu baitzituzten. Meseniar horiek berrogei hoplita inguru ekarri zituzten eta besteen ondoan jarri zituen.

Hitz batez, armarik gabe edo armatuta zihoazen gizonik gehienak hango ondoen gotorturiko alde seguruenetan ipini zituen kontinentearen aurrean, lehorreko tropei, erasotzen zietenean, atzera eragiteko aginduarekin. Bere tropa guztietatik hirurogei hoplita eta arkulari gutxi batzuk aukeratu ondoren, gotorlekutik itsasorantz irten zen, segurutik lehorreratuko ziren gunera, alde zail eta haiztsua bera, itsasora begira zegoena, baina, Demostenesek uste zuenez, lazedemondarrak erakarriko zituen, euren gotorlekuaren alderik makalena izatean, ez baitzuten gotortu, ontzitan ez zirela gutxiago izango pentsatuta, eta, edonola ere, etsaiak behartuta lehorreratze bat eginez gero, atenastarrek leku hori hartu ahal izango zutela espero zuten. Horrela, bada, ideia horrekin itsasoraino joanda, hantxe jarri zituen hoplitak, ahal bazuten, lehorrera- tzea galarazteko, eta honelaxe egin zien harenga:

**10.**— «Arrisku hau konpartitzen duzuen gizonok, estura honetan zuetarik inor ez dadila burutsu agertu inguratzen gaituen arrisku guztia kalkulatzeko ibiliz, etsaien kontra ezbairik gabe eta adorez joan beharrean, zirkunstantziak zirkunstantzia, irabazi egingo duela baikorki pentsatuta; izan ere, honelako egoera ekidinezinera heltzen garenean, sobera dago erabat hausnarketa, arriskuari ahalik lasterren aurre egitea galdatzeko baitzaigu.

«Edonola ere, zirkunstantziarik gehienak alde ditugula ikusten dut, baldin eusteko borondatea erakusten badugu eta, haien kopuruak durduzatuta gelditu gabe, gure abantaila handiagoei traiziorik egiten ez badiegu. Geure abantailatzat daukat lekuaren helezintasuna, horrek gure aliatu bihurtzen duelarik lekua; eusten badiegu eta atzera egiten ez badugu, zaila bada ere, egingarri izango da, inork ez duelako eragotziko; gure etsaia ere beldurgarriagoa izango da, erretreta errazik izango ez duelako, hartara behartzen badugu, errazago baita atzera eragiten ontziratuta dagoenean, lehorreratuta, ordea, geure baldintza beretan dagoenean baino.

«Haien kopuruari dagokionez, berriz, ez gaitu gehiegi beldurtu behar, zeren, handia izan arren, talde txikietan borrokatu beharko baitute arribatzeko zailtasunagatik, eta ez da lehorrean baldintza beretan borrokatzen duen armada jendetsuagoaren kasua, baizik ontzietan doanena, ontzientzat itsasoan aldeko baldintza asko gertatzea behar duelarik.





«Ondorioz, uste dut haien zailtasunek konpentsatzen dutela gure kopurua eta, gainera, atenastarrak zaretenongandik eta zeuen itsas eskarmentuz ondo dakizunenengandik ezen, eutsi eta, arraunen harrabotsak eta ontzien arribada beldurgarriak ikaratuta ere, amorerik ez emanez gero, inoiz ez dutela lehorreratzea lortuko, zuengandik, diotsuet, espero dut orain gogor eutsiko diezuela eta zeuen buruak eta gotorlekua salbatuko dituzuela, etsaiei itsasbazterrean bertan atzera eraginez».

**11.**– Demostenesen harengarekin adoretuago gelditu ziren. Orduan jaitsti eta itsasbazterraren ertz-ertzean jarri ziren. Lazedemonдарrek, berriz, lehorreko tropekin eta almirante Kratesiklesen seme Trasimelidas espartarra zeramaten beren berrogeita hiru ontziekin aldi berean eman zioten hasiera gotorlekuaren kontrako erasoari; Demostenesek uste zuen tokitik hasi zuten eraso. Atenastarrak fronte bietan, itsasoan eta lehorrean, haiei atzera eragiten saiatzen ziren; peloponesoарrek, ontzi gutxiko taldeetan banatuta gehiagokoetan hurbiltzerik ez zutelako, txandaka erasotzen zieten bitartean, euren kemen guztia aterata eta adore oihuak eginez, etsaiei handik alde eragiten eta gotorlekua hartzen saiatuz.

Denen artean gehien nabarmendu zena Brasidas izan zen, zeren trirreme batean agintedun izanik, ikusi zuenean kapitain eta pilotuak ezbaian zebiltzala eta euren ontziek, hango zailtasunen erdian, elkar jo ez zezaten arduratzen zirela, atrakatzeko posibilitatea bazegoen arren, oihuka esan baitzien ez zegoela ongi zur batzuk salbatzearren etsaiei beren herrian gotorlekua eraikitzen uztea; are ontziak apurtzera bultzatzen zituen lehorreratza behartu nahirik; eta aliatuei, harturiko onura handien truke, euren ontziak lazedemonдарren alde emateko zalantzarik ez egiteko eskatzen zien, eta enkailatzen eta lehorreratzten ahalegintzeko esaten zien, gizonak harrapatu eta gotorlekuaz jabetzeko.

**12.**– Hitz horiez besteak akuilatzen zituen artean, hark berak bere pilotua enkailatzera behartu zuen eta eskalara abiatu zen. Lehorreratzten ahalegindu zenean, atenastarrek galarazi egin zioten, eta, hainbat zauri egin ziotenez, konortea galdu eta arraunlarien eta karelaren arteko tartera erori zen, ezkutua eskuetatik itsasora jauusi zitzaizolarik; itsasoak itsasbazterrera eramanean zuenean atenastarrek jaso zuten ezkutua eta gero borroka horren kariaz eraiki zuten trofeorako erabili zuten.

Besteak, harenga hartuta zeuden arren, ez ziren lehorreratzeko gai izan inguru hartako zailtasunengatik eta atzera egiten ez zuten atenastarren erresistentziagatik.



Halatan aldatu zen zortea, non atenastarrak besteek itsasotik egindako erasoetatik babesten ziren lehorretik, eta lazedemondarrak, ordea, atenastarren kontra ontzietatik orain kontra zuten euren lur lazedemondarrean nola edo hala lehorreratzen ahalegintzen ziren. Garai hartan haien ospearen osagai nagusi bat zera uste izatea zen, alegia, batzuk gehien bat lehortarrak zirela eta infanterian zutela indar nagusia, eta besteak, berriz, itsasoko jendea zirela eta ontzi-nagusitasun osoa zutela.

**13.**— Azkenean, egun horretan eta biharamunaren zati batean euren erasoetan segitu ondoren, erasook bertan behera utzi eta hirugarren egunean Asinara bidali zituzten ontzi batzuk gerra makinak egiteko zura-ren bila, makinekin portuaren aurrean harresia hartuko zuten uste osoz, zeren, harresia garaia bazen ere, gune hura lehorreratzeko egokia baitzen.

Bitartean, berrogeita hamar ontzi atenastar etorri ziren Zazintotik, Nau-pakton zaintzan zeudenetatik zenbaitzuk eta lau kiotar batu baitzitzaizkien. Kontinentea eta uhartea hoplitaz bete-beterik eta etsaien ontziak portuan zeudela eta ez zirela irteten ikusi zutenean, non ainguratu ez zekitela, urrun ez dagoen eta inor bizi ez den Prota uhartera abiatu ziren eta bertan pasa zuten gaua. Biharamunean aingurak altxatu eta borrokarako formazioan jarri ziren etsaiek euren kontra itsaso zabalera irten nahi bazuten ere, eta, hori gertatu ezean, eurek haiei barruan erasotze-ko asmoz.

Besteak ez haiengana zetozen ez egindako plana, sarrerako kanalak ixtea, betetzen zuten, baizik, lasai asko, ontziak ekipatzen eta badaezpada etsaiek sartzeko ahalegina egiten bazuten ere prest jartzen ari ziren, txikia ez zen portuan batailan jarduteko asmoz.

**14.**— Atenastarrak haien jarreraz ohartu zirenean, kanal bietatik zehar abiatu ziren eta, haiengana erasoan helduz jada gehienak itsasbazterretik urrunduta zeudenean eta brankak aurrera begira zituztenean, ihes eragin zieten. Jazarpena hain hurbiletik izan zenez, ontzi asko matxuratu zituzten, bost harrapatu, euretako bat tripulazio eta guzti, eta itsasbazterrean babestu ziren besteei oldartu egin zitzaizkien. Tripulazioa ontziratzen ari zitzairen ontziak suntsitu egin zituzten itsasoratu aurretik eta ontzi batzuk, hutsik zeudenak euren tripulazioak ihesari eman ostean, eurenei amarratu eta atoian eraman zituzten.

Hori ikusita, lazedemondarrak atsekabetu egin ziren suntsipenagatik, euren gizonak isolatuta gelditzen zirelako uhartean; arineketan joan



ziren haiei laguntzera, eta, euren armekin itsasora sartuz, haiek zera-matzaten ontziei tiraka hasi ziren. Bakoitzak uste zuen porrot garbira-ko izango zela berak esku hartu gabeko ekintza oro. Iskanbila handia sortu zen bando bakoitzak ontzi-estrategiaz aldatzean, zeren lazedemondarrek, haserrearen haserrez nahasita, ez zuten besterik egiten, zelanbait esateko, itsas bataila bat lehorrean burutzen tematu baino, eta atenastarrek, ordea, irabazten ari zirenez eta egoera hari ahalik etekin handiena atera nahi ziotenez, oinak ongi tinkatuta borrokatzen zuten ontzietatik. Oinaze eta zauri askoren ondoren, banandu egin ziren, eta lazedemondarrek beren ontzi hutsak atxiki zituzten, hasieran harrapatu zizkietenak izan ezik.

Bando biak nor bere kanpamentura itzulita, atenastarrek trofeoa eraiki zuten, hildakoak itzuli zituzten, ontzien hondakinak berenganatu zituzten eta uhartearen inguruan nabigatzen eta zaintzapean edukitzen jardun zuten segituan, gizonak isolatuta geratu zirela sinetsita. Lehorreko peloponesoarren alde guztietako errefortzuak hartu zituzten eta Pilos ondoan setioan segitu zuten.

**15.**– Pilosen gertaturikoaren berri heldu zenean Espartara, halako hondamendiaren aurrean erabaki zuten agintariak kanpamentura joan zitezten eta, egoera beraiek aztertu ondoren, berehala erabaki zezaten zer egin behar zen.

Laguntzerik ez zegoela ikusi zutenean eta gosez hiltzeko edo kopuruegatik menderatuak izateko arriskuan sar zitezen ere gura ez zutenez, erabaki zuten ezen, Pilosko jeneral atenastarrekin su-etena lortu ondoren, horretaratzen baldin baziren, enbaxadoreak bidaliko zituztela Atenasera akordiora heltzeko eta beren gizonak lehenbailehen ekartzen ahaleginduko zirela.

**16.**– Jeneral atenastarrek onartu zituzten haien proposamenak, eta honako akordio honetara heldu ziren:

Lazedemondarrek Pilosera ekarriko zituzten eta atenastarrei entregatuko zizkieten borrokan erabilitako ontziak eta Lakonian zeuden gerrako barku guztiak; eta ez zioten erasoko gotorlekuari ez lehorrez ez itsasoz. Atenastarrek kontinenteko lazedemondarrei uharteko beren gizonei honako hauek bidaltzen lagako zieten: anoa bat irin jada oraturik, bi atikar kenize garagar, bi kotila ardo eta okela, eta anoa horren erdia otseinentzat. Hori atenastarren kontrolpean bidaliko zen, eta ontzirik bat ere ez zen ezkutuka sartuko. Atenastarrek segituko zuten uhartea jago-



ten, nahiz eta lehorreratu barik, eta ez zieten erasoko tropa pelopone-soarrei ez lehorrez ez itsasoz.

Puntu horietako baten bat mailaren batean urratuz gero, su-etenak hautsita geldituko ziren. Enbaxadore lazedemonдарrak Atenasetik itzuli arte egongo ziren indarrean; atenastarrek eraman eta ekarriko zituzten trirreme batean. Haiek etortzean, su-etenak hautsita geldituko ziren eta atenastarrek harturiko beste ontzi itzuliko zizkieten lazedemonдарrei. Horiexek izan ziren su-etenen baldintzak. Entregatu zituzten ontziak, hirurogeiren bat, eta bidali zituzten enbaxadoreak.

Atenasera heldu zirenean ondokoa esan zuten:

**17.**— «Atenastarrok, lazedemonдарrek bidali gaituzte uharteko gizonei buruz zuekin hitz egiteko, zuei ikustarazteko negoziatuko duguna zuentzat ona dela eta, aldi berean, jasandako hondamendiaren aurrean, guretzat desohorea izan ez dadin, oraingo zirkunstantziak kontuan izanda.

«Ez gara gehiegi luzatuko geure ohiturari huts eginez, izan ere gure artean tradizionala baita hitz asko ez erabiltzea gutxi aski direnean, nahiz eta gehiago erabiltzen ditugun zer egin behar den adierazteko unea garrantzitsua denean. Ez itzazue har etsai moduan, ezta ikasi beharra duten ezjakin gisa ere, dakien jendeari erabaki orduan asmatu beharrari buruz egindako oroigarri moduan baizik.

«Zeuen zoriona ondo administratzeko aukera duzue, hain zuzen ere zeuen jabetzakoa duzuen guztia gordez eta ohorea eta prestigioa metatuz, ohitu gabe egonik arrakasta lortzen dutenei pasatzen zaiena zuei ere pasa ez dakizuen, zeren horiek, esperantzak bultzatuta, gehiago nahi izaten baitute beti, uneko zoriona ustekabeen erdietsi dutelako. Espero izatekoa da, ordea, onerako eta txarrerako gorabehera asko izan dituztenek mesfidatzea gehien oparotasunezko egoerez, hori segurutik zeuen hiriari, duen eskarmentuagatik, eta geuri ere gertatzen zaigularik.

**18.**— «Kontura zaitezte horretaz, Heleniarren artean prestigiorik handiena ukan arren orain zuengana jotzen dugunok jasaten ari garen ezbeharrak ikusita; eta hori lehen orain eskatzera gatozena emateko ahalbide gehiago genuela uste genuenok egiten dugula.

«Eta ez zitzaigun hori botere faltagatik gertatu, ezta boterea gehitzean ozartu egin ginelako ere, baizik, beti izan genituen ahalbideetan oinarrituta, erabakiak oker hartzeagatik, horretan edonori gerta dakiokela-





rik gauza bera. Horregatik, ez da logikoa zuek ere, zeuen hiriaren egungo boterea eta zuengana batzen direnek sortzen dutena ikusita, zortea beti alde izango duzuela sinetsita egotea. Gizon zentzudunen artean daude zorteak hona zein hara egiten duela beti begien bistan izanda beren ondasunak segurtatzen saiatzen direnak –ezbeharrean ere besteak baino zuhurrago jokatuko luketelarik–, baita uste dutenak ere ez dela posible gerra baten bilakabidea norberak nahi dituen mugen barruan guztiz kontrolatzea, zorteak ere zeresan handia duelako. Horrelako pertsonak, lorturiko arrakastetan fidatuta berotzen ez direlako porrot gutxitan egiten dutenez, oparotasun uneetan beren liskarrei amaiera lehenago emango lieketenak lirateke. Portaera horixe edukitzea kome-ni zaizue orain gurekin, eta guri kasurik ez egitearren porrot egiten baduzue –aise gerta daitekeen gauza–, inoiz ez da pentsatuko gero zuen oraingo lorpen arrakastatsuak ere zorteari esker erdietsi zenituztela, eta areago geroako guztiei botere eta argitasun ospea arrisku barik utzi ahal diezunean.

**19.**– «Lazedemondarrek ituntzera eta gerrari amaiera ematera gonbidatzen zaituztete, bakearen, aliantzaren eta adiskidetasun handi baten eta herri bion arteko harreman estuen aukera eskainiz uharteko gizonen truke, uste dutelako biontzat hobe dela indarrez ihes egiteak, horretarako paradarik izanez gero, edo, kapitulatuko balute, zuen esku geratzeko lekarkeen arriskuan ez sartzea.

«Uste dugu etsaitasun handiak direla beraien liskarrei era egonkorragoan amaiera emango lieketenak. Eta hori ez da gertatzen norbaitek, errepresaliaz eta bere etsaia alde handiz gainditzearren, zinak derrigorrean inposatzen eta baldintza berdintasunean oinarritzen diren akordioak azkentzen dituenean, baizik, gauza bera egiteko posibilitatearen aurrean, berarengandik espero zenaren kontra, moderazioz eta barkaberatasunez itunak egiten dituenean, besteari eskuzabaltasunean gehiago eginez. Orduan etsaiak bere burua beharturik ikusten duenez, ez indarrez derrigortua izan balitz bezala bere burua defenditzera, baizik haren eskuzabaltasunari neurri berean erantzutera, adosturikoa bere ohorearekin bermatzera pretago sentitzen da. Maizago jokutzen dute horrela pertsonak beren etsairik amorratueneekin, konponduetzin normalak dituztenekin baino, eta berezkoa da berenez amore ematen dutenei gustura irabazten uztea, eta, harrokeria dagoenean, ordea, logikaren kontra ere arriskuei aurre egiteko prest egotea.



**20.**— «Guri, batzuo i zein bestetzuei, adiskidetzea komeni zaigu, bitartean sor daitekeen erremediorik gabeko zerbait, gure betiko etsaitasun nazionalari norbanakoen artekoa gehitzea ekarriko duen zerbait gertatu aurretik, eta zuek guk proposamenak egitean eskaini nahi dizuegun abantaila hori barik gelditu aurretik.

«Egoera oraindik erabaki gabe dagoenez, adiskide gaitezen, eta zuek horrekin, loriaz gain, gure etsaitasuna zeuenganatuko duzue eta guk, desohorearen ordezt, geure zorigaitzarentzat leungarri bat aurkituko dugu. Aukera dezagun bakea, eta ez gerra, eta, Heleniar guztien mesedetan, eman diezaiegun amaiera beraien gaitzei; horren merezimendua batez ere zeuena dela pentsatuko dute, zeren orain gerran nork hasi zuen jakin gabe ari baitira, baina amaiera ematen bazaio, eta hau batez ere zeuen eskuetan dago, zeuei erakutsiko baitizute esker ona.

«Horrela erabakitzen baduzue, lazedemondarrak lagun seguru legez eduki ahal izango dituzue, eta, eurek proposatzen dizuetenez, gainera lagun behartu gisa barik esker oneko lagun legez. Azter ezazue zenbat abantaila espero daitezkeen horretatik. Guk eta zuok aho batez hitz egiten badugu, jakin ezazue Heleniar munduko gainerakoek, botere txikiagoa dutenek, estimurik handiengan edukiko gaituztela».

**21.**— Horrelaxe mintzatu ziren lazedemondarrak, osoan sinetsita aurreko etapan atenastarrek bakea gura izan zutela, baina lazedemondarren oposizioak pikutara bidali zuela, eta orain, lazedemondarrek eskaintzen zieten, gustura onartuko zutela eta itzuliko zizkietela euren gizonak. Atenastarrek, alabaina, gizonak uhartean atxikitzen zituzten bitartean, su-etenak eurek noiz gura orduantxe egiteko aukera izango zutela pentsatzen zuten, eta harago jartzen zuten jomuga.

Horretara gehien zirikatzen zituena Kleenetoren seme Kleon zen, aldi hartan herrian sinesgarritasun handia zuen herri buruzagia. Hark hartaratuta, lazedemondarrei ihardetsi zieten uhartekoak arma eta guzti errenditu behar zirela Atenasera eramane zituzten eta, han zeudenean, aurretik lazedemondarrek Nisea, Pega, Trezen eta Akaia –gerran hartuak barik, atenastarrek, hondamendi baten kariatz eta su-etenak behar zituzten une batean sinaturiko aurreko itun baten eraginez, entregaturiko lekuak– itzuli eta gero eramango zituztela beren gizonak eta su-etenak egin ahal izango zituztela alde biek ongi iritzitako aldirako.

**22.**— Besteek ez zuten ezer esan ihardespenari buruz, baizik ordezkari batzuk aukeratzeko eskatu zieten, beraiekin puntu bakoitzari buruz eta



lasaitasunez iritziak trukatu ondoren, batzuei eta bestetzuei komenigarri izango zitzaizkien akordioetara hel zitezen. Kleonek, alabaina, behin eta berriz esan zuen lehenago ere ohartua zela haiek ez zutela ezer bidezkorik euren pentsamenduan, baina orain argi eta garbi gelditzen zela hori, Batzarraren aurrean hitz egin nahi ez eta lagun gutxik osaturiko batzordea eratzea nahi zutelako; euren asmoak garbiak baziren, denen aurrean hitz egiteko eskatu zien.

Lazedemondarrek, ikusten zutenez ezingo zutela Batzarraren aurrean hitz egin, badaezpada jasandako hondamenagatik zerbait bederen ematea erabakitzen bazuten ere, euren proposamenek arrakastarik ez bazuten beren aliatuen aurrean ez desprestigiatzeko kontu handiz ibiliz, eta gainera atenastarrek berek proposaturikoari buruz ez zutela moderazioz jokatu ulertu zutenez, ezer lortu barik alde egin zuten Atenasetik.

**23.**– Haiek itzuli bezain laster, Pilosi buruzko su-etenak hautsi egin ziren eta lazedemondarrek ontziak eskatu zituzten akordioan adostu zen bezalaxe; baina atenastarrek, aitzakiatzat jarrita su-etena indarrean egon arren gotorlekuaren kontra eraso jo zutela eta kontatzea merezi ez duten beste kexa batzuk, ez zizkieten itzuli, hitzarturiko puntu bat behin eta berriz errepikatuz, hau da, adosturikoa zerbaitetan urratuz gero, su-etenak hautsita gelditzen zirela. Lazedemondarrek horren kontrako iritzia agertu zuten eta, ontzien kontua justiziaren kontrako hutsegitatzat jota, itzuli egin ziren eta borrokan hasi ziren berriro.

Alde biek gogor ziharduten borrokan Pilosen. Atenastarrak egunez etengabe ari ziren uhartearen jiran elkarren kontrako norabidean zebiltzan ontzi birekin, eta gauez ontzi guztiekin eusten zioten blokeoari, haizeak jotzen zuenean itsaso zabalera dagoen aldean izan ezik; gainera Atenasetik hogeitaz ontzi etorri zitzaizkien zaintzarako, eta hartara hirurogei eta hamar ziren guztira. Kontinentean kanpaturik zeuden peloponesoarren, aldiz, erasoak jo zituzten gotorlekuaren kontra, beren gizonak salbatzeko paradaren bat sortzen bazen ere.

**24.**– Bitartean, Sizilian, sirakusarrek eta beren aliatuek, Mesenan zain-tzan zeuden ontziei ekipatzen ari izan ziren gainerako ontziak gehituta, gerra egiten ziharduten Mesenatik; horretara batez ere lokroek bultzatzen zituzten, Regiokoekin zuten etsaitasunagatik, inbaditua baitzuten Regioko lurraldea euren indar guztiekin. Batailan sartzeko ere prestatu ziren, ikusi zutenean atenastarrek ontzi gutxi zituztela eta jakin zutenean etorriko zen ontzidiaren gehiengoarekin Esfakteria uhartea blokea-



tzen ari zirela; ontzidiarekin garaile ateratzen baziren, Regio aise menderatzea espero zuten infanteriari eta haien ontzien blokeoari esker, eta orduan sendotuta geldituko zen euren posizioa, zeren Regio, Italiaren muturra, Mesenatik hur zegoenez, atenastarrek ezingo zuten blokeoa ezarri, ezta itsasartea kontrolatu ere.

Itsasartea Regio eta Mesena bitartean dagoen itsasadarra da, Sizilia kontinentetik hurbilen dagoen aldean; hori Karibdis deritzona da, eta hortixe igaro omen zen Odiseo. Estua delako eta bertara itsaso handi bi, Tirrenoa eta Siziliakoa, doazelako, korronteak daude, eta, arrazoiz non-bait, arriskugarritzat egon zen.

**25.**— Itsasarte horrexetan hain zuzen eta eguna aurrera eginda zegoela, sirakusarrek eta beren aliatuek handik iragaten ari zen merkantzi ontzi bategatik borrokatu beharra izan zuten, hamasei ontzi atenastarren eta Regioko zortziren aurka abiatuz. Atenastarrek garaitu zituztelarik, agudo alde egin zuten, bakoitzak ahal zuen moduan, Mesenako eta Regioko kanpamentuetara, nor berera, ontzi bat bakarrik galduta; ekin-tzan zebiltzala gautu egin zuen.

Horren ostean, lokroek alde egin zuten Regiotik, eta sirakusarren eta beren aliatuen ontziak, bitartean, Mesenako Pelorisen bilduta, bertan ainguratu zituzten ontziak eta lehorreko tropek batu zitzaizkien. Atenastarrak eta Regiokoak hurbildu eta ontziak tripulaziorik gabe ikusi zituztenean, oldartzen saiatu ziren; baina burdinazko kako batez oratuta, atenastarrek ontzi bat galdu zuten, eta bertako gizonak igeri salbatu ziren. Geroago, sirakusarrak ontziratu eta itsasbazterrari jarrai kableekin atoian nabigatu zutelarik, beste eraso batean atenastarrek beste ontzi bat galdu zuten, besteek bira egin eta oldarrean aurrea hartu zietelako. Sirakusarrak, ez zeharkaldian ez batailan parterik txarrena leporatu barik, Mesenako portura sartu ziren.

Atenastarrei dagokienez, Arkiasak eta bere aldekoek Kamarina sirakusarrei entregatu nahi zietela jakin zutenean, bertara abiatu ziren. Bitartean, meseniarrek espedizio bat egin zuten euren indar guztiekin Naxosen kontra, mugakide zen kolonia kalzistarra bera. Lehenengo egunean, naxostarrak harresien atzean babestera behartu ondoren, landazabala deboilatzeari ekin zioten. Biharamunean, ontziekin Azesine ibaira helduta, deboilatzen segitu zuten eta, bitartean, lehorreko tropekin hiriaren kontra jo zuten eraso. Orduan siziliarrak kopuru handian jaitsi ziren goialdeetatik naxostarrei mesenatarren kontra laguntzeko;





naxostarrek ikusi zituztenean, konfiantzaz bete ziren eta, leontinoak eta beste aliatuak eurei laguntzera zetoze la uste zutelako elkar animatuz, bat-batean irtenda meseniarrei gainera etorri zitzaizkien, eta ihes eragin eta mila gizon baino gehiago hil zizkieten, eta besteek estu eta larri lortu zuten alde egitea, zeren barbaroek bideetan gainera etorri eta gehienak hil baitzituzten. Geroago beren hirietara itzuli ziren Mesenan porturatuta zeuden ontziak.

Ondoren segituan, leontinoek eta beren aliatuek atenastarrekin batera Meseniaren kontra egin zuten espedizio bat, indarrak urrituta zeuzkala uste zutelako. Atenastarrak euren ontziekin portualdetik erasotzen saiatu ziren, lehorreko tropek hirialdetik egiten zuten artean. Demotelesen agindupean goarnizio moduan gelditu ziren meseniar eta lokroek egin zuten irteera batean, beraien erasoan espero ez zutenez, tropa leontinoen gehiengoari ihes eragin zioten eta asko hil zituzten. Atenastarrak, horretaz ohartu bezain laster, laguntzera joan zitzaizkien arineketan eta berriro ihes eragin zieten meseniarrei hiriraino, nahasirik zeudenean eraso baitzieten. Trofeoa eraiki ondoren Regiora abiatu ziren.

Geroago, Siziliako Heleniarrek elkarren kontra lehorreko espedizioak egiteari ekin zioten atenastarrekin parte hartu gabe.

**26.**– Pilosko atenastarrekin setiatuta mantentzen zituzten oraindik uhar-teko gizonak, eta kontinenteko tropa peloponesoarren beren lekuan ziraute. Jatekorik eta urik ezak neketsu bihurtzen zuen zaintza, zeren Pilosko akropolian baino ez zegoen iturriarik, eta iturri hori ez zen opa-roa; gizonik gehienek urertzeko harritzan aztakatu eta espero izatekoa zen ura edaten zuten. Sufritzen ari ziren, halaber, leku txiki batean kan-patzeak dakartzan arazoak, eta, ontziak ainguratzerik ez zutenez, tripu-lazioaren zati bat jateko lehorreratzen zen bitartean, gainerakoak itsaso zabalean gelditzen ziren.

Etsipen itzela eragiten zien euren kalkuluetatik harago zirauekin setioak, zeren uste baitzuten egun gutxitan behartuko zituztela kapitulatzerela irla bakarti hartan ur gazikara baino ez zutenak. Hori gertatzen zen lazedemonдарrek bando bat eman zutelako, setio baterako komenigarri zen irina, ardoa, gazta eta edozelako elikagaiak uhartera sartu ahal izateko, lan horren truke diru-sari handiak luzatuz eta sartzea lortzen zuen hilotari askatasuna aginduz.

Besteekin arriskatuaz sartzen bazituzten ere, hilotak ziren batez ere Peloponesoko edozein puntutatik itsaso zabalarik begira dagoen uhartearen



aldera iristen zirenak gauez ere; batez ere haizeak eraman zitzan egoten ziren zain, zeren itsasoko haizeak jotzen zuenean errazago burlatzen baitzituzten trirremeetako zaindariak, haiei orduan zail egiten zitzaielako uhartearen inguruan ainguratzea, eta hilotek, oster, ez zuten eragozpenik uhartera arribatzeko, beraien ontziak jada diruz tasaturik zeudelako eta hoplitak eraso, jotzeko egokiak ziren uharterko lekuak zaintzen zituztelako; eguraldi onaz arriskatzen zirenak, ordea, harrapatu egiten zituzten. Batzuk portuan barrena ere heldu ziren, urpetik igerian eztiaz eta ehilotako linaziaz igurtzitako lo-belar haziz beteriko zahagiak loturik zeuzkan soka bati tiraka. Orduan, lehen oharkabe pasatzen zirenen presentzia jagon zen. Nola batzuek hala besteek asma zitezkeen amarru guztietara jotzen zuten, batzuek hazkurriak sartzeko, besteek baten batek euren zaintza burlatzea ekiditeko.

**27.**– Atenasen jakin zutenean beren tropak ezaldiak eta nekeak sufritzen ari zirela eta hazkurriek uhartekoei iristen segitzen zutela, ez zekiten zer egin, eta neguak uhartearen setioan harrapatuko ez ote zituen beldur ziren, zeren ikusten baitzuten ezinezkoa izango zutela Peloponnesoa inguratuz hazkurriak garraiatzea; horri gehitzen zitzaion han, udan ere behar ziren bidalketak egiteko modurik eskaintzen ez zuen eta ontziak ere lehorreratu ezingo zuten leku hartan, populaziorik ez zegoela; eta uharterko gizonak zaindariak lasaikerian eroriz gero soilik salbatuko zirela, edo ekaitz baten zain egonda lortuko zutela itsasoz eskapatzea hazkurriak zeramazkieten barkuetan. Baina lazedemonarren gauzarik beldurgarrientzat haiek jada bake proposamenik ez egitea zeukaten, beraien ustez haiek zer bait zutelako euren alde, eta horregatik, damutu egiten zitzairen itunak onartu ez izana.

Kleonek, akordioak eragotzi izanagatik besteengan sortzen zituen mesfidantzez ohartuta, azaldu zuen mezulariek ez ziotela egia, eta, handik bidalitakoek sinesten ez bazien begiraleak igortzeko aholkatu zietenengan, atenastarrek bera aukeratu zuten Teagenesekin batera. Berak kritikatzeko zituenek zioten gauza bera esatera edo kontrakoa esanez gero gezurti moduan geratzera behartuta aurkituko zela konbentzizuta, atenastarrei, tropak bidaltzearen aldeago ikusi zituenengan, esan zien begiraleak bidali beharrik ez atzerapenak sortzen ibili beharrik ez zegoela aukera galduz, eta ontziak bidali behar zirela lazedemonarren kontra, albisteei egiazkoak baldin bazeritzeten. Nizeratoren seme Nizias jenerala atenastarra zeharka aipatuta, etsaia zuelako eta kritika moduan,



agertu zuen tropekin erraz izango zela uharteko gizonak harrapatzea, beti ere jeneralek gizon legez jokatzuz gero, eta bera ere, agintea balu, hori egiteko gai litzatekeela.

**28.**— Atenastarrak Kleonen kontra asaldatzen hasi zirenez —erraza zela uste bazuen bera ere zergatik ez zihoan esanez—, Niziasek, bere kontrako aipamena jasota, eurei (jeneralei) zegokienez ekintza nahi zituen indarrekin aurrera eramatera animatu zuen.

Hasieran Kleon, agintea hitzez soilik lagatzen ziola uste zuenez, prest agertu zen; baina agintea benetan emateko asmoarekin ikusi zuenean, atzera egin, zuen eta ikaratuta, agintea lagatzen ez zela ausartuko pentsatzen zuen arren, jenerala bera barik Nizias zela esan zuen. Hark berriro egin zion eskaintza, aginteari uko egin zion eta atenastarrak jarri zituen horren lekuko. Orduan, jendetzak egin ohi duen moduan, zenbat eta ahalegin handiagoa egin Kleonek espedizioa saihesteko eta esandakotik atzera egiteko, orduan eta gehiago eskatzen zioten atenastarrek Niziasi agintea hari pasatzeko eta Kleoni oihu batean esaten zioten Pilosera joan zedila. Hartara, esandakoari nola itzuri egin ez zekiela, espedizioaren agintea hartu zuen eta, hizketan hasiz, azaldu zuen ez ziela beldurrik lazedemondarrei eta hiriko troparik eraman gabe abiatuko zela, han zeuden lemnarrak eta Inbrokoak, Enotik etorritako infanteria eta jatorri ezberdineko lauhun arkulari bakarrik eramanda. Gehitu zuen ezen indar horiekin, eta gainera Pilosko tropekin, hogeigun barru bizirik ekarriko zituela Pilosko soldaduak edo hantxe bertan hilko zituela. Haren fanfarrokeriak barre eragin zien atenastarrei, baina, hala ere, laketa izan zuten zentzudunek, konbentzita baitzeuden bi onurarik bat ziur lortuko zutela: edo Kleonengandik libre geldituko ziren, seguruenik horixe gertatuko zelarik, edo, horretan asmatu ezean, beren esku izango zituzten lazedemondarrak.

**29.**— Batzarrean tramiteak burutu ondoren atenastarrek espedizioaren ardura eman ziotenean, Pilosko jeneraletako bat, Demostenes, aukeratu zuen agregatu eta agudo prestatu zuen irteera. Uhartean lehorreratzeari planteatzen zuelako izendatu zuen agregatu Demostenes, zeren soldaduak, hango zailtasunek nekatuta eta setiatzaile izan beharrean setiatu bihurtuta, arriskueta sartzeko prest zeuden eta. Horrexetara bultzatzen zuen uhartea suak erre izanak ere, zeren lehenago, basoz estalita eta utzikeriagatik biderik gabe zegoela, errezeloz betetzen baitzuten, eta hori etsaien alde zihoala uste zuen, zeren, indar askorekin



lehorreratu arren, eurek ikusten ez ziren kokalekueetatik erasotzean, galerak eragingo baitzizkieten, kontuan hartuta etsaiaren akatsak eta indarrak ez zirela ikusiko basoaren erruz, agerian izango zirelarik, ordea, bere armadaren huts eta akats guztiak, halatan, non nahi zuten tokian ustekabean etorriko zitzaizkien gainera, ekimena euren esku gelditzen zelarik. Basoko adarrartearen indarrez sartzen bazen, oster, uste zuen gutxiago zirenak, lekua ondo ezagututa, gehiago zirenak baina lekua ezagutzen ez zutenak baino indartsuagoak izango zirela; eta ez zen konturatuko bere armadaren zati handi bat suntsitua izango zela, ezingo zuelako ikusi nora joan beharko zuen errefortzuekin.

**30.**– Ideia horiek batez ere Etoliako hondamenetik zetozkion, alde berderen oihanagatik gertatu baitzen. Hala ere, lekua estua zelako soldaduak zentinelaren babespean gosaltzera beharturik aurkitu zirelarik irlaren ertzetan eta baten batek, nahi gabe, basoaren zati txiki bati su eman ziolarik eta haizeak haraxe jo zuelarik, basoaren zati handi bat erre zen eurak konturatu gabe. Demostenesek argiago ikusi zuenean lazedemondarrak berak uste zuen baino gehiago zirela, lehenago, oster, hazkurria gutxiagorentzat sartzen zutela pentsatzen bazuen ere, atenastarrek ahalegin handiagoa jarri zuten, etsaia garrantzi handiagokoa zela kontuan hartuta, baita uhartean errazago lehorrera zitekeela ikusi zutelako ere. Eta Demostenesek erasoaren prestatzen jardun zuen, hurbileko aliatuen tropen bila jendea bidaliz eta beste erabaki batzuk hartuz.

Kleon, bitartean, aurretik mezulari bat bidali ondoren bere etorrera iragartzeko, Pilosen aurkeztu zen eskaturiko tropekin. Elkartu bezain laster, heraldo bat bidali zuten kontinentean zegoen etsaien kanpamentura proposamen honexekin: nahi bazuten, batailako arriskurik jasan gabe, gonbida zitzatela uharteko gizonak armekin errenditzera, harik eta akordio zabalagoa egon arte arrazoizko zaintzapean edukitzeko baldintzarekin.

**31.**– Onartu ez zuten, egunbete itxaron zuten, eta biharamun arratsaldean itsasoratu egin ziren hoplita guztiekin ontzi gutxitan, eta egunsentia baino zertxobait lehenago uhartearen alde bietan lehorreratu ziren, itsasora begirakoan eta portura begirakoan, hoplitak zortziehun inguru zirelarik, eta arineketan abiatu ziren uharteko lehenengo zaingo-postuaren kontra.

Tropa lazedemondarren antolamendua ondokoa zen. Lehenengo zaingo taldean hogeita hamar bat hoplita zeuden; erdikoan –leku lauagoan eta uretatik hurbil– tropen gehiengoa eta euren burua, Epitadas, zeuden





zaintzaile; talde urri batek zaintzen zuen uhartearen ertza Pilosen aurrez aurre, itsasotik malkartsua eta lehorretik armaz hartzen zaila zen aldea bera, zeren bertan, halabeharrez, lehenago harriak pilatuta egingako defentsa batzuk baitzeuden, haren ustez baliagarri izango zitzaizkienak, erretreta egin beharra bazuen. Horixe zen haien antolamendua.

**32.**— Atenastarrek lehenbizi eraso zieten zaintzaileak berehala suntsitu zituzten, oraindik ohean zeudela, armak hartu nahirik eta lehorreratzeaz ohartu gabe, uste izan baitzuten ontziak ohi bezala gaueko blokeora zihoazela.

Egunsentia heltzean, gainerako tropak ere lehorreratu egin ziren. Hirurogeita hamar baino gutxi gehiago ziren ontzietatik behealdeko arraunlariak izan ezik beste guztiak lehorreratu ziren, nor bere taldearekin, zortziehun arkulari, beste hainbeste inguru peltasta, etorri ziren meseniarrek eta Pilosen zeuden gainerako guztiak, gotorlekuaren zaintzaileak izan ezik. Demostenesen aginduei jarrai, berrehun edo hortik gorako, batzuetan gutxiagoko, taldeetan banatu ziren eta goienetan jarri ziren, etsaiak ahalik zailtasun handienetan ipini eta alde guztietatik inguratuta nori aurre egin jakin gabe ibil zitezen eta tropen gehiengoaren jopuntu anitza izan zitezen: aurrekoen kontra aurreratzen baziren, atzekoen jopuntu, alde batekoen kontra joz gero, beste aldekoena. Noranahi joanda, beti izango zituzten bizkarrean tropa arin etsaiak, borrokatzen zailenak, beraien boterea distantzian datzalako, beren arku, xabalina harri eta habailekin, haiei erasotzerik ez zegoelarik, zeren ihes egitean bizkorragoak baitziren, eta besteak erretretan hasiz gero, jazarri eta inguratu egiten zituzten eta.

Idea horrekin egin zuen Demostenesek lehorreratzearen plangintza eta praktikan antolamendu horixe erabaki zuen.

**33.**— Eпитadasen taldeak, uharteko artean handiena bera, lehenengo zaingo taldea suntsitu egin zutela eta tropak erasoan zetozkiela ikusi zuenean, antolatu eta hoplita atenastarren kontra abiatu ziren batailan topo egitera, zeren haien aurrean jarri baitziren; tropa arinak, aldiz, alboetan eta atzean zeuden. Kontua da ezin izan zutela hoplitekin hartu-eman fisikorik lortu, ezta beren ezagutza militarrez baliatu ere, tropa arinek albo bietatik egindako jaurtiketez galarazten zietelako, eta gainera hoplitak ez ziren etorri eurengana, zirkinik egin gabe geratu baitziren. Tropa arinei hurbilagotik erasotzen zietenean ihes eragiten zieten, baina haiek berehala itzuli eta borrokan jarraitzen zuten, haien eki-



poa arina izaki ihesean aurea erraz hartzen zielako, leku malkartsuak ziren eta; lazedemonдарrek, ordea, beren ekipo pisutsua aldean zutela, ez zuten etsaiak jazartzeko modurik.

**34.**– Horrela, aldi batean borrokatxo horiei ekin zieten; baina lazedemonдарrak jada ezin zirenez agudo heldu erasotzen zieten lekuetara eta tropa arinak euren kontraerasoetan geldoagoak zirela konturatu zirenez, adorea hartzen hasi ziren gertatzen zena ikusita, dela askoz gehiago zirelako, dela jada ohituago zeudelako eta egoerari hasieran lehorreratzear bezain beldurgarri ez zirelako irizten, orduan lazedemonдарrei aurre egin behar zirelako ideiak menpean hartuta baitzeuzkan, gero, ordea, ez zutelarik jaso espero adina min eta ezbehar. Erdeinuz beterik eta oihu batean, etsaien kontra abiatu ziren, aldi berean harriak, geziak, xabalinak, eskuan zuten guztia jaurtiz.

Iskanbila hura erasoarekin batera sortzean, nahasmendua jabetu zen mota horretako borrokara ohitu gabe zeuden gizon haiez, eta aldi berean errauts-laino bat sortzen zen baso erre berrian gora; zail zegoen ikusten norberak aurrean zuena, gizon askok aldi berean jaurtitako gezi eta harrien erruz, errauts-lainoa aparte utzita. Egoera laztu egin zitzairen lazedemonдарrei: kaskoek ez zituzten babesten gezietatik eta jaurtitzen zizkieten lantzak apurtu eta sartuta gelditzen ziren, noraezean zebiltzan, aurrean zeukatena ikusi ezinik, beretarren aginduak entzun ezinik etsaien zalaparta handiagoagatik, arriskuz inguratuta alde guztietatik eta salbamen borrokan aurkitzeko esperantzarik gabe.

**35.**– Azkenean, asko jada zaurituta leku berean etengabe mugitzen ibiltzearren, elkarrengana bilduta alde egin zuten uhartearen ertzeko defentsetara –ez zeuden urrun– eta zaingo taldearekin elkartzera.

Amore eman zuten unean, tropa arinek, orduan jada konfiantzaz beterik, are iskanbila handiagoarekin eraso zieten, eta erretretan bakaturik gelditu ziren lazedemonдар guztiak hil zituzten, nahiz eta gehiago defentsetan, zaingo tropen ondoan, babestea lortu zuen eta defentsetan zehar kokatu ziren armaz hargarriak ziren guneean euren buruak defenditzeko asmoz.

Atzetik zihoazkien atenastarrek, posizioaren gotorleku naturalaren aurrean, ezin zuten itzulingururik eman, ezta posizioak inguratu ere, eta aurretik erasoz saiatu ziren handik egozten. Luzaro, egun osoan ia, eutsi zioten elkarri alde biek, borrokak, egarriak eta eguzkiak akituta egon arren, batzuek etsaiak goienetatik egozten saiatzeko, besteek amorerik



ez emateko; eta lazedemonдарrek lehen baino aiseago eragiten zieten atzera, atenastarrek ezin zituztelako alboetatik inguratu.

**36.**— Hura amaigabea gertatzen ari zenez, jeneral meseniarra Kleon eta Demostenesengana hurbildu zen eta esan zien euren ahaleginak alferrik galtzen ari zirela, baina, arkulari eta tropa arinen talde bat eman nahi bazioten, berak emango zuela itzulinguru bat lazedemonдарren atzealdean agertzeko aurkituko zuen bide batetik, eta, hala uste zuen, lortuko zuela sartzea. Eskaturikoa hartu eta ezkutuan abiatuta etsaiek ikus ez zezaten, uharteko labarra gaindigarria zen tokietatik eta lazedemonдарrarak, posizioaren abantaila naturaletan fidatuta, zelatan eta adi ez zeuden lekuetatik eginez beti aurrera, itzulinguru zail eta neketsu bat emanda, inor ohartu gabe pasa zen: goienean haien atzealdean agertu zelarik, nahasita utzi zituen batzuk; besteak ordea, espero zutena ikustean, askoz gehiago hazi ziren.

Lazedemonдарrak jada alde bietatik erasoak jasotzen eta, pasadizo txiki bat gertaera handi batekin alderatzeko, Termopiletako egoera berean, zeren haiek pertsiarrek zidorrean zehar itzulinguru bat eman zutelako galdu baitzuten bizia, horiek ere, alde bietako erasoen mende gelditu zirenean, ez zioten gehiago eutsi egoerari, eta atzera egiten hasi ziren, borroka gutxi askoren kontrakoa baitzen eta haien gorputzak makal baitzeuden elikagairik ezagatik; eta orduan atenastarrak jada sarbideen jabe gelditu ziren.

**37.**— Kleon eta Demostenes konturatu zirenean lazedemonдарrek beren armadaren esku galduko zutela bizia beste apur batean amore ematen bazuten, borroka gerarazi zuten eta euren gizonak apartatu Atenasera bizirik eramateko asmoz, baldin euren aldarrikapena entzutean armak entregatzeko prest agertzen baziren eta orduko arriskuaren aurrean amore ematen bazuten. Aldarrikapenean proposatzen zieten ezen, nahi bazuten, entrega ziezazkietela armak eta euren buruak atenastarrei, ongien zeritzoten moduan delibera zezaten.

**38.**— Gehienek, hori entzun zientenean, ezkutuei jaregin eta besoak jaso eta astindu zituzten, proposamena onartzen zutela adierazteko. Ostean, etsaitasunen geraldari eutsiz, eztabaidatzeko bildu ziren Kleon, Demostenes eta lazedemonдарren aldetik, Faraxen seme Estifon, zeren lehengo buruetatik hilda baitzegoen lehenengoa, Epitadas, eta horren ondoren aukeratua, Hipagretas, bizirik zegoen arren, gorpuen artean zetzan hilda balego bezala, eta hori hirugarrenez hautatua izan zen, ohi-



turari jarrai, badaezpada beste biei zer bait gertatuz gero ere. Estifonek eta bere lagunak esan zuten ezen heraldo baten bitartez kontinenteko lazedemonдарrei kontsultatu nahi zietela zer egin; baina Kleonek eta Demostenesek ez zuten inor askatu, baizik kontinentetik etorrazazi zituzten heraldoak, eta, bizpahiru kontsulta egin ondoren, azkenean kontinenteko lazedemonдар batek honako hau jakinarazi zien: «Lazedemonдарrek desohorean erori gabe zeuen buruez zuek zeuek erabakitzera gonbidatzen zaituztete». Beren artean deliberatu ondoren, armak eta beren buruak entregatu zituzten.

Atenastarrek egun eta gau hartan zaintzapean eduki zituzten; biharamunean, uhartean trofeoa eraiki eta gero, alde egiteko prestakizunak egin zituzten eta presoak trirremeetako kapitainei entrega zizkieten zain zitzaten. Lazedemonдарrei dagokienez, heraldo bat bidali ondoren beren hilak eraman zituzten.

Uhartean ondoko hauek hil eta bizirik preso hartu zituzten: uhartera lauhun eta hogeit hamar hoplita pasa ziren guztira; horietarik bizirik berrehun eta laurogeita hamabi eraman ziren, besteak hil egin ziren; bizirik gelditu zirenetarik espartarrak ehun eta hogeit hamar inguru ziren. Atenastarren artean ez ziren asko hil, bataila erregularra izan ez zelako.

**39.**– Gizonak uhartean setiatuta eduki zituzten aldia, ontzi-batailatik uhartekora arte, guztira hirurogeita hamar egunekoa izan zen. Horietarik, enbaxadoreak su-etenez hitz egiteko kanpoan izan ziren hogeit hamar egunetan nork bere anoa hartu zuen; gainerako egunetan ezkutuan sartzen zenetik elikatu ziren; hala ere, uhartean bazegoen garia, eta beste elikagai batzuk ere gelditzen ziren, izan ere haien buruak, Epitadasek, bakoitzari eman al ziona baino gutxiago ematen zion.

Atenastarrek eta peloponesoarrak Pilosetik beren hirietara alde egin zuten tropekin, eta, zentzugabea izan arren, bete egin zen Kleonen agintzaria, hogeit hamar eguneko epean eraman baitzituen gizonak, agindu bezalaxe.

**40.**– Horixe izan zen gerrako gertaerarik ustekababekoena, zeren uste baitzuten lazedemonдарrek ez zituztela armak entregatuko ez gosearen ez beste ezein beharrianen eraginez, baizik armak eskuan eta borrokatu ahalean borrokatzen hilko zirela, halatan, non ez zuten uste armak entregatu zituztenak hil zirenen parekoak zirenik. Eta are, gero, uharteko preso bati, mintzeko, euren hilak ausartak ote ziren galdetu zion atenastarren aliatu bati hark erantzun zion balio handikoa litzatekeela kir-





tena –gezia esan nahirik– ausartak bereiziko balitu, hartara, harriek eta geziek edonor hiltzen zutela adierazi nahian.

**41.**– Behin presoak eramanda, atenastarrek kartzelan sartuta edukitzea erabaki zuten akordiora heldu arte, baina hori baino lehenago lazedemonдарrek euren lurraldea inbaditzen bazuten, handik atera eta hil egingo zituzten.

Goarnizio bat ezarri zuten Pilosen, eta Naupaktoko meseniarrek, hura euren aberria zela buruan sartuta, zeren Pilos behiala Mesenia izandako lurraldean baitago, Lakonia arpilatzeari ekin zioten eta kalte handiak egin zituzten, dialekto beraz mintzatzen ziren eta. Lazedemonдарrek, lehenago harrapaketatik eta mota horretako gerratik libratu zirelarik, hilotak desertatu egin zutela ikusita eta herrialdeko arazoak areagotuko ote ziren beldur, ez zuten hori erraz jasaten, eta, atenastarrek horretaz konturatzerik nahi ez zuten arren, enbaxadak bidaltzen zizkieten eta Pilos eta beren gizonak berreskuratzen ahalegintzen ziren. Besteek, alabaina, gehiago nahi zuten eta, enbaxada ugari heltzen zitzaizkien arren, emaitzarik gabe bidaltzen zituzten etxera.

Horiexek izan ziren Pilosekiko gertaerak.

**42.**– Uda berean, gertaera horiek jaso eta segituan, atenastarrek espedizio bat egin zuten Korintoren kontra laurogei ontzirekin, beren bi mila hoplitarekin eta berrehun zaldizkorekin zaldiak garraiatzeko ontzietan; aliatuetarik Mileto, Andro eta Karistokoak zihoazen eurekin, eta Nizeratoren seme Nizias eta beste bi zeramatzaten jeneral. Egunsentian arribatu ziren kostaldera Kersoneso eta Rito bitartean, Soligia muinoaren azpian dagoen lurraldeko hondartzara, non antzina doriarrak bizi izan ziren eta hiriko korintoarrekin –oliarrak ziren– gerra bat egin zuten; muinoan orain Soligia deritzon herrixka dago. Ontziak lehorreratu ziren hondartzaren alde horretatik herrixkara hamabi estadio daude, Korinto hirira hirurogei eta Istmora hogei.

Korintoarrak, atenastarren armadaren etorreraz Argosek jakinaren gainean ipinita, Istmora bildu ziren denak, Istmotik kanpokoak izan ezik, nahikoa lehenago; ez zeuden Anprazia eta Leukadeko bostehun goarnizio-gizonak ere; besteak zain zeuden euren indar guztiekin ea non lehorreraturen ziren atenastarrak. Gauez arribatu zirelarik haiek konturatu gabe eta haien presentzia adierazteko seinaleak altxa zirelarik, tropen erdiak Zenkreasen utzita badaezpada atenastarrak Kromionera abiatzen baziren ere, laguntza ematera joan zen bizkor.



**43.**— Bato, jeneraletako bata —bi izan ziren batailan—, konpainia batekin Soligia herrixkara joan zen hura zaintzeko, ez baitzeukan harresirik, eta bitartean Likofron gainerako tropekin erasotzen ari zen. Korintoarrek lehenbizi lehorreratu berri zen atenastarren eskuineko ertzari eraso zioten Kersonesoaren aurrean, gero gainerako tropei; batailan gogor borrokatu zen eta gorputzez gorputz beti.

Eskuin ertzak, atenastarrek eta karistioek osatua —horiexek baitzeuden ertzean kokatuta— aurre egin zien korintoarrei, eta ozta-ozta lortu zuen azkenean atzera eragitea; korintoarrek orduan horma bateraino egin zuten atzera. Leku hartan dena zenez aldapa, goienetik harriak jaurtitzten hasi zitzaizkien, eta, peana intonatu ondoren, berriro erasoari ekin zioten; atenastarrek aurre egin zieten eta gorputzez gorputz hasi ziren borrokan; orduan beren ezker ertzari laguntzera etorri zen korintoarren konpainia batek ihes eragin zion atenastarren eskuin ertzari eta itsasoraino jazarri zuen; baina atenastarrak eta karistioak euren ontzietatik borrokara itzuli ziren. Alde batetik zein bestetik gainerako tropek etengabeko borrokan ziharduten, baina batez ere korintoarren eskuin ertza, non Likofron zegoen, nabarmentzen zen atenastarren ezker ertzaren kontrako borrokan, uste baitzuten atenastarrek ahaleginen bat egingo zutela Soligia herrixkaren kontra.

**44.**— Hitz batez, luzaroan jardun zuten elkarri aurre egiten amorerik eman gabe; gero —atenastarrei emankor gertatu zitzaien zalditeriak borrokan parte hartu izana, besteek ez zuten eta zalditeriarik— korintoarrek buelta eman eta muinora alde egin zuten, eta, han geldialdia egin da, ez ziren jada jaitsi, geldirik segitu zuten eta bertan. Eskuin ertzetiko ihesaldi horretan gehienak hil ziren, baita Likofron jenerala ere. Gainerako tropek ere antzera jokatu zuten, beharturik aurkitzean goienetara alde eginez, jazarpen handirik ez ihesaldi bizkorrik izan ez zelarik eta han hartu zituztelarik posizioak.

Atenastarrek, etsaiak jada ez zetozkienez, hilei zeramaten guztia kentzen eta beren hilak jasotzen jardun zuten, eta segituan trofeoa eraiki zuten.

Zenkreasen ea Kromionera zihoazen begiratzeko kokatuta zeuden tropa korintoarren erdiek ez zuten, Oneo mendiaren erruz, ongi ikusi bataila, baina hauts harrotu guzti hura ikusi eta konturatu zirenean, lasterka joan zitzaizkien; adin handiagoko korintoarrak ere joan zitzaizkien, gertatuaren berri jakin bezain laster.



Atenastarrek, tropelean zetoze la ikusi zituztenean, auzoko peloponesoarren errefortzuak zirela pentsatu zuten eta atzera egin zuten arineketan ontzietara harrapatutako guztiarekin eta euren hilekin, aurkitu ezin eta bi bertan utzita, baina. Ontziratu ondoren, han hurbileko uharteetara joan ziren eta beraietatik, heraldoak bidalita, utzitako hilak jaso zituzten su-etena bitarteko. Batailan berrehun eta hamabi korintoar eta berrogeita hamar, edo gutxi gutxiago, atenastar hil ziren.

**45.**— Egun berean uharteetatik itsasoratuta, atenastarrak korintoar lurrean dagoen Kromionera abiatu ziren; hiritik ehun eta hogeitabat estadio-ra dago. Ainguratu ondoren, eskualdea suntsitu zuten, eta bertan igaro zuten gaua.

Biharamunean, lehenbizi itsasbazterrari jarrai Epidauroko lurraldera joan eta lehorreratzaren bat edo beste eginda, Metanara, Epidauro eta Trezenen artean, iritsi ziren gero, eta, Metana dagoen penintsulako istmoaz jabetu ondoren, gotortu egin zuten. Goarnizio bat ezarri ostean, Trezen, Halia eta Epidauroko eskualdeak arpilatzeari ekin zioten. Behin leku hura gotortu zutenean, beren hirira itzuli ziren ontziekin.

**46.**— Hori gertatzen ari zen aldi bertsuan, Eurimedonek eta Sofokles, atenastarren ontziekin Pilosetik Siziliarantz abiatu ondoren, Korzilara helduta, hiri horretakoekin batera espedizioa egin zuten Istona mendian finkatuta zeuden korzizarren kontra, erreboltaren ondoren itsasoa zeharkatu eta eskualdean jaun eta jabe zirelako eta kalte handiak egiten zituztelako. Erasoan harresia hartu zuten, baina gizonak goien batean babestu ziren guztiak, eta akordio batera heldu ziren, beraren arabera laguntzaile guztiak entregatzen zituztelarik eta beren armak ere entregatuko zituztelarik, herri atenastarrak eurei buruz erabaki zezan. Akordioaren arabera, haiek zaintzeko, atenastarrek Ptikia uhartera eraman zituzten harik eta Atenasera bidali arte, baldintza gisa jarrita baten bat ihes egiteko ahaleginean harrapatzen bazuten, akordioak hautsita geldituko zirela. Baina Korzira herriko buruzagiek, atenastarrek Atenasera eramandakoak hilko ez ote zituzten beldur, honako hau asmatu zuten.

Uhartean zeudenetako gutxi batzuk limurtu zituzten, horretarako ezkutuak lagunak bidaliz eta jarraibideak emanez, asmo onez zihoazela eta, esan ziezaieten eurentzako onena lehenbailehen ihes egitea zela eta ontzi bat prestatuko zietela, jeneral atenastarrek Korzirako herriari entregatu nahi zituztela eta.



**47.**— Konbentzitu zituztenez eta, gainera, prestatu zieten barkuaren tranparekin harrapatu zituztenez, hautsi egin ziren su-etenak, eta korzizarrei entregatu zizkieten guztiak. Horretara iristeko asko egin zuen, aitzakia biribila edukitzeko eta asmatu zutenek askatasun handiagoz joka zezaten, jeneral atenastarrek, nabaria zenez, nahi ez izatea presoak, beste batzuek eramaten bazituzten, eurek Siziliarantz baitzihoazen, eramango zituztenen loriarako bide izan zitezen.

Korzizarrek, behin haien kargu egin zirenean, eraikin handi batean sartu zituzten. Gero, hogeiko taldeetan aterata, alde banatan jarritako hopliten ilara biren artean eraman zituzten, eta elkarri lotuta ilaretakoek jo eta umiliatu egiten zituzten euren etsai pertsonalen bat ikusten zuten bakoitzean; zartailuekin zihoazen gizonak eurekin, eta astiroegi zebiltzanak astindu eta bizkorrazazi egiten zituzten.

**48.**— Hirurogei gizoneraino atera eta erail zituzten horrela, etxe barrukoek jakin gabe, beste nonbaitera zeramatzatela uste baitzuten. Baina konturatu zirenean eta norbaitek ikusarazi zietenean, atenastarrak etor zitezen erreklamatzeko hasi ziren, eta eskatu zieten, gura bazuten, hantxe bertan hiltzeko, baina jada ez zutela etxetik irten nahi, eta gehitu zuten ez ziotela, beren ahalean, inori ere sartzen utziko. Korzizarrek, alabaina, ateak bortxatzeko kontuan asmorik ere ez zuten erakutsi, baina, hori egin orde, etxearen teilatu gainera igo eta sabaia zulatu ondoren, behekoen kontra teilak eta geziak jaurtitzen hasi ziren. Behekoek babesteko neurriak hartzen zituzten ahal zuten heinean, nahiz eta batzuek beren buruaz beste egiten zuten, goitik jaurtiriko geziak eztarrian sartuta edo han zeuden kamaina batzuen sokekin edo euren manten zerrendekin nork bere burua urkatuta; eta, dela modu batera edo bestera beren buruez beste egin zutelako gauaren zati handi batean zehar —zeren hondamena gertatzen zen bitartean gaua heldu baitzitzaien—, dela goikoek behekoak aparatzea lortu zutelako, sarraskitu egin zituzten.

Eguna argitzean, korzizarrek hiritik kanpora eraman zituzten, gurdietan pilatuta, eta gotorlekuan preso hartu zituzten emakume guztiak esklabo bihurtu zituzten. Horrelaxe galdu zuten bizia mendiko korzizarrek, eta horrelaxe bukatu ziren gertatu ziren iskanbila larriak, gerra horretan bederen, bandoetako batetik kontuan hartzeko moduko ezer ere ez baitzen geratu.

Atenastarrak Siziliarantz abiatu ziren, euren espedizioaren benetako helburura, eta beren hango aliatuekin batera gerran jarraitu zuten.





**49.**– Naupaktoko atenastarrek eta akarnaniarrek udaren amaieran anak-toriarren kontra –Korintorena den eta Anpraziako golkoaren sarreran dagoen hiria bera– egin zuten espedizio batean, hiri horretaz jabetu ziren traizio bati esker, eta, korintoarrak handik egotzi ondoren, akarnaniarrek berek okupatu zuten lurraldea beren herrialdetik etorritako jendearekin. Eta bukatu zen uda.

**50.**– Hurrengo neguan, Arkiporen seme Aristidesez, aliatuei igorri zitzaizkien fondoak biltzeko ardura izan zuten ontzi atenastarretako jeneral batek, Artafernes, Pertiako erregeak Lazedemonera bidalitako pertsiar bat, atxilotu zuen Eonen, Strimonen ondoan,. Atenasera eramanda, atenastarrek, karaktere asiriarretan idatzitako haren gutunak itzuli ondoren, irakurri egin zituzten. Idatzitako beste gauza batzuen artean lazemondarrei ziotsen gauzarik garrantzitsuena zen erregeak ez zekiela zer nahi zuten; enbaxadore asko joan arren, inork ez zioela gauza bera, eta, beraz, argi azaldu nahi bazuten, pertsiarrarekin batera bidaltzeko mandataria. Jarraian, atenastarrek beren enbaxadoreekin batera Artafernes bidali zuten Efesora; han jakin zutelarik Artaxerxes, Xerxesen semea, oraintsu hila zela –garai horrexetan hil baitzen–, etxera itzuli ziren.

**51.**– Uda berean, halaber, kiotek euren harresi berria eraitsi zuten atenastarren aginduz, matxinatu nahian zebiltzala susmatzen baitzuten, nahiz eta kiotek atenastarrei ez zutela matxinatzeko asmorik esan eta hori sinestarazi nahian ahal zituzten berme eta segurtasun guztiak eman. Amaitu zen negua, baita Tuzididesez idatzi zuen gerra honen zazpigarren urtea ere.

**52.**– Hurrengo uda hasi bezain laster, ilberri zela, eguzki eklipsea izan zen, eta hil beraren hasieran lurrikara.

Mitileneko eta Lesboko gainerako erbesteratuek, kontinentetik kopuru handian irtenda eta Peloponesotik eta eskualde haietatik mertzenarioen tropa bat bildu ondoren, Reteo hartu zuten, eta minik ez kalterik gabe itzuli zuten Fozeako bi mila estateroren truke; gero Antandroren kontrako espedizio batean, traizio bati esker, hiriaz jabetu ziren. Beraien plana atenastarrak okupatzen ari ziren eta behiala Mitileneren mende egon ziren aktearrak deritzen gainerako hiriak askatzea zen, baina beste ezein baino lehenago Antandro, zeren hura berenganatuta, ontziak erraz egiteko modua izango zuten –basoak dituelako eta Ida mendia handik hur dagoelako–, baita gerrarako beste ekipamendu batzuk egiteko ere, eta, paraje hura base moduan erabilita, Lesbori, handik hurbil,



kalteak egingo zizkieten eta kontinenteko herri eoliarrak menderatuko zituzten.

**53.**— Atenastarrek, aldiz, Ziteraren kontrako espedizio bat egin zuten uda berean hirurogei ontzi, bi mila hoplita eta zaldizko gutxi batzuekin, beren aliatu miletoarrak eta beste batzuk ere berekin eramanda; beraien jeneralak Nizeratoren seme Nizias, Diitrefesen seme Nikostrato eta Tolmeoren seme Antokles ziren. Zitera Lakonia ondoan, Malea lurmuturraren ondoan, dagoen uharte bat da; bertako biztanleak perioen klaseko lazedemondarrak dira, eta bertatik «Ziterako epailea» zeritzon magistratu bat pasatzen zen urtero. Lazedemondarrek hopliten goarnizio bat zeukaten han etengabe, eta ardura handiz zaintzen zuten, zeren Egipto eta Libiatik zetozen merkantzi ontziek geldialdia egiteko eta piratek itsasotik erasotzeko erraztasun gutxiago eduki zezaten erabiltzen baitzuten, itsasotik bakarrik egin ziezazkieketelarik kalteak eta ezbeharrak, erabat sartzen baitzen Siziliako itsasoan eta Kretakoan.

**54.**— Kontua da ezen, atenastarrak beren armadarekin arribatu ondoren, hamar ontzik eta bi mila hoplita miletoarrek Eskandea izeneko kostan dagoen hiria hartu zutela, gainerako armadarekin Malea lurmuturrera begira dagoen uhartearen aldean lehorreratzen ziren bitartean; itsasotik urrun dagoen Zitera hiriaren kontra abiatu ziren, eta segituan mobilizata aurkitu zituzten denak. Borrokan hasita, Ziterakoek apur batean eutsi zieten, baina gero, ihesari eman eta barruko hirian babestu ziren; gero Niziasekin eta haren burukideekin adostu zuten euren buruak haiei gomendatzea, heriotza zigorrari zegokionean izan ezik. Lehenago ere eginak ziren elkarriketak Niziasen eta ziterar batzuen artean, eta horregatik azkarrago eta euren alderago negoziatu zen euren oraina eta geroa akordioan, zeren atenastarrek deportatu egingo zituzketen ziterarrak, lakoniarrek zirelako eta, gainera, lehenago esan bezala, Lakonia-tik hurbileko uharte batean bizi zirelako. Baina, akordia egin eta gero, portuaren ondoan dagoen Eskandea izeneko herrixkaren kargu egin eta Ziteran goarnizio bat ezarri ondoren, Asina, Helos eta itsas ondoan dauden herri gehienetarantz abiatu ziren, gauez egoki gertatzen zaizkien tokietan lehorreratu eta kanpatuz, eta eskualdea deboilatzeari ekin zioten zazpi bat egunez.

**55.**— Lazedemondarrek, atenastarrek Zitera okupatzen zutela ikusita, euren lurraldean ere horrelakoxe lehorreratzeak egingo zutela suposatuz, inon ere ez zieten aurrez aurre jarri beren indar guztiak batuta, bai-



zik guardiako hoplitak bidali zituzten herrialdean zehar toki bakoitze-ko premien arabera, eta, bestela, prebentzio handia erakusten zuten, barrualdeko aldaketak sortuko ote ziren beldur, uhartearen ustekabeko hondamen handia, Pilos eta Ziteraren okupazioa, orduantxe gertatu zelako eta alde zurretiko neurririk hartzen uzten ez zien gerra azkar batek alde guztietatik inguratuta zituelako; eta, hartara, euren ohitura-  
ren kontra, lauhun zaldizkok eta zenbait arkularik osaturiko taldea antolatu zuten, eta, gerrari dagokionez, lehen uzkur agertzen baziren, orain are uzkurrago, euren buruera militarren kontrako ontzi-borroka batean sartuta zeudelarik; eta borroka hori atenastarren kontra zen, zein-entzat ekintzan ez hastea lortu nahi zena galtzea zen beti. Gainera, denbora laburrean zoriaren ondoriozko gauza asko euren kontra jazo izanak zalantza handia sortarazten zien, eta berriro ere uhartekoa bezalako hondamendia gertatuko ote zitzairen beldur ziren. Horregatik, borrokan adore urriagoz sartzen ziren, eta hasten zuten edozertan porrot egingo zutela uste zuten, euren buruarekiko mesfidantzak jota zebiltzalako, ezbeharrak sufritzen ohitu gabe zeuden eta.

**56.**– Jagole talde baten gunean lehorreratzeren bat egitean, nahiz eta atenastarrak kostaldeko eskualdea suntsitu, haiek ezer egin gabe geldit-zen ziren maiz, beraietako bakoitzak bere burua egoera txarragoan ikusten zuelako eta arestian aipatu dudan sentimendua zeukalako.

Jagole talde batek egin zien aurka Kotirta eta Afrodisia inguruan, eta, lasterkako erasoaldi batean, tropa arin barreiatuen gehiengoa uxatu zuen, baina, hoplitek aurre egin zirenean, talde horrek atzera egin zuen; eurentako gutxi batzuk hilik gertatu ziren, eta atenastarrak, haien armak hartu eta trofeo bat eraiki ondoren, Ziterara abiatu ziren. Handik itsas-bazterrari jarrai Tireara heldu ziren, Zinuria izeneko eskualdekoa hiria bera, Argea eta Lakoniako mugaldeetan. Hiri hori usufruktuan zeuka-ten lazedemondarrek egotzitako eginarrei eman zieten bertan bizi zite-zen, lurrikara eta hiloten matxinada izan zenean egin zizkieten mese-  
deen ordain gisa, eta, atenastarren menpean egon arren, lazedemonda-  
rrek bezala pentsatu izan zutelako beti.

**57.**– Kontua da ezen, atenastarrak hurbildu zirenean, itsas ondoan erai-  
kitzen hari ziren horma bertan behera utzi eta atzera egin zutela eurak  
bizi ziren goiko hirira, itsasotik hamar bat estadiora.

Lazedemondarren jagole talde bat zegoen eurekin, hormagintzan lagun-  
tzen ziena; baina ez zuten horma atzean sartu nahi izan, eginarrek eska-



tu arren, horma barruan sartzea arriskugarritzat zeukaten eta; goienetara joan ziren eta, borrokatzeko adina lagun ez zeudela eta, geldി egon ziren.

Bitartean atenastarrek, lehorreratu eta segituan armada guztiarekin aurrera egin ondoren, Tirea hartu zuten. Hiria erre, barruan zeukan guztia arpilatu eta borrokan hil ez ziren eginarrak beraiekin eraman zituzten Atenasera, eurekin zegoen lazedemondarren buru Patroklesen seme Tantalorekin batera, zauritu eta preso hartu zuten eta. Ziterako gizon banaka batzuk ere beraiekin zeramatzen, segurtasun arrazoiengatik handik eramatea erabaki zuten eta. Atenastarrek erabakirik zuten horiek uharteetan konfinatzea, eta besteek, beren herrialdean jarraituta, lau talentuko zerga ordaindu behar zuten. Preso harturiko eginarra guztiak hiltzea erabaki zuten, euren artean betitik zegoen etsaigoagatik, eta Tantalok kartzelan sartu zuten uharteko beste lazedemondar guztiekin batera.

**58.**— Uda berean Sizilian armistizioa egon zen Kamarinakoen eta Gelakoen artean. Gero gainerako siziliarrak Gelan batu ziren hiri guztietako enbaxadoreekin, eta elkarrizketak izan zituzten elkarrekin adiskidetzera heldu nahirik. Iritzi asko azaldu ziren norabide bietan, alde eta kontra, herri bakoitza kaltetu sentitzen zen heinean, eta Hermonen seme Hermokrates, konbentzitzen trebeena gertatu zena, honelaxe mintzatu zitzaion batzarrari:

**59.**— «Siziliarrok, ez hiririk txikienekoa ez gerran kaltetuenekoa izan gabe mintzatuko natzaizue, Sizilia osorako ideiarik onena deritzodana azalduz batzarrari.

«Gerrako nekeei buruz, zertarako luze hitz egin, ongi ezagutzen dituen jendearen aurrean gerrak dakarren guztia azalduz? Izan ere, inor ez da ezjakintasunez gerran hastera behartuta aurkitzen, eta beldurrez saihestu ere ez du egiten, gehiago lortuko duela uste badu; gertatu ere, gertatzen da batzuei abantailak arriskuak baino handiagoak iruditzen zaizkiela, eta beste batzuek, ordea, nahiago izaten dutela arriskuei aurre egin, segituan kalte edo min handi bat hartu baino; baina batzuek zein bestetziek hori egingo ez balute egin behar ez denean, orduan bai izango lirateke baliagarriak adiskidetzeko deiak, eta garrantzi handikoa litzateke orain gu horretaz konbentziturik egotea. Nork bere interes partikularrak behar bezala antolatzeke hasi genuen gerra, eta, orain, xede berarekin, eztabaidara jota adiskidetu nahi dugu elkarrekin, eta, bakoitza pozik joatea lortzen ez bada, gerrara joko dugu berriro.





**60.**— «Baina konturatu behar dugu, zentzudunak bagara, batzarra ez dela interes partikularrei buruz hitz egiteko, baizik Sizilia osoa salbatzeko oraindik kapaz garen ikusteko, Sizilia osoa baita, ene ustez, atenastarren amarruen helburu, baita ohartzeko ere atenastarrek nire hitzek baino indartsuago bultzatzen gaituztela akordiora; atenastarrak, Heleniarren artean boteretik handienaren jabe direnak hemen ontzi gutxiarekin egon arren, gure errakuntzen zain daude, eta, ohorea aipatuta aliantza legitimoa eskatuz, etsaigo naturala dena beren mesedetan erabiltzen dute.

«Gerra geuk sustatu eta haiei, deitu barik ere berenez datozenei, deitzen baldin badiegu, geure aurrekontuen kontura geure buruari kalte egiten badiogu, eta, gainera, inperioaren bidea zabaltzen ari bagatzazkie, espero izatekoa da ezen, akituta ikusten gaituztenean, ontzidi handiagoarekin etorri eta hau guztia beren mende jartzen ahalegingduko direla.

**61.**— «Hala ere, zentzundunak bagara, geure aliatuei deitu eta geurea duguna eskuratzen saiatzeko onartu beharreko arriskuak onartu behar ditugu, eskuan duguna kaltetu beharrean, eta pentsatu behar dugu geure arteko desadostasun eta haserreak direla hiriei eta Siziliari okerririk handiena dakarkietenak, bertoko biztanleok, osoan mehatxaturik egon arren, elkarren aurrez aurre segitzen baitugu, hiria hiriaren kontra.

«Horretaz konturatu eta pertsonak eta hiriek elkarrekin adiskidetu beharra daukagu, eta guztion artean Sizilia osoa salbatzen ahalegindu; eta inork ez dezala aintzat hartu gure artetik doriarrak atenastarren etsaiak direla eta herri kalzistarra, ordea, seguru dagoela joniarekin duen arrazazko ahaidetasunagatik. Ez datoz arraza dela eta, berezko enfrontamendu bat egonik leinuetako baten etsaiak direlako, baizik Siziliako aberastasuna, denon artean daukaguna, nahi dutelako. Orain argi utzi dute herri kalzistarrak egin dien eskaerarekin, zeren, herri horrek laguntzarik inoiz ez zien eman arren aliantzaren indarrez, atenastarrek euren betebeharrak itunak eskatzen zuena baino harago joan da bete dituzte eta.

«Barkagarria da oso atenastarrek anbizio eta plan horiek edukitzea, eta ez diet ezer aurpegiratzin agindu nahi dutenei, baina bai obeditzeko prest daudenei, sortzetikoa baita giza izaeran amore ematen duenari beti agintzea eta erasotzen duenaren kontra neurriak hartzea.



«Jakin arren, behinena eta garrantzitsuena mehatxuka daukagun arazoa denok elkartuta konpontzea dela pentsatuta behar diren neurriak hartzen ez ditugunok edo joan ere joango ez garenok errakuntza handian erortzen gara. Behingoan libratuko ginateke mehatxu horretatik, baldin denon arteko akordioetara helduko bagina, atenastarrek ez dutelako basea euren lurraldean, deitu dienenean baizik. Horretara, gerra bati ez zaio beste gerra batekin amaiera ematen, baizik, arazorik gabe, desadostasunak bakearekin amaitzen dira, eta gonbidatuak, injustizia ohorez mozarrotuta etorri zirenak, aitzakia onak dituzte ezer egin gabe alde egiteko.

**62.**— «Atenastarren gaian, onura handi horixe lortzen da, ongi deliberatzen badugu. Eta guztiek gauzarik onenentzat aitortzen duten bakeari dagokionez, nola ez egin gure artean? Ez al duzue uste ezen, ondasun bat edo kontrakoa edukiz gero, bakea gerra baino hobea dela bigarre-nari amaiera eman eta lehenengoari eusteko, edo bakeak arrisku gutxiagoko ohore eta loria eskaintzen dituela, baita beste hainbat abantaila ere, zabal azal daitezkeenak, gerrarekin gertatzen den bezalaxe? Pentsamendua horretan ipinita, ez dituzue gutxietsi behar nire berbak, euretan oinarritu baizik, geure salbazioa erdiesteko.

«Baten batek uste baldin badu segurtasunez jardun dezakeela, dela eskubidez dela indarkeriaz, bebil kontuz bere esperantzek huts eman ez diezaioten, jakinik jada asko izan direla min eman zietenekiko mende-ku gosea ase edo euren botereari esker anbizioak lortu nahirik ibilita, mende-ku hartzerik ez eze, salbatzerik ere izan ez zutenak, edo gehiago edukitzea lortu beharrean, zeukatena ere galdu zutenak, zeren ez mende-kuak lortzen baitu emaitza justurik injustizia bat egin delako baka-rrik, ez indarra baita segurua itxaropen handiak ematen dituelako. Oso maiz etorkizuneko faktore zehaztezinak ateratzen dira garaile, eta beraiek dira, fidagarritasunik txikiena duten arren, baliagarrien ager-tzen direnak, beldur beraren pean sentitzen garelako zuhurtzia handia-go-erasotzen baitiugu elkarri.

**63.**— «Orain, bi horiengatik aztoratuta, hau da, espermentatu gabeko etorkizun zalantzarri horren eta atenastarren beldurragatik, orain eta hemen daukagunagatik, eta bakoitzak egin uste zituen planak gauza-tzean izandako akatsak eragozpen horiek behar bezainbatean esplika-tuta geratu direla pentsatuz, urrun ditzagun geure herrialdetik gainean ditugun etsaiak, eta hel gaitezen betirako akordio batera. Edo, hori lortu



ezean, ahalik su-etenik luzeenaren bidez utz ditzagun gerorako geure diferentzia pribatuak.

«Labur esanda, egidazue kasu eta kontura zaitezte nork bere hiri askea edukiko duela, eta bertatik, independentziaz eta geure arteko berdintasunez, egiten zaigun ongiari edo gaizkiari zor zaion bezala erantzungo diogula; deskonfiantzaz, ordea, beste batzuei obeditzen badiegu, hori ez da izango norbaitez mendekatzea, baizik, ezinbestez, eta hori nahikoa suerte edukita, geure etsairik handien lagun eta izan behar ez dugun arerio izatea.

**64.**— «Eta nik, hasieran esan dudana bezala, oso hiri boteretsua ordezkatzeko dudalarik eta erasotzeko prestago nagoelarik neure burua defenditzeko baino, arestian esandakoa aurreikusita, etorkor izan nahi dut eta neure etsaiei neu kaltetuago ateratzeko adina txarrik ez egin, Zoria edota neure gogamena erabat menpeko ditudala zentzugabeki uste izan barik, arrazoizko denean amore eman behar dudala pentsatu.

«Justiziaz espero dut, halaber, besteok nik bezala joka dezazuen, hau da, hori zeuek erabaki duzuelako, eta ez etsaiek inposatu dizuetelako, jasan dezazuen, zeren ahaideen artean amore ematea, hau da, doriar batek doriar baten aurrean, edo kalzistar batek bere leinukoen aurrean, eta oro har herrialde bereko, uharte bereko bizilagunak, herrikideak —eta izen beraz, siziliar izenaz, izendatuek beren artean—, ez baita desohorea; eta gu ere, hala uste dut nik, kasua gertatzen denean, gerran hasiko eta berririo adiskidetuko gara geure artean elkarriketak abiaraziz. Hala ere, zentzundunak bagara, elkartuta defenditu behar dugu geure burua erasotzen diguten arrotzengandik, egia baldin bada bati kaltea egiten diotenean guztiok gaudela arriskuan, eta aurrerantzean ez dugu sekula ekarri beharko ez aliaturik ez adiskidetuko gaituen jenderik.

«Horrela jokatzeko badugu, ez dizkiogu kenduko Siziliari bi onura hauek: guk atenastarrengandik eta barne gerratik libre uztea; eta etorkizunari begira, Sizilia aske, geuretzat bakarrik eta besteen amarrupetik urrunago edukita biziko gara bertan».

**65.**— Hermokratesek horrela hitz egin ondoren, siziliarrak konbentziturik gelditu ziren eta euren artean gerrari amaiera ematea adostu zuten, bakoitzak zeuzkan lurraldeak beretzat gordeta; Norgantina, ordea, Kamarinarentzat izan zen diru kopuru jakin baten truke sirakusarrak konpentsatzeko. Atenastarren aliatuek, berriz, beren agintariak bilarazi eta akordio bat sinatuko zutela esan zieten eta itunek beraiek ere barne



hartuko zituztela. Haiek onespina emanda, akordioa sinatu zuten, eta gero ontzi atenastarrek alde egin zuten Siziliatik.

Iritsi zirenean, hiriko atenastarrek erbesteratzera kondenatu zituzten bi jeneral, eta hirugarrenari, isuna jarri zioten, Sizilia menperatu ahal izanda, eroskeria bitarteko, atzera egin zutelako.

Horrela, orduko oparotasunaz gozatzen ari ziren bitartean, uste zuten ezerk ere ezin ziezaiekeela kontra egin eta hala gauza lorgarriak nola zailak era berean buru zitzaizketela, indar gehiago edo gutxiago erabilita. Kasurik gehienetan arrazoia ustekabeko arrakastan zegoen, eta horrek hegoak ezartzen zizkieten haien esperantzei.

**66.**– Uda berean, hiriko megararrek, atenastarrekin zuten gerrak, alde batetik –urtean birritan inbaditzen baitzizkieten lurraldea beren indar guztiekin– eta, bestetik, euren Pegako erbesteratuek, borroka zibiletan herriak egotzita harrapaketari ekiten ziotenek, egiten zieten gerrak akittuta, euren artean elkarriketak izan zituzten erbesteratuak onartu eta hiria gatazka bi horien eraginez desagertzea ekiditeko ideiarekin.

Kanpokoen lagunak, zurrumurru horiekiko sentibera, ideia hori lehen baino ere argiago defenditzeaz harrotzen ziren. Baina herriaren gidariak konturatu zirenean herria, kalamitateek astinduta, ez zela euren ondoan eusteko gauza izango, beldurrak jota elkarriketak hasi zituzten Arifronen seme Hipokrates eta Alzistenesen seme Demostenes jeneral atenastarrekin, hiria entregatzeko asmoz eta beraiek egotzitakoak itzultita baino arrisku gutxiago izango zuten ustez. Lehenengo akordioak zioen atenastarrek Horma Luzeak hartu beharko zituztela –zortzi bat estadio daude hiritik Niseara, hiriko portura–, peloponesoarrak laguntza ematera etor ez zitezen Niseatik, non goarnizio bakarra osatzen zuten Megararen segurtasunerako; eta bigarrenik, goi hiria kontrolatzen ahaleginduko zirela, behin hori egin eta gero, euren jarraitzaileak prestatgo egongo zirelako atenastarren aldera makurtzeko.

**67.**– Atenastarrek, beraz, alde bietatik prestakizunak eta elkarriketak burutu ondoren, Megarako Minoa uhartera gauez nabigatuz Hipokrates buru zuten seiehun hoplitarekin, harresiko adreiluak egiteko lokatza ateratzen zuten eta urrun ez zegoen zulo batean posizioak hartu zituzten; Demostenesekin, beste jeneralarekin, zeudenak –tropa arin platearrrak eta mugetako soldaduak ziren– zelatan jarri ziren hurbilago zegoen Enialioreen tenpluan, eta inor ere ez zen konturatu, gau hartan hori jakitea zegokienak izan ezik.





Eguna zabaltzear zegoela, hiria entregatuko zuten megararrek ondokoa egin zuten. Askoz lehenagotik egina zutenez atear irekitzeko plana, harrapaketara zihoazela aitzakiatzat jarrita, gauez gurdi batean eta luba-narroetik zehar txalupa bat garraiatzen ohi zuten, ofizialaren baimenarekin, itsasoraino eta handik abiatzen ziren; eta eguna zabaldu aurretik harresi barrura sartzen zuten gurdian, Minoako atenastarrek kontura ez zitezen, portuan ez baitzen ontzirik bistan ageri.

Orduan, gurdia jada ateen ondoan zegoen eta, beti bezala pasatzeko zabaldu zirenean –plana adostu bezala zihoan burutzen– eta atenastarrek ikusi zutenean, arineketan atera ziren euren ezkutalekutik berriro itxi baino lehen eta gurdia ate bitartean, ixtea galaraziz, zegoen artean heltzeko asmoz; aldi berean beraiekin konplizitatean zeuden megararrek ateetako zaintzaileak hil zituzten.

Lehenbizi Demostenesekin zeuden platearrak eta mugetako guardiak sartu ziren arineketan orain trofeoa dagoen tokira, eta segituan, ate barruan jada, borrokan hasi ziren bertara etorritako errefortzuekin, konturatu egin baitziren hurbilen zeuden peloponesoarrak; platearrek irabazi zuten, eta ateen erabilera segurtatu zieten atzetik zetozkien hoplitei.

**68.**– Gero, atenastarrak sartu ahala, harresira zihoazen. Hasieran zaintzaile peloponesoar banaka batzuek aurre egin zieten eta batzuk hil egin zituzten, baina gehienek ihesari eman zioten, etsaien gau hartako erasoak beldurtuta eta hiria entregatu zuten megararrak aurrean zituztela-ko, horrek pentsarazten zielerik megarar guztiek egin zietela traizioa. Baita ere gertatu zen atenastar heraldoak bere kabuz iragarri zuela ezen horrela nahi zuen megararra bere armak atenastarren armekin elkartze-ra joan zedila; hori entzun zutenean, ez zuten jada itxaron, baizik, uste izanik benetan ere elkartuta erasotzen zietela, arineketan joan ziren Nisean babestera.

Egunsentian, harresiak jada hartuta, asaldura handian zeuden hiriko megararrek, atenastarrekin tratua eginda zeukatenek, eta eurekin batera sekretua zekiten gainerako herri osoak, atear zabaltzeko eta borro-kara irteteko esan zuten.

Adosturik zegoen behin atear irekita atenastarrek sartuko zirela, eta besteak nabarmendu egingo zirela –gorputza koipeztatuz– minik ez hartzeko. Segurtasun handiagoa lortzen zuten atear irekitzean, zeren, adostu bezala, lau mila hoplita atenastarrak eta seiehun zaldizko aur-



keztu baitziren, gauez Eleusistik etorrita. Eurak, koipeztaturik, jada atetan zeudela, sekretua zekienetako batek salatu egin zien besteei azpijokoa; eta horiek, batzartu ondoren, taldean etorri eta esan zuten ezen ez zela irten behar –lehen ere ez baitziren horretara ausartu, indar gehiago eduki arren–, ezta hiria arriskupe nabarian jarri ere; ezen, kasurik egiten ez bazitzaien, bataila hantxe bertan hasiko zela; ezertan ere ez zuten agertu tratuak ezagutzen zituztenik, baizik esandakoa errepi-katzen zuten proposamenik onenak balira bezala, eta bitartean erne segitzen zuten ateen ondoan, konspiratzaileek egin nahi zutena egiteko betarik ukan ez zezaten.

**69.**– Jeneral atenastarrak konturatu zirenean okerren bat sortu zela eta ezingo zutela hiria indarrez hartu, Nisea horma batez inguratzen jarri ziren behingoan, laguntzen inor etorri baino lehen hartzen bazuten, Megarak lehenago amore emango zuela pentsatuta.

Segituan heldu ziren Atenasetik burdina, harginak eta behar ziren gauza guztiak. Okupatzen zuten hormatik beste zeharkako horma batez moztu zuten Megarara doan bidea; bertatik itsasoraino Nisearen alde bietatik tropak banatu egin ziren lubanarro bat eta hormak eraikitzeko, aldiriko harriak eta adreiluak erabiliz; gainera, zuhaitzak eta zura moztuz zure-siak eraiki zituzten behar ziren tokian; aldiriko etxeak ere, almenez hornituak, defentsa bat bilakatzen ziren.

Egun horretan guztian lanari ekin zioten. Biharamunean, iluntzean, horma amaiturik zegoen praktikan, eta Niseakoek, beldurrez beterik, hala hazkurri faltagatik –egunero egiten baitzuten hornidura barneko hirian– nola peloponesoarrak laster etorriko zirenik uste ez zutelako eta, gainera, megararrek etsai legez begiratzen zietela pentsatzen zutelako, atenastarrekin adostu zuten bakoitza, armak entregatu ondoren, diru kopuru jakin baten truke erreskatatua izango zela, eta lazedemon-darrei, euren buruari eta haiekin zegoen beste edozeini zegokienez, atenastarrek nahi zutena egingo zutela. Baldintza horiek adosturik, irten egin ziren. Atenastarrek, Horma Luzeetan zuloak irekiz Megararekin zuten lotura apurtu zuten, eta Nisearen kargu eginda, beste guztia pres-tatzeari ekin zioten.

**70.**– Telisen seme Brasidas lazedemondarra aldi horretan Sizion eta Korintoko eskualdean zebilen Traziara espedizioa prestatzen. Harre-siak hartu zituztela jakin zuenean, Niseako peloponesoarren eta Mega-ra hartuko ote zuten beldurrez, mezua bidali zien beoziarrei Tripodis-



kora berarekin biltzera agudo joan zitezen aginduz –Tripodisko Megarideko herrixka bat da Gerania mendiaren oinean dagoena–, eta bera, bitartean, bi mila eta zazpiehun hoplita korintoar, Fliunteko laurhun, Sizioneko seiehun eta bere agindupean jada bilduta zituenekin joan zen hara, Nisea oraindik hartzeke topatuko zuela uste izanik.

Gertatukoaren berri izan zuenean –gauetz Tripodiskorantz abiatu zenean hain zuzen–, bere tropetatik hirurehun gizon aukeratu ondoren, berrari buruz inork ezer jakin aurretik Megarara hurbildu zen kostan zeuden atenastarrak ohartu gabe, Nisearen kontrako ahalegin bat egiteko hitzez eta, ahal izanez gero, egitez ere, baina, inportanteena zena, Megaran sartu eta hiriaren leialtasuna segurtatzeko. Onar zitzaten espero zuen, Nisea berreskuratzeko posibilitateak bazeudela esaten baldin bazuen.

**71.**– Baina Megarako fakzio biak beldurretan jarri ziren –batzuk erbesterratuak ekarriz gero, eurak egotzi egingo ote zituzten beldur; besteak, berriz, herriak, beldur horregatik hain zuzen, erasoko ote zituen eta orduan hiria euren barne liskarregatik galduko ote zen beldur, atenastarrak zelatan zeudenean– eta ez zituzten onartu, baizik ea zer gertatzen zen ikusi arte mugitu gabe itxarotea erabaki zuten, zeren bando batak zein besteak espero baitzuen borroka hasiko zela atenastarren eta sorospen tropen artean, eta horretara eurentzat seguruago izango zen euren begiko izango zirenekin batzea, garaile ateratzen zirenean. Brasidasek, haiek limurtzea lortu ez zuenez gero, alde egin zuen bere gainerako tropekin elkartzeko.

**72.**– Egunsentian, beoziarrak aurkeztu ziren, Megarari laguntzera joatea aurreikusita baitzeukaten Brasidasek abisua bidali aurretik, arrisku horrek eurekin ere zerikusia zuela uste zutelako. Euren indar guztiekin Platean zeuden, eta, gainera, mezularia heldu zenean, indartsuago berretsi zuten beren erabakia; bi mila eta berrehun hoplita eta seiehun zaldizko bidali zizkioten, eta tropen gehiengoarekin itzuli ziren.

Armada guztia hara bildu zenean (sei mila hoplita baino gutxiago ez), hoplita atenastarrak bitartean Nisean eta itsasbazterrean, eta tropa ari-nak lautadan zehar barreiatuta zeudela, zaldizko beoziarrek, ustekabean –beste inoiz ez baitzitzaien inondik ere errefortzurik heldu megararrei– haien gainera etorritz, itsasoraino ihes eragin zieten; zalditeria atenastarra etorri zitzaizen kontra, borrokan hasi ziren eta luzaz iraun zuen zaldizkoen batailak, non alde bakoitzak uste zuen ez zuela parterik txarrena jasoko; atenastarrek, etsaiak Nisearaino bultzaka eramanez ondo-



ren, haien burua eta beste zaldizko batzuk, ez asko, hil zituzten, armak kendu zizkieten eta, euren gorpuez jabetu zirelarik, su-etena bitarteko itzuli zituzten eta trofeoa eraiki zuten. Hala ere, ekintza oro har ikusita, ez alde bata ez bestea joan zen behin betiko emaitzarekin, beoziarrak euretarrekin eta atenastarrak Niseara joan baitziren.

**73.**— Horren ostean, Brasidas eta bere tropak itsasora eta Megara hirira hurbildu ziren eta, leku egoki bat hartu ondoren, geldirik baina hedatuta egon ziren, atenastarrek erasoak joko zutela uste izanik eta megararrak nork irabaziko zuen jakiteko zain-zain zeudela konbentzita.

Uste zuten bi gauza zituztela alde: bat, borrokan hasi beharrik ez arriskuei euren gustuagatik aurre egin beharrik ez edukitzea, borrokatzeko prest zeudela argiro erakutsi zutenez gero, eta bestea, jakitea esku hartu barik ere garaipena eurei esleitu zitezaiela bidezki; horren ondorioz megararrekin akordiora heldu ahal izango zuten, zeren, aurrera zetozela ikusi izan ez balituzte, haiek ez baitzuket zorte hori izango, baizik berehala hiririk gabe geratuko ziratekeen azpiratuak izan balira bezala. Orain, alabaina, posible zen atenastarrek borrokatu nahi ez izatea, halatan, non borrokatu gabe, eurentzat izango zen etortzeaz lortu nahi izan zutena.

Megarrek, aldiz, ikusi zuten atenastarrak nola irten eta Hormetan zehar lerrokatzen ziren, baina geldi jarraitu zuten ez zitelako erasotzen, zeren euren jeneralek uste baitzuten arriskua proportziorik gabekoa izango zela, baldin, beren helburu garrantzitsuenak erdietsi ondoren, tropa ugariagoekin borrokan hasten baziren irabazi eta Megara eurenganatzeko edo porrot egiteko, hopliten multzorik finenak kalte handiak jasateko arriskuarekin; beste aldean, ordea, jeneral atenastarren iritiz, normala zen indar bakoitzak, denek oro har eta han zeudene, beren adorea erakusteko arriskua hartu nahi izatea. Eta aldi bat zain egon ondoren eta alde bata ez besteak ezer ere egiten ez zuela ikusita, lehenengo atenastarrak Niseara eta peloponesoarrak, berriez, euren abiagunera joan zirelarik, erbesteratuen lagunak ziren megararrekin ateak ireki zizkieten Brasidasi eta hirietako tropen buruei garaileztat jotza, atenastarrek borrokatu nahi izan ez zutenez gero; behin barruan onartuta, atenastarrekin tratuak egindakoak ikaraturik ikusita, elkarriketak egin zituzten eurekin.

**74.**— Geroago, aliatuek euren hirietara eta berak Korintora alde egin ondoren, Brasidasek Traziarako espedizioa, hasieratik izan zuen helburua, prestatzen jardun zuen.





Atenastarrek euren hirira alde egin zutenean, atenastarrekiko tratuetan erantzukizun handiagoa izandako megararrak, agerian gelditu zirela jakinda, berehala desagertu ziren. Besteek, bitartean, erbesteratuen lagunekin elkarrizketatu ondoren, itzularazi egin zituzten Pegakoak, zin ikaragarriekin bermatu ondoren errepresaliarik ez zela egongo, baizik hiriarentzako onena bilatuz erabakiko zela. Baina horiek, behin boterera heldu zirenean, arma-berrikuspen bat zela eta, formazioak banatu eta beren etsaiak eta euren ustez atenastarrekiko tratuen erantzule nagusiak izandakoak, ehun bat gizon, apartatu zituzten; batzarra bozketa sekretuan izan gabe erabakitza behartu ondoren, haiek kondenatuak izan zitezen, hil egin zituzten eta hirian erregimen erabat oligarkikoa ezarri zuten. Gutxi batzuek errebolta bati esker bultzaturiko erregimen aldaketa horrek luzaz iraun zuen.

**75.**– Uda berean, mitilenetarrak, aurreikusitakoaren arabera, Antandro instalazioz hornitzera zihoazenean, atenastar ontzi diru-biltzaileetako jeneralak, Demodoko eta Aristides –hirugarrena, Lamako, Itsaso Beltzera joana zen hamar ontzirekin–, hiriko ekipamenduaz konturatu zirenean eta, Samosen Anea bezalakoa izatera heltzen bazen –non finkaturiko samostar erbesteratuek peloponesoarrei euren ontzidietarako pilotuak bidaliz laguntzen zieten, hiriko samostarren artean kalapitak sortzen zituzten eta iheslariei aterpea eskaintzen zieten–, beldurgarria izango zela iruditu zitzaielarik, orduan, beren aliatuen artean tropak erreklutatu eta hara abiatu ondoren, hiria berreskuratu zuten Antandrotik euren kontra irtendakoak batailan azpiratuz.

Ez asko geroago, Lamakok, zein bere ontziekin Itsaso Beltzera joana baitzen, Kales ibaian, Herakleako lurraldean, ainguratzean, ontziak galdu zituen, euri itzelen eraginez bat-batean ur-goraldi bat sortu zelako. Berak eta bere tropek beste itsasertzean, Asian, dauden traziar bitiniarren lurraldea zeharkatu zuten oinez, eta Kalzedonera, Itsaso Beltzaren sarrerako kolonia megararrera, heldu ziren.

**76.**– Uda berean, Megaratik atzera egin eta berehala, Demostenes jeneral atenastarra Naupaktora heldu zen berrogei ontzirekin, hiri beoziarretan zenbaitzuk egoera politikoa bere eta Hipokratesen aldera aldatzeko ahaleginarran zebiltzala ikusita, ezarritako ordena gainazpikatu eta atenastarrena bezalako demokraziara bideratu nahian ari baitziren; batez ere Ptoeodoro tebastar erbesteratuaren gidalerroei jarrai, honako plan hau zuten prestaturik horretarako:



Batzuek Sifa, Krisa golkoko itsasbazerreko hiria, Tespia eskualdekoa, entregatuko zuten; Orkomenoko beste batzuek Keronea entregatzeko asmoa zuten, Orkomenori zerga ordaintzen ziona bera, lehen Minia zeritzona eta orain Beozia dena; gehien kolaboratzen zutenak eta Peloponesoan mertzenarioak kontratatzen zituztenak erbesteratu orkome-noarrak ziren, zeren Keronea Beoziako mutur batean baitago, Fozean; fozear batzuk ere inplikatura zeuden.

Atenastarrei zegokienez, Delio okupatu behar zuten, Tanagran dagoen Apoloren santutegia, Eubeara begira dagoen aldean eraikia; eta hori aldi berean egin behar zen adosturiko egun batean, beoziarrek euren indar guztiakin laguntza emateko modurik ukan ez zezaten, baizik indar bakoitzak bere hiriko mugimenduei erantzun beharra ukan zezan.

Ahaleginak arrakasta izaten bazuen eta Delio gotortzen bazen, hiri beoziarren erregimenak segituan aldatzen ez baziren ere, gotorleku horiek okupatzean, lurra harrapaketaren mende jartzean eta babeslekua hur edukitzean, uste zuten nekez iraun zezakeela herrialdearen orduko egoerak eta, denborarekin, atenastarrak matxinatuei laguntzera bazetozen, besteek beren indarrak elkartuta ez zituztenez, komeni zen moduan aldatuko zutela egoera.

**77.**– Horixe zen, bada, prestatzen ari ziren trikimailua. Unea heltzean, Hipokratesek beoziarren kontra joan behar zuen hiritik: Demostenes Naupaktora bidalia zuten alde z aurretik berrogei ontzirekin, alde hartan tropa akarnaniarrak eta beste aliatuenak errekluta zitzan eta Sifara abia zedin, jakinda entregatua izango zela traizioz. Jakinarazia zioten zein egunetan hasi behar zituzten operazioak modu koordinatuan.

Demostenes, bere tropak bilduta, akarnaniar guztiak aliantza atenastarrean sartzera behartu zuten Eniadera heldu zenean, alde hartako indar aliatuak mobilizatu zituen; orduan espedizio bat gidatu zuen Salintiorren eta agreotarren kontra eta berarekin elkartzera behartu zituen; gero, Sifarako ibilaldia prestatzeari ekin zion, hara joan behar zenerako.

**78.**– Udako sasoi berean, Brasidasek, Traziarako bidean mila eta seiehun hoplitakin Heraklea Trakiniara heldu zenean, mezulari bat bidali zuen Farsalora, bere lagunengana, bera eta bere tropak gidatzeko eskatuz. Orduan Panero, Doro, Hipolokidas, Torilao eta Estrofako, kalzistarren proxenoa zena, etorri ziren Akaiako Meliteara, eta aurrera egin zuen. Gidari izan zuen, beste tesaliar batzuen artean, Larisako Nikonidas, Perdikasen laguna zena, inondik ere ez baitzen erraza gidaririk



gabe eta askoz gutxiago armarik gabe Tesalia zeharkatzea, eta horrez aparte Heleniar guztien artean, bereizketarik gabe, inoren lurraldea bertakoen baimenik gabe zeharkatzeak susmo txarrak sortzen zituelako; gainera, tesaliarrik gehienak atenastarren alde egon ziren beti.

Ondorioz, tesaliarrak beren ohituretan boteretsuen nagusigoak barik berdintasun politikoen sistema batek gobernatuak izan balira, Brasidasek ezingo zuen aurrera egin, gidarien nahiaren kontrakoa zuten beste tesaliar batzuek Enipeo ibaitik zehar zihoala bidera atera eta aurrera egiten eragotzi nahi izan baitzioten, eta justiziaren kontra huts egiten zuela esan baitzioten, herrialdea organo kolektiboek emandako baime-  
nik gabe zeharkatzean; gidariek esan zieten ez zutela aurrera egingo konforme ez bazeuden eta Brasidas ustekabeen etorri zitzaielarik, eurak haren ostalariak zirelako zihoazela hura gidatzen. Brasidasek, berriz, tesaliarren eta euren lagun moduan zihoala ziotsen, bere indarrak euren kontra barik etsai zituen atenastarren kontra zermatzala eta, gainera, ez zekiela inolako etsaitasunik zegoenik tesaliarren eta lazedemondarren artean, berari euren lurraldetik pasatzen ez uzteko; orain, beraiek nahi ez bazuten, ez zuela aurrera egingo —egia esan, egiterik ere ez zuen izango—, baina, hala ere, ez debekatzeko eskatzen ziela. Haiek hori entzun ondoren alde egin zuten, eta hura, gidarien aholkuz, zitzu bizian eta une batean ere geratu barik joan zen, haiek galarazteko indar gehiago elkartu baino lehen. Meliteatik abiatu zen egun berean iritsi zen Farsalora, eta Apidano ibaiaren ondoan kanpatu zuen; handik Faziora joan zen, eta handik Perrebiara; gidari tesaliarrak itzuli egin ziren handik, eta perrebiarrek, tesaliarren basailuek, Dionen, Perdika-  
sen agindupeko lurrean, utzi zuten, Olinpo mendiaren oinean eta Tesaliaren aurrez aurre dagoen gotorleku mazedoniarra bera.

**79.**— Horrelaxe zeharkatu zuen Brasidasek Tesalia haiek galaraztera etorri aurretik, eta Perdikasen gortera eta Kalzidikara heldu zen. Perdikasek eta Trazian atenastarrengandik banandu zirenek etorraziti zituzten tropa horiek Peloponesotik, beldurrak jota baitzeuden Atenasen arrakastak ikusita. Kalzistarrek eta, banandu ez ziren arren, ezkutuan peloponesoarren laguntza eskatu zuten auzoko hiriek, atenastarrak lehenbizi euren kontra abiatuko zirela uste zutelako; Perdikasek, ageriko etsaia ez zen arren, atenastarrekin iraganean izandako enfrontamenduengatik beldur zelako, baina batez ere Arrabeo linkotarren erregeari gaina hartu nahi ziolako.



Lazedemondarren une horretako hondamenek ekarri zuten egoera faboragarria Peloponesotik tropak bidaltzeko prestago egon zitezen.

**80.**– Izan ere, atenastarrek Peloponesoa mehatxatzean, eta batik bat lazedemondarren lurraldea bera, azken hauek pentsatzen zuten haiek uxatzeko modurik onena eurei erasotzea zela, Atenasen aliatuen aurka tropak bidalita, batez ere gudaroste bat mantentzeko gai ziren eta matxinatu ahal izateko Lazedemoni laguntza eske zebiltzanen lekue-tara.

Aldi berean, Pilosko okupazioak sorturiko egoerari esker erregimena aldatzen ahaleginduko ote ziren beldurrez, hilotak kanpora bidaltzeko zuen gogoari bide ematen zion. Horrela, bada, haien gaztetasunaren eta kopuruaren beldurragatik – hilotak jagotea sarri izan zen lazedemondarren arazo nagusia– ondokoa egin zuten. Iragarri zuten etsaiaren aurrean Espartaren alde merezimendu handiagoz jokatu izanaz harrotzen zirenak askatasuna emateko hautatuak izango zirela; hori eginez proban jartzen zuten euren ideia bat, alegia, harrotasunez askatasuna merezitzen lehenak izan nahi zutenak izango zirela hain zuzen eurei erasotzeko prestenak. Bi mila inguru aukeratuta, koroak hartu zituzten eta tenpluei bueltaka ibili ziren libertoak bailiran; baina lazedemondarrek desagerrarazi egin zituzten ez askoz geroago, eta inork ez daki nola galdu zuen bizia haietako bakoitzak.

Orduan ere Brasidasekin zazpiehun hilita hoplita gisara bidaltzeko interes handia ukan zuten; Peloponesoko beste soldaduak, oster, mer-tzenario gisa joan ziren.

**81.**– Brasidasi dagokionez, lazedemondarrek bidali zuten, bai berak gogo handia zeukalako, baita kalzistarrek joan zedin interes handia erakutsi zutelako. Espartan gizon kementsu ospea zuen zernahitan, eta irten eta gero lazedemondarrentzat balio handikoa izan zen, zeren, oraingoz, hiriekin justiziaz eta moderazioz portatzean, hiri asko Atenasetik banantzea lortu zuen eta beste batzuk traizioei esker hartu zituen, halatan, non lazedemondarrek, akordiora heltzeko gogoz, heldu ere egin ziren eta gotorlekuak itzuli eta berreskuratu ahal izan zituzten, baita Peloponesoko gerrari amaiera eman ere. Siziliatik etorri osteko borroketarako, Brasidasen merezimenduek eta adimen argiak, dela eurak egiaztatut zituzte-lako, dela bestek esanda sinetsi zizkietelako, lazedemondarrenaganako tira handia sortu zuten, bereziki atenastarren aliatuengan, zeren, bere herrialdetik irten zen lehenengoa izan zenez eta alde guztietatik ona zela





ematen zuenez, beste lazedemondar guztiak ere halakoxeak zirelako uste sendoa sortarazi baitzuen jendearengan.

**82.**– Kontua da ezen, Traziara iristean, atenastarrek hori jakin zutenean, etsai deklaratu zutela Perdikas, ibilaldiaren erantzuleztat jo baitzuten, eta zaintza hertsia goaren pean jarri zituzten alde hartako aliatuak.

**83.**– Perdikas, Brasidasi eta haren tropei harrera egin bezain laster, bere indarrekin batera auzoa zuen Bromeroren seme Arrabeo mazedoniar linkotarren erregearen kontra abiatu zen, harekin konponduezinak edukitzeaz gain, haren erreinua menperatu nahi baitzuen. Baina Brasidasekin batera linkotarren herrialdearen sarrerara heldu zenean, Brasidasek esan zion ezen, gerra egin aurretik, Arrabeorekin elkarriketatu eta, ahal bazuen, lazedemonдарren aliatu egin nahi zuela, zeren Arrabeok heraldoak bidali baitizkion jakinarazteko prest zegoela Brasidas bien arteko bitartekari gisa onartzeko. Han zeuden enbaxadore kalzistarrek ere Perdikasek zeuzkan beldurtzeko motiboak ez kentzeko esan zioten, harengan bere interesen zerbitzari artatsua goa ukan zezan. Gainera, Perdikasek Lazedemonera bidalitako enbaxadoreek antzeko zerbitu adierazi zuten, esatean bere aliatu egingo zituela herrialde mugakide asko, halatan, non politika horren arabera, Brasidasek nahiago zuen Arrabeoren egoerari buruz inpartzialtasunez jokatu.

Perdikasek, alabaina, esan zuen berak ez zuela Brasidas etorrarazi bere konponduezinen epailea izateko, berak izendaturiko etsaiak deuseztatze ko baizik, eta justiziaren kontra huts egingo zuela, baldin, bere tropen erdia zuzkitu arren, Arrabeorekin elkarriketatzen bazen. Baina Brasidas, Perdikasen nahiaren kontra eta harekiko desadostasunez, elkarriketatu egin zen, eta Arrabeoren arrazoiek limurtuta, herrialdea inbaditu aurretik kendu egin zuen handik armada. Horren ondotik, Perdikas hazkurrien erdia barik hirurena ematen hasi zen, bere eskubideetan kaltetutzat jota bere burua.

**84.**– Handik lasterrera, uda berean, Brasidasek bere tropekin eta kalzistarrenekin, mahats-bilketa aurretxoan, Akanto izeneko Androsen koloniaren aurka egin zuen espedizio bat. Hango biztanleak liskarretan zebiltzan, batzuk hura onartzearen alde eta besteak kontra. Alde, kalzistarrekin batera deitu ziotenak; kontra, herria. Hala ere, herriak, oraindik kanpoan zegoen uzta galtzeko beldurrez eta Brasidasek limurtuta bera bakarrik onar zezaten eta berari entzun ondoren delibera zezana



ten, onartu egin zuen; Batzarraren aurrera etorrita, lazedemondarra izan arren bokantza ere bazuen eta, hauxe esan zuen:

**85.**– «Lazedemondarrek ni neu eta tropak bidaltzeak gerraren hasieran eman genuen arrazoia berrestea du helburu, hau da, atenastarren kontra borrokatuko genuela Helade askatzeko. Baldin atzerapenaz heldu bagara, hango gerrari buruz kalkuluak oker eginez uste izan dugulako geuk bakarrik, zuek ezer arriskatu beharrik gabe, suntsituko genituela atenastarrak, inork ez diezagula ezer aurpegira, zeren, orain parada izan bezain laster etorri garenean, atenastarrak garaitzen ahaleginduko baikara zuen laguntzaz. Harritu egiten nau niri ateak ixteak eta zuek nire etorrera atsegin ez izateak, zeren guk, lazedemondarrok, uste izanik gure etorreraren aurretik ere, sentimenduz behintzat, gure aliatuak ziren eta gu etortzea nahi zuten lurraldeetara gentozela, egun askotan lur arrotzean zehar etortzeko arriskuari aurre egin baikenion gogo handiz; baina zuek beste era batera pentsatzen baldin baduzue eta zeuen eta beste Heleniarren askatasunaren kontra ateratzen bazarete, izugarria litzateke hori; izugarria litzateke, jakina, ez bakarrik zuek kontra ateratzeagatik, baizik laguntza eske noakienak uzkurrago izango direlako nirekin batzeko, susmagarritzat joko dutelako zuek, lehenbizi nik bisitaturikoak eta garrantzizko hiri bat eta gainera zentzundun fama daukazuenok, ni ez onartzea. Orduan ez dut izango inori ere ikusarazterik sinesgarria dela nire kausa, zeren askatasun bidegabeba dakarkizuedala edo makal eta, erasoz gero, zuek atenastarregandik defenditzeko ezgai natorrela uste izango baitute.

«Hemen dauzkadan tropekin Niseari laguntzera joan nintzenean, ordea, atenastarrek, gehiago ziren arren, ez zuten borrokan hasi nahi izan, eta ez da, beraz, espero izatekoa haiek zuen kontra han zeukaten adinako armada, eta gutxiago ontzietan, bidaltzea.

**86.**– «Ni ez naiz etorri Heleniarren kalterako, baizik beraien askapenerako, eta agintari lazedemondarren aldetik zinik irmoenak hartuta, nik eramango dizkiedan aliatuek independente segituko dutela bermatzeko; eta, gainera, ez naiz ni etorri indarrez edo iruzurrez egindako aliatuak erdiesteko, baizik, aitzitik, atenastarrek esklabo bihurtuoi gure aliantza eskaintzeko.

«Zuen susmo txarren helburu ez izatea espero dut, bermerik handienak eskaini dizkizuedan heinean, baita botererik gabeko babesletzat har ez nazazuen eta, aitzitik, konfiantzaz beterik nirekin elkar zaitezten ere.



«Zuetariko norbaitek horretaratzeko gogo berezirik ez badu, nik hiria pertsona jakin batzuei entregatuko ote diedan beldur delako, horrek konfiantzarik handiena eduki behar du, zeren ni ez bainator barne enfrontamenduetan beste bat gehiago izateko, eta gainera uste dut ez nukeela benetako askatasunik ekarriko, baldin usadio tradizionalei muzin eginda gehiengoa oligarken menpean edo gutxiengoa guztien mende utziko banu, zeren hori mendetasun atzerritarra baino gogorra- goa bailitzateke, eta guretzat, lazedemondarrontzat, ez legoke esker onik gure ahaleginengatik, gaitzespenak baizik ospea eta ohorea egon beharrean, eta atenastarrei gerra egiteko arrazoitzat darabiltzagun gaitzespenen duinak agertuko ginateke, bertuteaz harro agertzen ez dena baino modu nardagarriagoan, zeren aintzat hartuak direnentzat lotsaga- rriagoa baita beren anbizioak engainuaren itxura ederraren bidez ase- tzea, ageriko bortizkeriara jota baino; kasu batean, erasoak indarrean du justifikazioa, eta indarra zorteak ematen du, eta bestean, ordea, bidegabeko pentsamenduaren amarruetan oinarritzen da.

**87.**— «Horrela, arreta handiz zaintzen dugu guretzat garrantzirik handie- nekoa den zerbait; eta zinekin batera ez zenukete hartuko, gure jokaera azaldu dugun bezala aztertuz gero, gure interesa gure hitzekin bat dato- rren konklusioa ateratzeak dakarren segurtasuna baino handiagorik.

«Nire proposamenak proposamen, zuek baldin badiozue ezin duzuela horrelakorik egin, baina zeuen asmo onengatik minik hartu gabe libra- tzea espero duzuela eta askatasuna ez dela zuentzat arriskurik gabekoa, hartu ahal dutenei eramatea bidezko bada ere, baina ez dela bidezko inor bere nahiaren kontra behartzea, orduan bertoko jainkoak eta heroiak jarriko ditut lekukotzat egiaztatzeko ezen, zeuen onerako etorri horren, ez dudala lortu zuek konbentzitzea, eta zuek behartzen saiatu- ko naiz zuen lurra zeharo suntsituz; eta ez dut pentsatuko justiziaren kontra huts egiten dudarik, justifikazio on bat baitaukat kondiziona- mendu ekidinezin bitan oinarritua: alde batetik, lazedemondarrak, zuen asmo onei esker, euren alde jartzen ez bazarete, ez daitezten kalteturik gertatu atenastarrei ematen dizkiezuen baliabideengatik; bestetik, Hele- niarrak, haiek esklabotzatik askatzeko oztopo izan ez zaitezten, zeren ez bailitzateke arrazoizko guk horrela jokatzeta eta lazedemondarrok ere ez baikara beharturik sentitzen nahi ez duena askatzera, denon onak hori justifikatu ezean. Ez dugu nahi inperioa ere, baizik besteen inpe- rioari amaiera emateko darabilgun ahalegin bizian, Heladeren kontrako



bidegabekeria bat egingo genuke, baldin onartuko bagenu zuek guk guztiei independentzia eramatearen kontra ateratzea.

«Egoera den modukoa delarik, erabaki ezazue ongi eta jardun ezazue lehian Heleniarrekin askapenari hasiera ematen lehenengoak izateko eta lur honetan betiko loria uzteko, eta zeuei bakarrik dagokizuenean, lor ezazue zuen zeuen interesak kalteturik ez irtetea eta hiri osoak ospetik handiena izatea».

**88.**– Horixe esan zuen Brasidasek. Akantoarrei dagokienez, batera eta besterako iritzi asko azaldu ondoren, isilpeko botazioa egin zen, eta hala Brasidasen hitzen erakarmenagatik nola uzta galtzeko beldurragatik, gehiengoak atenastarrei huts ematea erabaki zuen. Bidali zutenean Lazedemongo agintariek egindako zina eginarazi ondoren, hau da, Brasidasek erakarritakoak aliatu independenteak izango zirela, baldintza horiexetan onartu zituzten haren tropak. Ez asko geroago Estagirot, Androsen kolonia, batu zen huts emate berera.

Horixe izan zen, bada, uda horretan gertatu zena.

**89.**– Hurrengo negua hasi bezain laster, hiri beoziarrek euren burua Hipokrates eta Demostenes jeneral atenastarrei entregatuko zieten ez eta Demostenes itsasoz Sifara joan beharko zuela eta Hipokrates, ostera, Deliora, adostu zenez, oker bat egon zelarik tropekin aurkeztu behar zuten egunari buruz, Demostenesek, bere ontzietan zihoazen akarniarren eta alde hartako aliatu askoren buru zela Sifara bere jeneral laguna baino lehenago heldu baitzen, ez zuen ezer lortu, zeren Niko-manok, Fanoteoko fozear bat bera, planaren berri eman baitzuen lazedemondarrei eta haiek beoziarrei.

Beoziar guztien sorospen tropak bilduta – Hipokratesek ez zieten oztoporik jartzen, ez baitzegoen oraindik han inguruan–, Sifa eta Keronea okupatzera aurreratu ziren. Inplikatuak errakuntzaz konturatu zirenean, ez zuten jada inolako mugimendurik egin beren hirietan.

**90.**– Hipokrates, atenastarren, hiritarren, metekoen eta han zeuden atzeritar guztien mobilizazio orokor baten ondoren, berandu heldu zen Deliora, beoziarrek Sifatik alde egin zutenean, eta, Delion kanpatu ondoren, honexetara gotortu zuen Apoloren santutegia:

Soldaduek lubanarro biribil bat egin zuten santutegiaren eta tenpluaren inguruan, lubanarroko lurrarekin lubeta bat eraiki zuten horma antzera, taketak sartu zituzten lubetan zehar, santutegiaren inguruan mozturiko mahatsondo geruzak eta inguruko eraikinetatik erauzitako harri eta





adreiluak bota zituzten gainera eta defentsari altuera ematen saiatu ziren era guztietara; egurrezko dorreak ere eraiki zituzten komeni zen tokietan eta santutegiko eraikinik ez zegoen guneeetan, antzinako ataria ere erorita zeukan eta.

Atenasetik irten eta hiru egunera hasi zuten lana, eta lanean jardun zuten egun horretan, laugarren egunean eta bosgarreneko bazkalordura arte. Gero, gehiena bukatu zutenean, tropa gehienak Deliotik hamar bat estadiora dagoen leku batera joan ziren, etxera balihoaz bezala, eta tropa arin gehienak aurrera zihoazen artean, hoplitak halto egin eta bertan gelditu ziren; Hipokratesek Delion jarraitu zuen, eta zaingoa eratzeari eta babes horman falta zen guztia behar bezala azkentzeari ekin zion.

**91.**— Egun horietan beoziarrak Tanagran bildu ziren. Hiri guztietako tropek batu zirenean eta atenastarrak etxera itzultzen zirela jakin zutenean, nahiz eta beste beotarkek (hamaika ziren) batailan ez hastea aholkatu —atenastarrak Beoziara heldu gabe zirelakoan, zeren halto egin zutenean gehien ere Oropiako mugaldean zeudela uste izanik—, Eolidasen seme Pagondas, Lisimakidasen seme Ariantidasekin batera Tebaseko beotarka zena eta aginte gorena zuena, arriskatzea hobe zela uste izanda, batailan sartzearen alde zegoen, eta, guztiek batera armak utz ez zitzaten batailoi guztiak hurrenez hurren banan-banan bilarazi ondoren, beoziarrak atenastarren kontra abiatu eta borrokan hastera limurtu zituen honako hitz hauekin:

**92.**— «Beoziarrok, buruoi ez zitzaigukeen otu ere egin behar ez dela arrazoizko atenastarrei aurre egitea oraindik Beozian topatu ezean, zeren, gotorlekua altxatzean, mugaldetik hurbileko base bat erabilita Beozia suntsitzeko asmotan baitaibiltza, eta, jakina, etsai ditugu edonon, baita etsai-ekintzak egitera etortzeko abiagune izan zuten tokian topatuta ere.

«Orain, bada, baten batek hari seguruago baderitzo, alda dadila ideiaz, zeren zuhurtziak ez baitu onartzen nork bere herrialdearen defentsari dagokionez kalkulu berberak egitea inork erasotzen dionean nahiz nork berea gorde eta edonori motiborik gabe erasotzen dionean, gehiago edukitzeko gogoz. Ohikoa duzue zuek hala zeuen lurrean nola inorenean erasotzen dizuen armadari era berean aurka egitea; eta hori askoz areago egin behar dugu atenastarren kasuan, auzoak ere baditugu eta, izan ere arau orokorra baita auzoen aurrez aurre botere berdintasunak askatasuna esan nahi izatea; eta batez ere horien kasuan, hurbilekoak ez eze urrunekoak ere menperatu nahi dituzte eta, nola ez iritsi borrokara-



ko azken aukeraraino? Hor ditugu atenastarrekiko duten egoeraren eredu geure aurreko eubearrak eta Heladeren zatirik handiena. Nola ez konturatu beste kasuetan auzoek elkarri gerra egiten diotela lurralde mugengatik eta gure kasuan, ordea, garaitzen bagaituzte, demarkazio bakar bat, eztaba daezina, jarriko digutela lurralde guztirako? Indarrez sartuko dira eta geurea dugunaz jabetuko; horraxeraino dugu haien auzotasuna beste batzuen baina arriskutsuagoa.

«Ohikoa dute euren indarrean konfiantza jarrita, atenastarrek orain bezala, euren auzoei erasotzen dietenek beldur gutxiagoz antolatzea euren espedizioak mugitzen ez denaren eta erasoari bere lurraldean bakarrik erantzuten dionaren kontra; ikusten badute, ordea, norbere herritik kanpo ere aurre egiten zaiela eta, abagunea sortuz gero, besteak hasten direla gerran, ez dira hain prest egoten menperatzen hasteko.

«Horren esperientzia haiekin izan ditugun harremanetan daukagu, zeren, Koronean azpiratu genituenean, geure arteko enfrentamenduen-gatik gure lurra okupatu zutenean, segurtasun handia erdietsi baikenuen Beoziarrentzat, gaurdaino iraun duen segurtasuna.

«Hori gogoratuz, guk helduok lehengo egitandia berdindu behar dugu eta gazteek, orduan ongi jokatu zuten gurasoen semeak baitira, familiako bertutea ez desondratzen saiatu behar dute, eta, santutegia gotortu zioten eta bidegabeki erabiltzen dioten jainkoa geure alde edukitzeaz eta sakrifizioek ere alde erakusten dizkiguten iragarpenez fidatuta, goazen horiengana eta euren burua defenditzen ez dutenei ikusaraz diezaiegun erasoz eskuratu behar dutela desio dutena, eta, euren lurra beti aske mantentzeko eta besteena bidegabeki inork ez menperatzeko beti eta berez borrokatu zutenengandik, ordea, ez direla inoiz aldunduko haiei aurre egin gabe».

**93.**– Harenga horrekin Pagondasek konbentzitu egin zituen beoziarrek atenastarren kontra joateko. Segituan jarri zen tropen buru, eguna aurreraturik baitzegoen, eta, atenastarren tropen hurbilera heldu zenean, bitartean muino bat zegoelarik batzuek besteak ikusterik ez zuten toki batean kanpatu ondoren, bere lerroak antolatu eta borrokarako prest ipini zituen.

Delio inguruan zegoen Hipokratesi beoziarren aitzinatzearen berri eman ziotenean, beren postuan jartzeko agindua bidali zien bere tropei, eta bera ere laster heldu zen, Delio inguruan hirurehun bat zaldizko utzita hiria gorde zezaten erasotzen baldin bazieten eta, aukeraren zela-



tan egonda, batailaren erdian beoziarren gainera etor zitezten. Baina beoziarrek horien aurrean eusteko moduko tropak ipini zituzten, eta, egoki ikusi zutenean, muinoaren tontorrean zehar agertu ziren eta halto egin zuten planifikatu bezalaxe formatuta; zazpi bat mila hoplita, hamar mila soldadu arinki armatu baino gehiago, mila zaldizko eta hamar mila peltasta ziren.

Eskuineko ertzean tebastarrak eta beren taldea zeuden; erdian, Haliarto, Koronea eta Kopasekoak eta lakuaren inguruko gainerako biztanleak; ezkerrean, Tespia, Tanagra eta Orkomenokoak. Ertz bakoitzaren ondoan zalditeria eta tropa arinak zeuden; tebastarrak hogeita bosnakako formazioan agertu ziren, gainerakoak euren erara.

Horiexek ziren beoziarren indarrak eta lerrokatzeko era.

**94.**— Hoplita atenastarrak zortzinaka jarri ziren lerro guztian, euren aurkarien beste soldadu ingururekin, eta zalditeria ertz bakoitzean; tropa arinik, dagokien ekipamenduarekin, ez zegoen orduan eta ez zen inoiz egon hirian; inbasioan lagun ekarri zituztenak, etsaiena baino hainbat aldiz kopuru handiagoan, armarik gabe etorri ziren gehienak, han zeuden hiritar eta atzerritarren erreklutatzea jendetsua izan baitzen, eta hiri-ira itzuli ziren lehenengoak izan zirenez, gutxi batzuk baino ez zeuden.

Behin formatu eta borrokan hastear zeudenean, Hipokrates, jenerala, harenga egiten eta honako hau esaten hasi zitzaien formazio guztian zehar zihoala:

**95.**— «Atenastarrok, harenga laburra egingo dizuedan arren, eragin bera izango du, gizon adoretsei egina eta zirikaldia baino areago oroipena delako.

«Inori ez dakiola burutik pasa lur arrotzean gaudelako ez dugula hain arrisku handian sartu behar, zeren, bataila beoziarrenean egingo den arren, geure lurraren alde borrokatuko dugu eta: irabazten badugu, horien zalditeriarekiko beldurra ezabatu egingo da, eta bataila bakar batean lur hau anexionatu eta askatasun gehiago emango diogu geureari.

«Zoazte, bada, horien kontra, gutariko bakoitzak harrotasunez Heladeren lehenengo hiri moduan bere aberritzat daukan hiria leku txarrean utzi gabe eta behiala Mironidesen agintepean Enofitan garaitu zituenean Beoziazen jabe izan ziren zeuen gurasoak baino kaskarragoak izan gabe».

**96.**— Era horretan harenga egiten zielarik formazioaren erdira heldu zen bitartean, beoziarrak, Pagondesek labur-labur eta egoeraren arabera



bere soldaduei harenga egin ondoren, muinoan behera abiatu ziren ziztu bizian. Atenastarrek ere aurrera egin zuten, eta, lasterka, haiekin topo egin zuten; baina armada bien ertzak ez ziren heldu aurrez aurre jartzera, zeren erreka batzuek galarazi zieten, gainerako tropek bataila gogorrean ziharduten bitartean, ezkutuek elkar jotzean danbada ikaragarriak ateraz.

Beoziarren ezker ertza erdiraino atenastarrek garaituta gelditu zen, egoera zailean jartzen baitzituzten ertz horretako tropak, Tespiaskoak bereziki, alboan formatuta zituztenek amore ematean eta leku txikian etsaiek inguratuta geratzean, gorputzez gorputzeko borrokan txikitu egin zituzten eta; are zenbait atenastarrek, mugimendu inguratzailerak formazioa apurtu zuelarik, ez zuten elkar ezagutu eta bata bestea hil zuten.

Kontua da ezen beoziarren parte hori garaitua izan zela eta oraindik borrokan ari zenaren ondoan babestu nahi izan zuela; baina eskuin ertza, tebastarrak zeudena, atenastarrei irabazten ari zen, eta, hasieratik aurre eginda, poliki-poliki amore emanarazten ari zitzaien.

Horrekin batera Pagondasek, bere ezker ertza estu eta larri ikustean, zalditeriako bi eskoadroi pasa zituen muinoaren atzetik inork ikusi gabe eta, bat-batean tontorrean agertu zirenez, atenastar ertz garailea, uste izanik beste armada bat zetorrela erasoan, izutu egin zen, eta orduan, bi zirkunstantziongatik, agerkunde horregatik eta tebastarrek inguratu eta lerroak apurtzen zizkietelako, ihesari eman zion atenastarren armada guztiak: batzuek Deliora eta itsasora jo zuten, besteek Oropora, Parnes mendira edo bakoitzak salbazioa ikusten zuen edozein tokitara.

Eraso egiten zieten eta atenastarrak hiltzen segitzen zuten beoziarrek, batez ere zalditeriak, hala eurenak nola lokroenak, porrota gertatu bezain laster hara joandakoak. Gauak, ekintzan etena egin behar izan zenez, iheslari gehienak salbatzea erraztu zuen. Biharamunean Oropokoak eta Deliokoak, goarnizio bat han utzita –santutegia okupatzen segitzen zuten hala eta guztiz ere–, itsasoz itzuli ziren etxera.

**97.**– Beoziarrek, trofeoa eraiki, beren hilak jaso, etsaienei aldean zera-maten guztia kendu eta zaingo postu bat utzi ondoren, Tanagrara alde egin zuten eta Deliori erasotzeko plana egiten jardun zuten.

Hilei buruz hitz egitera zihoan heraldo atenastar batek heraldo beoziar batekin egin zuen topo, zeinek atzera itzularazi zuen eta bera itzuli arte ez zuela ezer lortuko esan zion; atenastarren aurrera aurkeztuta, beoziarren hitzak jakinarazi zizkien, hau da, Heladeren arauak haus-





tean ez zirela justiziaz jokatzeko ari, arau orokorra zelako besteen lurrak inbaditzen zirenean bertan zeuden santutegiak errespetatzea, eta arau horren kontra, atenastarrek Delio gotortu eta okupatu egin zutela, jendeak leku profanoetan egiten zituen gauza guztiak egiten ari zirela eta ura ere, ikuzketetarako bakarrik zena zilegi erabiltzea, haiek atera eta erabili egiten zutela; ondorioz, hango jainkoaren eta euren izenean, beoziarrek, Apolori eta tenpluko jainkozko guztiei hel eginenez, santutegitik alde egiteko eta euren gauzak handik eramateko galdatzen zieten.

**98.**— Heraldoak hori esan zuenean, atenastarrek euren heraldo bat bidali zieten beoziarrei santutegiaz hitz egiteko, eta esan zuten eurek ez zutela inolako hutsik egin eta aurrerantzean ere ez zutela nahita inolako okerrik egingo, zeren, hasteko, eurak ez baitziren horretarako sartu, handik euren eskubideen kontra zebiltzanengandik hobeto babesteko baizik. Gainera, Heleniarren usadioaren arabera, lurralde bat, txikia zein handia, bere menpean zeukanak bereak zituen hango santutegiak ere eta, ahal izanez gero, han lehen ohikoak ziren errituak ospatzen zituen. Lurralde bateko biztanleak indarrez kanpora egotzi ondoren, hango lurrek ustiatzen zituzten beoziarrek eta beste herriek ere beren jabetzakoak bailiran zeuzkaten orain inbadituriko santutegiak, lehena-go beste batzuenak zirenak. Atenastarrek eurek ere, beoziarren herrialdearen zati handiagoa menpean hartu ahal izan balute, berentzat gordeko lukete; eta orain, zeuden zatitik, euren zela uste baitzuten, ez ziren euren borondatez joango. Ura derrigorrak eraginda ukitu zutela, ez zutela hori egin beoziarrek laidoztatzeko, baizik erabiltzera beharturik aurkitu zirela, aurretik beren lurraldearen kontra etorri zirenengandik euren buruak defenditzeko. Pentsatzekoa zen gerrak edo beldurrak bultzatuta egiten zen guztia barkagarria zela jainkoaren beraren aldetik ere, zeren aldareak babeslekutzat hartzen ziren nahi gabeko hutsegiteen kasuan, delitu ekidingarrien kasuan, ordea, arauak haustea aipatzen zelarik, eta ez horrelakorik norbait inguruabarrek bultzatuta egiten ausartzen zen delituen kasuan.

Esan zien, halaber, eurek gorpuak santutegiaren truke entregatu nahi izatea euren eskubideak santutegien truke betetzeari uko egitea baino erlijioabetasun handiagoa zela.

Agindu zioten, halaber, esateko ez zituztela beren hilak jasoko beoziarren lurretik alde egitearen truke —zeren jada ez baitzeuden beoziar



lurraldean, baizik lantzaz konkistatu zutenean—, baina bai su-etenaren bidez, betidaniko usadioen arabera.

**99.**— Beoziarrek erantzun zuten ezen, Beozian bazeuden, handik alde egiteko eta euren gauzak eramateko, baina, atenastarren lurrean bazeuden, eurek erabakitzeke zer egin behar zuten; uste zuten Oropoaldea —bertan zeuden gorpuak, mugaldeetan burutu baitzen bataila— atenastarrrena zela basailutzaz, baina atenastarrek beoziarren nahiaren kontra ez zituztela jasoko beren gorpuak, eta, jakina, ez zutela su-etenik egingo atenastarren lurralde baten inguruan; eta, gainera, egoki zela erantzutea beoziar lurretik alde egiten zutenean erdietsiko zutela nahi zutena.

Hori entzunda, heraldo atenastarrak ezer lortu gabe alde egin zuen.

**100.**— Segituan beoziarrek xabalina jaurtitzaiileak eta habailariak etorrrarazi zituzten Melideko Golkotik, eta batailaren ondoren errefortzu moduan bi mila hoplita korintoar eta megararrekin batera Nisea ebaquatu zuen goarnizio peloponesoarra heldu zitzaizkienean, Delioaren kontra abiatu ziren eta harresiaren aurka jo zuten erasoan. Beste aukera batzuetan saiatzeaz gain, ondoko artifizioa erabili zuten eta berari esker Delio hartzea lortu zuten:

Habe handi bat luzetara zati bitan zerratu ondoren, erabat hustu zituzten zati biak, eta gero ezin hobeto elkartu berriz, eta hodi bat balitz bezala utzi zuten; puntatik katez galdara bat zintzilikatu zuten, eta habean behera burdinazko gargail edo mutur bat zetorren, ohol guztia-  
ren zati handi bat ere burdinaz estalduta zuelarik.

Gurdietan eraman zuten urrunetik harresiraino, aihenez eta zurez erai-  
kita zeuden parteetara, eta, hurbil zegoela, hauspo handiak jarri zituzten habearen atzeko puntan eta puzka ipini zituzten; airea ikatz txingarrak, sufrea eta bikea zituen galdarara konprimiturik heltzean, sugar handi bat sortu zuen, eta su hartu zuen harresiak, bertan eusterik inork ez izate-  
raino, eta, horregatik, harresia utzi eta ihesari eman zioten guztiek. Goarnizioari dagokionez, batzuek bizia galdu zuten eta berrehunen bat preso hartu zituzten; gainerakoak, gehienak, etxera itzuli ziren itsasoz.

**101.**— Batailan hamasei egun eman ondoren Delio hartu eta handik ez askoz geroago atenastarren heraldoa Tebasera itzuli zelarik hilei buruz hitz egiteko, beoziarrek entregatu egin zizkieten, eta ez zuten errepika-  
tu jada euren erantzuna. Batailan mila lagun baino gutxiago hil ziren, euren artean Hipokrates jenerala, arinki armaturik zihoazen eta farde-  
leriaren ardura zeramaten hainbat eta hainbat soldaduz aparte.



Batailatik lasterrera, Demostenes, ontziekin joan arren Sifa hartzeko planak traizio bat bitarteko huts eman ziolarik eta bere ontzietan tropa akarnaniarrak eta agreotarrak zituelarik, lauhun hoplita atenastarrez gain, Sizion aldean lehorreratzen ahalegindu zen; baina ontzi guztiak atrakatu aurretik errefortzu siziondarrak heldu ziren, jada lehorreratuei ihes eragin zieten, ontzietaraino jazarri zituzten, batzuk hil egin zituzten eta besteak preso hartu. Trofeoa eraiki ondoren, su-etena bitarteko gorpuak entregatu zituzten.

Sitalzes, odrisiarren erregea, Deliokoa jazo zen garaitsu berean hil zen, tribaloarren kontrako espedizio batean zihoala garaitu zutenean. Esparadakoren seme Seutes, haren iloba, bilakatu zen odrisiarren eta Sitalzesek erreinatu zuen gainerako Trazia guztiko errege.

**102.**– Negu berean Brasidasek bere aliatuekin espedizio bat egin zuen Anfipolisen aurka, Strimon ibaiaren ertzean dagoen kolonia atenastarra bera. Orain hiria dagoen inguru horretan finkatzeko ahalegina Mileto-ko Aristagorasek egin zuen lehenago, Dario errege pertsiarrengandik ihes egin zuenean, baina edoniarrek egotzi egin zuten; geroago, hogeita hamabi urte geroago, atenastarrek euren hiritik hamar mila kolono bidali zituzten, baita Drabeskon traziarrek hil zituzten gainerako kolonoetarik nahi izan zuten guztiak ere. Atenastarrak berriro joan ziren hogeita zortzi urte geroago Niziasen seme Hagnon fundatzaile zutela eta, edoniarrek kanpora botata, kolonizatu egin zuten lehen Bederatzi Bide zeritzon toki hori. Eon izan zuten abiagune, zeina ibaiaren bokalean, egungo hiritik hogeita bost estadiora, itsas faktoria komertzial gisa zuten eurek, eta Hagnonek Anfipolis jarri zion izena, Strimon ibaiak alde bietatik inguratzen zuelako; harresi handi bat eraiki zuen ibaiaren alde bien artean eta bai itsasotik eta bai barnealdetik ongi ikusten zen hiri bat eraiki zuen.

**103.**– Hiri horrexen kontra, bada, joan zen Brasidas Kalzidikako Arna-setik abiatuta. Arratsalde aldera heldu zelarik Aulon eta Bromiskora, nondik Bolbe lakuak urak itsasora isurtzen dituen, afaldu eta gero bideari jarraitu zion gauez; eguraldi txarra zegoen eta elur arina ari zuen eta, horregatik, azkartu egin zuen pausoa, Anfipoliskoak ohartzeko pasatzeko, hiria entregatzekoak zirenak izan ezik, zeren bertan horretaz hitz egindako Argilo –Androsen kolonia– hiriko biztanle batzuk eta beste jende bat baitzeuden, Perdikasek limurtuta batzuk, kalzistarrek beste batzuk; baina batez ere aldirian bizi ziren argiloarrak, betidanik susma-



garriak atenastarrentzat eta hiriaren zelatan, izan ziren, aukera sortu eta Brasidas heldu zenean, Anfipolisen bizi ziren argiloarrekin askoz lehenago tratuak hasi zituztenak hiria entregatua izatea lortzeko. Onartu zuten Brasidas euren hirian, eta Atenasi huts eman ondoren, gau horretan, egunsentia baino lehen, ibaiaren gaineko zubira eraman zuten armada. Nahikoa urrun dago hiria ibaia zeharkatzen den tokitik, eta harresia ez zen haraino jaisten orain bezala, baina zaingo postu txiki bat zegoen, Brasidasek aise gainditu zuena ustekabeen erasoz, traizioari eta eguraldi txarrari esker; zubia zeharkatu eta anfipolistarrek harresitik kanpo herrialde guztian barna zituzten ondasunen jabe gelditu zen.

**104.**— Ibaia zeharkatzeak hirikoak ustekabeen harrapatu zituenenez eta asko kanpoan, beste batzuk, berriz, harresien atzean babestu zirelarik, istilu handia sortu zen anfipolistarren artean, batez ere beraien artean susmoak erne zirelako; esan ere, esaten zen ezen, Brasidasek, bere tropekin harrapaketan jardun beharrean, hiriaren kontra zuzenean jo nahi izan balu, segurutik hartu egingo zuela; baina bere tropak han kokatu ondoren, harresietatik kanpo lurraldean zehar hara-hona ibili ondoren eta barruan, bitartean, berak espero zuenetik ezer gertatu ez zenez, lasaitasuna galdu gabe ibili zen.

Hiria entregatu nahi zutenen kontrakoak, bestalde, besteak baino gehiago eta atek irekitzen ez uzteko beste zirelarik, Eukles eurekin goarnizioaren buru ziharduen Atenaseko jeneralarekin bat etorrira, mezulari bat bidali zioten Traziako lurraldeetako beste estrategoari, Olororen seme Tuzididesi, lan hau idatzi zuenari eta Tasos inguruan zegoenari —Tasos, Parosen kolonia, uharte bat da, Anfipolisetik nabigazioko egun erdira dagoena—, eurei laguntzera etortzeko eskatuz; hori jakin zuenean, berehala itsasoratu zen zeuzkan zazpi ontziekin; batez ere Anfipolis errenditu baino lehen okupatzera joan nahi zuen lehenbailehen, baina hori lortu ezean, Eon bederen okupatzera.

**105.**— Bitartean, Brasidas, Tasosko ontzien beldur, eta jakinarazi ziotelarik Tuzididesek Traziako alde horretan urre-meatzeak ustiatzeko emakida zuela eta, horregatik, influentzia zuela kontinenteko pertsona ospetsuen artean, arineketan zebilen hiria lehenago hartu ahal ote zuen ikusi nahian, bera iristean Anfipolisko herria, Tuzididesek, itsas aliatuak eta Traziakoak bilduz, salbatuko zituen esperantzaz, jada errendituko ez ote zen beldur. Akordio batera iristen ere saiatzen zen aldarrikapen baten bidez, non esaten zen hirian bizi zen edozein anfipolistar





edo atenastar gera zitekeela bertan, bere ondasunak eta lehengo esku-bide berak atxikita, eta geratu nahi ez zuenak bost eguneko epean alde egin ahal izango zuela bere gauza guztiekin.

**106.**– Entzun ziotenatariko gehienek iritzia aldatu zuten neurri batean, batez ere populazio atenastarra urria zelako, gehiengoa heterogeneoa izanik, eta, gainera, kanpoan preso harturikoen ahaide asko zeudelako barruan. Oker askoz handiagoen beldur zirenez, justutzat jotzen zuten aldarrikapena: atenastarrek, gustura irtengo zirelako, arriskuak eurentzat besteentzat baino txikiagoak izango zirela uste baitzuten, eta ez zutelako uste errefortzuak aurki helduko zirenik; gainerako populazioak, hirian eskubide berekin geratu ahal izango zirelako eta, espero zutenaren kontra, arriskutik libratuko zirelako.

Ondorioz, Brasidasekin tratuan zebiltzanek, klausulak eztabaidatu ondoren, jendaurrean gainera, ikusi zutenean jendetza hartaratuta eta bertan zegoen jeneral atenastarrari jaramonik egin gabe, akordiora iritsi ziren, eta onartu egin zuten Brasidas proposatu zituen baldintzetan.

Horrelaxe errenditu ziren hirikoak, eta bitartean Tuzidides eta ontziak egun berean arratsaldez Eonera heltzen ziren. Brasidasek hartu berri zuen Anfipolis, eta gau bategatik ez zuen Eon hartu, zeren, ontziak hain arin etorri ez balira, egunsentian hartuko zukeen eta.

**107.**– Horren ostean, Tuzididesek momentuz segurtatzeko behar ziren neurriak hartu zituen Eonen, Brasidasek erasoa jotzen bazuen ere, eta, geroari begira, barnealdetik etorri nahi zutenak onartuz jokatu zuen Brasidasekin itundurikoaren arabera. Brasidas ibaian behera abiatu zen bat-batean, Eonerantz, ontzi askorekin, ea harresitik ateratzen zen eta sarbideak kontrolatzen zituen lur muturraz jabetzen zen; aldi berean, lehorrez egin zuen beste ahalegin bat. Porrot egin zuen puntu biotan, eta Anfipolisko egoera antolatzeari ekin zion.

Alde jarri zitzaion Mirzino ere, edonoen hiria, Goaxis eta haren emazte Brauroren semeek Pitako edonoen erregea hil zutenean, eta ez asko geroago, baita Galepso eta Esime ere, Tasosko koloniak. Perdikasek, Anfipolis hartzearekin batera aurkeztu zelarik, laguntza eman zion.

**108.**– Anfipolis hartu zutenean, atenastarrak zeharo beldurtu ziren, batez ere oso hiri baliagarria zutelako ontzigintzarako zura bidaltzeko eta hiri horren finantza ekarpenengatik, eta, horrez aparte, lehenago lazedemonarrak, tesaliarrek gidatuta joanez gero, Strimon ibairaino joan ahal baziren ere, orain ezin zirelako harantzago joan lazedemon-



darrak zubiaren jabe izan gabe, zeren ibaiak goialdean hedadura handi-laku bat egiten baitzuen eta trirreme atenastarrak Eon ingurua zaintzen egoten baitziren. Orduan, oster, hori egingarri zela uste zuten, eta beldur ziren lazedemonarrek beren aliatuen huts ematea eragingo ote zuten, zeren Brasidasek moderazioz jokutzen baitzuen edozertan, eta batez ere nonahi egiten zituen hitzaldietan, Helade askatzeko bidali zutela esaten baitzuen.

Atenasetik dependenteak ziren hiriak, Anfipolis hartu izanaren, eskainitako baldintzen eta Brasidasen onberatasunaren berri izan zutenean, matxinada egitera animatuago sentitu ziren, eta mandatariak bidali zizkieten isilpean etor zedin eskatzera, guztiak Atenasi huts ematen aurrena izan gurarik, botere atenastarrak kalkulatu okerrak eginda, hark gero erakutsi zuen handitasunaren tamainakoak, botere hori ziurtasunik gabeko gurariak eta ez aurreikuspen sendo batek eraginda kalkulatu baitzuten, izan ere, gizakiek, euren gurariak hausnarketarik gabeko esperantzan oinarrituta, gustatzen ez zaiena kalkulatu arbitrarioekin arbuatzen dute eta.

Gainera, atenastarrak, oraintsu Beozian izandako hondamenaren ostean eta Brasidasen hitzak, erakargarriak baina ez egiadunak, entzunda, zeintzuen arabera atenastarrak ez zuten nahi izan borrokarik egin Nisean bere tropa bakarren kontra, animatu egiten ziren, eta uste zuten inor ez zitzaizela kontra etorriko; eta, inportanteena, prest zeuden edozein arriskutan sartzeko, momentuz eragiten zuen sentsazioagatik eta lehenengo aldia egiaztatuko zutelako lazedemonarren ahalegina.

Horretaz ohartzean, atenastarrak, denbora gutxi edukitzeak eta neguak uzten zieten heinean, goarnizioak banatu zituzten hirietan. Brasidasek, bitartean Lazedemoni tropa gehiago bidaltzeko eskatzen zion, eta hark berak Strimon ibaian trirremeentzat ontziola bat prestatzen jardun zuen. Lazedemonarrek, alabaina, ez zieten jaramonik egin haren eskariari, aldeztu gizon printzipalen inbidiagatik, baina are gehiago presoak uhartetik eraman eta gerrari amaiera eman nahi ziotelako.

**109.**– Uda berean, megararrek, atenastarrak okupatzen zituzten Horma Luzeak hartu ondoren, zimenduetaraino suntsitu zituzten, eta Brasidasek, Anfipolis hartu ondotik, bere aliatuekin batera espedizio bat egin zuen Akte deritzonera. Errege pertsiarren kanaletik itsasoan barrena sartzen den lurraldea da, eta lurralde horretako Atos izeneko mendi garaia Egeo itsasoan amaitzen da; hiri hauexek dauzka: Sana, kanala-



ren beraren ondoan Eubea itsasora begira dagoen Androsen kolonia, Tiso, Kleona, Akrotoo, Olofixo eta Dion, eta barbaro elebidunen populazio heterogeneoak bizi dira eurretan. Kalzistarren populazio txiki bat dago, baina gehienak pelasgoak –behiala Lemnos eta Atenasen bizi izan ziren tirreniarren taldekoak–, bisaltiar, krestoniar eta edoniarrek dira; komunitate txikietan taldekatuta bizi dira. Gehienak Brasidasen alde jarri ziren, baina Sanak eta Dionek kontra egin zioten, eta han egon zen artean horien lurraldea deboilatzeari ekin zion.

**110.**– Amorerik ematen ez zutenek, atenastarrek okupatua zuten Kalzidikako Toronaren kontra joan zen segituan, hiria entregatzeko prest zeuden gizon gutxi batzuk deitu zioten eta. Oraindik gaua zela helduta, egunsentian hiritik hiru bat estadiora dagoen Dioskuroen tenpluaren ondoan kanpatu zuen armadarekin; hiria zaintzen zeuden atenastarrak eta Toronako gainerako populazioa beraz ohartzeke pasa zen, baina haren aldekoek, bazetorrela jakinda, isilpean irten ziren gutxi batzuk hura heltzeko zain, eta han ikusi zutenean tropa arinetako zazpi gizon, sastakaiz armatuta, sartu zituzten euren hirian, hasieran izendaturiko hogeietarik horietan bakarrik izan zirelako sartzeko beldurrik ukan ez zutenak; Olintoko Lisistratoren agindupean zihoazen. Horiek, itsasora begira dagoen aldeetik horma zeharkatu eta muino baten ondoan dagoen hiriko posturik garaienera bertako zentinelak konturatu gabe igo ondoren, hil egin zituzten eta Kanastreo lurmuturrera begira dagoen ataka ireki zuten.

**111.**– Brasidasek, armadaren gainerako zatiarekin bide arlo bat eginda, halto egin zuen, baina ehun peltasta bidali zituen aurrera, ateak zabaldu eta adosturiko seinalea ematean, aurren sartu zitezen arrapaladan; horiek, denbora aurrera eta, mira eginda poliki-poliki hirira hurbilduz zihoazen; Toronakoek, berriz, sartu zirenekin batera prestakizunak egiten ari zirenek, ataka ireki zenean eta, behin barra moztu eta gero, hirirako atea zabaldu zenean, orduan lehenbizi batzuk atakatik sartu zituzten itzuliniguru bat eginda, atzetik eta alde bietatik ezer ez zekiten hirikoen kontra ustekabeen erasoak joz, ikara zitzaizuten; jarraian suen bidez eman zuten seinalea eta gainerako peltastei hiriko ateetatik sartzea erraztu zieten.

**112.**– Brasidas, adosturiko seinalea ikustean, arrapaladan abiatu zen bere tropak oihuka batean zituela, eta horrek hirikoen artean izu handia eragin zuen. Batzuk ateetatik sartu ziren segituan, beste batzuk kontontzen ari ziren harresi eraitsiaren kontra harriak jasotzeko ipinita zeuden oholtzar batzuetatik.



Brasidas eta tropen gehiengoa gorantz eta hiriko alde garaietara abiatu ziren segituan, goienak eta hiria modu egonkorrean okupatzeko asmoz; troparen gainerakoa hiri guztian zehar barreiatu zen hein berdintsuan.

**113.**– Okupazioa burutzean, toronarrik gehienak, ez baitzekiten ezer, nahasi-nahasita gelditu ziren, baina Brasidasen aldekoak eta gurarietan beraiekin bat zetozenak inbaditzaileekin batu ziren segituan. Atenastarrei dagokienez –hain zuzen ere berrogeita hamar bat hoplita zeuden lo hirian–, konturatu zirenean, gorputzez gorputzeko borrokan hil ziren gutxi batzuk kenduta, gainerakoak, batzuk oinez eta besteak zaingoan zebiltzan bi ontzietan, Leziton babestuta salbatu ziren; Lezito beraz jabetu ondoren eurek bakarrik okupatzen zuten gotorleku bat zen, itsasoan barrena sartzen den hiriko tontor batean, istmo estu batean bakar-tua. Aldeko zituzten toronar guztiak ere eurekin batera babestu ziren.

**114.**– Eguna heldu eta hiriaren okupazioa finkatu zenean, Brasidasek atenastarrekin errefuxiaturik zeuden toronarrei iragarri zien edonork erabili izango zituela hiritar lege zituen eskubideak bere lurretara itzultita; atenastarrei, berriaz, heraldo bat bidali zien su eten baten babespean eta euren gauzekin Lezitotik irteteko aginduekin, Kalzidikako lurraldea zela eta.

Haiek ez zihoazela gotorlekua uztera esan zioten, baina egun beteko su-eten eskatu zioten euren hilak jasotzeko; eta hark bikoa eman zien. Egun horietan hurbileko etxeak gotortzen jardun zuen, atenastarrek euren posizioetan gauza bera egiten zuten bitartean.

Toronarrak batzar batean bildu zituen, eta Akanton hitz egin zuen antzera mintzatu zitzaizen esanez ez zela bidezko berari hiria okupatzen lagundu ziotenak doilor eta traidoretzat hartzea, ez baitzuten hori hiria menperatzeko edo erosi zituztelako egin, hiriaren onura eta askapenerako baizik; baina ez zela bidezko pentsatzea, orobat, parte hartu ez zutenek ez zutela trataera berdina hartuko, bera ez baitzen etorria ezein hiri edo norbanako suntsitzera; horrexegatik eman ziela aldarrikapen hori atenastarren artean errefuxiatu zirenei, zeren lazedemondarrekin harremanak izan eta gero, uste baitzuen euren alde gutxiago barik askoz gehiago egongo zirela, euren jokaera bidezkoagoa zen heinean, nahiz eta orain beldurtuta egon ez zituztelako ezagutzen.

Aliatu tinkoak izatera eta une horretatik aurrera egindako okerren erantzukizuna euren gain hartzea gonbidatzen zituen guztiak, zeren ordura arte lazedemondarrak barik toronarrak izan baitziren irainduak beste





indartsuago batzuen mende, barkagarria zelarik lazedemondarrei aurre egin izana.

**115.**– Horrela hitz egin eta adoretu zituenean, su-etenaren epea amaituta, Lezitoren kontra erasotzen hasi zen. Atenastarrek harresi txar batek eta almenak zituzten etxeetatik defenditzen zuten euren burua, eta egun batez etsaiei aurre egitea lortu zuten; baina biharamunean, etsaiak harresira tramankulu bat hurbiltzen ahalegindu zirenean egurrezko babesgarriei su emateko, eta tropak gerturatzen zetozenean, orduan, euren ustez segurutik tramankulua hurbilduko zuten eta gotorlekua menderagarrien zen tokian, etxe baten gainean zurezko dorre bat kokatu zuten, eta gainean anfora eta tina asko ipini zituzten urez beterik, baita harri handiak ere, eta gizon asko igo ziren bertara. Etxea, karga handiegiari eutsi ezinik, eraitsi egin zen bat-batean; burrunba itzela atera zuenez, horrek hur zeuden eta ikusten ari ziren atenastarrak beldurtu baino areago nahigabetu egin zituen, baina urrun samar zeudenek eta batez ere oso urrun zeudenek, alde horretatik hiria hartua zutela uste izanik, arineketan ihes egin zuten itsasorantz eta ontzietarantz.

**116.**– Brasidas almenak bertan behera uzten zituztela konturatu zenean eta gertatzen ari zena ikustean, bere tropekin segituan erasoz gotorlekua hartu zuen eta preso hartu zituen guztiak hil zituen.

Atenastarrak, berriz, gotorlekua horrelaxe utzita, Palenera joan ziren beren garraiontzi eta gerrako barkuekin.

Bada Leziton Atenearen santutegi bat, eta Brasidasek, zeinek, erasotzera zihoala harresira lehenen igotzen zenari hogeita hamar zilarrezko mina emango ziola agindu zuen, gotorlekua hartzea gizakiei dagozkienetatik kanpoko bitartekoz burututzat jota, jainkosari eman zizkion hogeita hamar minak santutegirako. Lezito zeharo eraitsi eta garbitu ondoren, esparru sakratu bihurtu zuen oso-osoan.

Neguari gelditzen zitzaion zati guztia okupatzen zituen lurraldeak antolatzen eta besteei egingo zizkien erasoak planifikatzen eman zuen.

Negua iraganik, gerrako zortzigarren urtea amaitu zen.

**117.**– Lazedemondarrek eta atenastarrek, hurrengo udaren udaberria hasi bezain laster, urte beterako armistizioa sinatu zuten. Atenastarrek, uste zutelako horrela Brasidasek jada ezingo zuela beren aliatuen huts emate gehiagorik eragin, eurak soseguz prestatu arte, eta aldi berean, gauzak ongi bazihoazkien, akordio zabalagora heldu ahal izango zute-



la. Lazedemonдарrek, uste zutelako atenastarrak benetan ikaratzen zituenaren beldur zirela, eta pentsatzen zutelako haiek, probaturiko ezbehar eta kalamitateen etenaldi baten ondoren, akordiora heltzeko eta su-etenak egiteko –euren gizonak entregatuz– gogo handiagoa izango zutela. Gauza handitzat zeukaten euren gizonak berreskuratzea Brasi-das arrakastarik arrakasta zebilen bitartean, zeren, hala euren egoerak hobera egiten bazuen nola oreka ezartzen bazen, euren gizonik gabe geldituko baitziren eta arriskueta sartu eta abantailarik gabe borrokatu-z gailendu beharra izango baitzuten.

Horrela, bada, honako armistizio honetara heldu ziren euren eta alia-tuen artean:

**118.**– «Apolo Pitioeren santutegi eta orakulari dagokienez, engainurik ez beldurrik gabe usadio tradizionalen arabera edonork erabili ahal iza-tea proposatzen dugu; horixe da lazedemonдарren eta hemen dauden aliatuen proposamena. Beste hau ere badiote, alegia, heraldoen bitartez beoziarrak eta Fozearrak ere limurtzen saiatuko direla.

«Jainkoaren altxorrei dagokienez, saiatuko gara errudunak aurkitzen, zuzentasuna eta justizia gidari ditugula usadio tradizionalen arabera, bai guk eta bai zuek eta beste edozeinek, usadio tradizional gutziet jarrai.

«Puntu horiei buruz horixe da lazedemonдарren eta beraien aliatu guz-tien proposamena. Bestalde, lazedemonдарrek eta gainerako aliatuek ondokoa proposatzen dute. Atenastarrek itunak sinatuz gero, alde bakoitzak bere lurtean segituko du orain duguna nork beretzat atxikita, tropa atenastarrek Korifasion jarraituta, Bufrade eta Tomeotik pasa barik, eta Ziteran ez dute harremanik izango lazedemonдарren aliatue-kin, ezta guk ere eurekin ez eurek gurekin. Nisea eta Minoakoek ez dute gaingituko Nisoren tenplu inguruko ateetatik Posidenonenera doan bidea, ezta Posidenonetik zuzenean Minoara daraman zubira doana ere –megararrek eta beren aliatuek ere ez dute bide hori gaingituko–, ate-nastarrek okupatu duten uhartearen jabe izaten segituko dutelarik, alderdi bietako batek ere zentzu batean ez bestean inolako harremanik izan gabe, Trezenekoek atenastarrekin adostu zuten bezala orain oku-patzen duten lurraldearen jabe ere izanik.

«Lazedemonдарrek eta beren aliatuek nabigatu ahal izango dute beren eta beren aliatuen kostaldearen aurrean hedatzen den itsasoan zehar, beti ere gerrako barkuetan ez bada, baina bai bostehun talentutik beherako edukierako arraun-ontzietan. Gerraren amaierari eta auziei buruz trata-



tzeko arduradun diren heraldo, enbaxada eta laguntzaileak, erabakitzen diren guztiak, su-etenaren bidez babestuta geldituko dira Peloponesora edo Atenasera joan edo handik etortzean itsasoz zein lehorrez.

«Aldi horretan ez da onartuko desertorerik, ez librerik ez esklaborik, ez zuen aldetik ez guretik.

«Zuek guri eta guk zuei ordainak emango dizkiogu elkarri arau tradizionalen arabera, eta eztabaidak arbitrajez, eta ez gerraz, garbituko ditugu.

«Horiexek dira lazedemonдарren eta beraien aliatuen proposamenak.

Beste zerbaiti irizten badiozue hori baino bidezkoagoa, joan Lazedemonera eta azaldu bertan, lazedemonдарrek ez beren aliatuek ez baitute zuek egindako proposamen bidezkorik gaitzetsiko; baina hara doazenak, doazela ahal guztiez, zuek guri galdatu zeniguten bezala. Su-etena urte betez izango dira indarrean.»

*Batzarraren erabakia, Akamantis leinuak zeukala pritanotza, Fenipo zelarik idazkaria, eta Nizides presidentea. Lakesek, Atenasko herriari zori ona opatuz, armistizioa egitea proposatu zuen, lazedemonдарrek eta beren aliatuek ontzat jo eta Batzarrean adostu zituzten baldintzetan. Eta harri asanbladan zera adostu zen: su-etena urte betez izan dadila baliozko, gaurko egunean, Elafebolionen hilaren hamalauan, hasita. Aldi horretan joan daitezela euren artean heraldoak eta enbaxadoreak, gerrari amaiera emateko balioko duten puntuak negoziatzeko. Behin jeneralek eta pritanoek Batzarrerako deia egiten dutenean, atenastarrek bakeari buruz deliberatuko dute lehenbizi, enbaxada lazedemonдарrak gerrari amaiera emateko proposatzen duenaren arabera, eta berehala han dauden enbaxadek ituna berretsiko dute Batzarraren aurrean itunei urte betez eustea zin eginez.*

**119.**— Puntu horiexek adostu zituzten, eta berorien zina egin zuten lazedemonдарrek eta beren aliatuek atenastarrekin Gerastio espartar hilaren hamabian Lazedemonian. Eta honako hauexek izan ziren ituna sinatu eta berretsi zutenak: lazedemonдарren izenean, Eketimidasen seme Tauro, Perikleidasen seme Ateneo, Erixilaidasen seme Filokaridas; korintoarren izenean Ozitoren seme Eneas eta Aristonimoren seme Eufamidas; sizionдарren izenean, Naukratesen seme Damotimok eta Megaklesen seme Onasimo; megararren izenean, Zekaloren seme Nikaso eta Anfidororen seme Menekrates; epidauroarren izenean, Eupalidaren seme Anfias; eta atenastarren izenean jeneral hauexek: Diitrefesen seme Nikostrato, Nizeratoren seme Nizias eta Tolmeoren seme Autokles.



Horixe izan zen armistizioa, eta iraun zuen bitartean etengabe burutu ziren elkarrizketak iraupen luzeagoko itun bat negoziatzeko.

**120.**– Elkarrizketak hasi ziren garaituan, Palenen dagoen Szionet hiriak Atenastarrei bizkar eman zien eta Brasidesengana iragan. Szionetarek adierazten dute Peloponesoko Pelenetik datozeela, eta Troiatik itzultzean euren arteko lehenengoak leku horretan lehorreratu zirela akeoek jasan zuten ekaitzak behartuta, eta hantxe finkatu zirela.

Atenastarrei huts eman zienean, Brasides Szionera joan zen aurretik trirreme lagun bat zeramala eta bera atzetik txalupa batean, txalupa baino ontzi handiagorekin topo eginez gero, trirremeak defendi zezan, eta berearen pareko trirremeren bat agertuz gero, txaluparen kontra barik ontziaren kontra joko zuela suposatuta, kasu horretan ere salbatu egingo zen.

Zeharkaldia egin eta hango jendea batzar batera deitu ondoren, Akanton eta Toronan esandako berbera esan zuen, honako hau gehituta, alegia, goraipagarriak zirela oso, Palene istmoan isolatuta egon arren Atenastarrek Potidea okupatzen zutelako eta uhartetarrek besterik ez izan arren, inork eskatu gabe askatasunaren aldera iragan zirelako eta ez zirelako ausartzia faltaz zain gelditu, harik eta premiak eurentzako onura garbia zena egitera behartu arte; hori beste edozein garrantzizko balentria erabateko ausartziaz beren gain hartuko zuten seinalea zela; eta berak egoera bere planen arabera antolatzea lortzen bazuen, lazedermondarren lagunik leialentzat hartuko zituela eta beste ohore batzuk ere luzatuko zizkiela.

**121.**– Szionetarrak sutu egin ziren haren berbez, eta guztiak neurri berean adoretuta, baita lehen egin zenarekin konforme ez zeudenak ere, gerra gogotik eramatea erabaki zuten eta bereziki ondo hartu zuten Brasidas: ofizialki urrezko koroa bat eman zioten Heladeren askatzaille moduan, eta pribatuki zintez eta hasikinez bete zuten atleta bat balitz bezala.

Hura, momentuz goarnizio bat han utzita, beste aldera pasa zen berriro, eta ez askoz geroago tropa gehiagorekin egin zuen zeharkaldia, Menda eta Potidearen kontra ahalegin bat egiteko asmoz, uste baitzuten Atenastarrak errefortzuekin etorriko zirela irla bat balitz bezala, eta haiei aurea hartu nahi zieten; gainera, hiri horiekin tratuetan hasia zen hirion entrega traizioz burutzeko.

**122.**– Bera hirioi erasotzeko prestatzen ari zen artean, trirreme batean armistizioa aldarrikatzeko arduradunak heldu ziren, Atenastarren alde-





tik Aristonimo eta lazedemondarren aldetik Ateneo. Tropak berriro Toronara zihoazen bitartean, besteek Brasidasi akordioa jakinarazi zioten, eta lazedemondarrek Trazian zituzten aliatu guztiek onartu zuten adosturikoa. Aristonimo ados zegoen beste guztiei zegokienez, baina szionetarren kasuan, egunen kalkulutik geroago banatu zirela konturatzean, esan zuen ez zeudela itunean sartuta; Brasidasek kontrakoa aldeztu zuen, hots, lehenago banatu zirela, eta ez zuen hiritik alde egiten. Aristonimok horren berri eman zionean Atenasi, atenastarrek berehala prestatu ziren Szioneren kontra abiatzeko. Lazedemondarrek enbaxadoreen bitartez esan zuten orduan akordioak hautsiko zituztela; hiria erreklamatu zuten Brasidasi sinetsita, eta hiriari buruz arbitraje baten pean jartzeko prest agertu ziren; baina besteek ez zuten nahi arbitrajearen arriskuan sartu, ahalik lasterren espedizio bat bidali baizik, haserre irletan zeudenek ere huts eman nahi zietelako, kasu horretan alferrekoak ziren lazedemondarren lehorreko indarrez fidatuta; gainera, huts emateari buruz, egia szionetarren iritzitik hurbilago zegoen, zeren szionetarrak ituna sinatu eta gero banatu ziren eta. Kleonen iritziari jarrai dekretu bat bozkatu zuten segituan, non Szione suntsitzea eta bertako biztanleak heriotzara kondenatzea agintzen zen. Beste fronteetan mugitu gabe, egiteko horrexetarako prestatzen jardun zuten.

**123.**– Une horretan Mendak huts eman zuen, Paleneko penintsulan dagoen hiria bera, Eretriaren kolonia dena, eta Brasidasek hartu egin zuen justiziaren kontra huts egiten zuela pentsatu gabe, gauza nabaria zelako armistizioa martxan zegoela pasa zirela bere aldera, alegatuz atenastarrek ere hautsi zutela puntu batzuetan bake-ituna. Horrexegatik agertu ziren ausartago Mendakoak, Brasidasen jarrera ikusi zutelako, Szione ez entregatu izanak frogatzen zuen moduan. Gainera, gutxi zirenez Brasidasen aldekoak hirian, behin erabaki zutenean ez zuten atzera egin, baizik nabarmen gelditu izanaren beldur izan ziren, eta orduan hartaratu egin zuten gehiengoaren irizpidea.

Atenastarrek hori jakin zutenean, askoz haserreago jarri ziren eta hiri bion aurkako neurriak prestatzen hasi ziren. Brasidasek, uste izanik atenastarrek ontziak bidaliko zituztela, Kalzidikako Olintora eraman zituen szionetarren eta mendarren haurrak, eta hiri horien artean bostehun hoplita peloponesoar eta hirurehun peltasta kalzistar banatu zituen, Polidamidasen agindupean guztiak. Bitartean, hiri biotako biz-



tanleak prestakizunak egiten ari ziren elkartuta, atenastarrak laster han izango zituztela pentsatuta.

**124.**— Bitartean Brasidasek eta Perdikasek bigarren aldiz espedizio bat egin zuten elkarrekin Linkora, Arrabeoren kontra. Batak bera errege zuten tropa mazedoniarrek zeramatzan, bere erreinuan bizi ziren hoplita Heleniarrez gain; besteak, gelditzen zitzaizkion peloponesoarrez aparte, kalzistarrak, akantarrak eta beste hiri batzuetako tropak zeramatzan, hiri bakoitzak ahal zuen neurrian ekarritakoak. Hoplita Heleniarrak hiru bat mila ziren orotara, eurekin zihoan mazedoniar eta kalzistarren zalditeriak ia mila zaldizko inguru zeramatzan, eta, horiez gain, barbaro asko, ikaragarri asko zihoazen.

Behin Arrabeoren lurraldera sartu eta linkotarrak kanpatuta eta batailarako prest aurkitu zituztenean, eurek ere halto egin zuten. Armada bakoitzeko infanteriak muino bat betetzen zuen eta bitartean ibar bat zeukatenez, zalditeria lauhazka jaitsi zen eta euren muinotik hoplita linkotarrak aurreratu zirenez zalditeria lagun zutela eta borrokan sartzeko prest, Brasidasek eta Perdikasek, haiengana jo, aurre egin eta ihes eragin zieten linkotarrei, eta asko hil zituzten, gainerakoek goienetara eskapatzen zuten bitartean, eta bertan gelditu mugitu gabe.

Gertaeron ondoren, trofeoa eraikita, hantxe ibili ziren bizpahiru egunez iliriarren zain, Perdikasen mertzenario gisa etorri behar baitziren. Gero Perdikasek kanpatuta egon beharrean aurrera egin nahi izan zuen Arrabeoren herrixken kontra; baina Brasidas, Mendaz kezkatuta, atenastarrak lehenago heldu eta okerren bat gerta lekiokkeen arranguraz, eta iliriarrak etorri gabe segitzen zutenez, ez zegoen espedizioan aurrera egitera, eta nahiago zuen itzultzea.

**125.**— Nor bere iritziarekin zebiltzala, iliriarrak Perdikasi traizioa eginez Arrabeorekin batu zirela zioen albiste heldu zitzaient, eta alde egitea erabaki zuten biek, herri gerrazale liskartia zelako. Hala ere, euren arteko desadostasunengatik noiz abiatu behar zen zehatz-mehatz erabaki ez zenez, gaua heltzearekin batera mazedoniarrei eta tropa barbaroetako gehienei izua sartu zitzaient bat-batean, tropa formazio handiei, azaltzen oso zaila bada ere, jazo ohi zaien kontua berori, eta sinetsirik gerturatzen ari zitzaient baino askoz tropa jendetsuagoak zetozkiela kontra eta ia ber-bertan zirela, bat-batean ihesari eman eta etxera abiatu ziren, eta Perdikasek, hasieran ezertaz konturatu ez bazen ere, hori



jakin zuenean Brasidas ikusi aurretik alde egin behar izan zuen, bata bestearengandik oso urrun kanpatuta zeuden eta.

Egunsentian Brasidasek mazedoniarrek alde eginak zirela eta iliriarrak eta Arrabeo iristear zirela ikusi zuenean, bere hoplitak karratuan formatu eta erdian tropa arinak ipini ondoren, erretretarako planak egin zituen. Gazteenak tropa ibiltari gisa jarri zituen etsaiek erasoak non jo, haraxe joateko, eta berak, berriz, atzeguardian, hautaturiko hirurehun soldadurekin, etsaien abangoardiaren erasoei aurre egin eta guztiei atzera eragiteko plana zeukan.

Etsaiak hurbildu baino lehen, honako hitz hauekin egin zien harenga bere soldaduei egoera hartan behar bezain labur:

**126.**— «Peloponesoarrok, isolaturik aurkitzearen eta zuen erasotzaileak barbaroak eta asko izatearen beldur zaretela susmatuko ez banu, ez nizuke orain bezala ezer irakatsiko harenga egitearekin batera. Geurek utzi gaituztela eta etsaiak asko direla ikusita, oroipen eta burubide labur batekin zuek konbentzitzen saiatuko naiz.

«Ezaugarri duzue zuek borrokan adoretu jokatzea, ez une horretan aliatuak hantxe dituzuelako, barrutik irteten zaizuelako baizik; ezaugarri duzue, halaber, aurkarien kopurua handia delako ez ikaratzea, zuek asko gutxiri nagusitzen zaien erregimen politikoa barik, gutxiengoa gehiengoari nagusitzen zaiona baitauekatzue, eta boterea borrokan garaitzeaz soilik eskuratzen duzue.

«Zeuen eskarmenturik ezagatik beldur diezuen barbaroei dagokienez, aldiz, haietako batzuekin, mazedoniarrekin kasu, eduki zenituzten borroketatik, eta nik aieruz eta beste batzuei entzunda dakidanetik, jakin behar duzue ez direla beldurgarriak izango. Izan ere, etsaien puntuei buruz informazio zehatza ematen bada, hau da, haien benetako ahultasunagatik ere indar inpresioa ematen duten puntuei buruz, orduan areagotu egiten da haiei aurre egiten doazen adorea. Dohain handiren bat sakon errotuta balute, ordea, aurretiaz ezagutu ezean, ausarke-ria handiegiz eraso lekieke.

«Horiek perspektiba beldurgarria agertzen diete ezagutzen ez dutenei, izan ere, asko izanik ikaratu egiten dute ikusi batean, euren oihuekin iskanbila jasanezina ateratzen dute eta armak airean astintzeko duten moduak badu zerbait mehatxagarria, baina ez dira lehengo berak aurka egiten dietenei aurre egitean, zerren, formazioan borrokatzen ez dute-



nez, ezin dira lotsatu besteen indarrez euren postua utzi beharraz. Ondorioz, atzera nahiz aurrera egiteak ohorezko begirune bera merezi dutenez, ez da galdatzen adorea erakustea, zeren, borrokan egiteko duten modu arbitrarioak itxuraz salbatzeko aitzakia ematen baitie, eta, beraz, seguruagotzat daukate eurek arriskurik hartu gabe zuek ikaratzeari, zuekin borrokan gogor egitea baino, zeren, bestela, bide hartara barik beste horretara joko baitzuket.

«Ikus ezazue argi, beraz, sorrarazten duten beldur guztia txikia dela izan, nahiz eta begietara eta belarrietara handia eman.

«Horregatik, erasoari kontra egiten badiezue eta, unea helduta, ordenaz eta diziplinaz atzera egiten baduzue, lehenago izango zarete salbu eta gerorako jakingo duzue horrelako giza talde jendetsuek, lehen erasoaldi jotzean eusten bazaie, perspektiban urrunetik mehatxatuz bakarrik erakusten dutela euren ausartzia, baina amore ematen bazaie, ordea, abiada handian jazarritz erakusten dutela euren ausartzia, arriskua desagertu eta gero».

**127.**— Bere soldaduei horrela harenga egin ondoren, Brasidasek erretrera hasi zuen. Barbaroek hori ikusi zutenean, oihuka batean eta arrabots handiarekin hurbildu zitzaizkien, ihesean zihoazela eta harrapatu bezain laster suntsituko zituztela pentsatuta.

Barbaroek non eraso, tropa ibiltaria hantxe agertzen zenez, Brasidasek eta hautaturiko soldaduek haien erasoei eusten zien artean, eta, barbaroek uste zutenaren kontra, lehenengo erasoaldiari eutsi eta hortik aurrera atzera eragiten jarraitu zutenaz gero erasotzen zutenean haiei aurre eginez eta erasotzen ez zutenean atzera eginez, orduan, eremu zabalean, tropa barbaroen gehiengoa urrundu egin zen Brasidasen heleenarrendik, talde txiki bat bertan utzi zuten arren erasotzen segitez. Gainerako tropak arrapaladan abiatu ziren ihesean zihoazen mazedoniarren atzetik, eta, aurkitu zituztenak hil ondoren, Arrabeoren herrialdera daroan pasabidea, haitzarte hertsu bat muino biren artean, haiek heldu orduko okupatu zuten, jakinik Brasidasek ez zeukala alde egiteko beste biderik. Hura bidearen zati zailera hurbiltzen ari zenean, inguratzen saiatu ziren pasatzen ez uzteko.

**128.**— Brasidas horretaz konturatu zenean, berarekin zeuden hirurehunei agindu zien arrapaladan eta formazioa gorde barik bakoitzak ahalik lasterren aurrera egiteko hartzen errazena zela uste zuen muinoraino





eta jada han zeuden barbaroak handik egozten saiatzeko, inguratu nahi zituzten tropa barbaroen gehiengoak haiekin bat egin aurretik.

Erasotzaileek garaitu egin zituzten muinoetakoak, eta jada tropa Heleniarren gehiengoa errazago pasa ahal izan zen, zeren barbaroek ikaratu egin ziren eta ihes egin zuten itsumustuan, goienetatik erasotzen segitzea burutik kenduta eta jada mugan zeudela eta eskapatu zutela pentsatuta.

Goienez jabetu zenean, Brasidasek seguruago egin zuen aurrera, eta egun berean Arnisara heldu zen, Perdikasen erreinuko lehenengo herrira.

Soldaduek, mazedoniarrek eurei itxaron gabe alde egin zutelako zeharo haserre, topatzen zituzten idi-pareak, uhalaria kendu ondoren, hil egiten zituzten, edo mazedoniarrei, gauez eta izututa buruturiko erretrera batean espero izatekoa den moduan, galdutako edozein trepetxu topatzen zutenean, eurentzat hartzen zuten. Ordudanik Brasidas arerioztat hartzen hasi zen Perdikas, eta, aurrerantzean, bere sentimenduen artean peloponesoarrenganako gorroto sakona errotu ez bazen, atenasarrengatik izan zen; ekidin ezinezko baldintzatzaileen artean mugitu beharra bazuen ere, eginahalak egin zituen ahalik lastarren azken horiekin akordio bat egiteko eta haiengandik urruntzeko.

**129.**– Brasidas Mazedoniatik Toronora itzuli zenean, atenastarrek jada Menda okupatuta zutela aurkitu zuen. Handik zirkinik egin gabe, pentsatu zuen ezin zela Palenera joan hiriari laguntza ematera. Orduan Torona zaingopean edukitzea erabaki zuen, zeren Linkoko gertaerak jazo ziren aldi bertsuan atenastarrak Mendarantz eta Szionerantz itsasoratu baitziren, erabaki bezala, berrogeita hamar ontzirekin, euretatik hamar kiotark zirelarik, beren mila hoplitakin, seiehun arkularirekin, mila mertzenario traziarrekin eta inguruko aliatuen peltastekin; Nizeratoren seme Nizias eta Diitrefesen seme Nikostratoren agindupean zihoazen. Potideatik itsasoratu ondoren, Mendakoen kontra abiatu ziren. Hango biztanleak, Szionetik etorri zitzaizkien hirurehun lagunekin eta sorospen peloponesoarrekin batera, guztira zazpiehun bat gizon eta Polidamidaseuren burua, hiritik kanpo kanpatuta zeuden, defentsa sendoak zituen muinoan.

Nizias, Metonako ehun eta hogeit hamar soldadu arinki armatu, hirurogei hoplita atenastar hautatu eta arkulari guztiak lagun zituela, muinoko



lasterbide batean gora hurbiltzen saiatu zen, baina zauritu egin zuten, eta ezin izan zuen indarrez pasatzea lortu. Nikostratok, bere aldetik, gainerako tropekin luzeagoa eta iragaten zaila zen beste bide batetik jo zuenean eraso, nahasi-mahasi handia sortu zen soldaduen artean, eta ez zen asko gehiago behar izan armada atenastar guztia garaitua izateko. Mendakoak eta beren aliatuak egun horretan errenditu ez zirenez, atenastarrek atzera egin zuten kanpatzeko, eta Mendakoak beren hirira itzuli ziren iluntzean.

**130.**– Biharamunean, Szion aldetik itsasbazterrari jarrai, atenastarrak aldiriaz jabetu ziren eta egun guztia lurraldea deboilatzen eman zuten, kontra inor ere ez zetorkiela ikusita, hori hirian zerabiltzaten enfrentamenduengatik gertatzen zelarik. Gautu zuenean, hirurehun szionetarrak ere beren hirira itzuli ziren.

Biharamunean, Nizias Szioneko mugetaraino aurreratu zen eta eskualdea deboilatzen jardun zuen, Nikostratok gainerako tropekin hiri ondoan kanpatzen zuen artean, hain zuzen ere goiko ateen aurrean, Potidea-ra joateko bide inguruan.

Mendako tropak eta sorospeneakoak ere hain zuzen ere hantxe, harresien barrualdetik baina, kanpatuta zeudenez, Polidamidasek borrokarako eran formatu zituen eta irteera bat egiteko harenga egin zien. Orduan herri fakzioko batek, enfrentamendu zibileko egoerak bultzatuta, ihardetsi zion bera ez zihoala inora eta ez zuela borrokatu beharrik ikusten; ihardetsi bezain laster Polidamidasek besotik oratu eta herri fakziokoa ikaratu egin zelarik, herriak instant batean armak hartu zituen haserre eta peloponesoarren eta haiei beren fakzioaren aurka laguntzen zietenen kontra abiatu zen. Gainera etorri zitzaizkien eta izuaren izuz ihes eragin zieten hala bat-bateko erasoaldi horregatik nola atenastarrei atea ireki zizkietelako, besteek uste izan baitzuten eraso aldez aurretik atenastarrekin adostuta burutzen zela. Bizia berehala galdu ez zutenak lehenagotik okupatzen zuten akropolian babestu ziren.

Atenastarrek –itzulia zen jada Nizias eta hiri ondoan zegoen–, hirira sartu bezain laster, atea ez zituztenez akordio baten indarrez ireki, tropa guztien arpilaketaren mende jarri zuten hiria, konkistaz hartu izan balute bezala, eta nekez eragotzi zieten jeneralek bertako biztanleak hiltzea.

Gertaeron ostean, Mendakoei esan zieten euren hiria ohi zuten moduan gobernatzeko eta eurak izateko huts ematearen erruduntzat zituztenen



epaile. Akropolikoak itsasoraino heltzen zen horma batez isolatu zituzten alde bietatik, eta zaintzaile talde bat utzi zuten bertan. Mendako egoera menderatu zutenean, Szionera abiatu ziren.

**131.**– Szionetarrak eta peloponesoarrak bidera irten zitzaizkien, eta hiriaren aurrean kanpatu zuten defenditzen erraza zen eta bera okupatu gabe hiria hormaz inguratzerik ez zegoen muino batean. Atenastarrek indartsu eraso zieten, eta han zeudenak armaz kanpora ateratzea lortu zuten; orduan kanpatu egin zuten, eta trofeoa eraiki ondoren hiria hormaz inguratzen jarri ziren.

Ez asko geroago, atenastarrek lan horretan zihardutela, Mendako akropolian setiaturik zeuden tropa laguntzaileek zaingoa indarrez gainditu eta Szionera heldu ziren gauez itsasbazterrari jarrai eta, hiri ondoan kanpaturik zeuden atenastarren zaingoa gehienbat burlatuz, hirira sartu ziren.

**132.**– Szione setiatzeko horma eraikitzen zen bitartean, Perdikas heraldoen bidez atenastarrekin akordiora heldu zen, linkotarren herrialdetik atzera egin zutenean sortu zitzaion Brasidasen kontrako etsaitasunak bultzatuta, negoziazioak ere une horrexetan hasi zituelarik.

Garai horrexetan, hain zuzen ere, zeukan Lazedemongo Iskagorasek Brasidasi lehorrez tropak eramateko proiektua. Orduan Perdikasek, hala Niziasek, akordio bat sinatuta baitzeukan, atenastarrei zien leialtasunaren sendotasuna erakusteko egin zion deiak, nola hark berak peloponesoarrak bere erreinura heltzea gogoko ez izateak bultzatuta, eragina izan zuen bere ostalari tesaliarren –beti ere garrantzizko jende ospetsua ziren–, eta espedizioari oztopoak jarri zizkion, baita haren prestakuntzari berari ere, halatan, non lazedemondarrak ez ziren iritsi tesaliarren gogoa haztatzerare.

Hala eta guztiz ere, lazedemondarrek bidalita, Iskagoras, Aminias eta Aristeo Brasidasen aurrera aurkeztu ziren egoera ikuskatzeko eta, usadioaren kontra, gazte espartarrak eramaten zizkieten hirien buru jar zitzan eta hirietako agintea edozeinen ardurapean utz ez zezan. Kleonimoren seme Klearidasi Anfipolisen ardura eman zion; Hegesanderren seme Pasitelidasi, Toronarena.

**133.**– Uda berean, tebastarrek Tespiasko esparru harresitua suntsitu zuten, haiei atenastarrekin izandako kolaborazionismoa aurpegiratuta. Betitik une hori irrikatzen bazuten ere, parada hobia izan zuten atenas-



tarren kontrako bataila batean, non tespiastarren gainak eta loreak bizia galdu zuen.

Uda berean, halaber, su hartu zuen Argosko Heraren tenpluak, Krisis, hango emakume apaizak zinten ondoan lanpara bat biztuta utzi eta loak hartu zuelako, den-dena erre arte inor konturatu baino lehen. Argostarren beldurrez segituan ihes egin zuen Krisisek, gauez oraindik, Fliuntera, eta haiek, legearen arabera, Fainide izeneko beste emakume apaiz bat izendatu zuten. Krisisek gerra honetako zortzi urte eta erdiz jardun zuen apaizgoan, ihes egin zuen arte.

Uda amaieran Szione horma batez zeharo inguratuta gelditu zen, eta atenastarrek, han goarnizio bat utzita, alde egin zuten gainerako tropekin.

**134.**– Hurrengo neguan atenastarrek eta lazedemonдарrek ez zuten inolako jarduerarik burutu armistizioa zela eta; baina mantinearrek eta tegearrek, baita beraietako bakoitzaren aliatuek ere, elkarren kontra borrokatu zuten Orestideko Laodozion, eta garaipen eztabaidatua izan zen, zeren, alde bakoitzak etsaien ertz bati ihes eragin ziolarik, bando biek eraiki baitzituzten trofeoak, eta harrapakina Delfosera bidali. Egia esateko, alde bietan galera handiak gertatu eta bataila ezbaian gelditu ondoren gauak eten zuelako, tegearrek han bertan kanpatu zuten eta trofeoa eraiki zuten, eta mantinearrek, ostera, Bukolionera alde egin zuten eta gero eraiki zuten.

**135.**– Negu berean, haren amaieran eta udaberriaren hasieran, Brasidasek ahalegin bat egin zuen Potidearen kontra. Gauez hurbildu eta hormaren kontra jarri zuen eskailera ordura arte inor konturatu barik. Zentinelak batek besteari kanpaitxo pasatu eta bere postura itzultzeko tartea aprobe txatu zuen eskailera kokatzeko; baina gero, zentinelak inor eskaileran gora igo aurretik ohartu zirelarik, atzera egin zuen agudo bere tropekin eta ez zuen itxaron eguna zabaltu arte.

Amaitu zen negua, baita Tuzididesek idatzi zuen gerra honen bederatzigarren urtea ere.





*Aurkibidea*

HITZAURREA..... 7

BIBLIOGRAFIA..... 27

I. LIBURUA..... 31

II. LIBURUA ..... 179

III. LIBURUA..... 297

IV. LIBURUA ..... 415

